


# Enseiukarrean

Joan Otaegi  
Joseba Lakarra  
Alfonso Irigoien  
Xabier Kalzakorta

Juan Manuel Etxebarria  
Rikardo Zierbide  
Adolfo Arejita  
Rosa Miren Pagola

Iratxe Zuazola  
Aritz Urien  
Sonia González  
Itziar Urrutia

13. zenbakia



Deustuko  
Unibertsitatea

.....

Euskal Ikaskuntzen  
Institutua

enseiucarrean

# Enseiukarrean



# Enseiukarrean

Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria

**13. zenbakia**

Bilbo  
Deustuko Unibertsitatea  
1997

**Zuzendaritza:**

Joan Otaegi  
Igor Varona

**Erredakzioa:**

Josu Arroyo  
Ainhoa de Diego  
Xabier Kalzakorta

Iratxe López  
Joan Otaegi  
Igor Varona

**Kolaboratzaileak:**

Adolfo Arejita  
Juan Manuel Etxebarria  
Alfonso Irigoien  
Xabier Kalzakorta  
Joseba Lakarra  
Joan Otaegi

Rosa Miren Pagola  
Rikardo Zierbide  
Sonia González  
Itziar Urrutia  
Igor Varona  
Iratxe Zuazola

**Batzorde Kontseilaria:**

Euskal Ikaskuntzen Institutuko Zuzendaria  
Joseba Abaitua  
Juan Manuel Etxebarria  
Joan Otaegi  
Jesus Uranga

**Marrazkiak:**

Alazne Odriozola

**Argitalpena:**

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila  
1 Posta Kutxa - 48080 Bilbo  
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

**Zabalkundea:**

Ediciones Mensajero  
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo  
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Paper ekologiazkoan irarri argitalpena

ISSN: 1130 - 9192

Legezko gordailua: BI - 1.113-92

Fotokonposaketa: IPAR, S. Coop.  
Particular de Zurbaran 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 Erandio (Bizkaia)

## Aurkibidea

---


Editoriala	11
Euskal errefrauaz mahaingurua:	17
Joan OTAEGI, <i>Mahaingurua kokatu nahiean</i>	19
Joseba LAKARRA, <i>Filologi-ikerketak Refranes y Sentencias-ez: Historia eta Kritika</i>	23
Alfonso IRIGOIEN, <i>Hizkuntzaren historiarako osagaiak Refranes y Sentencias-en</i>	77
Juan Manuel ETXEBARRIA, <i>Zeberiko esaera zaharrak etnografia bidetik</i>	85
Xabier KALZAKORTA, <i>Euskarazko eguraldi errefrauak</i>	93
Alfonso IRIGOIENEN ekarriaz mahaingurua:	143
Juan Manuel ETXEBARRIA, <i>Alfonso Irigoienek ekarria</i>	145
Rikardo ZIERBIDE, <i>A. Irigoien eta euskal eta Pirineo inguruko toponomastika</i>	147
Adolfo AREJITA, <i>Alfonso Irigoienek linguistika ekarriaz</i>	155
Rosa Miren PAGOLA, <i>A. Irigoien eta euskal dialektologia</i>	163
Xabier KALZAKORTA, <i>A. Irigoienek poesiaz harripausu bat edo beste</i>	167
Iratxe ZUAZOLA, <i>Egingarria al da dialektologia estrukturala?</i>	185
Joan OTAEGI, <i>Gandiagaren poetika Elorri-n</i>	205

Aritz URIEN, <i>Gandiagaren poetika printzak</i> Uda batez Madri- len <i>poemategian</i>	221
Sonia GONZÁLEZ, <i>Bertso librearen inguruan</i> Imanol Irigoienen zen- bait <i>poemaz baliatuz</i>	237
Itziar Urrutia, <i>EUSEIUKARREAN</i> aldizkariko <i>aurkibide orokorra</i>	263

---

13. zenbakia







## Editoriala

Orain aurkezten dizugun urrats berri honetan, irakurle, Deustuko Unibertsitateak eta bertako Euskal Ikaskuntzen Institutuak argitara atezten duten euskal linguistika eta literaturaren inguruko *Enseiukarrear* aldizkariak joandako ikasturtean euskal filologiak bizi izandako bi gertaera garrantzitsuren oihartzun izan nahi du: batetik, Iruñean 1596an argitaratu zen *Refranes y Sentencias* bildumaren lahehungarren urteurrena dela eta unibertsitatean ospatutako mahainguruua dugu; honen harian ezin aipatu gabe utzi egin berri den *R.S.*-en berrargitarapenaren bidez euskaldunok aspaldidanik ordaintzeke genuen gure literatura zaharrarekiko zorra kitatu dugula. Bestetik, euskal linguistika historikoak eta orohar euskal filologiak hainbeste zor dioten eta etxe honetan urte luzez irakasle izan den Alfonso Irigoien (G.B.) maisu handiaren heriotzak gure artean utzitako hutsunea, gure apalean harenganako eskerronaz bete nahi izan dugun hutsunea; hor duzu, bada, Alfonsoren ekarriari buruz unibertsitatean ospatutako mahainguruak ekarritakoa. Hauexek izango ditugu, funtsean, literatura alorreko hainbat artikulurekin eta bestelako lanekin batera, gure aldizkariaren 13. ale honen ildo nagusiak.

*Refranes y Sentencias* bildumaren gaineko mahainguruan Joseba Lakarrak, Alfonso Irigoienek, J.M. Etxebarriak eta Xabier Kalzakortak parte hartu zuten.

Lakarrak, xvi. mendeko errefraua bildumen aztertzaile nekagabeak, *R.S.*-en inguruan dauden arazo historiko eta genealogikoez hitzegingo digu, bai eta irizpide filologiko zorrotzetan oinarritutako bere uste edo hipotesiak agertuko ere. Horretarako lau alderdi nagusi jorratzen ditu: Garibairen bildumen eta *R.S.*-en arteko erlazioa, Hernán Núñez-en bildumaren eta *R.S.*-ren artekoa, *R.S.* osoak izan zezakeen tamaina eta azkenik bildumaren jatorria.

*Alfonso Irigoien bestalde, R.S.*-eko errefrauon hizkuntzaz ariko zaigu, alegia, errefrauon hizkuntzak euskararen historia ezagutzeko eskaintzen dizkigun osagaiez —errefrauon berezko izaera aldakaitzak, edo nahiago bada, arkaikoak, horretara laguntzen duelarik—. Aditz sistema da, aoris-toa eskuarki, Alfonsok gehienbat jorratzen duen gaia.

Hurrengo bi artikuluei dagokienez, Xabier Kalzakortak XIX. Mendeko errefrau bildumez diharduela aurreratzen dizugu, bereziki eguraldiaren inguruko atsotitzak aztergai dituela eta Jose Migel Barandiaranen etniker taldeetan ibilia den J.M. Etxebarriak oraindik herriaren ahotan dabilzan errefrau bilketan erabilitako metodoa (etnografikoa) zertan den azalduko digu. Horrez gainera, Zeberio inguruan jasotako zenbait errefrauaren bidez bere esperientzi pertsonalaren berri emango digu, lan honetan aurkitu dituen oztopoak eta hauek gainditzeko bideak esplikatuz.

Alfonso Irigoienek ekarriaz berriz, Adolfo Arejita, Rikardo Zierbide, Rosa Miren Pagola eta Xabier Kalzakorta ariko zaizkigu. Maisuaren lana hain aberatsa eta zabala izanik, aipatu irakasle bakoitzak Alfonsok landutako arlo bana jorratuko du, ahalik eta modu osoenean izan dezagun haren ekarpen multidiziplinarraren berri. Arejitak morfologia eta sintaxi mailako azterketak ikutuko ditu, hizkuntzaren historiari dagozkionak nabarmenduz, besteak beste. Rikardo Zierbidek, bere aldetik, Irigoienek toponomastikaren esparruan egindako ibilbide neketsu bezain emankorra laburbildu ondoren, R.M. Pagolak maisuaren hizkuntz-ikerketek euskal dialektologia sinkronian zein diakronian aztertu nahi duenarentzat duten balioaren eta Irigoienek euskalkienganako jarreraren berri emango digu. Azkenik, gizon polifazetikoa izaki, Alfonsok pintura eta literatura munduan eginiko saioei ere leku egin nahi izan diegu, hau da, Xabier Kalzakortaren eskutik ezagutuko dugun Alfonsoren sormen munduari: haren sonetoak, prosazko testuak, Aresti, Blas de Otero eta Celayarekin izandako harremanak, herri literatura (bertsolaritza) eta testu klasikoenganako (Leizarraga) zaletasuna e.a.

Mahainguruak alde batera utzita, *Enseiukarreen*-en ale berri hau bestelako lau lan gehiagoz hornitua dator, lehenengo linguistika alo-rrekoa (itzulpena) eta gainerantzeko hirurak literatura kritikaren inguru-koak.

Iratxe Zuazolak itzulitako Uriel Weinrich-en artikulua ikaskuntza es-  
trukturalen eta dialektologikoen arteko aldea murriztu eta alderdi biek  
onartuko luketen hizkuntzari buruzko teoria bateratu batean oinarritu-  
tako dialektologia estrukturalaren egingarritasunaren aldeko saioa da.

Jarraian dituzuen bi artikuluek Gandiagaren poesia jorratzen dute. Lehenengoak Bitorianoren lehen poema liburua du aztergai, *Elorri* ale-  
gia, eta aldizkari honetako aurreko aleetan autore berak, Joan Otaegik,


argitaratutako lanen jarraipena dugu. Baldin eta orain artekoetan alderdi konkretuak, hots, sinboloaren interpretazioak izan baditu aztergai, gaurkoan poema liburua bere osotasunean hartu eta, moeta hone-tako artikulua batek halabeharrez eskatzen dituen mugen barnean, obraren poetikaren azalpen orokorra eskuratzen digu Otaegik.

Aritz Urienek, bestalde, Gandiagaren ibilbide poetikoan aurrera egin eta «JENDEA» izenburua daraman *Uda batez Madrillen* poemategiko laugarren atalari erreparatuz, obra honen poetikaren giltzen bilaketan dihardu eta horretarako poemen espazialitatean, hitz eta esaunden prismaduretan (hitz eta esaeren erabilera anitzetan), musikalitatean, zentzuen somamenean eta erabilitako tematikan barrena abiatuko da.

Literatura kritika saileko azken saioa bertso libreari buruzkoa dugu. Sonia Gonzálezek, bertso librearen ezaugarri orokorrak eta erritmo teknika nagusiak zirriborratu ondoren, Imanol Irigoienen *Argiaren barne-distantziak* poemategiko hainbat piezatan nola hezurramitzen diren aztertzen du.

Hauxe duzu bada, irakurle, 13. ale honek eman duena. Oraindik elkarrekin bidaia luzea egin behar dugulako esperantzan eta beti ere zorronean lehorreratuko garelako gure ustearen iparrorratz okertezina den zure arreta eta interesak seinaturaluriko norabidetik alden ez gaitetzen, atzera begiratu eta orain artean hizkuntza eta literaturaren itsasoan barrena pausaleku izan ditugun uharteei begirada bat eman nahi izan diegu. Hala, hortxe aurkituko duzu, bukaera aldean, Itziar Urrutiak paratutako aurreko hamabi aleetako bibliografia osoa, zenbakiz zenbaki, egilez egile eta gairik gai. Hamairugarrentxo ale hau, sineskeriazale ez garen arren gurutza ditzagun badaezpada atzamarrak, aurrekoak bezain osasungarri, betegarri eta gozagarri gertatuko ahal zaizu!









# Euskal errefrauaz mahaingurua<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> R.S.-en mendeurrenean egin zen mahainguru hau Deustuko Unibertsitatean, 1996ko abenduaren 4ean.



# MAHAINGURUA KOKATU NAHIEAN

Joan Otaegi

Iruñan 1596an argitaratu zen *Refranes y Sentencias* bildumaren la-  
rehungarren urteurrena dela eta bilduak gara mahainguru honetan,  
Deustuko Unibertsitatean. Euskal hizkuntzalari guztik du motiborik  
asko bilduma horren inguruan gogoetan eta ikerketa lanetan ahalegin-  
tzeko. Baina Deustuko Unibertsitatea modu berezi batean deitua senti-  
tzen dela iruditzen zaigu, hain zuzen, *RS bilduma gehienbat bizkaieraz  
baitago idatzia*.

Ohore da hemen bildu garen guztiontzat, Bizkaiko lau gizasemeok,  
Euskal Herriko Unibertsitateko Joseba Lakarra eta Deustuko Unibertsiti-  
tateko Alfonso Irigoien, Juan Manuel Etxebarria eta Xabier Kalzakorta  
irakasleak gurekin izatea, *Euskal errefrauaren inguruan* deitu dugun  
mahainguru honetan. Batek luzean luze jo duelako, gure Alfonso Iri-  
goienek, Unibertsitateko irakasletza urte askotakoan arlo zabalak urra-  
tuz irakatsi duelako; besteek, Joseba Lakarra, Juan Manuel Etxebarria  
eta Xabier Kalzakortak, laburragoan luze jo dutelako, urte gutxiagotan  
eremu handiak arakatzuz dabiltzalako.

Bakoitzari bere arloa ukituz abia gaitezen: Joseba Lakarrak presta-  
tua du *RS* deitu bildumaren berrargitalpena eta eginak ditu ikerketak  
bildumaren historiak eta autoreaz. Alfonso Irigoienek bilduma hori az-  
tertua du hizkuntzaren historiaren aldetik, bai eta beronen barruko  
zenbait mikrosistemarenetik. Xabier Kalzakortak euskal errefrauaren bil-  
duma ezberdinak azertuak ditu, hala XIXgarren mendekoak; era be-  
rean, errefrauaren munduko zenbait arlo berezi ere. Juan Manuel Etxeba-  
rriak errefrau munduak etnologiarekin dituen harremanak landu ditu,  
errefrauaren ahozko erabileraren jasotzaile agertu delarik bestalde.

Beraz, mendeurren batek —hain zuzen, Iruñan, 1596an argitaratu-  
tako *Refranes y Sentencias*-en larehungarren mendeurrenak—, eragin  
baditu ere Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatea  
eta Euskal Ikaskuntzen Institutua mahainguru hau eta Julia Sevillaren  
errefrauei buruzko hitzaldia antolatzeraz, mahainguru honek eta Julia

Sevillaren hitzaldiak ez dute haren oroitzapen hutsa izan nahi, baizik eta errefrauak herriaren bizitzan, honen kulturaren, hizkuntzaren forma gauzatzean, giza kolektibitatearen pentsamendua adieraztean, eta guzti honen bidez gure herria mendebaldeko pentsamenduan nola txertatu den ikustean eta mendebaldeko pentsamendua nola jaso duen eta bere hizkuntzan txertatu duen aztertzean eta euskal hizkuntza eta errefrau mundua benetako koordinadetan kokatu nahi dute aldi berean.

Gure nahirik biziena zen hemen mahaian dauzkagunekin batera Deustuko Unibertsitateko Gotzon Garate izatea. Izan ere, hamaseigarren mendean bai Esteban de Garibaik (1592/1) bai autore ezezagunek —Hala nola *Refranes y Sentencias*-en (1596) egileak— hasi zuten biltze, itzultze eta argitaratze lana, eta hamazazpigarren mendean Voltaire (1620), Lope de Isasti (1625), Oihenart (1657 [?]) eta Belak jarraitu zutena, eta ondoko autore eta mendeetan gauzatu ziren bildumek gure mende honetako lanen, ikerketen eta bildumen osotasuna izan dutelarik, horien presentzia sendoagoa zuketean Gotzon Garatek eskuartean darabilen herriagandik jasotako bilduma bikaina aurkeztu ahal izan balu.

Dena den, errefrauaren eta esaeren bilduma horiek guztiek dei bat egiten digute: hizkuntzak hor hartu dituen formak eta literatura eske-mak aztertuak izan daitezten. Hizkuntzaren diakroniari dagozkion argibideak bilduma horietan ere miatuak izan daitezten. Era berean, historiari dagozkion ilungunak eta autoreari dagozkionak argituak izan daitezten. Bai eta beste hizkuntzetako bildumekin gonbaratuz zer pentsamendu eta formula amankomun ditugun eta zer geure mundutik sortutako dugun somatzen joan gaitezen.

Guzti honetan eredu izan ditugu, lehenengo, Van Eys bera, Alemaniako Darmastad-eko Gran Ducal liburutegian aurkitu eta berrargitaratu zuelako 1596ko *Refranes y Sentencias* bilduma, joan den mendearen amaieran, hain zuzen liburuararen hirugarren mendeurrenean. Gogoangarriak dira mende honetan Julio de Urquijok *RIEV*-en egin zuen *Refranes y Sentencias*-en berrargitalpena; batez ere, haren azterketa eta erudizioan oinarritutako literatura gonbaratuaren arloko lan handia.

Haren ondotik, Koldo Mitxelenak ikuspuntutik, lexikoarenetik eta abar zenbait argitasun ohi zuen zehaztasunez eman zituen. Gure egunotan, aurrelari izan ziren horiek ezarri zituzten mugarriak harantzago eramaten ahalegin handiak egiten ari dira mahaian ditugun ikerlariak.

Beraz, eurei hitza emanez, bakoitzak bere aldia du dagokion arloari buruzko galderei erantzuteko. Honela bada:

Joseba Lakarra, zuk aztertuak dituzu *xv*garren mendeko bizkaierazko bildumak; aldi honetan aztertuak dituzu aurrekoen eta *RS*-en inguruan dauden arazo historikoak; proposatu duzu *stemma*, zuhaitz genealogikoa. Zein dira, bada, arazo historiko horiek? Eta zer esango zenuke *RS*-en autoreari buruz?

Alfonso Irigoien, besteak beste, hizkuntzaren historiaren ikertzaile zara. Ikertu dituzu *RS*-en eman zaizkigun testuak. Hizkuntzaren historiari dagokionez zer azpimarratuko zenuke? Eta zer aditz sistema ageri zaigu *R.S.*-en?

Xabier Kalzakorta, *xix*garren mendeak ere ekarri dizkigu erretra bildumak; zuk aztertuak dituzu. Zein dira bilduma horiek eta zer nolakoak? Gainera, azaldu eiguzu erretra munduko arlo berezi bat, eguraldiarena.

Juan Manuel Etxebarria, Jose Migel Barandiaranen etniker taldeetan ibilia zara. Zer baliabide damaigu lan honetarako Jose Migel Barandiaranek proposatu metodoak? Eta zuk zeuk nola egin duzu erretraen bilketa?



# FILOLOGI-IKERKETAK *REFRANES Y SENTENCIAS-EZ*: HISTORIA ETA KRITIKA

Joseba A. Lakarra

## 0. Sarrera\*

Deustuko lankideen eskariz *Refranes y Sentencias*-ez esandakoen artean garrantzitsuena (edota, agian hobea, ikerketen bilakabidean eraginkorren iruditu zaidana) biltzen saiatu naizelarik, alde batera utzi behar izan ditut ez soilik eskuliburutako bigarren eskuko berriemateak baina baita *RS* baino garai edo lur-eremu zabalagoa hartuaz bilduma hau bere ikergai nagusi egin ez dutenak ere, askotan (Lafon 1943, Mitxelena 1954, 1958, 1977a, esaterako) *RS*-ekiko jakingarri asko izan arren bertan<sup>1</sup>.

Honako hau moldatzerakoan ez dut jo sailkapen eta iruzkinean aipatutako lanen kronologiaren arabera, baizik eta *RS*-en inguruko azterketetan ezagutu uste ditudan lau alderdi nagusien arabera:

- a) Garibairen bildumen eta *Refranes y Sentencias*-en arteko erlazioa;
- b) Hernán Nuñez-en bildumaren eta *RS*-en artekoa;
- c) *RS* osoak izan zezakeen tamaina;
- d) bildumaren jatorria.

---

\* Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak eta EHU-k lagundutako bi ikerketa proiekturen barnean kokatzen da.

<sup>1</sup> Bibliografian zehazten dira lan hau amaitua zelarik argitaratu diren Xabier Kaltzarkorta, Alfonso Irigoyen eta Juan Mari Lekuonaren hiru lan *RS*-ez; ez dirudi, ordea, hemen esandakoari zirkular handiegirik egiten diotenik. Nirearekin zuzenean zerkusirik izan ez arren, aipagarri deritzot Txomin Peillenen «Jakes Belakoaren erran zaharrak eta filofosofia» (*Euskera* 41, 1996, 769-789) zuberotarraren dozena bat erretrau artean ezezagunekin; ikus Lakarra prestatzen-ari dena ere.

Ikergai hauok ez dira ez beren arteko loturarik gabeak: azken atalean ukitzen ditudan RS-en hizkuntzari buruzkoak, gutxi asko, orotan dira ageri; bestalde, a) eta b) beren artean gainerakoekin baino are espektatuago iruditzen zaizkit; alabaina, ez zituen, agerriki, bederen, kontuak horrela ikusten arlo bietan ihardun zuen Urquijok...

Lan honetan zehar agertzen diren datu, uste, hipotesi eta (era guztietako) emaitzak egileak azken hamabost urteetan egindako edo hasi eta amaikizun diren beste zenbaitetakoen zordun dira. Irakurle berezi bi izan ditut urteotan gogoan RS eta bizkaiera zaharraz aritu naizen orotan: Koldo Mitxelena eta Alfonso Irigoyen<sup>2</sup>; aurki ailezate biek beren gogokorik ondoko orrialdeotan.

### 1. **Garibairen bildumak eta *Refranes y Sentencias***<sup>3</sup>

Esteban Garibai (GA), erregearen kronista famatuak, bere oroitzapenetan dioskunez bi errefrau sorta osatu zituen Juan de Idiaquez kortisauaren eskariz (*apud* Urquijo 1919: 505): Urquijok (U) erakutsi duen bezala, bi bilduma horiek ez dira guganaino eskuizkribaturik heldu, baina bai 17. mendeko *Refranes en Bascuence compuestos por Esteban de Garibay y Çamalloa*, Madrilgo BNean G139 zenbakia daramana (1919: 505-9); bestalde, B. Maestrek Francisque Micheli 16. mendeko kuadernotxo bat erregalatu zion euskal errefrauerekin eta hilen eta egunen izenekin gehi zenbait aditzekin Madrilen zenean 1846an, eta horretaz baliatu zen hau Oih-i buruzko liburuan errefrauak eraskin gisa emateko. U-k jakin zuenez (1919: 508) Cc79 zen, hain zuzen, Madrilgo BNTik aspaldi falta ziren *Refranes del Vascuence* batzuen zenbakia eta, nahiz eta honetaz ez dioen ezer Francisque Michelek (agian ez komeni) handik ilkiak errefrauak. Dakidanez, orain arte gai hau ukitu duten guztiak ados dira bigarren bilduma GA-rena dela esatean, 16. mendeko beste biltzaileraren izenik ez ezagutzeaz at, GA-k bere bigarrenaz zioenari ongi baitagokio. Alabaina, eta lehendabizikoa, hori ere GA-rena ote?

---

<sup>2</sup> Irigoyen soilik azken urteotan aritu da beren beregi RS-ekin (cf.); alabaina Gorostiak eta bestek «hizkuntzaren historiaren entziklopedia» deitutako honen ezagutza bere lehen lanetarik ( ) ageri da.

<sup>3</sup> Gehienbat, Lakarra 1986a-ren laburpena da atal hau.



### 1.1. *Urquijoren hipotesia*

Julio Urquijo ezezkotan zegoen; izan ere, aurrerantzean Zubiaur eta Arzamendirekin (1976) A eta B deituko ditugun bi sortak gonbaratu ondoren 37 errefrau errepikaturik aurkitzen dira bietan (cf. U 1919: 509): A 1-2-3-4-5-6... / 29-1-7-17-2-51... Hara U-ren iruzkina:

Hay, por lo tanto, en las dos colecciones un fondo común de 37 refranes, y si, como es probable, la del siglo 16, es decir la Cc 79, es la de Garibay, no parece poder admitirse que la G 139 sea copia exacta de ninguna de las dos enviadas por Garibay a Idiáquez, y mucho menos copia y compilación de las dos. A mi juicio la colección G 139 podría ser de algún vascófilo muy posterior, el ms. es del siglo 17, que la compuso teniendo a la vista la de Garibay, pues no parece probable que este enviara a Idiáquez por segunda vez 26 refranes [sic, 37en ordez], que ya le había enviado antes. Esta razón y las que expuse en mi Preámbulo a *Los refranes vascos de Sauguis*, me indujeron a proponer, aunque con gran desconfianza, la hipótesis, de que una de las colecciones de Garibay fuera la anónima de 1596, hipótesis acerca de la cual no me extendiendo aquí, pues es más natural vuelva a tratar de ella en mi introducción al comentario del unicum de Darmstadt (U 1919: 510).

Damurik, ez zuen inoiz atera *RS*-en ondoren eman nahi zuen «sarrera» hori; bilduma horren argitalpena *RIEV*-en 1933ko alean bukatu zen eta U lana prestatzen ari bazen ere ez zuen argitaratzerik izan, ez segurki gogo eta datu faltaz. Lan horren peitu, hara zer zioen *RS*-en egileaz Zalgizeren errefrauen argitalpenari jarri zion hitzaurrean:

No se tiene la más remota idea de quien fuera el autor o coleccionador de *Refranes y Sentencias*, ni me consta que nadie haya mostrado vehemente deseo de averiguarlo. La fecha de la impresión, juntamente con algunas otras coincidencias, ha despertado en mí la *sospecha* (observe bien el lector que no digo el *convencimiento*), de que tal vez no fueran ajenos a dicha publicación D. Esteban de Garibay y Çamalloa o su amigo Don Juan de Idiáquez (U 1908-9: 682).

**1.1.1.** Uste honen atzetik goian ikusi U-ren GA-ren errefrau bildumei buruzko teoria dago, hots, GA-ren bi bildumetarik soilik bat eza gutzen dugula (B), bere izenean dabilen bestea (A) ez bailitzateke berea baina norbaitek haren materialez baliaturik osatua. Beraz, 1596koa izan daiteke —U-k oso zuhurki gaztigatzen du ez duela azken hitza esan nahi— faltatuko litzaigukeen GA-ren bigarrena (U 1908: 683).

**1.1.2.** Bost arrazoi ematen ditu *RS* GA-k egindakotzat edukitzearen alde (1919: 684-6):

1. G-k 1592an eta urte horren aurretik edo bidali zizkion bere erre-frau sortak Idiáquezi eta 1596an argitaratu zen *RS*; ez da ezinik, beraz, alde honetatik.
2. 1596ko bilduman Bizkaiko eta Gipuzkoako handi mandiei buruzko erre-frauk dira eta ez zen garai hartan GA baino genealogista hoberik horrelakoak ezagutzeko; bere gainerako lanetan ere ezarri zuen, halaber, haiei buruzko zenbait bertso eta esaera.
3. Delako handi-mandiok (Butroe, Muxika, Iburguen, Olaso) Idiáquezen familiakoak ziren eta, baita, agian, GA-renak ere; ez litzateke harritzekoa horiekiko esaerak bai GA-k eta baita Idiáquezek ere ezagutzea eta are biltzea.
4. Idiáquez, dakigunez bederen, ez zen Iruñean bizi; bai, ostera, haren semea eta honek hiru liburuxka argitaratu ere zituen; hortaz, agian, *RS* ere horrela iritsi bide zen inprimategira hiri hartan.
5. Azken arrazoa *RS*-en hizkerari dagokio. Aurreko ikerlarien iritziak batzen ditu U-k berea eman baino lehen: van Eysek bere 1896ko argitalpenaren hitzaurrean bilduma gip-z dela dio, nahiz eta bizk-ren eragin nimiñoa ere izan; Vinsonentzat erre-frau gehienak gip-z dira baina badira bizk-zko hainbat eta baita hegoaldeko eta iparreko GNzko batzu ere. Larramendirentzat (L) *RS*-etako hizkera gip eta bizk-ren nahaste bat litzateke, baina bigarrena nagusi delarik eta Azkuek, azkenik bizk hutsean direla dio, nahiz eta egun zenbait hitz Bizkaian ez erabili eta bai Lapurdin. U-ren aburuz *RS* Arrasaten 16. mendean hitzegiten zen legez idatziak izan daitezke:

Ahora bien: dada esta mezcla de ambos [bizk. eta gip. Larramendik esan bezala] dialectos en el texto en cuestión y teniendo en cuenta que aun cuando el pueblo en que nació Garibay forma parte de Guipúzcoa, pertenece por su habla al dialecto vizcaíno, ¿sería temerario suponer que los *Refranes y Sentencias* estuvieran redactados en su mayoría en el vascuence que se hablaba en Mondragón en el siglo 16? Suposición es ésta que a mi entender no debe ser echada en olvido (U 1908: 683)<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Eta, berak hori ezin segurtaturik, honela amaitzen zuen: «Nadie está quizás en mejor situación para averiguar lo que en ella pueda haber de cierto, que el genealogista mondragonés y colaborador de esta *Revista sr. de Guerra*» (ibid). Guerrak *RIEV*-en hurrengo alean argitaratu zuen gutun batez ihardetsi zion U-ri, haren hipotesi guztiak goitik behera onartuaz. *RS*-etako erre-frauk irakurri ondoren gehienak Oñati, Arrasate,

## 1.2. *Hipotesi berri bat*

1985 arte gai hau ukitu zuten guztiak ados ziren bilduma bata GA-rena dela esatean, 16. mendeko beste biltzailereren izenik ez ezagutzeaz at, GA-k bere 2.az zioenari ongi baitagokio. Alabaina, eta lehendabizikoa, hori ere GA-rena ote? U ezezkotan zegoen.

Lakarra 1986a-n A —zehazkiago W, honen orijinala— eta B GA-rena direla frogatzen saiatu nintzen. Sei arlotan banatu nituen ene arrazoibideak: batetik, bildumen tamaina, A-ko kopiagilearen egileazko lekukotasuna, A eta B-ko errefrauen ordena, hizkuntza, A osatzeko B ez den beste orijinal baten beharra eta A eta B-ren grafiazko loturak; bestetik RS ez dela GA-rena baina egile ezezagun bat(zur)ena erakutsi gogo nuen. Honetarako bi eratako argudioak erabili nituen, grafiazkoak eta hizkuntzazkoak, aurretiaz U-k RS-ei buruz eraikitako teoriaren ahuleziak agertu ondoren. Bi atalak dira elkarren osagarri, bateko gogoeta eta ondorioek bestekoak laguntzen eta indartzen dituztelarik; ene ustez, bata zein bestea aski litzateke U-ren teoria deuseztatzeko. Alabaina, biak ukitu nahi izan nituen haren ordeko baten oinarriak sendotzeko.

**1.2.1.** *Cuaderno* hitzak ez du egun esanahi bakarra, edo hobe, «orri bilduma ez handiegizat» ulertu ohi bada ere, bildumaren tamaina eta baita orriena ere aski ezberdina izan ohi da batetik bestera. GA-k osatu zituenak, aldiz, tamaina berekoak edo beretsukoak bide ziren «un quaderno» eta «otro dellos» bidali zituela esateko, 2. sorta handiago edo txikiago zen markatu gabe, lerroz-lerroko itzulpena eman zuela markatzen duen bezala. Ez bide zuen horrelako zehaztasunik egiteko beharrik, ordea, hitzak berak aski baitzioen garai hartan tamainaz; hots, orain baino askozaz tamaina mugatuagoa zedukan quaderno batak. Bada, 12 orrialde ditu A-k eta 28 B-k Michelek zioenez, baina gogora bedi 2. honetan euskarazko hilen eta egunen izenak eta zenbait aditz ere bazela —eta B-ko errefrauen gaztelerazko azalpenak luzeago direla—; bata 64 errefrau ditu eta 63 besteak, biek dituztela-

---

Aramaio, Otxandio, Legutio eta Arratiako inguruetan bilduak lirateke haren ustez, bere bulegora zetozen baserritarren hizkeraren antza baitzuten (cf. U 1909: 144-5). Halaber, Guerraren ustez Idiaquezen eskariari hobeki erantzuteko GA-k alde hartako herkiderei eskatu, eta haiak bidali datuez osatuko omen zuen RS bere sorta (ibid): Azkue ere ez omen zen RS GA-ri leporatzearen aurka U-ri beste gutun batean ziotsoez (*ibid.*); alabaina, honentzat, geroago M-rentzat (1961: 21) bezala, Arrasateko hizkeraren baino Orozkokoarenaren antza handiagoa zuen RS-etakoak; dena den, U-k dioenez, zailtasun hori gainditzen omen da alde hartako laguntzaileak erabili zituela suposatuz (1908-9: 145). Bestalde, RS-etan ba omen da Orozkon ez baina Leintz aldean erabiltzen den formaren bat, 517 *beranquetan* edo *emaiten* bezala (ibid.).

rik gaztelerazko lerroz-lerroko itzulpenak eta oharrak hitzen eta erre-frauen erabileraz, bidenabar, *RS*-etan behin ere agertzen ez direnak. Bestalde, *RS*-en orijinala Darmstadt-eko alea (D) baino luzeago ez balitz ere —ikus §— 64 orrialde ditu, 16 *pliego* beraz; tamaina diferentzia handiegia A eta B-rekin ezer esangabe uzteko eta sorta larriegia «otro quaderno» soilarekin askiesteko.

**1.2.2.** Ez bide da alferrikakoa A-ren izenburua gogoratzea: *Refra-nes en Bascuence compuestos por Esteban de Garibay y Çamalloa*. Zergatik jar zezakeen izenburu hau inork baldin eta GA-rena ez balitz? U-k nahi bezala GA-ren bilduma batz (B-z) baliaturik egina balitz ere ez zukeen horrelakorik jarriko eta bai «urliaren bilduma», edota, zintzoago izanik delako urlia hori, «Urliak GA-ri erantsitako errefrauak», «GA-renetarik atera eta Urliak erantsitako errefrauak» edo antzeko zerbait; zeren eta zer zentzu du GA-ren izenean jartzeak harenak ez diren hainbat, ia sortaren erdia inguru?

**1.2.3.** Ez dirudi A osatzeko B erabili zenik, bien gonbaraketarik ari-nena ere horren kontra mintzatzen baita ozenki. Ikusi ditugu gorago A eta B-k batera eta bakoitzak bere aldetik dituzten errefrauak. Alabaina, gonbaraketa horrek ezer erakutsiko badu ez da A / B ordenan egin behar U-k egin bezala, baizik eta B / A alderantzizkoan, soilik horrela ikus baitaiteke U-k arrazoirik izan dezakeen A bilduma B eta beste zen-baitzez materialez baliaturik beranduagoko euskaltzaleren batek egina dela esateko. Horrela eginaz, ordea, A-ren egileak B erabili zuela supo-satuaz oso gertaera bitxia agitzen da, zeharo azalduezina U-ren hipote-siaren barruan: A-ren egileak 37 errefrau hartuko lituzke B-tik *baina behin ere bi segituan hartu gabe*, nahiz eta inoiz sorta hartatiko beder-atzati bata bestearen atzetik eman, eta usu hiruzpalau. Jauziak, gainera, handiak dira B-tik hartuak ziratekeenen artean: 2-5, 28-25-3-19-58-56-46, 4-12-45...

**1.2.4.** Soilik B-ko 56-57-58 zenbakiei dagozkien A 32-34-33.ek dirudite salbuespen lehen soan; hurbilagotik begiraturik, ordea, era-bat ezberdinak dira ondorioak. Begibistakoa da guztien arteko lotura: hirurak dira hiru euskal herriri dagozkionak, eta hirurek dituzte /b/-z hasten diren herrion izenak esaldi hasieran; beste datu guztiei bildurik honako honek ez du batere laguntzen U-ren hipotesia eta bai, aldiz, kontrakoa. Hots, A zein B GA-renak balira eta suposatuko bagenu bietan —bigarreanean, bederen— gogoratu ahala paperean jarriak di-rela bertako errefrauak, orduan askozaz errazago litzateke azaltzea nola bi sorten artean ugari diren errepikatzen direnak baina ez ordena berean; 3 errefrauok ez lirateke horren salbuespen baina indargarri, beren egitura berdintsuak eragingo bailuke bat gogoratzean beste biak erakartzea.

**1.2.5.** Errefrauen hizkuntzak ere GA-ren egiletasunaren alde jokatzen du. A-ren kopiagilea (egilea U-rentzat) jadanik U-k markatu legez, giputza zen zenbait xehetasun lekuko: B 17, 30, 34 *noc*, 2 *errabarria*, 9 *barriac*, 11 *elexara*, 27 *axeriac*, 7 *gox*, 45 *eçtau*, 31 *miiia*, 60 *arraynac*, 2 *esa galçay garria*, 33 *esa guinen* / A 4, 9, 57 *norc*, 5 *erreverria*, 58 *verriac*, 46 *eliçara*, 48 *ayceriac*, 3 *goiz*, 63 *du*, 53 *miña*, 17 *arraiac*, 5 *echagalçaigarria*, 9 *echaguinean*. Formok gonbaratu eta gero zera ateratzen du U-k ondoriotzat:

Sorta bateko eta besteko errefrauen ordena gonbaratzean ene ustez ikusi ahal da A ez dela B-tik aterea. Hemen ere berdintsu gertatzen da, U-k besterik uste izan arren<sup>5</sup>, datu hauek oztopo gehiago suposatzen baitute haren teoriarako, bera konturatu ez bazen ere. Nahiz eta onartu A-ko kopiagileak zenbait aldaketa egin zituela hizkuntzaren aldetik, aski da aldaketa horiek aurrean zeduzkan GA-ren bilduma orain galdu batean (W) egin zituela proposatzea, eta honek bere alde lituzke aurreko buruetan egin gogoetak. Gainera U-ren hipotesiak ez du azaltzen A-k B-rekin batera (U-rentzat B-tik hartuak) ez dituen errefrauak zergatik ez dauden gip-z, giputza izanik A-ren egilea, edo gutxienez, B-rekin batera dituenetan baino gip-zko hitz eta forma gehiago ez den agerzen: ez dirudi *leguez*, *surra*, *garean*, *gareana*, *adinonari*, *ardão*, *barri*, *vere* (=ere), *bardin* eta *idoro* agertuko lirakeenik (ezta A49 osoa ere seguru asko) giputz baten bilduman, egilea (ez soilik kopiagilea) bera izan ezker<sup>6</sup>.

**1.2.6.** Guzti honen aurrean aterabide bakar bat dela deritzot U-ren hipotesiaren barnean: A osatzeko egile gipuzkoar horrek B eta beste bizkaierazko iturriren bat erabili zuen eta hortik atera zituen B-n ez direnak. Iturri hori idatzizkoa bide zen, ez baitirudi daitekeena denik giputz batek Bizkaian edota bizkaitarrei biltzea errefrauok eta gero hauek ere GA-ren izenean ematea, berea ezkutuan utziaz. Gainera, bada uste horren aldeko frogaren bat ere; hara zer irakurtzen den A 46.aren gaztelarazko zatian: «Por los que de pusilánimes no se atreven a *emprender* cosas buenas, y quando alguna vez las ayan *comprendido* son desgraciados en ellas diçen... A 46.ak badu bere kidea B-n, baina ezin

<sup>5</sup> «Esta conformidad de formas, de los refranes regalados por Maestre a Francisque Michel, con las que en la actualidad se usan en Mondragón, y la discrepancia de estas últimas con las de los proverbios del *Memorial Histórico Español*, parecen confirmar mi presunción, fundada en otras consideraciones, de que el Códice CC 79 [B] era del propio Garibay, y que, en cambio, los refranes del Códice G 139 [A] constituyen otra colección, distinta de la primera, aunque basada en ella» (U 1919: 531-2).

<sup>6</sup> Eglia da 51 *det* eta 61 *geçurra* ere badirela B-n kiderik ez dutenetan, baina bakan eta eredu bizkaitarren aldaketa ditugu segurki.

esan huts hori handik hartu zuenik edo hura gaizki irakurtzean sortu zenik, oraingoan B-n ematen den azalpena ezberdina baita: B 11: «Por los que tarde y con desgracias, comiençan las cosas, dizen...» Ez delarik B hor iturritzat darabilena, ez ote W aurrean duena?

**1.2.7.** U-ren hipotesiaren aurka datoz grafiarekikoak ere:

- a) < sh >. Izan ere *Refranero Vasco*-n ukitu zuen U-k grafien arazoa baina, bildumei buruzko bere usteak beharturik edo, ez zen konaturatu A-n eta B-n badirela zenbait xehetasun beren egilea (ez kopiagilea) bat eta bera dela frogatzeko adinako direnak. Ezaguna da, aski ikertua ez bada ere, /c'/-ren (oraingo < ts >aren) idatzizko islapenak buruhauste larriak sortzen zituela garai luze batean. Pedro de Madariagak 1565ean < ss > zerabilen egiteko horretarako; Betolatzak 16. mendearen bukaeran bakunaren bitartez ematen zuen afrikaria ere: *deusat*, *deusuguz*, *jasi*, *hiracasi* (eta *bederazi*, *eriozea*, *gorpuzecoac*, *viziza*), etab., eta berdintsu egin zuten L aurreko beste bizkaitar gehienek ere: Nahiz eta bietan < s > hutsa ere erabili egun < ts >ren bitartez islatzen dugun soinua idazteko, A-n B-n baino < sh > gehiago agertzen da: A3 *osha*, B7 *osa*, A 10 *ush*, B 21 *us* (baina azalpenean *usha*), A26 *ausbo* (oker, *ausho*), A35 *ush*, B22 *us* (eta azalpenean *usa*), A20 *usean*, B39 *usean*, A43 *isuac*, B3 *esagalçaygarria*, B13 *esean*, B20 *vildos*, B37 *losavagueac*, B43 *arras*. Alabaina, digrama hori ere GA-ren (eta ez A-ren kopiagilearen) asmakizuna izan bide zen B-ko exenplu batean agertzen den gaztiguaren arabera: 13. «(...) En este lugar, y en otros muchos de esta lengua, se ha de herir mucho la S; y porque ayude algo, se pone aqu' la haspiración, sin otra necesidad».
- b) < ~ >. W eta B-ren etorkiak areago lotzen dituen bigarren grafiazko xehetasun bat aipatuko dut. M-k argiro erakutsi zuen bezala (1977: 48-9), BZak bokal sudurkariak zituen, oraindik ge-roago Zak eta Eak legez. Inoiz, RS-etan esaterako, sudurkaritasun hori idazkeran islatu ez bazen ere —zeinu zehatz baten peitu, cf. FHV 49— lekukotasunak argiak dira. Lehen aipatu Madariagak «la *n* algunas veces se pronuncia en las narices, como en *oración*, *ardaoa*, y para denotar aquella *n* se deve sobreponer una cifra de esta manera a modo de nariz ~» zioen; hara, bada, B31-k iruzkinean dioena: «*Aguina* llaman al diente, y *lataaguina* a la muela. Aquella dición *miña*, que significa «lengua», se ha de pronunciar algo con las narices, supliendo la *n* de la tilde con ellas, cosa muy usada en esta lengua en muchas dicciones, porque si se escribiese con la *n* diría *mina*, que es «dolor» y «amar-

gura»<sup>7</sup>. Bada, bi bildumetan ezagutzen dudana (^) markaren erabilerearen esanplu bakarra A27an ematen dena dugu: *Ez ur, eta ez ardaô* «Ni agua ni vino».

**1.2.8.** Ikusi dugunez, B bai baina A GA-rena ez zela pentsatuaz RS zuen haren bigarrentzat eta hori frogatzeko bost arrazoi ere ematen zituen U-k. Alabaina, arrazoiok oso ahulak iruditzen zaizkit: lehenean urteen aldetik ezinik ez dela baino ez da baieztatzen, ez ordea, GA-ren aldeko ezer erakusten; 2.a eta 3.a oso oinarri eskasen gainean eraikiak ditugu, RS-etan ez baitira 10etara iristen handikiei eta herriei buruzkoak; arrunt gutxi, beraz, 560 ezagunen artean egile / biltzaile genealogista baten behar berezirik izateko; Idiáquezen semeak liburu edo liburuxkarik Iruñean argitaratzean ere ez da GA-ren egiletasunaren aldeko argudio sendoegirik («visorey» zen partez sinatuak dira), eta, hortaz, hizkuntzarekiko azkena baino ez zaio gelditzen U-ri.

Ene ustez, U-ren susmoek, Guerraren «laguntza» gora behera (cf. *RIEV* 1924, 380), ez dute oinarririk alde honetatik ere. Hasteko, Idiáquezi bidalitakoez goian eman dugun GA-ren testuan ez dugu ezertxo ere aurkitzen Guerrak eta U-k suposatu nahi dituzten Orozkoko ez besteko berriemateei buruz, eta isiltasun hau esanguratsua da testuinguru hartan, laguntzaileen aipamenaz bere lanaren balioa areago baitzezakeen Idiáquez zein besteren aurrean. Bestalde, ez U-k ez bestek ez du egin RS-en egiletasuna GA-ren alde erabakitze beharrezko zen bilduma honen eta GA-ren testuetako hizkeraren arteko gonbaraketa zehatzik, ez baita aski gaur egungo hango eta hemengo hizkeraren nolabaiteko antza duela esatea.

RS-i dagokionez gerorako utziaz bilduma nongoa zatekeen aztertzea, 16. mendeko Arrasaten egiten zena dela frogatzeko U-k darabiltzan arrazoibide bitxiak ahulezia erakusteko, lot nakion berak besteri jarraikiz aipatu *emaiten*-en kasuari, ez baitugu adibide gehiagoren beharrik diodanaren lekuko. Irakurlea gogoratuko denez U-ren ustez RS-etako *beranquetan* eta *emaiten* egun Orozkon ez baina Leintz aldean erabiltzea bilduma horren etorkiaz zuen hipotesiaren alde etor daiteke. Alabaina, hori bezalako frogak ez dira sendoegiak, seguru baikaude 16. mendean (eta are lehenago eta beranduago) Orozkon ere *emaiten* zela, eta ez beste, *emon*-i *-te-* eranstetik ateratzen zen forma arrunta,

---

<sup>7</sup> Beste erretrau batean ere dotrina bera errepikatzen du: B60 «(...) Quiere dezir: Quanto más se acercan las redes, tanto más se afligen los peces. *Arrayna* se ha depronunciar con las narizes sonando la *n* de la tilde, porque *arrania* no quiere dezir nada, y *arrayna* significa pescado en general, y a los peces pequeños llaman *eçcaluac* en plural y *eçcalua* en singular».

aski baita BZeko testuak zertxobait ezagutzea 18. mendera arte *emon* baina *emaite-n*, *-ko*, *-a*, etab. agertzen dela jakiteko. Dialektologia zaharrari buruzko ikerketak nahi bezain aurreratuak ez izan arren, eta nahiz eta oso zaila den erabakitzen duela 400 urtetako izkribu baten euskara zein herritakoa zatekeen —batez ere batean baino gehiagotan bilduriko materialez osatua izan litekeenean—, ez deritzot ezinezkoa RS-en hizkuntza baliatuz beren etorkiaz zertxobait jakiteari; zehaztasun gehiagotan sartu gabe, mendebaleko Bz daude funtsean eta horrelatsu pentsatzen zuten Azkuek eta M-k ere Orozko aldeko euskararen zantzua hartzean. Nolanahi ere, askozaz errazago da RS-etako errefrauok garai hartako Arrasate aldeko euskararen ez *daudela* frogatzea, hor baititugu gonbaratzeko zorionez GA beraren testuak: bai gorago aipatu errefrauak eta baita bildu zituen kanta eta kanta zatiak ere.

**1.2.9.** Hizkuntzara igaro baino lehen, dakusagun, RS-en grafiazko zenbait puntu.

a) < h >. Ezaguna da hegoaldeko euskalkiek —eta beraien artean B-k— ez dutela gorde, nahiz eta zalantzarik gabe noizbait izan, enparatuek mantendu duten aspirazioa; badakigu, halaber, galera hau historia aurrekoa izan dela, jadanik lehen testuetan islatzen den hizkeran emana baitzen. Hala ere, < h > letra aurki daiteke hegoaldeko testuetan, batez ere erdaratiko zenbait mailebutan, baina baita noizik behin euskal ondare zaharrekotzat ditugunetarikoren bat islatuaz, sistematikotasunik gabe bada ere; honela erakutsi zuen M-k (1979a: 213-5) —RS-etan oinarririk, hain zuzen— Azkueren saio zaharrago baina ez hain sakon baten ondoren. Haatik, lan interesgarri hauek ez zaizkigu hemen axola orduko fonologiarekiko ondorioengatik, RS-en biltzaileak zituen grafiazko ohiturez diotenarengatik baizik. M-k frogatu duenez (1979a: 215-6) < h >ak RS-etan bokal arteko hiatoak markatzeko balio du: *hahoaz* 372, *parrahua* 220, *q[ue]ric* 53, *quehea* 360, *queheac* 364, etab., KA-ren dotrinan, VJ-en eta bestetan inoiz jazo legez. Markatzekoa da, aldiz, GA-ren errefrauetan ez dudala horrelakorik behin ere eriden: *asiac* B64, *axeriac* B27, *axeriari* B73, *bear* B45, *gueiaenean* B4, etab.

Gonbaraketa hitz hasierako bokal aurrean da esanguratsuen: *h*-asko dira RS-etan, 84 M-ren kontuen arabera: *hurrutirean* 147, *huri* 148, *hurte* 150, *hurrieteac* 249, *hurdinetan* 166, *hi-archi* 112, *hiz* 284, *haoa* 87, *hendorea* 73, etab. Horietarik 44 dira *hu-*, 19 *ho-* eta 24 *ha-*, *he-* eta *hi-*. (1979a: 216-7). M-k dioenez, *h*-horien sailkapena ez da halabeharrezkoa, zeren eta berariazko joerarik ez balitz bokal bakoitzari agerraldi kopuru berdintsua tokatuko bailitzaiok; zehazkiago, bere euskal testu eta hiztegiatiko agerraldi frekuentziaren arabera: A-ri gehien, E-ri gutxixeago, I-ri gutxiago, eta oso gutxi O- eta



U-ri. *hu-* ugari horiek badute zergatirik: betebeharra ez da *u-* bokala eta kontsonantea (*hueuo* eta *ueuo*-ren gisan) bereiztea baino, artean finkatzeke baitzen gaztelera, eta gaztelera zen eredia, < v > eta < u > ren grafiazko bereizkuntza. *RS*-ei buruzko M-ren datu hauek GA-ren bildumarekin erkatzean —B-ra mugatuko naiz U-ren irizpideekin jokatzeko— oso besterik aurkitu dut: *h*-aren exenplu solte eta bakar bat (B 52 *hora*), alegia. Esan gabe doa *RS* berea izateko *h-* haboro behar lukeela erabili B-n edota, alderantziz, askozaz gutxiago *RS*-etan. Are gehiago, *RS*-etako 44 *hu-* kasu horiek eman zitezkeen 96ren artean gertatzen dira (ia %50a, beraz); B-n, aldiz, 16 bider *u-*, behin ere *h*-rik ez daramalarik.

b) < ts >. Grafiatik atera gabe, *RS*-etan ez dut oraingo < ts > irudikatzeke G-k asmatu eta usu erabili zuen < sh > ren exenplu bakarra (338 *oshoa*) baino aurkitzen; *aberas* 2, *aberassoc* 2, *esea* 6, *esagûcea* 58, *losauagueac* 66, *sorosi* 78, *aus* 79, *asoa* 79, *ossoac* 226, *hussic* 332, *ussa* 426 errenkadak erakusten duenez < s(s) > baita nagusi egiteko horretan, nahiz eta GA-k erabiltzen ez dituen < xs > (*lauxsten*, 211), < csh > (*ocsho*, 133), < cshsz > (*vicshzduc*, 455), < ts > (*lotsaga* 263, *etsecoandrea* 259) eta < shs > (*oshsoac* 74, 480, *oshso* 471, *eshse* 442, *eshsean* 434, *eshseraco* 537, *esheco* 473, 525, *ushsa* 442) ere ageri.

c) < ez >. Ez partikulari dagokionez ere bada zer esanik. GA-ren errefrau bildumak gonbara bagenitza, laster konturatuko ginatzeke A-ren kopiagileak ez bihurtu dituela orijinaleko eç-ak, bat edo beste pasatu bazaio ere; B-n, aldiz, eç dugu. *RS*-etan ukapenaren 54 agerraldietatik ez agertzen zaigu 53tan eta behin soilik es. Ene ustez, grafiazko ezberdintasunok aski lirategi baiezatzeko GA ez zela izan *RS*-en egilea.

**1.2.10.** Hizkuntzan ere nahikoa dukegu zenbait xehetasun ondorio berdinerira iristeko azterketa zabalagorik ez den bitartean, bederen, xehetasun horiek (*eta*, zenbait hitz, hapaxak, *-n* > -  $\emptyset$ , *-de*) ongi hautatuz geroz gai baitira auzia erabakitzeko.

a) *eta*. M ohartu zen zuhurki GA-ren errefraueta beti *eta* juntagai-lua erabiltzen zela eta *RS*-etan *ta* dela askorekin aldaera nagusia (1985: 214). Kopuruek ez dute zalantza izpirik uzten, 4 *eta*-ren alboan 135 *ta* baititugu *RS*-etan, GA-ren errefraueta 18tatik 18ek *eta* dutelarik; halaber, *eta* baino ez da agertzen GA-ren bitartez ezagutzen ditugun testu laburretan ere. M-k esan bezala «hori kontuan eduki behar zuten bilduma hau [RS] eta oraingo gureak [A eta B] esku beretsutik datozela uste izan dutenek» (1985: 214).

b) Kontuan izan behar zuketean, halaber, *Valizco oleac burniaric eguin eçtaroa* dakartela bai A 36 eta baita B 30.ak eta *Balizco oleac burdiaric* ez *RS* 15.ak, *euguia* dutela A 35, A 39 eta B 22ak eta *euquia-*

*rrer* RS 264ak, *gogaeta* dela «pensamiento» A 57 eta B 34ean eta *gogaiera*, aldiz, RS 395ean, *jabea* dagoela A 45 eta B 19an eta *jaube* RS 54, 286an, *jaubea* RS 551ean, *urri-k* «marzo» esan nahi duela B 46 eta B 47an eta «octubre» *urrietea-k* RS 149an eta orobat soilik *done* ematen dela RS-etan eta bai hori eta baita *san* eta *santi* ere askozaz txikiagoak diren A eta B bildumetan: RS 318 *Done Vicen*, 320 *Done Meterij Celedon*, 545 *Otu doneari*, 254, 280 *Doneaneco euria*, baina A 16 *San Simon eta Juda*, A 6 *Jaun Santi Laurenti*, B 52 *Sanct Simon eta Juda*, B 57 *Jaun done Laurenti*, B 63 *Jaun done Martinen*. Erabat kontrako esanahia duen hitzean A 32, B 56 *dongueac* dugu RS 222, 387, 440 *deunga*, 207 *deungen*, 97 *deungueaenean*-en kontra eta baita A 60 *izen* baina RS 414 *hucen* eta 461 *huzena* ere.

c) Hitzetatik atera gabe bada oraindik RS eta beste bi bildumen etorkiak bereizten dituen xehetasunik. Ez luke zer aipatu, jakina, RS-etan GA-ren bildumetan agertzen ez diren hitzak agertzeak, hura handiagoa izateaz at, gaiak ere ez baitira beti errepikatzen hitz berdinak eman daitezten. Alabaina, markatzekoa deritzot GA-ren bildumetan esaterako hapaxik ez agertzea; *urri* = «marzo» (B 46, 47), *diago* = «hieren / dice» (A 20, B 39), *eben* = «aquí» (B 44) eta *manturio* «azeriak arrapatzeko tranpa» (A 48, B 27) baitira aipagarri iruditzen zaizkidan berba bakarrak. RS-etan, ordea, ugari dira. Hitz guztiek ez dute, jakina, pisu bera. Baliteke zenbait nik ezagutzen ez ditudan bizk.ko testuetan agertzea; bestalde batzu soilik forma edo esanahi horrekin dira hapax edo ia ezezagun. Nolanahi ere, gutxitu beharrak gutxiturik, A- eta B- letretako kopurua RS-en hiztegi osora heda bageneza, 145 bat genituzke (adizkiak kanpo) bilduma horretan agertuko litzazkigukeen gainerako testuetan kiderik ez duten hitzok. Kontuan harturik GA-ren 3ak 90 erre-frautan ematen direla RS-eko 145 hauek 560tan ematen diren bitartean, erraz ikus daiteke bilduma honetako hitz ezezagunen proportzioa ere askozaz handiagoa dela; zehazkiago, RS GA-rena izateko horretan soilik 18 hapax eman beharko lirateke edota, alderantziz, GA-renetan 23 bat eriden.

d) Izen eta aditz morfologian ez da gehiegi GA-ren erre-frauek eskeintzen dutena, bildumak txikiak izateaz gainera, aditza ezabatzeko joera atzeman baitaiteke, U eta Lafon ohartu bezala. RS-ekiko gonbaraketa arlo honetan zaila bilakatu arren hortaz, bada hemen ere etorki ezberdinaren alde argiro mintzatzen den xehetasunik: ezaguna denez, bizk-ren azpieuskalki batzutan *-n > -∅* ematen da lehenaldian, ez ordea gehienetan; zehazkiago, fenomeno hori mendebaldeko itsasaldean, Bilbo alboko herrietakoa izan da Azkuek eta lehenago Zabalak markatu bezala. Hara zer aurki daitekeen *Modo breue*-an ere: 10 *nic vovac conta ninçean*, 142 *sillac etorsan Salamancaric* baina 126 *Flan-*

*desic etorri sirea, 141 non eguin sidi?*; Poesietan *on oynerechu, mudadu nindia, vior equida, emon senguida, astu senguia*. RS-etan ere badira - ødun formak, eta are nagusi ere dira, gutxigatik izanarren: 52 *citean*, 75 *nenguiâ*, 263 *nindin*, 294 *cizan*, 364 *eban* (eta 345 *ezeuan*, 228 *ezeban*), 419 *neuen* 513 *neban*, 513 *neçan* (eta 513 *nezan*), 526 *jaçazâ*, 557 *zan*, baina 244 *neuca*, 244 *eusta*, 294, 486 *cidi* (eta 359 *Áidi*), 332 *nentorre*, 332 *necarre*, 344 *ezequida*, 388 *citea*, 438 *nencarre*, 535 *eguiâ*, 535 *nenza*, 55 *neguia*. GA-ren errefracuetan, aldiz, ez da -ngabekoren agerraldirik: A 2, B 1 *cidin*, A 11 *çiçeçen*, A 19, B 8 *engarren*. GA-ren errefracu eta testuetan

e) \**edun*-en orainaldiko eta lehenaldiko pluraleko 3. pertsonaren formarik eman ez arren *daue*, *euen* edo oso antzeko zerbait ziratekeela suposa daiteke horrelakorik erabili izan balu; hori dioskute ez bakarrik gaur egungo dialektologiak (*auen*) baina baita 18. mendearen hasieran Aramaio eta Arrasaten bizi izan zen BA-k ere: 85 *chacurrac eurac eguiten dave*, 349 *goizean bein emaiten dabe*, 33 *profeta sagraduac escrividu eben*. RS-etan, ostera *daude*, \**euden* aurkitzen dugu, -*d*-rekin, beriz ere mendebaleko hizkerak ohi nola.

Ez naiz gehiago luzatuko hizkuntzazko gonbaraketa honetan, ene ustez, orain arte emandako frogak aski baitira RS bilduma GA-ren eskutik ez zela atera erakusteko. Guztiz ezinezkoa ez den, baina itxado ten ez dudan berri ezezagun bezain pozgarriren batez bere egilea nor izan zen sekula jakingabe jarraitzea atseginegi ez den arren, ez dirudi beste aukerarik dugunik oraingoz (ik. halere 4. atala).

**1.2.11. Eraskina. A eta B-ren ekoizpen ordenaz.** Urrats bat arrerago emanaz, galda daiteke zein izan ote zitekeen GA-k Idiáquezi bidalitako lehena eta zein bigarrena, W eta B-ren artean. B da, ene aburuz, lehendabizi bidalia, eta W bigarrena.

Ohar bedi, hasteko, B-k hilen egunen izenak ere bazituela, nahiz eta Francisque Michelek ez argitaratu (orain ik. Urkizu 1989). Gogora bedi GA-k dioenez Idiáquezek *errefracuak* eskatu zizkiola lehendabiziko sorta bat hartu ondoren: ez dio lehendabizikoan errefracuez kanpo beste zerbait ere bidali zion Idiáquezi, mementu horretan ez baitzizaion horrelakorik axola, baina ia segurua iruditzen zait bigarrean soilik errefracuak bidali zizkiola: W sorta, beraz.

Bada beste arrazoi moeta bat ere lehendabizi osatu eta bidalitako sorta B dela suposatzearen alde. Gorago ikusi dugunez, A-n B-n baino < sh > gehiago agertzen da /c«/ (egungo < ts >) islatzeko. Zehatzago, 6 kasutatik 4tan < sh > dakar A-k; B-k, aldiz, 11tatik behin bakarrik. Garrantzitsua da, ordea, exenplu bakar hori, bere azalpenean proposatzen baita espreski < sh > hautatzea soinu hori adierazteko. Burura dator kidan azalpen modu bat honako hau izan daiteke: demagun B dela

lehendabizi osatutako sorta eta hori paperean jartzen ari zela pentsatu zuela GA-k digrama hortaz baliatzea, gazteleraren ortografiak ez baitzion eskeintzen hoberik. Alabaina, soilik beranduago erabaki bide zuen sistematikoki, edota ia sistematikoki bederen (A-ko < s > ak oro ez balira kopiagilearen aldaketak), erabiltzea letra hori eta ez besterik. Nolanahi ere, zailago iruditzen zait alderantzizkoa onartzea, hau da, W litzatekeela 1.ko bilduma eta hor ia erabat < sh > erabili ondoren hurrengo bilduman ezagutzen ez dugun arrazoiren batengatik ahalik eta gutxien erabili zuela; aurreko ahapaldikoa ere kontra luke.

## 2. *Refranes y Sentencias* eta Hernan Núñezezen bilduma<sup>8</sup>

### 2.1. *Urquijo HN eta RS-ez*

Aurreko atalean gaztigatu bezala, U-k ez zuen inoiz argitara eman, gogo zuen legez, *RS*-i buruzko «Sarrera» hori, eta han-hor-hemen (be-  
reziki bere *RS*-aren edizioko iruzkinetan) sakabanaturiko oharrez jabetu behar dugu obra horri buruz zituen ideiez. Etorkiari dagokionaz, halere, baieztapenak ugari dira, eta interesgarria izan zitekeen arren bere iritzi eta frogak luzez azal balitza, nahikoa argiro antzeman dezakegu haren hurbilketaren muina ondorengo pasarte honetan:

[...] Me hubiera sido fácil tomar los refranes italianos, franceses y portugueses que cito de colecciones modernas, más correctas que las antiguas; pero para la tesis que defiendo —de que la colección del Comendador es la fuente principal del libro vasco de 1596— me conviene no hacerlo. Quiero en efecto, hacer patente que, en varios casos, cuando el refrán vasco se asemeja más que el castellano a un proverbio extranjero, éste se halla incluido en la obra de Hernán Nuñez—ez. Véase para más detalles mi Introducción. Entiéndase bien, que no sostengo que no existen vascos originales, sino que los de la colección de 1596 están tomados en grandísima parte de los refranes castellanos» (*RIEV* 5, 378, 1. oh.).

Has gaitezen Urquijok berak bere sailkapen arau nagusitzat duenetik:

Por lo demás, ingenuamente declaro, que creo podría intentarse, aun independientemente del estudio comparativo que ahora nos

---

<sup>8</sup> Lakarra 1990a eta Lakarra 1996c-ko 2. atalean lotu natzaio gai honi; bigarrenaren gidoi antzekoa duzu honako hau.

ocupa, una clasificación de los proverbios vascos en cuanto a su originalidad, basada exclusivamente, en el lenguaje de los mismos. Es decir, que dicha clasificación debería atenerse a mi juicio, a la regla siguiente: No debe considerarse como proverbio genuinamente vasco, aquél que contenga una o varias palabras alienígenas o el que revele por su construcción influencia latina, francesa o española (RIEV 3, 155).

adibide zehatzak ere ematen dizkigularik:

Hállase, por ejemplo, comprendido en la primera parte de la regla, el prov. 110 de Oihenart: *Cosina guisen-eguiac labea du ahultzen eta exea aurrizen*; y entra a mi juicio de lleno en la segunda, el nº 1 de *Refranes y Sentencias: Adi adi ce jaun goycoa dagoc adi*, Mira con cuidado q. el Señor de lo alto te está mirando. (ibidem).

## 2.2. Urquijoren ustezko emaitzak

Ondoren taula batean biltzen ditut U-ren edizioan aurki daitezkeen HN eta RS-eko errefracuen arteko erkeketak, «fr.» (=«frantsesa»), «it.» (=«italierazkoa») gehitzen delarik HN-en bildumakoei egileak berak eta U-k hala markatzen dutenean; zalantza ikurrak U-k bere iruzkinean agertuei dagokie.

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
3	40(it.)	33	435	79	457	117	59
4	327	36	?387	81	154	119	1
5	364	37	15	84	30	120	83
6	316	40	90	86	?_	121	2
7	29	41	?450	87	290	122	112
8	280	47	110	89	10	125	90
9	275	51	87	93	302	126	427
11	163	54	271	94	277	128	272
16	74	57	f.g.	95	413	130	359
17	150	60	5	98	113	131	11
18	? 61	61	?_	99	88	134	134
19	? 55	63	283	101	422	135	282
22	?141	65	276	107	136	136	77
24	355	66	412	110	282	137	457
25	20	69	342	111	282	138	303
26	? 45	70	127	112	165	147	90
29	303	77	59	113	278	148	139
31	357	78	35	116	55	152	2

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
153	f.g.	237	281	326	413	436	116
155	8	238	293	327	411	437	418
158	438(fr.)	239	21	335	459	439	?417
159	328	242	417	341	15	441	?284
174	80	243	413	342	1	445	?358
176	89	246	358	343	423	448	?412
178	f.g.	247	358	350	355	449	425
181	337	249	403	351	400	451	?157
183	435	253	64	352	115	454	? 36
184	337	256	348	353	427	458	?165
186	?294	257	345	355	115	461	60
190	353	258	405	356	283	462	?398
191	387	261	441	358	?464	466	? 21
192	388	262	? 39	366	437	467	279
193	125	265	144	367	127	471	?295
194	127	266	137	368	133	473	301
195	279	267	457	371	?408	478	? 6
196	274	271	343	372	153	480	? 64
199	115	272	361	373	91	485	87
207	19	274	282	376	279	486	283
209	?338	276	52	378	23	487	?317
210	282	277	59	381	68	488	115
211	1	278	157	382	63	491	348
213	54	288	60	384	137	495	459
215	341	289	60	385	402	499	159
216	341	291	456	390	?308	500	447
217	341	292	115	392	112	501	335
218	342	296	155	393	90	502	337
219	342	297	278	394	3	503	337
220	339	298	279	395	282	504	399
221	339	299	125	398	?320	508	273
222	344	304	130	399	115	509	?292
223	353	308	150	407	154	511	52(fr.)
224	368	313	128	414	?282	513	445
225	339	317	?275	415	?113	514	?269
226	303	318	430	420	293	521	25
227	304	319	157	425	458	527	282
228	334	320	305	426	153	529	292
229	334	321	360	427	301	530	293
231	334	322	305	428	301	531	?156
232	339	323	136	430	309	537	356
234	135	324	400	431	302	538	121
236	141	325	413	432	?301		

### 2.3. *Urquijoren irizpide eta emaitzen kritika*

U-k RS-en etorkiari buruz aurkeztu teoria nagusia, hots, bilduma hori gehienbat HN-enetik itzulia zela azaldu nuen eta iruzkindu, lehen, eta, haren ikerbideak miatu ondoren, bi bildumen arteko erlazioak ikeritzeko besterik zen bilatu 1990a eta 1996c-ko 2. kapituluan.

**2.3.1.** Nago U-ren sailkapen-erregela gogorregia den, gutxi onartuko lukeen garaiko garbizaletasunean oinarritua izateaz landa, ez baitu ez bere lehen zatian (mailebu lexikoak), ez bigarreanean (m. sintaktikoak) besterik gabe salatzen errefracu baten atetik etorkia zalan-tzarik gabe; gogora bedi, beste eremu batean, goldearen izenaz eta euskal goldeez beraiez Caro Barojak aspaldi markatua. Aski da errefracu jator batean hizkuntzak hartu dituen mailebuetarik bat islatzea haren, ez mailebuaren, jatortasuna ukatzeko; ezinezkoa da honelakorik onartzea tradiziozko literatur generoetako hiztegi eta hizkuntza oro har, delako gai bati etorkiz dagokionaren eta herriaren garai batekoaren arteko hitzarmena baita: ez da, beraz, inondik inora aski generoaren edo gaiaren jatortasuna deuseztatzen.

**2.3.2.** RS-eko errefracuei U-k egindako iruzkinak ondoko zerrenda honetan laburtu nituen eta sail bakoitzeko adibideei ene iruzkinak gehitu datu berririk izatekotan<sup>9</sup>

- a) inongo kiderik gabeak edo esanahi ezezagunekoak,
- b) soilik euskal kideak dituztenak,
- c) euskal eta (gaztelaniaz landako) erdal kideak,
- d) euskal eta erdal kideak (gaztelania barne baina etorki bezala hori aipatzeko),
- e) soilik erdal kideak (gaztelania barne) etorkiaz ezer esan gabe,

<sup>9</sup> Bestetara baino lehen, gorago kokatu ez ditugun zenbait berezi beharko genuke RS barnean, dela 1) euskal gauzez, herriez, familieez, gertaerez... ari delako, edo dela 2) bere formaren arabera, beraietan diren hitz-jokoengatik, etab., soilik euskaraz antzeman baitaitezke eta nekez baino ezin azal baitaitezke, aldiz, itzulpen bezala:

88. *Olaso, guichi bazuc ylaso* «Olaso, pocos son como tú».

92. *Celangoa da Butroeo oroc daquie* «Que tal es Butrón todos lo saben».

167. *Erioc ereçan Butroeco alabea Plencian* «El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia»

270. *Muxica arerioacaz aguica* «Muxica a dentelladas con los enemigos».

273. *Gaçean, gaçean ta ez Ybarguengorean* «De la sal, de la sal, y no de la de Ybargüen».

284. *Aramayo dabenac ez lemayo* «A Aramayona quiê la tiene no la daría».

149. *Hurrieteac hurri gauçac ta hurri dira aren bearrac* «El octubre mengua las cosas y menguadas son sus obras»

169. *Mi gwestoa minago mintea baño* «La lengua es más doliente que la peste».

- f) soilik gaztelaniazko kideak, HN aipatzeke edo hari hurbiltzeke,
- g) gaztelaniazko kideak, HN *RS*-koaren iturburutzat duelarik eta beste lekukotasunik gabe,
- h) gaztelaniazko kideak, HN *RS*-koaren iturburutzat duelarik baina beste zenbait lekukotasunekin,
- i) erdal kideak, gaztelaniazkoak landa, HN *RS*-koaren iturburutzat duelarik.

**2.3.3.** HN-tik hartu omen atzerriko hizkuntzetako errefrauak argudio indartsu lirateke *RS* HN-rekin lotzeko errefrauok HN-engandik eta soilik handik har bazitzakeen *RS*-ek; alabaina, (i)-koen kopurua aski laburra izateaz gain, ez da baldintza hau betetzen zenbait kasutan. Gehienetan U-ren argudio itxuraz ongi hautatu honek bere hipotesi orokorra are ahulago bilakatzen du, haren gailurtzat aurkeztua datu eskasian —bere garaian gazteleraazko asko zen ezezagun oraindik— eta halabeharrea oinarritzen dela erakusten baitu: 241, 256, 395, 414 italiarazkoetan; 60, 130, 158, 207, 237, 249, 469, 513 frantsesekoetan; 265, 277, 294, 357, 374 portugeseetan; 274, 313, 324 katalanetan. Litekeena da euskarazko eta gazteleraazko errefrau gehiago ikusi ahala hondarrak ere azalduaz joatea.

**2.3.4.** Goian eman den U-ren aipuan garbiri azaltzen den aldetik (e), (f), (g) eta (i) sailetakoak dira, noski, bere helburuetarako erabil zitzakeenak. Alabaina, usu darabiltza (h) azpian bil daitezkeenak ere. (g)-koak miazteko gelditzen zaizkigu eta hauek dira askorekin gehienak *RS*-ekin parekatuen artean. Hauetan ere U-ren ondorioa onartzeko ditugun oztopoak ez dira gutxi, ordea: Usu antzekotasuna soilik *ad sensum* ematen da, ez hitzez-hitzeke edo, gutxienez, egiturazko egokitasuna; U-k berak zenbaitetan ohartu bezala, *RS*-eko erdal testua da euskarazkoaren itzulpen, eta ez alderantziz. Gertakari hauek ez dira erraz azaltzen U-ren teoriaren barnean, *RS*-en erdal itzulpena egin zuena erdaratik euskarazkoak itzuli zituen bera ez zela esanaz ez bada, inoiz hark egin bezala. Suposaketa honek, ordea, bere teoria askozaz garestiago bilakatzen du eta ez dakit balioko lukeen azaltzeko gaztelera batzutan HN-ena baino zaharragoa izatea.

**2.3.5.** Batzutan bi testuen arteko ezberdintasuna hain doa urruti non ezin ukatuzkoa den erdal zatian ez dela euskarazkoa eman, eta bai, ostera, hura gaizki ulertu dela. M-k atera zuen aspaldi bat (cf. *SHLV* 790); ondorengo ez dakit inork aipatu duen, nabarmenki gaizki itzulia izan arren:

166. *Hurdinetan assiazquero prestuesta seyzaroa ynoc çe bez aurqui guero çe aldía eldudoa* «Después de comenzado a encanecer no



es de prouecho el niñear, nayde diga luego después que el tiempo suele llegar».

Zuzen «...nayde encuentre luego que...» litzateke, non *aurqui bez* = *aurkitu*-ren erroa + bestetan ere *RS*-en agertzen den \**ezan*-en hiru-garren pertsonako forma sinkopatua: cf. 165, 363, 454. Ohar bedi «luego después» ezinezko zela 16. mendeko gazteleraz: «brehala» zen lehena eta horrela gordetzen dute gaztelar askok.

Halaber, zergatik dira beren ustezko orijinala baino luzeago edo laburrago *RS*-ek HN-engandik hartuak? Hori da gertatzen dena, esate baterako, lehendabiziko 100en artean ondoko hauekin: 3, 5, 6, 9, 14, 16, 27, 36, 40, 54, 75, 87. Hau azaltzeko, U-k aurreko puntuan eskatu garestitzeaz gainera, *RS*-en biltzaileak orijinalekoak moldatu ere egin zituela onartu beharko luke, orobat. Antzeko arazoa sortzen da *RS*-eko errefrauak aldaerak dituztenean beren HN-ko ustezko kideen aurrean; hori agitzen da —besteetan ere aipatuak landa— ondoko hauekin lehen ehunen artean: 25, 41, 47, 52, 84, 93, 99.

**2.3.6.** Bada oraindik arrazoirik ez *RS*-en erdarazko itzulpenari baidik eta HN-engandik U-k suposatu euskaratzeari dagokiona. *RS*-eko polimorfismoa mia bagenez, albo batera utziaz ezaugarrien zabalera eta historia beharrezko den zeinnahi azterketa, sines ote daiteke U-k suposatu ustezko euskal itzultzailearen euskaran horrenbestekorik zenik? Ez ote forma ezberdintasun hori errefrauaren etorki ezberdintasunari berari zor zaiona? Ene ustez, orain arte aurkeztu ditudan datuek ez dute bategarritasunaren U-ren teoria eta bai hartaz zalantza handiak sortzen.

**2.3.7.** Badira haboro ere. U-k ez bide zuen L-ren lekukotasuna —albo batera zein bestera— kontuan hartu: «contiene refranes del Bascuence, traducidos en castellano demasiadamente a la letra». Izan ere, titulu bera («Comunes en basquence, declarados en romance») eta zenbakiak —jarriko ote ziratekeen erdaratik itzuliak baziren eta ez, L-k espreski ohartu bezala, euskaratik erdarara eta hitzez hitz gainera?— kontuan hartuaz errazago egiten zait pentsatzea *RS*-en iturri nagusia ez dela HN, ez eta, seguruenik idatzizko eta gaztelerazko besterik ere. Errefrauok herrikoiak bide ziren, gehienak bederen, garai hartan eta aspalditik izan ere —aztertzaile orok markatu legez— beren hizkuntza orduko zaharkituak salatu bezala, zenbait geroago ere ezagun eta herrikoiki diren edo izan diren legez. Hara, esaterako, diodanaren adibide zenbait (16, 42, 52, 64, 116, 124, 170, 202, 281, 291, 294, 305, 354, 387, 397, 428) *EY*-n bildutako kideetan. Segur naiz egiteke den euskal errefrauaren corpus zabalago batek U-arentzat arrotz eta, usu, HN-ren-gandik mailebatu anitz gehiago «euskaldunduko» lukeela.

**2.3.8.** Irakurlea gogoratuko bide denez, lehen atalean U-renez oso bestelako ondorioak jalgitzen ziren ustezko iturria (GA-ren B) eta

hartzaila (haren A) ordena honetan eta ez berak emandakoan erkatetik. Oraingo honetan ere HN-en bilduman RS-ekoek dituzten ustezko kideen arabera erkatuz ondorio interesgarrietara irits gintezkeela deritzot. Era horretako taula bat gainerik ikusirik ere nabarmen denez, RS-eko biltzaile / itzultzaileak ez du HN-eko ordena errespetatu berea ezartzerakoan. Hori, berez, ez da esanguratsua euskal ordainak ordena alfabetikoan emanik oso bestela amaitu behar baituzten. D-ekoaren diren erretrauen hurrenkerari so egiten badiogu, ordea, betengizarrerik ez dugu erideten: egia da lehen orrialdeko erretrauak oro A-z hasten direla eta O-z 64., azken orrialdeko ia guztiak; bigarren orrialdean, bederatziren artean nagusi dira B-z hasten direnak nahiz eta A- bat eta beste E- bat izan eta B- eta C- dira, hurrenez hurren, hirugarrenean. Alabaina, A da nagusi berriz (D- batekin) laugarrenean, B bat eta C-ren gehiengoa 5.ean, eta —larriago dena— N- bi, bi M-, L- bi, bi V- eta F- bakarra ondoko 6.ean. Hortik aurrera, orrialde batzuetan letra honen edo horren gehiengoa izan arren, jauziak dira aitzin-gibel, bai orrialde berean, bai biren artean ere. Ni neu, bederen, ez naiz gai 64 orrialdeentzat balioko lukeen lege hertsia ez zabalik erideiteko (cf. *SHLV* 416-7). Gauzak honela, lehen atalean GA-ren A eta B bildumez argudiatu bidetik, ez zen erabateko arrazoirik HN-ko hurrenkerari jarrai ez zekion RS-eko ustezko itzultzailea (edota azken moldatzailea), beti edo noizean behin bederen.

Har dezagun orain HN eta RS-en arteko U-ren ustezko egokitasunak baina HN-ren ordenaren arabera; ez dira asko euskal ordainetan hurrenkera mantendu duten bikote edo hirukoteak: HN 282-282 / RS 110-111, HN 387-388 / RS 191-192, HN 125-127 / RS 193-194, HN 303-304 / RS 226-227, HN 358-358 / RS 246-247, HN 60-60 / RS 288-289, HN 278-279 / RS 297-298, HN 292-293 / RS 529-530 bikoteetan eta HN 334-334-334 / RS 228-229-231, HN 413-413-[411] / RS 325-326-327 agian, hirukoteetan. Gogoan badugu HN-en orriak eta RS-eko erretrauak erkatzen ditugula, nabarmena da erraztasun haboro dela HN partetik eta oso baldintza hertsietan onar genezakeela bikote zein hirukote hurrenkera soila RS-en HN-ekiko zorraren erabateko lekukotzat; ez behintzat HN 80-89 / RS 174-176, HN 52-59 / RS 276-277, HN 127-133 / RS 367-368, HN 303-357-435 / RS 29-31-33, HN 144-137 / RS 265-266, HN 348-345 / RS 256-257, HN 68-63 / RS 381-382, HN 279-273 / RS 195-196, HN 280-275 / RS 8-9, HN 417-413 / RS 242-243 bezalako kasuetan. Zalantzak ditut HN 55-59 / RS 116-117, HN 1-83-2 / RS 119-120-121 eta HN 337-435-337 / RS 182-183-184ren aurrean ere: azkenotan, «itzultzailea», ordenaz kanpokoa tartekatatu ondoren, begi aurrean zeukanera bihurtu ote?

Goiko bikote eta hirukoteetarik HN-en orri berean direnek ematen didate segurantzarik handiena, HN 60-60 / RS 288-289, HN 282-282 / RS 110-111, HN 358-358 / RS 246-247, HN 278-279 / RS 247-248, bikoteetan eta HN 334-334-334-[339] / RS 228-229-231-[232] hirukoteetan, nahiz eta jarraiko orrialdeetan direnak ere kontuan hartzekoak izan; segida luzeagoetan (eta, hortaz, seguruagoetan) bakarra da, harako HN 341-341-341-342-342-339-339 / RS 215-216-217-218-219-220-221.

**2.3.9.** Orain arteko HN eta RS-eko errefracuen erlazioen iruzkina laburtzeko, ezar dezagun orain segidako taulan RS-en ordenaren arabera. Hasiera batean soilik kontuan hartu nituen hurbilean diren bikote eta segida luzeagoak, horiek baitira bi bildumen artean den erlazioa frogatzeko ia gai diren bakarrak; alabaina, eta alderdi hori segurtatu ondoren, onartu nituen multzo horien gunetik urrutixeago gelditzen ziren orri bereko (HN) edota segidako (RS) errefracu banaka batzu ere. RS-eko hurrenkeran eta kausitu ditugun bikote eta multzoak banaturik ezartzean, ikusi ahalko da iturriaren hurrenkeraz izan diren jauziak (ez beti euskararen ordena alfabetikoa mantentzeko, dagigunez).

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
110	282	217	341	257	345	368	?133
111	282	218	342	249	403	381	68
116	55	219	342	258	405	382	63
117	59	220	339	277	59	427	301
119	1	221	339	288	60	428	301
121	2	222	344	289	60	431	302
174	?80	225	339	297	278	432	?301
176	?89	232	339	298	279	437	418
181	337	226	303	320	305	439	?417
184	337	227	304	322	305	471	?295
191	387	228	334	325	413	473	301
192	388	229	334	326	413	501	335
193	125	231	334	327	411	502	337
194	127	246	358	352	115	503	337
215	341	247	358	355	115	529	292
216	341	256	348	367	?127	530	293

BIGARREN TAULA:

URQUIJOREN EMAITZA ZUZENDUAK HN / RS ERKAKETAN

**2.3.10.** Guztira 64 errefrau<sup>10</sup> kontatu ditut segurantzaz edo egiantz handiarekin RS-en HN bildumaren erabileraren bitartez azaldu beharko lirakekeen artean; litekeena da RS-en prestatzaileak edo prestatzailleak kopuru hori baino gehiagotan mailebatzea bere mendean Espainian izan zen bildumarik aberats eta garrantzitsuenetik. Areago dena, HN eta antzeko gaztelerazko bilduma garaikiderik izan ez balitz agian ez bide genukeen RS-ik ere izango. Alabaina, egun ezagutzen ditugun %10,2rekin edo baino ezin frogatu izan dut, U-ren erizpideak baino hertsiagoak erabiliak bi bildumen arteko lotura. Litekeena (eta beharrezko) azterketa berriek etorkizunean enea zehaztea eta aldatzea RS-eko jatorri eta bildumaren ekoizpena bera uler dezagun; baina U-ren «los de la colección de 1596 están tomados en grandísima parte de los refraneros castellanos» hartara bihurtuko ote?

### 3. *Refranes y Sentencias-en tamaina zehaztuaz*<sup>11</sup>

#### 3.1. RS osatuaz: *Vinson*

1596an argitara zen Iruñean Amberesko Pedro Porralsen etxean honako izena zeraman bilduma: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Vinsonen bere Bibliografiaren Eranskinen dagokion sarreran (1891-97: 6-7) dioenez

Voici la description exacte de ce précieux volume, où il n'y a ni cote, ni uméro, ni ex-libris, ni signature d'aucun ancien propriétaire. Je n'ai pu savoir comment il est arrivé à Darmstadt (...) Il n'y a ni introduction, ni préface, ni avis; on n'y trouve ni approbation, ni licence, ni permission, ni taxe; on n'y voit même aucun fleuron. Il faut noter aussi qu'il n'y a pas de titre, et l'aspect de la dernière page ferait croire que le livre n'est pas fini et qu'il se compose des bonnes feuilles d'une publication interrompue en cours d'impression<sup>12</sup>.

<sup>10</sup> Orrialde bat, pentsa daiteke darmstadt-eko alearen 64ak gogoan izanik; taula honetatik bertatik atera gabe, erraz ikus daiteke distribuzioa ez dela horren erregularra, ez RS-ri ez HN-i dagokionez: aipagarri iruditzen zait gure bildumako lehen 100 errefrauen artean batere ez kausitzea taulan, ezta HN-eko 165etik 265 bitartean ere gure bildumakoen iturri izan daitekeenik. U-ren arabera; are markagarriago dirudiena, bikoiten erizpidea onartuaz 133.orrialdetik 278.erako jauzia dugu, hortik aurrera 150 orrialdetan biltzen direlarik RS-eko *iturritzako gehienak*.

<sup>11</sup> Lakarra 1996a-ko zati bat eta 1996a-ko 3. kapituluak darabiltzat kapitulu honetan.

<sup>12</sup> Beherago «Il est remarquable que Oihenart n'ait pas connu ce livre; il paraît ne lui avoir fait aucun emprunt».

Ezagutzen zen ale bakarra Hesse-ko Artxiduke Handien bibliotekan (Darmstadt-en) gordea genuen azken Mundu-gerlan hondatu edo galdu artean; han aurkitu zuen 1894ean Van Eys-ek eta argitara eman bi urte beranduago, liburuaren 300ak egiten zirenean. Alea suntsitu baino lehen U-k ere izan zuen parada haren argazkiak lortzeko eta haiek baliaturik eman zuen bere iruzkindun argitalpena 1911-33 urteetan *RIEV*-en. Ale honek 539 errefrau ditu 64 orrialdetan<sup>13</sup>. Gorago eman dugun Vinsonen aipamenak erakutsi legez, ezer gutxi diosku liburuskak bere buruaz eta bai, aldiz, zalantza eta galdera asko sortzen: nor zen bere egilea?, zein bere tamaina?, ze eratako zabalkundea izan ote zuen eta inork ezagutu ote?, nondikakoak ote dira errefrauok? etab. Bi ikertzaile —Julio Urquijo eta Koldo Mitxelena— saiatu dira arazo hauek edo horiei lotuak argitzen, eta beraiek izango ditut solaskide *RS*-en tamainaz aritzeko.

### 3.2. *Urquijo eta Mitxelena Oihenartek ezagutu RS-ez*

1967az geroztik, U-k argitaragabe utzi zuen lan baten bitartez, badakigu Oihenartek *RS* ezagutu zuela: Urquijo konturatu bezala, Zalgizeren errefrau batzuen ondoren Oihenartek eskuizkribuan idatzi zituen 200etarik 39 «Biscaye» izenburupean datoz, «Navarre»-ko bakarraren eta «Soule»-ko ugariagoen artean. Bada, horietarik lehena Pozarengandik hartutako sasi-errefraua dugu («298. *Garagorri; est adagium hominum factiosorum*. Poça, pag. 61») eta 18 (299-306 eta 327-336ak) jada Darmstadt-eko alearen bitartez ezagutzen ziren benetako errefrauak. Koldo Mitxelenak (1967) pausu bat gehiago eman zuen eta, U-ren lanari jarri zion eraskinean, erakutsi zuen hark aipatzen ez zituen 307-326ek ere bilduma berekoak behar zutela izan, hizkuntzak eta grafiak adierazi legez:

Entre los refranes vizcaínos copiados en este cuaderno, uno [...] procede de Poza, y otros dieciocho [...] están tomados, sin lugar a dudas, de los *Refranes y Sentencias* vizcaínos de 1596. Esto lo vio Urquijo [...] pero lo que no vio, o lo que no se aventuró a decir, es que, intercalados entre ellos hay otros veinte, los números 307-326, desconocidos hasta ahora, que provienen de la misma fuente.

<sup>13</sup> Vinsonek markatu bezala, 254.a eta 280.a, 256.a eta 291.a, 277.a eta 357.a beren artean errepikaturik dira eta aldaeratzat jo daitezke 14.a eta 518.a, 51.a eta 485.a, 52.a eta 386.a, 106.a eta 139.a, 210.a eta 317.a, 213.a eta 438.a, 239.a eta 466.a, 314.a eta 329.a, 423.a eta 456.a; harentzat «Il n'y a donc en réalité que 527 proverbes différents» (ibid).

Arrazoiak pisuzkoak dira, noski:

Esto es fácil de probar, o por mejor decir es evidente, por lo que me limitaré a apuntar las razones en que fundamento mi opinión. El lenguaje de esos veinte refranes es el mismo vizcaíno arcaico de los demás; iban, por otra parte, acompañados del mismo estilo de versión castellana, aunque Oihenart no consignó ésta más que ocasionalmente. Ciertas particularidades gráficas, finalmente, coinciden del todo con las que ya nos eran familiares por la parte publicada de *RS*: cf. *burhua* (321), *ojal* (308), pero *maiaz* (319). (M 1967: 13)

### 3.3. *Mitxelena RS-en tamainaz*

Darmstadt-eko aleak dituen 64 orrialdeetarik (4 kuadernotxo) 16tan (k. bakarra) —49 eta 64. orrialdeen bitarteko laugarren kuadernotxokoetan, hain zuzen— kokatzen dira Oih-ek kopiatutako errefracu ezagunak. Ez dirudi 49. orrialde horren (4. k.aren hasiera) aurrekorik ezagutuko zuenik bitxi asko baitzen bat ere ez kopiatzeko. D-eko alean gordetzen ez ziren beste 20ak horien ondoren bide zihoazen, 65. orrialdea litzatekeenetik aurrera, hots 5. kuadernotxoan eta ondorengoetan. Kalkuluak arriskutsu direla aitortu arren, M-ren ustez (1979: 416-8) honelako proportzioa genuke:

$$\frac{18 \text{ errefracu ezagun}}{16 \text{ orrialde}} = \frac{20 \text{ ezezagun}}{x}$$

Berari «Iruñean egindakoaren erdi osoa falta dakigukeela» ateratzen zaio eta M-ren aurkikuntzaren ondoren *RS*-eko 560 errefracu eza gutzen ditugu; 21 gehiago, alegia.

### 3.4. *Larramendiren lekukotasunaz*

Hara zer dioen L-k *Hiztegi Hirukoitz*-eko Eraskinaren (E) hasieran:

Al acabarse la Impression del Diccionario me embia el Padre Agustín de Cardaveraz, de nuestra Compañía, un Cuaderno viejo, que le ha avido á las manos, andando en Misiones en Bizcaya. Está impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasiadamente á la letra. Faltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimió. Las paginas están en dos co-

lunas, y en la izquierda viene el Bascuence de letra redonda, á quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas lenguas están apuntadas con números iguales, y correspondientes todas las voces, assi las Bascongadas, como las Castellanas, para que nadie pueda equivocarse en su explicación por la Sintaxis tan diferente de una, y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaíno, aunque por lo común domine este ultimo. En la Ortografía tiene sus erratas, pero son conocidas, y no causa confusión. Las paginas legibles son sesenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo común no están en este Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanas. He añadido también otras muchas voces que he oido en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buuelto á repassar con cuidado.

Vinson ohartu zen jadanik bere Bibliografiaren gehigarrian *RS* izan zitekeela L-k «kuaderno zaharra» deitzen duen hori, eta horrela jarri du argitan M-k *Estudio*-n L-ren eraskinari eskeintzen dion atalean. Zorigaitzez, L-k ez du hitz bakoitza nondik hartu duen aitortzen eta ezin baiezta daiteke segurtasun osoz D-eko alean aurkitzen ez den berba edo errefrau bat *RS*-etik hartua dela, baina, halaz guztiz, M-k frogatu ahal izan du L-k *RS*-en ale bat ezagutu zuela eta, areago, ale horrek bazituela D-ekoak gorde ez zituen zatiak, baina baita falta zituena beste zenbait, bestela L-k ez baitzuen erabili gabe utziko bere eraskinean haietan ediren zezakeen hainbat hitz interesgarri. Ezin dira, oro har, L-ren *E*-aren bitartez berak zuen *RS*-eko aleko errefrauak osatu, hitz solteak ematen baititu, ohi bezala; hala ere, inoiz edo behin oso bat ematen du exenplu gisa, edota errefrau zati oso bat progotxatzen:

185. Darasme, y darete [sic] he, *iquedac, ta diaqueada*. [= *RS* 233];

400. Mañana, *biar*. Después de mañana, *etzi*. Dos días después *etziluma*. Tres días después, *etzicaramu*. [= *RS* 410 *Beyçut nai baoçu / gaur, biar, ezi, eziluma, ezicaramu*, «Haréoslo si quereys / hoy, mañana, después de mañana»]

459. Obero, overo caballo, *saruc*. Y el refran, *saruc bat uste, tresnatzén dauenac beste*. [= *RS* 335].

Hirurok genituen ezagunak D-eko alearen bitartez; alabaina, «Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d[oi]a* M-k ohartzen duenez *RS*-etik dator D-eko alean ez

agertu arren: sey daukagu hor bezala, idazkeran islatu gabeko dip-tongo sudurkariarekin RS-eko 55, 238 eta 523an ere.

**3.4.1.** Hara M-k E-ko sarreraren batean litezkeen iturrien artean ai-patu RS-eko errefracuak:

RS	E	HITZA	RS	E	HITZA
266	6	opea	399	233	etsequi
171	8	asacatu	341	235	jarrugui
331	16	equix	243	237	ogena
251	20	uzcurtu	299	245	galendu
144...	21	oratu	239/466	251	quibela
295/372	27	leusindu	236	257	sasitu
388	37	alogadu	260	262-3	arbindu
242	39	oneretsia			[arbina]
323	43	sutanza	49/272...	269...	trancarta
420	48	zarraldoa	2/107...	271	ospea
541	58	hucha	242	273	ezaya
7/404	60	isquiluac,	249	275	asto
		isquilosac	302	277	atzaga
102/521	64	garbatu	265	292	donari
367	74	luparia	16	298	itoguina
383	77	azarria	19/179...	301	oñon
165	78	azarcunza			eguín
339	86	urgaci	7/21/165	303	gudua
79/436	90...	trisca	344	314	jarrequin
185	109	yrola	287	315	huruna
365	118	oñatu	319	317	jaraunsi
210/527	123...	urena	220	318	parrahua
88	152	laso	272	319	iac, iyac
290	162	maquerra	392/507	322	andizura
156/279	171	ecandu	238/469	324	escaratza
?393	176	gardia	379	325	induscatu
33/247	178	ipirdia	199/450	326	zurtza
182	180	ciya	243/422	328	ines(i)
175	184	emaya	295	330	burquidea
233	185	iquedac	402	335	curea
		ta diqueada	307	337	maemana
174	186	diada	321	341	jaibala
141	188	gaso	94/191	347	murcoa
192	191	chircandea	313	349	garagarrila
120/408	200	ertuna	254/280	350	Doneane
168/248	201	guraria	380/397	355	eusi
259	204	cimbota	?79	367	erigui
301	220/2	irachoa	303	379	narea



RS	E	HITZA	RS	E	HITZA
211/262	382	ibarrac	317	540	hurrena
353	386	bicioa	407	543	ecertu
151/169	387	guestoa	514	544	gondua
174	392	orbana	339	547	gueidea
76/246	398	elicatura	437	563	luquia
410	400	biar, etzi, etziluma, etzica- ramu	235	565	elia
			370	573	izpizatu
			52 / 386	575	arritu
272	404	erac	279	582	arecha
398	413	loca ibilli	217/?255...	585	otu
33/82...	418	ceja	196/197	586	belorita
349	419	ibarjauna	159	589	laurembata
372	431	esugui	239	595	aldiona
536	437	arean	367	601	cidorra
75/?244	439	oparina	289/481	604	cenzuna
166	448/9	seyzaroa [seyzarotu]	366/?506	606	biaota
			183	607	arrayo
238...	450	seya	497	613	coicatia
335	459	saruc [_ bat uste, tresnatzen dauenac beste	371/495	614	gueriza
			37	628...	chiriboguina
			210	634	lauzatua
215	460	eguipeida	37/214	650	irunsi
149	461	bearra	404	653	meniac
69	468	lapicoa	201	656	iusturia
219	485	birapora	39/115	658	grisolac
291	505	ergarria	299	660	ubera
395	506	gogaya	209	665	guebendu
63	506	gogoa	10/361-2	668	aspertu
9	511	baraz	220	669	jazquerea
241	520	celaya	?176...	673	oquelea
3...	521	chiroa	51/ 228...	677	matrazua
25/329...	521	arlota	207	680	ninteguia
265	521	landerra	?403	684	ideco dira
238	528	atartea	21/275	689	cirola
388	536	palagadu	275	690	osquia

**3.4.2.** *E*-n badira, gainera, *D*-eko alekoetan ez azaldu arren, *M*-ren ustez etorki bereko direnak edo, gutxienez, izan daitezkeenak formaren edo geroko lekukotasunen arabera. On da ikuska ditzagun haien gainean *L*-ren bitartez *D*-ekoari emenda geniezaiokeena jakiterik dugun (zenbakiak *M* 1970-n *E*-ko sarrerei ezarriak dira):

- 16 *achiti*;  
 23 *cresala*;  
 24 *osteleuria*;  
 29 *emayenac*,  
 33 *pozcaria*;  
 41 *larua*;  
 54. *ibiretu*,  
 76 *azartu*;  
 89 *triscaria*;  
 94 *done Matro*,  
 101 *ezteguac*;  
 107 *fresa*;  
 121 *seldorra*;  
 123 *azquina*;  
 131 *coitiguia*;  
 137 *acotatu*,  
 146 *gomburua*;  
 148. *milistu*,  
 160 *erago*;  
 163 *zancabia*;  
 165 *gorta*;  
 174 *betzuloa*,  
 181 *cicoza*;  
 189 / 458 *gargolla / gorgolla*;  
 194 *ortoza*;  
 197 / 508 *oldozquera(n) / oldoztu*;  
 236 *arana*,  
 254 *zayoa*;  
 256 *senguea*;  
 258 *gortaisa*;  
 276 *obua*,  
 280 *canora*,  
 285 *lejarra*;  
 297. *mardula*,  
 302 *jagotu*;  
 305 *guertaetu, guertucatu*;  
 321 *meaca*;  
 335 *curea*;  
 338 *iztegia*;  
 344 *guiraquea*;  
 351 *obuan*,  
 365 *garchua*;  
 380 *hueraguina*;  
 384 *bicioa*;  
 425 *baldoquia*,  
 426. *parapardi-a*,  
 435 *balbea*;  
 445 *siracha*;  
 451 *seyacaz echun duna ucuzcari jai-  
 gui da*;  
 458 *gorgolla*,  
 472 *garnua*;  
 484 *acizurria*,  
 503 *galenda*;  
 508 *oldoztu, oldozqueran*,  
 519 *cirarra*;  
 526 *nauquera*;  
 554 *ollaquea*;  
 564 *arri iraztua*;  
 574 *enquina*;  
 581 *huarriza*;  
 583 *azaroa*;  
 587 *abarescu*;  
 605 *eraitoquia*;  
 609 *coya*;  
 620 *ucuza*;  
 632 *zapotza*;  
 633 *erbatza*,  
 635 *amarauna*,  
 638 *orricac*;  
 644 *urtiguin*,  
 646 *gurdichapa*,  
 662 *correa*,  
 670 *jazca*.

LAUGARREN TAULA:

MITXELENAREN USTEZ RS GALDUTIK HARTUAK

M-k berak emandako egokitasunekin ari garela gogoratzea konpli bide da<sup>14</sup>: litezkeen iturri-hautagaietarik zenbait adibide baino ez zituen hark eman, ordea, eta ezin espero sistema honen bitartez hau edo hura, hau ala hura, hobe, zehaztea: ez errefrau bat ezinbestez ezagun zuen L-k, ezta ezaguturik ere halabeharrez erabili behar zuen... Horrenbestez, ezta bildumaren tamaina ere<sup>15</sup>.

### 3.5. Azterketa berri baterantz

Ezaguna da D-eko alea amaiera gabea zela, beharbada inprenta lana amaitzeke aterea. Zaila badirudi ere, bada biderik Iruñean 1596an inprimatua bere osotasunean ezagutzen saiatzeko, edota ale hura baino osoago, behintzat, egiteko. Lehenago ere (Lakarra 1991) adierazi dut testu baten, orobat hiztegi baten, eta haren iturriaren arteko erlazioa ez dela nahitanahiez zuzenbide bakarrekoa; simetrikoa izatera helzteaz ezinezko bada ere, egokitasun sistemaren ezagutzak bata izanaz bestearen alderdi zenbait deribatzea dakarkigu inoiz. Hizkuntzalaritzako ohiko usadioen eradura, oraingo honetan iturriaren erabilerak testu-iturria bera, *RS*, neurri batean berreraikitzen lagun gintzakeela erakutsi nahi nuen. Orain arte *RS E*-ren zenbait puntu, sarrera zenbaiten etorkia funtsean, azaltzeko baliatu bada, nago *E* ibiliz ez soilik L-k egin haren erabileraz, baizik eta *RS*-i berari buruz zerbait jakin dezakegun<sup>16</sup>.

<sup>14</sup> *RS* galdukotzat emanei Bizkaiakotzat edota Mendebaldekotzat joak ere gehitzen dizkiet hauen eta besteen arteko mugak oso labainkorrak iruditzen baitzaizkit.

<sup>15</sup> Ene kopuruak zuzen badira 810 hitz dira guztira L-ren *HH*-eko *E*-n (bikoiztasun faltsuren bat kendu ondoren); horietarik 34 kendu beharra dugu behin baino gehiagotan forma eta esanahi berean berbarik ez zenbatzeko. Ezer baino lehen, 451.ekoa (errefrau osoa) erabateko gutxiengoan dela markatu behar dugu, H-en Ax.-en «marra, muga, xedea» taiukoak bezala (cf. Lakarra 1991) edota ia saratarraren erran komunak *E*-n legez. Nolanahi ere, nekez segurta daiteke bat baino gehiago errefrau batetik hartu den eta zenbat. Beharbada, D-eko alearen bitartez ezagutuetatik orriko batzaz beste duen harraldia jakinik edo suposatuturik, hauek zenbatetik atera zitzakeen antzematen saia gaitzke —eta orriko errefrau kopuru ertainaren arabera kopuru osoa— M-k egin bezala. Alabaina horretara baino lehen duela mende laurden pasa (M 1970 dut gogoan bereziki) hark egin ikerketetan zenbait zehaztasun beharko ditugu.

<sup>16</sup> *E*-ko aitzin oharrean L-k dioskunez *HH*-ren inprimaketa bukatzean jaso zuen Bizkaiko misioetarik zetorren Kardaberatzengandik Vinsonengandik hasita *RS*-en aletzat jo izan den «kuaderno zahar» bat. Handik hiztegian ez ziren hitz abondo («con bastantes prolixidad») hartu zuen L-k eta zegozkien gaztelarazko sarreretan ezarri. Horrezaz landa «he añadido también otras muchas voces, que he oído en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buuelto á repassar con cuidado». Gauzak

**3.5.1.** M-k iturria asmatu duela onartuaz ere, zehaztasun haboro lor daitekeela eta inoiz ere beharrezko dela ere pentsa genezake. Izan ere, *E*-ren azterketan sarrera bat baino gehiagotan esaten digu honako edo halako hitza Ax-ek asko darabilela adibideren bat edo beste (gutxitan guztiak) emanaz edota bestelakoa mendebaldekoa dela eta *RS*-en ere badirela, bere txikian, zenbait adibide, hemen ere horietarik batzu agertuaz. Egia da 18 *arrantatu*, 21 *oratu* edota 178 *ipirdia*, 201 *guraria* bezalakoek ez dutela itxura batean askoz gehiago merezi lexikografiaren aldetik, hain baitira usuko dagoeneko ezagun ditugun testuotan; alabaina, lexikografiarekikoa ez bada gure interes bakarra, ezta nagusia ere, merezi bide du, gure iritzian, are sarrera horietan ere litezkeen iturri hautagaitzen artean erabakitzeak irizpideak izateak. M-ren ikerketak gogoan izanik eta behar diren tokietan zuzenketak egin ondoren gelditzen zitzaigunarekin asetu nahi ez denarentzat, *RS*-eko erretrauetarik L-k zalantzarik gabe ezagutzen zituenak, ez gutxi gora behera, zein ziren jakiterik ba ote? Nago badela entseiatu beharreko beste biderik zehaztasun asmo honetan; markatu nahi dut, ordea, ezin itxadon daitekeela segurtasun erabatekorik metodo honen bitartez soilik, eta ez duela M-ren lana hondatzen baizik eta suposatzen, hartan oinarrituaz hura zehazten, sendotzen eta hedatzen.

### 3.5.2. SAIOAK *RS* OSOAREN TAMAINAZ

**a) D-ekoaren hurrenkeraz.** Lehendabizikoa D-ekoaren egiturari, erretrauen antolamendu eta hurrenkerari, so egitea genuke: ba ote horrelako ezer eta, izatekotan, ba ote inongo oinarririk hartan falta den zatiak izan zezakeenez iharduteko? Zerbait bada, zalantzarik gabe: le-

---

honela Ax eta *RS*-erantz zuzendu beharra zegoen *E*-ren iturriak, nagusienak behinik behin, ikertzeko orduan eta bide horretatik abiatu zen M (1970). Urrats bat gehiago ere eman zuen L-k —hitzaurrean hartaz esandakoen ondoren aitor horretan sartzeari gogortxoegi edo iruditurik— aipatu ez zuen Landucci ere hartzekodun egitean. *HH*-aren *E*-n 243 dirrelarik Ax-engandik hartuak (%31,13), 161 ezagutzen ditugun *RS*-eko zatietarik (%20,74), 129 H-tik (%16,62), eta 67 Landucciren hiztegitik (%8,76). 9rentzat (%1,15) hautagai bat baino gehiago dugu ezagutzen diren iturrien artean, 47 *RS* galdutikoak izan daitezke (%6,05) eta 118rentzat (%15,20) ez dugu oraindik iturbururik. 1/6 da, goiko azterketaren ondoren H-k *E*-ren iturriez argitzen duena eta —gainerako iturriei, Ax-i bereziki, M-k egokitu mailebuak zehazteaz landa— erdira jaisten du etorki ezezaguneko sarrera kopurua. Halere, bada oraindik zer iker hondar hori agortzeko. *E*-ren hartzekodun berri bilakatzean, kontu garbiketa berrikusi beharrean gara. Zenbait kasutan H-en lekukotasunak ez du aldatzen lehen M-k emandako azalpena, nahiz hori ezagutu ondoren ere iturria ez delako gure irispidean, nahiz lehengo azalpena zeharka datorrelako (cf. Lakarra 1991: 243 hh). Orain kopuru guztiak zehaztu beharko dira Urgell (prestatzen)-en arabera.

hen orrialdeko errefraua oro A-z hasten dira<sup>17</sup> eta O-z 64., azkeneko ia guztiak<sup>18</sup>. Bigarren orrialdean bederatziren artean nagusi dira B- letraz hasten direnak nahiz eta A- bat eta este E- bat izan eta B- eta C- dira, hurrenez hurren, 3.ean. Alabaina, A da nagusi berriz (D- batekin) laugarrenean, B bat eta C-ren gehiengoa 5.ean, eta —larriago dena— N- bi, bi M-, L- bi, bi V- eta F- bakarra ondoko 6.ean. Hortik aurrera, orrialde batzuetan letra honen edo horren gehiengoa izan arren, jauziak dira aitzin-gibel, bai orrialde berean, bai biren artean ere.

—Ni neu, bederen, ez naiz gai 64 orrialdeentzat balioko lukeen lege hertsia ez zabalik erideiteko. Orobat diot D-ekoan legerik izatekotan, neurriren batean bederen, horren berme etorri beharko luketen Oih-ek gorde zatikoez. Aski bedi ondoko hurrenkera hau gogoratzea: *ynardun...*, *ojal...*, *vrineric...*, *salda...*, *huhu-ene-rean...*, *otu...*, *guiçon...*, *ecandu...*, *barria...*, *maya...*, *jaunen...*, *emazte...*, *maiaz...*, *garrastu...*, *bere...*, *gastelauna...*, *esquerrac...*, *ene...*, *ilbeeran...*, *onerextea...* Zalantzarik gabe, Oih-ek duen kopiatzeko modua «2. graduako desordena» dei genezake; izan ere D-ekoaren bitartez ezagutzen ditugunak ere ez baititu bere hartan ematen eta ezta ordena alfabetikoren batez ere, gorago ikusi bezala; ez da, beraz, harrigarrikorik goiko datuetan.

**b) E-ko RS-en erabilera orokorraz.** Ondoko taulan asteriskoek delako hitza —ezagutzen ditugun errefrauetan— soilik zenbaki horretantxe gordetzen dela adierazten dute; asteriskorik ezak, aldiz, zenbaki horretaz at besteren batean ere azaltzen dela RS-en.

1-50 bitartean: 2, 3, 7, \*9, 10, \*16, 19, 21, 25, 33, 34, 37, 39, 49.

51-100 bitartean: 51, 52, 55, 63, 64, \*69, 75, 76, 78, \*79, 82, 88, 94.

101-150 bitartean: 102, 107, 115, 120, 141, 144, \*149.

152-200 bitartean: 151, \*152, 156, \*159, \*165, \*166, 168, 169, \*171, \*174, \*175, 176, 179, 180, 182, \*183, \*185, 188, 191, \*192, \*196, \*197, 199.

201-250 bitartean: \*201, \*207, \*209, \*210, 211, 214, \*215, 217, \*219, \*220, 225, 228, 230, \*233, \*235, \*236, \*238, \*239, \*241, \*242, \*243, 244, 246, 247, 248, \*249.

<sup>17</sup> Ordena alfabetiko hertsirik (1. *Adi...*, 2. *Aberas...*, 3. *Aberassoc...*, 4. *Abendu...*) ezin eska, Euskal Herrian eta hemendik landa ere hiztegieta alfabetizazioa ez baitzen usuko bigarren letraz geroz (ik. Lakarra 1994 eta han aipatu bibliografia).

<sup>18</sup> Salbuespena 532. *Saguac...* dugu; hemen ere alfabetizazioa ez da bigarren letrara iristen 531. *Oasun...*, 533. *Oroc...*, 534. *Otorde...*, 535. *O\_ac...*, 536. *Hordia ganic...*, 537 *Ogui...*, 538. *Oso...* eta 539. *Ogui...*-ren aurrean.

251-300 bitartean: \*251, 253, 254, 255, \*259, \*260, 262, \*265, \*266, \*272, 275, \*277, \*279, 280, \*287, 289, \*290, \*291, \*295, 298, \*299.

301-350 bitartean: \*301, \*302, \*303, 305, \*307, \*313, 314, \*317, \*319, \*321, \*323, 327, 329, \*331, \*335, \*339, \*341, \*344, \*349.

351-400 bitartean: \*353, \*361, \*362, \*365, \*366, \*367, \*370, 371, \*372, \*373, \*379, 380, 381, \*383, 384, 385, 386, \*388, 392, \*393, \*395, 397, \*398, \*399.

401-450 bitartean: \*402, \*403, \*404, \*405, \*407, 408, \*410, 413, 416, 419, \*420, 422, 428, 435, 436, 437, 443, 450.

451-500 bitartean: 458, 466, 467, 468, 469, 478, 481, 485, 487, 493, 495, \*497.

501-560 bitartean: 506, 507, \*514, 521, 523, 525, 527, \*536, \*541, 542, \*544, 545, 547, 550, 558.

BOSTGARREN TAULA:

LARRAMENDIK EZAGUTU RS-EKO ERREFRAUAK<sup>19</sup>

Datuok esanguratsu izan daitezten, errefrauak zein orrialde eta zein orritan doazen jakin beharra dugu; izan ere, badirudi zatika baino gordez ez zirenak lekat, errefrau bat hautagai bakar bilakaturik, orri horretakoak hobetsi beharra dugula hainbatik hainbatean horrelakorik ez duten orrietakoen aurrean. Hain zuzen ere errefrau horren segurtasunak orri osoarena (aurreko orrialderena zein atzekoarena) dakar eta, beraz, bertako gainerako errefrauak litezkeen hautagai hoberenak dira RS-en behin baino gehiagotan azalduz geroz delako forma hori. Taulak argiro esaten digu 150 eta 400.a bitarteko errefrau izarreztatutak gordez zituzten orrialde (17.etik 48.erakoak) gehienak bederen, guztiak seguruenik, ezagutzen zituela L-k, anitz baitira nahi eta nahiez hark haietarik hartuak. Hortaz, hamasei orrialdetako kuadernotxotan antolatutarik izaki testua, D-ekoaren bigarren eta hirugarren kuadernotxoek (17-32 eta 33-48. orrialdeak, hain zuzen) egiten bide zituzten L-k eza-gutu 60 orrialdeetarik 32<sup>20</sup>.

**c) Lehen eta laugarren kuadernotxoak ezagutzen ote?** Harelere, ez da gehiegi, oraindik beste 28 orrialde argitzea geratzen bai-

<sup>19</sup> Izartxoarekin markatuaz L-k hartu eta RS-en delako forma horrek agerraldi bakar hori duela erakutsi nahi izan dut: gainerakoetan, beraz, uler bedi RS-eko errefrau hori bilduman zituen aukeretarik bat dela.

<sup>20</sup> 17.ak (139-145 errefrauak) eta 27.ak (225-232) L-ren arreta erakarri ez bazuten ere bere alean ziren, hauen gibekeko 18.a (146-154) eta 28.a (233-241), hurrenez hurren, ederki baliatu baitzituen.

tzaigu. Gogoratzen bagara, L-k berak dioskunez, irakur zitezkeen 60 orrialde baitzitu behintzat bere aleak eta 64 D-ekoak. Honek ez zituenetatik zenbat izan zitzakeen L-renak suposatzen hasi orduko komeni bide da hark D-ekoan gordetakoez egin erabilera zehatzago miaztea. Lehen kuadernotxoari dagokionez, badakigu L-k ezagutu zuen alean D-ekoaren 1. ko orria (1-14. errefraua) falta zela, behintzat, bertan baitzihoazen inprenta eta urteari buruzkoak. Esango nuke gehiago ere peitu zuela eta goian eman dudan zerrenda osoaren (hots, litezkeen guztiak biltzen dituenaren) laburtasuna esanguratsua begitantzen zait. Areago dena, 9.a, 16.a, 69.a, eta 79.a (138tik 4 soilik) dira goiko taulan izartxoaren markarekin hornituak lehen kuadernotxoan; bigarrenean 35, ia bederatzi bider gehiago, eta hirugarrenean 44, hamaika bider gehiago. Ikus ditzagun laurok ere xehekiago, orain arte esandakotik ez baita besterik gabe jarraitzen horiek L-k erabili egin zituen eta, hortaz, horiek dituzten orriak, osotoro edo zatika, ezagutzen. Kontuak honela lehen kuadernotik eta ez beste inondik nahita nahiez hartu beharrezkorik ez da batere; bestela esanik, ez da zer suposatu L-k lehen kuadernotxo hori ezagutzen zuenik —orri edo orri zati solteren bat gehienez ere— eta agian hobe hori ere ez onartzea: izan ere, M-k behin baino gehiagotan aipatu L-ren hitz ezezagunen zaletasunak nekez utziko bide zion 12 *hamquer* «cruel», 14 *labio* «rubicorta», 15 *balizco* «de si fuesse»<sup>21</sup> (16ko *itogin* aipatu arrunt horren aldamenean), 32 *anbiolaco* «del tiempo pasado», 49 *trancart* «engaños», 55 *beçuza* «regala», 65 *ysusqui* «escoba», 73 *hendorea* «alcalde», 82 *tacoc* «para» eta beste asko baztertzen. Zein nahi ere den begitazio honen aurrekoa gure iritzia, berreraikitzaileak ez du D-eko liburuaren lehen kuadernotxoaren inongo beharrik L-k E-n sartuak azaltzeko; *entia non sunt multiplicanda praeter necessitatem*.

Goazen orain laugarren kuadernotxora. Honek 49.etik 64.era bitarteko orrialdeak eta 413.etik 539. errefraura bitartekoak besarkatzen ditu. Horietarik 420, 437, 497 eta 514 dira soilik taulan izartxoarekin —hots, RS-eko beste inon ez direla E-n agertu hitzak adieraziaz— markatuak: lehen kuadernotxoan diren berak, halabeharrez, eta, hartan bezala, L-k kuadernotxo honen erabilera urria egin zuela agertzeko ezin adierazgarriagoak, zalantzarik gabe<sup>22</sup>. Nolanahi ere, azken kuader-

<sup>21</sup> E 622 «suponer, *balizcatu*» ez dator hortik M-k proposatu bezala H-gandik baizik: cf. Lakarra 1991, s.u.

<sup>22</sup> Izan bada han 536 *Hordia ganic ençindu çe eguic arean* «De borracho no fies nada» ere, baina E 437 «nada, *arean*» orobat atera zezakeen RS 558 (hots Darms-tadt-ekoak ez baina bai Oih-enak, eta agian baita L-renak ere, gordetzen zuen) *lbeeran ereyn ceguic arean*-etik.

notxotik halabeharrez hartutakoa azaltzeko gehienez ere 2 errefrau, lau orrialde —edo orrialde zati—, behar ditugu. Gauzak honela, D-eko aleak eta L-renak goitik jota 36 orrialdetan egiten zuten bat; bigarrenak 60 orrialde irakurgarri (bestelakorik gehiago?) zituenez, Iruñean argitaratuak bazituen, gutxienez, D-ekoari falta zitzaizkion 24. Logikoena bi kuadernotxo gehiago (32 orrialde, 272 bat errefrau) zituela suposatzea litzateke. E-n diren eta D-ekoan ez beste lekukotasunetan gordetzen ez diren 53 hitz RS-en zati galdutik baletoz M-k (1970)-en susmatu bezala, antzeko zifretara iritsiko ginateke: bigarren kuadernotxoko erabileraren arabera (gutxienez 35 errefrau 16 orrialdetan) 24,2 beharko lirateke horkoen iturriarentzat eta 3. kuadernotxoaren arabera (gutxienez 44 errefrau 16 orrialdetan) 19,2 orrialde.

**d) Larramendik 1. eta 4. kuadernotxoetarik hartu omen zue-naren jatorriaz.** Lakarra 1996a-n M-k (1970) E-ko sarrera batzuekin egina eztabaidatzen eta zehazten dugu goiko gogoeten arabera, usu ez hautagai zerrenda baina bakarria ematea lortuaz; honako hauek dira (zenbakiak E-koak dira):

6. Abril, *opea*; 29. Albricias, *emayenac*; 48. Andas de muerto, *zaraldoa*.; 60. Armas, *isguiluac, isquilosac*.; 64. Arrepentirse, *garbatu*., 134. Cesto, *zarampoa*.; 152. Como, *laso, leguez*...; 200. Desdichado, *ertuna*.; 220. Duende, *irachoa* eta 272. Fantasma, *irachoa*.; 251. Espalda, *quibela, acia*.; 269. Fals'a, *trancarta*.; 271. Fama, *ospea*.; 298. Goter, *itoguina*.; 301. Gruñir, *oñon eguin*.; 303. Guerra, *gudua*.; 322. Honor, *andizura*.; 323. Hormiga, *inurria*.; 328. Huir, *ines, inesi*.; 347. Jarro, *murcoa*.; 398. Mantenimiento, *elicatura*.; 418. Mercado, *ceja*.; 437. Nada, *arean*.; 439. Necesidad, *oparina*.; 468. Olla, *dipidia, lapicoa*.; 506. Pensamiento, *gogaya, gogoa*.; 511. Perezoso, *baraz*.; 521. Pobre, *chiroa, arlota, landerra*.; 534. Prenda, *baya*.; 542. Probar gustando, *elicatu*.; 563. Raposo, *luquia*.; 575. Re-ir, *arritu*.; 582. Roble, *arecha*.; 604. Seso, juicio, *cenzona*.; 614. Sombra, *gueriza, itzalgaizca*.; 645. Tizón, *supita, ichindia*.; 650. Tragar, *irunsi*.; 668. Vengarse, *aspertu*; 673. Vianda, *gondura, oquelea*.; 677. Virote, *matrazia*.; 689. Zapatero, *cirola*.

### 3.5.3. D-eko alean ez diren zatiez eta RS osoaren tamainaz.

Goian Oih-en alearen tamainaz eta bertan izan zitezkeen D-ekoan gorde zatiez aritzean 17,7 orrialde edo atera zaizkigu, 16ko kuadernotxoka antolaturik izaki liburua kuadernotxo bakar bat (136 bat errefrau) ala bi (272 bat errefrau) ezezagun gehiago izan zitezakeen ezin erabakirik, hurbilegi baita gutxi gorabeherako kopuru hori kuadernotxo bakarren orrialdeetarik. Ez genekien ere kuadernotxo eta errefrau horiek L-renak zituen berak ziren ala bestelakoak. Azken puntu hau garrantzi-



tsua dugu zeren eta, batera ala bestera izan, Iruñeko osoa D-ekoaren 539 ezagunetarik *gutxienez* 800 inguruko edota 1000tik gorako ikusia izatera iritsiko bailitzateke. RS-eko zati galdukotzat M-k aipatu E-ko hitzen eta Oih-ek gordetako aleko 20 errefracuen azterketa bide da auzi hau erabaki bidean sartzeko lanabes sendo bakarra.

Badirudi L presatua zela 540 *ynardun*, 543 *altamia*, *dilist(..)ia*, 549 *gastigaturic*, 553 *euterren* eta besteren batez ez ohartzeko; Oih-ek ere oso alper edo beldur behar zuen izan, testu elebidunaren aurrean, L-k D-eko alean ez baina Iruñeko aldez osoagoan irakurri eta E-n ezarritako 16 *achiti*; 23 *cresala*; 24 *osteleuria*; 33 *pozcarria*; 41 *larua*; 76 *azartu*; 101 *ezteguac*; 107 *fresa*; 121 *seldorra*; 123 *azquina*; 131 *coiti-guia*; 146 *gomburua*; etab. edota 451 *seyacaz echun dina ucuzcari jai-gui doa* bezalako pasarteetarik halabeharrez ere bakar bat ez hartzeko.

Gauzak honela, M-k E 58ko *hucha* Oih-ek ezagutu RS-eko zati galduaren bidez (541 *huchan*) azaltzen duelarik, eta hapax baten aurrean garela edota ezinezko dela galdutako kuadernotxoetan bat baino gehiago izatea ezin esan bada ere, E 356 «ladrón *uhuna*»-rekin (cf. RS 544 *huhuñerean*) biltzen badugu ezin esanguratsua goak iruditzen zaizkit bai grafiagatik, bai (cf. Lakarra 1991) grafia horretara heltzeko RS-en bide zuenetik ezarri zitzaizkion aldaketei dagokienez. Oih-ek dakarren RS 546 *azcurriac* M-k nahi bezala (1970: 111) *aciçurriac* «paperas» irakurri behar bada E 484 s.u.-n egin legez, edota —gorago mantendu dugun bezala— *arean* ez M-k eman RS 526 *Hordia ganic ençindu çe eguic arean* «De borracho no fies nada»-tik baizik eta RS 558 *Ilbeeran ereyn ceguic arean* Oihenartek ezagutu zatitik baletor, arrazoi are sendoagoak genituzke Oih-ek eta L-k, partez bederen, RS galduaren zati berberak ezagutu zituztela edota, zehatzago, galdutako zati beraren arrastoak baino ez zizkigutela utzi.

Datuon aurrean L-k eta Oih-ek, galdutako zatiaren bi kuadernotxo, 32 bat orrialde, gehiagoren berri ematen digu (L-ren aleak zituen 60 orrialdeetara iristeko Darmstadt-ekoaren 2. eta 3.az landa behar genuena, hain zuzen), Iruñeko orijinal osoak 96 orrialde eta 759 bat errefracu behintzat bazituelarik<sup>23</sup>.

**3.5.4. Excursusa. RS Hiztegi Hirukoitzaren gorputzean?** Lakarra 1991 eta 1994-n H-renarekin bezala, E-n egin RS-en erabilera baliatzen saiatu behar genuke bertan izan litekeen distribuzio arrarotasunen baten aurrean erabileraren nolakoaz eta, bigarren graduan, L-ren RS-en alearen izaera edo tamainaz zerbait ateratzeko asmoz.

<sup>23</sup> Orain kopuru guztiak zehaztu beharko dira Urgell (prestatzen)-en arabera.

Emaitez, ordea, espero baino are berdintasun handiagoa islatzen dute *E* osoan zehar: beste iturriarekin, Harrietekin, ikusitako desorekaren aurka, 61 hitz dira *l*- letra arte *RS*-etik hartuak, 16 *M*-ren ustez *RS*-en zati galdutik eta 37 etorki zehatzik gabe emanak; handik eta amaierara 64 *RS*-eko, 16 *RS*-en galdutako zatikoak eta 37 etorki zehatzik ez dutenak. Horrenbestez, —eta gogora bedi *L*-k dioenez kuaderno zaharra azken orduan baino ez zuela eskuratu— ez da arrazoi berezirik *RS*-en eragin apartekorik *Hirukoitz*-aren gorputzean, ez lehen alean ez bigarreanean itxadoteko eta izan ere ez dut egin dudan azterketan oraingoz honelakorik lortu; abian diren ondorengo lanek izango ahal dute ideia hauek baieztatzeko edo ezeztatzeko aukerarik<sup>24</sup>.

#### 4. *Refranes y Sentencias*-en jatorriazko hipotesiak<sup>25</sup>

##### 4.1. *Urquijo eta Guerra RS*-ez

Lehen atalean ikusi dugunez, *U*-k *RS* *G*-ren eskutikotzat hartzeko zuen bostgarren arrazoa bildumaren hizkerari dagokio. Aurreko ikerlarien iritziak batu zituen *U*-k berea eman baino lehen: van Eysek bere 1896ko argitalpenaren hitzaurrean bilduma gipuzkeraz dela zioen, nahiz eta bizkaieraren eragin nimiñoa ere izan; Vinsonentzat errefrau gehienak gip-z dira, baina badira *B*-zko hainbat eta baita hego-*GN* eta iparreko-*GN*zko batzu ere. *L*-rentzat *RS*-etako hizkera *G* eta *Bren* nahaste bat litzateke, baina bigarrena nagusi delarik eta Azkuek, azkenik *B* hutsean direla esan zuen, nahiz eta egun zenbait hitz Bizkaian ez erabili eta bai Lapurdin<sup>26</sup>. *U*-ren aburuz, *RS* Arrasaten 16. mendean hitzegiten zen legez idatziak izan daiteke eta hori frogatzeko edo deuseztatzeko egokierarik hoberenean omen zen Guerrari zuzendu zion galdera. Ikusi dugunez, Guerrak gutun batez ihardetsi zion *U*-ri, haren hipotesi guztiak goitik behera onartuaz. *RS*-etako errefrauak irakurri ondoren gehienak Oñati, Arrasate, Aramaio, Otxandio, Legutiano eta Arratiako inguruetan bilduak omen haren ustez, bere bulegora zetozen baserriarren hizkeraren antz-antzekoak izan ere. Gauzak honela, Gue-

<sup>24</sup> Urgellek (prestatzen), zalantzarekin bada ere, bigarren liburukian erabileraren bat izan zezakeela susmatzen du.

<sup>25</sup> Honako hau Lakarra 1996c-ko 4. kapituluaren laburpena da; prestatzen ari naiz haren bertsiio berri bat.

<sup>26</sup> Bostgarren kapituluaren aipatzen ditut Azkuek (1935: 117-118) eman «elementos de otros dialectos vascos y romanismos. Primero se expondrán los vocablos, a continuación las flexiones verbales, ajenos al dialecto bizkaino» (117).

rrak —Idiaquezen eskariari hobeki erantzuteko— GA-k alde hartako herkideei eskatu eta haiek bidali datuez osatutako sorta gisa aurkezten digu *RS*.

#### 4.2. *Azkue RS-ez*

1897-I-31.ean plazaratu zen *Euskalzalere*n lehen urteko 5. «geian» hasi zen argitaratzen *RS* «Esakuneak» sailean; aurreko «geian» (I, IV, urtarrilak 24) emana zen bere asmoen berri:

Igaz irureun urte argitaratu zan Iruñan liburu eder bat, *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance* izentzat daukana. Bizkaitarrez eskutiztuta dago. Berba banakaren batzuk ez-tira gaur esaten; baina ikastetxeak sortuten laungoikoak itxi nai iza-nezkeru, oituko dira. Beste berba batzuk gaur ez-tira Bizkaian entzuten, Lapurdi-aldean baino. Onek bere ederto oitu leikez. Liburu eder au agortu-aginik egon da. Darmstadt-ko Liburutegian bakar bat egoan. Van Eys-ek birregin da igaz barriro argitaratu eban. Eztakit zelan ordaindu ginaion euskaldunok euskalzale iakintsu ta errime oni, guri egin dauskun mesedea. Esku gitxitara eldu leike liburu au; bate-tik moldaldi laburra egin dalako, bestetik nai litzakean baizen merkea ez-talako. Onegaitik EUSKALZALEK irakurleai erakutsi nai dautse. Onetarako, eskutizkera (ortografia) zaarra ta guztiz txarra, barriraz-tuta agertuko dogu.

Urrengo geitik asiko gara esakune onek mortxaka txikietan argita-ratuten. Gaztelarrez da prantzesez biurtuko doguz; eta esakune ba-koitzai azalgeta labur bat geituko iako. (*Euskalzale* I, 28)<sup>27</sup>.

**4.2.1.** Azkuek liburu honetaz berariaz esandako gehiena eta bes-tek haren iritziez egin aipu zuzen eta zeharkakoak *Euskalzale*-ko argi-talpen honi dagozkienez, markatu beharrekoa da Azkuek ez zuela berton inongo monografiarik idatzi nahi izan, ez liburu horren ingu-ruan modu orokorrean, ez alderdi zehatzen batez, ezta orain aztergai dugun *RS*-en jatorriaz ere. Izan ere, zuzenkizunak (batzuek «euska-rara», besteak «azkuerara»), arkaismoen azalpena, ohar historiko eta kulturalak, hizkuntzazko gogoetak... denetarik biltzen da haren edi-zioan. Har ditzagun, esaterako, lehendabiziko biei ezarriak:

<sup>27</sup> Gaurko grafiara aldatua ematen dut Azkuerena (<ts'>, <tx> eginaz); bidenabar hainbat dira, berak dioenaren aurka, iruzkinik gabe utzitako errefrauak. Bestalde, «Erde-razko biurrera edo itzulkeru onetatik, gaztelarra azaldariak edo liburu-egileak berak eza-ri eban; frantzesu, geure adiskide bat (sic) ezarriko da» diosku 38. orriko oharrean.

*Adi adi, ze Jaungoikoa dagok adi.* Mira con cuidado, que el Señor de lo alto te está mirando. Fais attention que le Seigneur te voit.

Le lengo *adi* ta irugarrena bardinak dira; erderazko *atender, atento* esan gura dabe. Bigarren *adi, ai-n* ordezkoa da. *Egon adi* ta *etorri adi, egon ai* ta *etorri ai* esateko. *Adi adi* ta *adi ai* bardinak dira.

*Dagok-en* ordez *iagok* obeto esan leike. Adiskide-artean esaten da *iagok* edo *iagon, dago* esan-bearrean; *iaukak* edo *iaukan, dauka* esateko.

*Aberats izatea*<sup>28</sup> baino *ospe ona obeago*. Mejor buena fama que ser rico. Mieux vaut bonne renommée que fortune dorée.

Gaur, *izaitea* Orozko-aldean esaten da ta Lapurdin. Bizkaitar geienak eta Giputzak *izatea* esan daroagu.

*Ospea*, erderazko *fama* adierazoteko, gaur bere oituten da. (*Euskalzale* I, 37).

**4.2.2.** Herrien aipu gehiago jarraitzen zaizkie azalpenetan, baita arkaismo eta berrikuntzenak ere. Kontuak zuzen baditut<sup>29</sup>, berriaz herri edota bailararen bat aipatzen dituen iruzkinetarik 9 kasutan (5, 19, 34, 37, 105, 107, 179, 243, 470) Bilbo-Txorierri, 6tan (85, 96, 100, 243, 423, 470) Arratia, 5etan (35, 78, 155, 187, 437) Orozko, 4tan (3, 49, 78, 187) Oñati eta 2tan (36, 46) Mundaka dira aipatuak. Bitan (243, 470) datoz bat Bilbo-Txorierri eta Arratia eta beste bitan (78, 187) Orozko eta Oñati; garrantzitsuago dira, jakina, lehen batasunaren aldeko arrazoiak eta Azkuek esplizitoki 85.ean batasun hori markatu ez arren buruan bide zuen: 85. «Ezaun da Arratia edo inguruetako zana esakune onek baturikoa. An esaten da *daude, daue* edo *dabe* esateko». Txorierri-Arratia izango da gero ere bai Azkue eta bai bere ikasle Zamarriparentzat bizkaieraren azpieuskalki gardenenetarik eta badirudi bere ohar arin eta azalekootan ere beren arteko kidetasuna —ia balio-kidetasuna— besteena baino askozaz handiagoa izanik, gune horretarantz garamatzatela berak eman berrietarik atera ditzakegun aieru eta susmoak. Orozko eta Oñati, gutxiago aipatzeaz landa, bata bestearen etsai dira jatorri bilaketa honetan, eta ezer adieraztekotan, bi bazter-hizkerak *RS*-eko arkaismuen iraupenaz ematen duten lekukotasuna adieraziko lukete, batez ere bat egiten dutenean biek<sup>30</sup>.

<sup>28</sup> Honela *Euskalzale*-ko edizioan; orijinalan *-ai-* eta hortik Azkueren iruzkina.

<sup>29</sup> Eta aipuen zehaztasun falta erabat atzendurik, nahiz eta horrek zeresanik izan bere ustezko iritzi edo lekukotasunari dagokionez; beheraxeago zehaztasun falta eta arinkeria horrek gerora bere Hiztegian dioenarekin kontraesanean jarriko digula ikusi ahalko dugu.

<sup>30</sup> Mundakak, azkenik, ez batera ez bestera ez garamatza, urriegi baitira bere aldekoak eta zehaztasun apur bat bilatuz geroz BZeko lekukotasun gehienekin batera duen ezaugarriren bat (ze) da jokoan.

**4.2.3. RS Azkueren Hiztegia.** *RS*-eko hitz andana bat aztertu dut, «B orokorrak» ez izaki zein azpieuskalki edo hizkera modernotatik gertuen agitzen den *RS*-eko lexikoa ikuskatzeko; ezaugarri guztiek pisu bera ez duten arren, ohartzekoa da Txorierrri eta Orozko direla nagusi 50 eta 48rekin eta aski hurbil Arratia 37rekin; urruti gelditzen dira Mundaka-Lekeitio pare bat dozenarekin eta Gernika-Bermio beste horrenbesterekin; are urrutiago Otxandio-Ubidea-Zigoitia dozena eskasarekin. Txorierrri eta Orozkokoei gehitu behar zaizkie batetik Urduliz-Bakio-Berango-Getxo eta bestetik Basauri-Galdakao batasunen dozena, are garbiago gelditzen delarik testuaren jatorria B-mendebalean, ipar-mendebalean beharbada, bilatu behar dugula.

Bere «Evolución de la lengua vasca»-n ere ez da Orozkoren aldeko ezer kausitzen ahal: 61. orrialdean B-arkaikoko lan garrantzitsuena legez aurkezten digu, hurrengoan —van Eys-en aurka— batez ere bizk nahiz eta gip eta naf apurrekin dela bertako hizkera, 74.ean *emoile* lehendik esana zigun bezala Orozkon (eta Erronkarin, gehitzen du) erabiltzen dela, 77.ean *bi dai* oinarriztat harturik erre-frau horren biltzailea Leintz-Otxandio aldekoa bide zela adierazten (oker agian), 79.ean *RS*-ekoen antzeko aoristo zenbait Plentzi-Barrikan entzun zituela markatzen eta 117-8.etan «beste dialekto batzuetako formak» zerrendatzen. Eta hori da guztia *RS*-en jatorriaz lan honetan.

#### 4.3. *Bittor Kapanaga*

«Testu zahar baten bitxitasunak» izenburu beharbada adierazgarriarekin argitaratu zen *Euskera* 1983-koan Bittor Kapanagaren lan bat *RS*-ez. Bertan «bilduma hori Mendebaldeko euskalkiaren eremuan egina denez, euskalki hori ezagutzen duen batek egin behar lukeen» (159) azterketaren aitzindariztat aurkezten digu berea egileak. U-k euskara, Mendebaldeko euskalkia batez ere, behar bezala menderatu ez, eta bildumako erre-frau gehienak erdaratikoak direla frogatu nahi omen zuenez, haren bildumaren ekoizpen eta jatorriarekiko iritzien ahulezia erakusten saiatzen da hasiera beretik:

1. Egile bat-berak eginak balira erderatik euskerarako itzulketak eta honetatik berriz erderarakoak, hor ageri diren aldaketa eta bihurketak barneko direla, iruzurkeria latza litzateke liburu horren egintza.
2. 1596. urtean argitaratua izan zen liburua, inprimatzailearen izena ondo agertuz eta egileenik aipatzeke. Urte haietako liburuak ikusiz, eta izaten dituzten eskaintza loriatsu eta handikoiak kon-

tutan izanez, ulertezina zaigu oraingo honetan egile bat izan eta bere burua izkutatzea.

3. Liburuko euskal testuak, Mendebaldeko euskalkian ditugu gehienak; eta honen barruan, Arabako euskera nagusi dela, esan liteke; baina Arratiakoa ere ageri da, Lenitz aldekoa eta beste batzuetakoak bezelaxe. Beraz esku asko ageri dela hor, pentsakizun bidezkoa genuke.

Gauzak honela, Kapanagaren ustez (1983: 161) ez egile bakar bat baizik eta apailatzaile edota edizio arduradun bakar bat izango genuke, bere ustez, nabarmenki Mendebaleko euskara ezagutzen ez zuen apailatzailea, izan ere. Egileak beste nonbait kokatzen ditu, Gasteiz edota inguruetakoa komenturen batean, hain zuzen:

Zerbait pentsatu behar eta, pentsa dezagun, Gasteizko edo inguruko uriren batetako komenturen batetan egina dugula bilduma, urte askotan zehar. Gauza asko ulertu daiteke horrela: arabar euskeraren eragina, baina era berean beste eskualdetakoak ere agertzea; bilduma osoaren zehar (sic) ageri den erudito usaina; gazteleratik itzulketak, Ekialdeko euskeratik (hainbat ageri dira), eta bertako esaerak nahaspildurik agertzea; iturri batetatiko itzulketetan hain estilo ezberdinak ageri izatea, etb. (*ibid.*).

#### 4.4. Hipotesi berri baterako

**4.4.1. Orozkori aitzi.** Aurreko ataletako frogan pisua gora behera, ene ustez argi asko izan behar genuke orain artekoaren ondoren RS funtsean B, eta zehatzago, mendebaleko B dela. Gorago ohartu da, jada hizkuntzaren alderdira joaz, aditz morfologiako ezaugarri garrantzitsu bat baino haboro duela Mik bilbotarrarekin, ezaugarriok are interesgarriago bilakatzen direlarik RS-ek mendebal aldeko gainerako testuekin dituen ezberdintasunen aurrean. Ikusi denez, RS-en etorkiaz galdetzean Azkuek Arrasate erabat ezinezkotzat jo gabe Orozko hobesten zuela idatzi ziola gaitzitzen zigan U-k, mende hasieran han gordetzen baitziren gorde ere bilduman agitzen diren hainbat ezaugarri; alabaina, *emaiten* edo *beranquetan* bezala ez Orozko baina Leintz aldean gordetzen diren formak ikustean ez zuen gaitzesten haren hipotesia. U-k, ordainez, bere GA-ren egiletasunaren hipotesiaren barnean, zati nagusia arrasatearrak bere herri inguruan bilduko zuela mantendu zuen baina orozkoar laguntzaileei zorko litzaizkieela gehituz Azkuek ikusi uste zituen herri hartako hizkeraren ezaugarriak. Bildumaren egilearekiko haren hipotesia deuseztatu ondoren errazki ulertuko da U-ren

ahulagoaren pisua. Azkuerenak, aldiz, hizkuntzaz bestelako ondorioetarik askea izaki, azterketa berezia merezi zuen. Damurik, ordea, ez dirudi inoiz bere hipotesia zehaztu ez arrazoitu zuenik, ez bederen lan bereziren edo zabalago baten zati batean. Testu hori luzekienik «Evolución...»-en (U-ri egin gutuna mende laurden lehenagokoa da) aztertu zuen bertako gramatika eta hiztegiarko arkaismoak erakusteko. Hala ere, bildumaren edizioak eta hizkuntza aipatzean ez da zehatzegi etorkiaz eta, bidenabar, Orozko ez da ezertarako ere aipatzen:

Orozkoen aldeko hipotesia M-k berrartu zuen XVII eta XVIII. mendeko hiztegiarekin egindako euskaltzain sarreraren adabaki batean. Bertan «ezta nora ezekoa, jakiña, guztiak leku berean sortuak izatea» markatuaz hasten delarik, «zenbaiten ustez, badute [errefrau] batzuek Orozko-aldeko usaia eta neroni ere bat natorkie» diosku, froga gisa datu berri bat aurkeztuaz: L-ren Eko 451. sarreran «Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina ucuzcari jaigui da*» D-eko aleak gorde ez zuen bilduma horretako errefraua dugu. *ucuzcari*-k, M-ren ustez *ucuzca* irakurri beharko litzateke, eta Darmstadtetakoan azaltzen den *uhñerean i...u > u...u* aldaketaren aldeko lekukotasunak dira; Mi-k, aldiz, *ycusle* «lavandera», «suzio, *ycusquea*» eta «*ycuscata-sumbat*, una sociedad» asimilaziorik gabe dakartza. Alabaina, gogora bedi M ez dela ari bilduma osoaren baina errefrau honen eta, agian, beste zenbaiten etorkiaz.

1986an Garigorta eta Gamindek argitaratu zituzten Orozkon 1739an idatzitako erregu labur batzu. Han azaltzen den hizkera RS-ekoarekin erkatzeko gogora bedi, 18. mendeko testu horren gaztelarazko aurkezpenean adierazten den bezala, erregu horien ohitura eta, beraz, haietan islatzen den hizkeraren hainbat xehetasun goragotik zetorela.

Har bitez *-ie- misericordiecoa-n*, *g- guey-n*, *ch- guegananch-en*<sup>31</sup>, *-e- vedequetuan-en*, *icen (gaitezanzat)-en*, *yzen (bide)-n*, *misericordiecoa-n horduen-en*, *santueri-n*, *saludeetan-en*, *bulerreco-n*, *zengui-zenac-en*, *yregaro-n*, *zenguizelaco-n*, *daguicela-n*, *daguizucela-n*, *pecatariac-en*, *graciera-n*, *alivie daguizuzela-n*, *gustiec-en*, *santuen-en*, *bedeynquetu-n*, *virgine-n*, eta *originelen-en*, *-e baite-n* eta *gauce-n*, *-ei-leincoen-en*, *-u- erruquiurra-n* eta *sigluetaco sigluetan-en*<sup>32</sup>, *-m- yminten-en* eta *eminten-en*; ez da horrelakorik RS-en.

<sup>31</sup> Cf. *da osterancheco dacusgucen da estacusgucen gauzac (Viva Jesus 4)*, eta *osterancheco hondasunec (Viva Jesus 11)*.

<sup>32</sup> Markatzeakoa da 59 *dusuguz* (baina 61 *deusegu*), hau beste fenomeno bat izan arren.

J.I. Aranak zioenez «en vascuence vizca'no occidental de Vizcaya y Alava»<sup>33</sup> (*apud* Mitxelena 1954: 85) bada *Viva Jesus*, eta Vinson eta Uren ustez 17. mendeko edizioan gordea baina lehenagoko baten berrargitalpen, garaikide erabateko ez bada ere, hegomendebalekoen artean hori da *RS*-etik gertuko egiten zaiguna.

Bokalismoaren aldetik itxura guztien arabera *VJ* hurbilago dugu Orozkoko 1739ko testu labur horretatik *RS* baino: cf. *vcenean* 3, *zure uzena* 13, baina *launec* 2, *situcen* 2, *hicen zan* 2, *crucificadue* 2, *or duen* 2, *cumplimentue* 2, *divine* 2, *christiñeuen* 2, *sinifiqueduric* 2, *generalissimuen* 2-3, *mundue* 3, *araguie* 3, *acostumbredu* 3, *confianza* 3, *andiegas* 3, *becoquien* 3, *libredu* 3, *gaguicenzat* 3, *dogule* 3, *laune* 3, *bulerrera* 3, *guei* «deitu»3, *deucegule* 3, *Trinidede* 3, *persinedu* 3, *santiguedu*, *M*-ren edizioko lehen lerroetarik jalgi gabe (1954: 87-88), *gracii* 9, *santueu* 9, *gueyego* 12, *caridedean fundeduec* 13, *gueuguena* 14, *vici iceteco* 16, etab ez aipatzearren; berriz ere, ez da honelakorik *RS*-en. Kontsonateei dagokienez, bi ohar moeta, bata orokorrigo, bestea xeheago, iruditzen zaizkit komenigarri; alde batetik, *VJ*-en dagoneko nabarmena da txistukari neutralizazioa aurreratua zela: *situcen* 2, *gustia* 2, *legues* 2, *asquero* 2, *se señale* 2, *señaleagas* 2, *gaguizus* 3, *deucegule* 3, *ezerean vrteiten dogunean* 3, *elexaan zarçaiten* 3, *zasp* 4, *deuzut* 4, *deucet* 4, *es* 4, *esebere eserean* 4, *cegaitic esse* 5, *sidin* 5, *senguisen* 7, *gause* 7, *gorpusbaten* 9, *seinzuc* 9, *locearren edo bildurrrarren* 10, *messaan* 11, *deuzudes* 16...

Halere, adibide gehiago dira txistukari neutralizazioaren isla grafikorik ez dutenak eta oso gutxi hiperzuzenketak; bestela esan, *MI*-k mende berean aitzinatuago zuela esatera ausar bide daiteke baina agian ez digu ezaugarri honek balio *VJ*<sup>34</sup> *RS*-etik bereizteko, hemen ere neutralizazioaren zenbait arrasto agertzen direlarik beranduago hedatu den fenomeno baitirudi (ikus XXXX).

Aditzean *contenietan daudeena* 7 / *Elexa santa catoliqueac iracasten dabena* 7, *ofendidu daudeenagas* 9, *errecibietan daudena edo celebretan daudeena* 11; aurkitu arren, ez da *RS*-eko (eta *MI*-ren *Modo*-ko

<sup>33</sup> Uler bedi beti 19. mendearen egoeraz eta orduko materialez Bonapartek egindako sailkapenaren arabera.

<sup>34</sup> Orozkoko 1739koan gutxi dira neutralizazioaren arrastoak (ez ditut mailebuak sartzen): *vizicea* (3), *zeugan* (7, 45), *negarrezco* (9), *eguizus* (11), *zeure* (12, 14), *gustiz* (13), *eracusi* (16), *eguiguzu* (16), *guztis* (18), *gozo* (20, 29), *eguizu* (21), *icen gaitezanzat* (23), *aguinze gustiz* (25), *nogaz* (27), *ceure* (28, 40), *semeari* (30, 48), *zana* (32), *vizi* (35), *escuetan* (40), *gorpuz* (41), *zeuc* (43), *gaguizuz* (44, 46), *eriozaco* (45), *doguz* (54, 68), *zenguizenac* (58), *dusuguz* (59), *zenguizelaco* (60), *esqueetan* (61), *deusegu* (61), *daguicela* (61-62), *daguizucela* (62-63, 65-66), *gauce* (68), *gustiec* (68), *vihoza* (69), *semeen* (73), *zyen bide* (82). Leherkari aurrekoa dirudi aitzinatuen den kokagunea.



-n > ø aditzen lehenaldian VJ-en: *esan situčen 2, egin situčen 2, emon eben 2, Áan eta da 2, hícen zan 2, 6, euguieben 2, acabadu eben 2, cein sidin guizon? 5, non cidin guison? 5 gueracidin virgine 6, libredu guenguicê? 6*, etab. salbuespenik gabe 16 orrialdeetan.

Ikusi dugunez, joan den mendean erorketa moeta hau «Bilbo inguruko kostaldeko herrixketan» gertatzen zen Zabalaren esanetara (1848: 57) eta horrelatsu 20. honetako arrasto eskasetan ere. Litekeena da distribuzioa antzerakoa izatea lehenago, 17. mendean eta are lehenago ere iparra eta hegoa mendebaleko B-az ezaugarri honen arabera bereiztea: hots, hegoaldeko lirateke VJ eta Orozkoko 18ko erreguak, iparraldeko Mik eta RS.

**4.4.2. Zenbait gogoeta generoaren soziologiaz.** Orain arteko oharrek mendebalean iparralderantz begira jarri bagaituzte, testuaren izaerari buruzko gogoetek ere nonbaiterantz egitekotan Bilborantz begira jartzen gaituelakoan nago etorkiak bilatzekotan.

Ora se atiende a la categoría social del individuo, ora a su talento, con sólo echar una rápida ojeada por la literatura patria veremos muy luego que el asunto que nos ocupa ha merecido ser tratado de un modo más o menos directo, pero predilecto siempre en el terreno lingüístico, por plumas tan ilustres y graves como la de D. Iñigo López de Mendoza, marqués de Santillana; Hernán Nuñez de Guzman, llamado comunmente el Pinciano por haber sido natural de Valladolid, antiguamente Pincia, o el Comendador Griego, a causa de haber comentado o explicado los AA. helenistas en la Universidad de Salamanca; Mosén Pero Vallés, historiador insigne; el obispo de Astorga D. Fr. Antonio de Cáceres y Sotomayor; Cervantes; Quevedo...<sup>35</sup>.

zioen J. M. Sbarbik 1874an bere *El refranero general español*-en (I, vi. or.). Ezaguna denez, HN-engandik (1555) Correas-enganaino (1627) Pedro Vallés (1549) edo Juan de Mal Lara (1568) tartean direlarik, gutxi batzu baino ez aipatzearen, errefrau-bilketan aritu ziren espainiar humanista famatuenetarik anitz (cf. Combet 1971: 135). Haien lanean, jakintsuen idazkienganako begiruneaz gainera, «txiroen filosofia», «arte herrikoia» eta «berezko sormena»-ren aldeko benetako ones-

<sup>35</sup> Beranduago ezagutu eta Sbarbik aipatu gabe utzitako Gonzalo Correas «Catedrático de Griego y Hebreo en la Universidad de Salamanca» genuen bere *Vocabulario de refranes y frases proverbiales y otras fórmulas comunes de la lengua castellana*-ren tituluaren (1627ko eskuizkribua) agertzen zuen bezala; Juan de Mal Larari buruz (*Filosofía Vulgar*, Sevilla 1568) «fair aussi partie de la grande lignée humaniste et érasmisante de la Renaissance espagnole. Professeur et polygraphe, sa vie et son activité intellectuelle l'apparentent à ses maîtres» diosku Combetek (1971: 152).

pena aurkitzen dugu Chevalier-en ustez (1979: 105). Dirudienez, sentimendu eta joera hauek Espainian beste inon baino zabalduago ziren, ez Frantzian, ez Italian ez beste Europako herritan eriden ahal baitugu bere hedadura eta sakontasunean xv. mendearen azken hamarkadez geroztik espainiarren artean herri lirika, romanceroa eta errefracuen alde aurkitzen dugun zaletasunarekin. Asko eztabaidatu izan da honetan guztian Erasmoren jarraitzaileek izandako erantzunkizunaz; nolahi ere, argi dago haren *Adagia* famatuek jarraitzaileei eta enparatuei bihotz eman ziela eta zuritu zituela delako paremiologiako lanotan.

Ez dirudi xvi. mendearen amaieran *RS* bezalako bildumarik espero genezakeenik Bizkaiko (edota Euskal Herri osoko) herrixkaren bateko ezein elizgizonengandik eta bai nolabaiteko kulturguneren baten inguruan kokatzen zen laiko ikasiren batengandik. Ez da ahazteko, bidenabar, ez apaiz baizik historialari zen Garibaik berak ere ez zituela errefracuak Arrasaten eta Arrasaterako egin, kortisau baten eskariz baizik edota Isastik ere gortean idatzi zituela bereak (*Compendioa* bera bezala) eta ez Lezon. Iparraldeko Zalgize, Bela eta Oih laiko humanisten eredu diskusiogabeak ditugu hemen luzatu behar izateko.

**4.4.3. Bilbo aldeko literatura zaharraz.** *Atseyñ andia da amore eutea /Eta bere bada gustiz firmea...* irakurtzen da *RS* ere ezagutu eta erabili zuen Oih-ek bere *Art poétique*-n eman adibide batean. Sarasolak erakutsi bezala (1984: 86-87), badu hark «poesía galante vizcaína» deitzen duen poesia moietaren eiterik; azpigenero horren barnean kokatzen ditu hark «Catigatu ninduçun librea ninçana» (*Contribución* 87 hh), MI-ren biak (*TAV* 133 hh), «Ene veguiacaz vioçeen artean» (*TAV* 122), «Zure vegui ederroc» (*TAV* 123) eta Perutxoren kanta (*TAV* 103). Hizkuntzaz «la composición, en su brevedad, es una buena muestra del tipo de lengua que suele denominarse vizcaíno antiguo» diosku labor Sarasolak (1984: 87), baina gehixeago zehaz bide daiteke, berak ikusi bezala horko 3 *leydis* bezalakoak nekez aurkituko baititugu *RS*-etik landa eta —batez ere—, 5 *nindia*-ren kidea *Modo breue*-an (*mudadu nindia*) erideten dugu hain zuzen.

Hots, B-ren barnean Bilbokoa edo Bilbo aldekoa izateko aukerarik badu orain iruzkitzen dugun eta hain modu xelebrea gorde izan den bertso honek. Badira MI-ren aipatu liburuan bere garaiko eta lehenagoko poesiaz gogoangarri diren ohar labor batzu: arrastorik laga gabe joan zaizkigun «moderno» horiek zenbat eta nor ziren jakin ez arren, badirudi Bilbo inguruan bide zirela poesia jaso hori lantzen zutenak. 16. mendearen bigarren zatian eta 17.ean zehar arrasto ilauntzat *Modo breue*-a baino utzi ez digun hango literatur giroa, denik txikiena

ere izaki, berezia izan zela ohartzeko gogora dezagun Euskal Herrian bi ordezkari baino ez dituen generoa: hizkuntz eskuliburuena, alegia<sup>36</sup>.

Horrenbestez, Donibane eta Bilbo ditugu europar genero berezi horren kokagune bakar Euskal Herrian; ez ote hori *Refranes y Sentencias*-ena izateko aukera gehien dituen ere?

#### 4.4.4. **Realia.** Har bitez hurrengo errefrauok:

92. *Celangoada Butroe oroc daquie.* Que tal es Butrón todos lo saben.

167. *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian.* El tartago mató a la hija de Butrón en Plencia.

270. *Muxica arerioacaz aguica.* Muxica a dentelladas con los enemigos.

273. *Gaçean, gaçean ta ez Ybarguengorean.* De la sal, de la sal, y no de la de Ybargüen.

284. *Aramayo dabenac ezlemayo.* A Aramayona quien la tiene no la daría.

334. *Daygu Goliz auzi ta garea vaquez bizi.* Hagamos pleyto de Goliz y seamos con paz biuir.

387. *Albia deunga dustien abia.* Albia, nido de todos los malos.

404. *Butroeco meniac gayti ez ysquillosay echi.* Por las treguas de Butrón no dexes las armas.

Hauek ditugu, okerrik ez bada, *RS*-en herri edo familia izenen bat dakarten errefrau guztiak. 270, 273 eta 284.aren aitzinean lehendabizikoan besterik uste izan arren, Bilbo edo haren iparraldeko herrixkaren batetik sortutakoen antza dute. Goiko hiru horiek ere ez doaz uste honen aurka: beren ezagutza eremua gainerakoena baino zabalagoa izaki, ez dute etorki zehatz bat bilatzeko balio. Bi lehenak eta azken hirurak are hobeto datozkigu gure hipotesirako, eta are gehiago 387.a

---

<sup>36</sup> Lakarra 1995a-n erakusten den bezala, merkatalgorako zuen garrantzia bide da No'l Berlaimont-en *Colloquia*-en Holandako edizioetan ingelesa agertzeko arrazoi nagusia. Frantses-flamendar itxuran hasi zen 1530ean Antwerp-en lehendabizikoz atera zenetik mende eta hiru laurdenez Europa osoan zehar zabaldu zen liburu arrakastatsua; alabaina, ehunetik gora edizio izaki, asma daitezkeen gonbinaketa gehienetan bildu zituen latina, gaztelera, italiara, portugesa, alemaniera, ingelesa, txekiera, polskera eta bretoiera ere, noiz binaka, noiz hironaka, eta are lau, bost, sei eta zazpiko taldeetan. Euskal Herrian ere islatu zen, betiko neurri apalean baino ez bada ere, lexikografi eredu hau. Horren barnean kokatzen dira erosoetik Voltaire-ren *L'interprète ou traduction du François Espagnol & Basque* eta haren familia, eta baita *MI*-ren liburua ere. Bata Donibane Lohizune eta Ziburuko euskaran («denik ederrenean») eta Bilbokoan bestea, orain arte esandakoaren bermegorik azkarren ditugu, *XVII*. mendean Euskal Herrian ziren bi portu eta merkatal gune nagusien izaki.

ez lehen ez gero bere eremu meharretarik landa oihartzun gutxi izan duen Albia horren aurrean: nork sor zezakeen eta gogora hobekienik hari buruzkorik?

**4.4.5. Hizkuntzaz.** Euskal hizkuntzalaritza historikorako lekukotasun garrantzitsutzat jo izan da arrazoi osoz *RS*. Lakarra 1986b-ko orrialdeetan dagoeneko, BZ eta gainerako euskalkiak erkatzen nituelarik, bere pisu hori zenbaterainokoa den antzeman ahal zela uste dut. Lakarra 1996c-n aurrekoan aztertutako morfologia eta sintaxiazko ezaugarri larri batzuek miatu dira (1986a-ko GA-rekiko erkaketa zanalduaz eta abian diren beste zenbaiten) laguntzarekin hortik zenbait ondorio atera ahal izateko *RS*-en kokaguneaz BZ-aren barnean<sup>37</sup>. *RS* bazter hizkera bat(zu)en isla legez azaltzen zaigu, arkaismu ugari eta berrikuntza esanguratsu zenbaitekin, MI bilbotarraren hizkeratik gertuen BZ-koen artean<sup>38</sup>.

	15.m	16.m	GA	RS	BE	EK	MI
1. ABL	-3	-3	-3	-3	+2	-2	-2
2. PROS	()	()	-3	-3	-3	-3	-2
3. SOZ	+3	+3	()	+3	+3	+3	+3
4. -a/-e-	()	-3	-3	-3	-3	-3	-3
5. -de	()	()	-3	+3	-3	+3	+3
6. -n >- ∅	-3	-3	-3	+2	-3	-2	+2
7. FUT.ZAH.	()	()	-2	-2	+3	-1	-1
8. FUT. INP.	()	-3	()	-2	+3	-1	()
9. -zu «pl.»	-3	()	()	-3	()	-3	-2
10. AOR	-3	-3	-2	-2	+3	-2	-2
11. <i>eroan/joan</i>	()	()	-3	-3	()	()	-2
12. <i>ezan/egin</i>	()	()	()	+1	+3	+3	+2
13. -∅/-tu	-3	-2	-3	-2	+3	+1	+1
14. KOM	()	()	()	-3	-3	-3	-3
15. <i>bai(s)t-</i>	()	()	()	-2	+3	+3	+3
16. TOGEN	()	()	+3	+2	+3	+3	+3
17. GEN.GON.	()	()	+3	+2	+3	+3	+3
18. KOOR.Z.AH	+2	+3	+3	+2	+3	+3	+2
GUZTIRA	-10	-11	-16	-13	+16	+2	+5
BATAZ BESTE	-1,4	-1,3	-1,3	-1	+1	+0,1	+0,3

<sup>37</sup> Bidenabar, 1996c-ko kapitulu horrek ondoren argitaratzen diren erreferauak irakurtzean norbaitek izan ditzakeen zenbait zailtasun arintzeko ere balio bide lezake. Liburu horretan bada kapitulu bat *RS*-en hiztegia (eta adizkitegia) bilduaz

<sup>38</sup> Zehaztasunetako jo bedi aipatu lanera; hobeki uler dadin ezezkoa (-1etik -3ra) jarri zaie mantendu arkaismoei eta baiezkoei (+1etik +3ra) berrikuntzei): «1» adibideren bat denean, «2» kontuan hartzeko proportzioan, «3» agerraldi erdiak baino gehiago.

	KA	VJ	AM	BB	Zub	AR	BA
1. ABL	-2	-1	-1	+1	+1	+2	+2
2. PROS	-3	-1	0	-3	0	-2	-2
3. SOZ	+3	+3	-2	+3	+3	+3	-2
4. -a/-e-	-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3
5. -de	-3	+3	-3	-3	-3	-3	-3
6. -n >- ø	-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3
7. FUT.ZAH	+2	()	+3	-2	+3	+3	+3
8. FUT. INP.	+2	()	+3	+3	+3	+3	+2
9. -zu «pl.»	()	()	()	-3	()	()	-2
10. AOR	+2	-2	+3	+3	+3	+3	+3
11. eroan/joan	-1	()	()	()	()	()	()
12. ezan/egin	+2	+3	-2	+3	+3	+3	+1
13. -ø/-tu	+2	+2	+2	-1	+2	+3	-2
14. KOM	-3	-3	+2	-3	-3	-3	+2
15. bai(s)t-	+3	+3	+3	+3	+3	+3	+2
16. TOGEN	+2	+3	+3	+3	+3	+3	+2
17. GEN.GON.	+3	+3	+3	+3	+3	+3	+3
18. KOOR.ZAH.	+2	+3	+3	+2	+3	+3	+2
GUZTIRA	+7	+10	+11	+3	+15	+15	+5
BATEZ BESTE	+0,4	+0,6	+0,7	+0,1	+1	+1	0,3

SEIGARREN TAULA:

BIZKAIERA ZAHARREKO ZENBAIT TESTUREN ERKAKETA

Edozein ondoriok *RS*-en arkaikotasun ezaguna islatu behar du, bai BZ-eko gainerako fetxadun testuez, bai euskalki orotako lekukotasunak kontuan harturik ere.

Urte berean argitaratu zen BE-ren dotrinarekin erkatzea genuke, noski frogarik errazena: berrikuntza batean (3.a, soilik *-gaz*), eta hiru arkaismotan (2., 4. -eta 14.a) datoz bat; beste guztian, *RS*-ek gordetzen dituen 12 arkaismo (1., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 15., 16., 17., 18.a) ez ditu egiten BE-k, eta soilik 6. *-n > -ø* fenomenoan jotzen du arabarrak zaharraren alde besteak berritzen duen bitartean. Bestalde, ez da arkaismo ez berrikuntzarik non BE-k soilik *RS*-ekin batera irakur dezan: sozietiboan *-gaz* bakar dute biek baina beste hainbatekin batera eta goian aipatu hiru arkaismo amankomunetan ia BZ osoarekin, eta B osoko testu gehienekin.

Morfologia eta sintasiko ezaugarri hauetan ez da horrenbesteko diferentziarik *RS* eta G-ren artean, nahiz eta honen korpus laburrak gonbaraketa zaildu: 18tik 6tan dute ezaugarriren bat amankomunetan eta

gradu bertsuan (cf. 1, 2, 4, 7, 10 eta 11), beste 4tan gradua da ezberdina (13, 16, 17, 18), 6etan ez dira parekagarri aipatu korpus laburtasunagatik eta soilik 3tan da diferentzia ezaugarri baten aurrean batak arkaismua eta besteak berrikuntza: (5, 6), bata bataren eta bestea bestearen alde, bidenabar. Pentsatzekoa da gonbaraketa honetan bereziki lexikoa sar bageneza kontuak oso bestela lirakeela (gogora 1. ataleko gonbaraketa laburra) baina ez dira Menéndez Pidalen eta M-ren irizpide honen ahultasunarekikoak ere atzendu behar.

GA eta BE —artearen ez bezala— beren aldetik gonbaratzeak ere bataren arkaisu nabarmen *RS*-ek estaliz eta bestearen berritzaile izaeraz ohartzeko onik ekar lezake: GA-ren berrikuntza guztietan (16, 17, 18) berrikuntza du BE-k eta baita hark arkaismua mantendu (1, 7, 10 eta 13) ezaugarrietan ere. Hizkuntzak eta dialektoak banatu eta sailkatzean hainbateko garrantzia eman zaion berrikuntza amankomun bereizleertara jotzen badugu, *RS*-ek MI-rekin du horrelakoetan duen bakarra: 6. *-n > -ø*. Bi testu hauen arteko lotura antzeman daiteke amankomuneko arkaismuetan ere: 1. abl., 2. prosek., 7. fut.zah., 10. aor., 12 \**ezan/egin* (beste muturreko AM eta BA dituztela kide); berrikuntzetan, aipatuaz landa talde mugatu batekin (EK eta VJ-ekin) dute *-de* berrikuntza (mendebalekoa) eta horiek dute amankomunean aoristoaren iraupena ere.

Goiko zifrak begirune osoz hartzerik espero ez badut ere, esperimendu huts baterako horrela eginik, eta ezaguturik zutabe zenbaitetako hutsuneez, hasierako hiruretakoek bereziki, kalkuluak arriskutsu bilakatzen baditu ere, oro har —GA eta *RS* arteko jauzia lekat, beharbada— testuetan islatu hizkeren berrikuntza erlatiboa sinesgarria iruditzen zait: BE-ren kopuruetara soilik mende bat beranduagoko durangarren testuetan iristen gara; mutur batean kokatu BA besteko 7-8 hamarkada lehenagoko MI eta beste horrenbestezko KA-ren indizekide dugu. KA eta beste bien arteko kidesuna azal zitekeen, agian, garai diferenteetako izanik gainerakoak (hori da BA-ren kasua) eta denbora aurrera doan heinean bazter hizkeren beren arkaismoak galduaz, erdialdeko berritzaileagoekin parekatzen direla suposatuz; alabaina, eta garaikide hertsiki diren KA eta MI? Oraingo honetan ez da bazter hizkeren izaera ezagunaren tasunetarik bat gogoratzea baizik, abartasunarena, alegia. Izan ere, ezin pentsa daiteke hizkera hauek arkaismo aterbe soil direla; horietarik asko gorde arren, badute baita berrikuntza anitz —era askotako mailebuak, esateko— onartzeko eta are hedatzeko joerarik<sup>39</sup>.

<sup>39</sup> Lakarra 1996c-n goikoa osa lezakeen taula eman nuen, dozenerdi ezaugarri fonologikorekin; han atera ditzakegunak ere ez doaz lehen bestelako ezaugarriez ikusiaren

Hizkuntzari dagokionez, Azkueren eta M-ren Orozkoren aldeko hipotesiaz landa, bazen goian ikusitakoak berriz burura dakigukeen Bilboren aukera kontuan hartzeko zailtasunik. Aurreko lan batean (1984b) BZeko ablatiboa ikertzean, oztopoak aurkezten nituen MI eta BE-ren datuak bata besterekin konpontzeko, biak Bilbokotzat jo behar baziren bederen.

Aurretiaz, KA zen BE-rekin erkagai. Bigarrenarena mañariarrarena baino 60 urte lehenagoko testua izan arren hura baino berritzaileagoa dela zioen Azkueri erantzunaz, M beren arteko ezberdintasunak testuetan islatzen zituzten azpieuskalkienei zor zitzaizkiela esatera zetorren. M-k Azkueri egindako oharra guztiz oinarrizko eta premiazko izan arren, ez dirudi ohartu zenik Betolatzaren hizkerari, zalantza markarekin bazen ere, Bilbo etorkitzat ematean Azkueri KA-rekiko bururatu-tako auzia amaitu arren, beste berri bat sortzen zela. Hots, bagenuen jaiotzez eta bizitzez (cf. Irigoyen 1977) bilbotarra genuen egile baten hizkuntz lekukotasunik, eta harekin behar zen parekatu BE norbaitekin egitekotan eta ez KA-rekin Azkuek egin bezala. Erkaketa horretan ezberdintasun markagarriak azaltzen diren, are gorago ikusi dugun ablatiboaren nabarmenez landa<sup>40</sup>:

Betolatz *gustia* 829, *gustiric* 830, *libradu gaguizâ* 829, *jaquiten* 830, *jancitea* 830, *bagaric* 835, *dila* 830, *izenean* 829, *emateco* 833, *ematea* 835, *ezeuguçu* 832, aoristorik ez, \**ezan*-en formarik ez, *onec* 833, *-mintu* 834, *cituelaco* 833, *eban* 831, *zan* 831, *deunguetaric* 829, *-acaz* sozilat. sing. 836.

Mikoleta 191 *dustia*, 196 *dustiac*, 192 *viór equida*, 195 *xaquin*, 189 *xasten*, 190 *xansi*, 193 *aymbaga*, 178 «nombre» *ucena*, 208 *ydarayten*, 211 *ysayteco*, 190 *sedeguidisula*, 193 *sebegui*; 189 *contañçeán*, *sinistetea* (832, hainbat), 196 *essasus*, 206 *ydoroco gu*, 192 *oneyc*, 203 *edan daysu*, *esteysu*, 203 *nay daude*, 204 *etorri sirea-ø*, 205 *equin sidi-ø*

M-k, zalantza ikurrarekin bada ere, proposatutako BE-ren bilbotar etorkia ukatzera zetorren Aranaren (1986) beranduagoko azterketa. Ez

---

aurka; beharbada, mendebalaren berritzaile izaera areagotu egiten da (horkoak ditugu RS, EK eta MI) eta gutxitu ekialde (AM eta BA) eta hegoarena (BE eta durangarrak). Badirudi erdialdera mendebaletik iritsi direla berrikuntzak (txistukari neutralizazioa, bokal sudurkari eta geminatu galerak), zenbait mendebalaren zati txiki batetik (txistukari disimilazioa) ateratzen ez zelarik. Azken hau RS eta MI-rengan gertatzen delarik, lehen ere bi testu hauen arteko lotura zuzenagoaren alde datorkigu.

<sup>40</sup> Zenbakiak Mitxelenaren eta Zelaietaren edizioetako orrialdeenak dira, hurrenez hurren. Ikus orain Zuazo 1996a bi egileon arteko ezberdintasun gehiagotarako (zenbait Azkue 1935-n ere aurki daitezke).

zen, garaiko paperak gorde arren, haren arrastorik agertzen hiriko artxiboetan, haren jaiotzaz ez apaiz lanez. Susmatzekoa zen beste nonbaitekoa zela Bilbon inprimatuaren haren dotrina, eta, Dodgsoni lotuaz, beharbada Arratia aldekoa izan ote zitekeen galdetzen du Aranak, baina aurrerago jo gabe. Urte bereko beste lan batean, Odon Apraizen gomendio bati jarraikiz, bestetara jo zen BE doktorearen etorkiaren atzetik: haren izena ongi irakurri izan bagenu aspalditik garbi izan behar genuen BE Arabako iparraldeko herrixkara, hain zuzen (cf. Knörr 1986). Geroztik badakigu bere sorterrian 1592 arte, eta handik eta 1599-1602 bitartean hil arte, Santo Domingo de la Calzadan apaizgoan aritu zela, Bilborekin erlazio berezirik ez zuelarik.

Datuon aurrean ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko Betolatzak bere dotrina bilbotarrentzat eta haien euskaraz egiteko asmorik zuenik eta MI-ren testua gelditzen zaigu soil-soila Bilboko euskara zaharraren ordezkarri eta *RS*-en erkagari nagusi<sup>41</sup>.

MI-ren liburuko eta *RS*-eko zenbait forma parekatzen baditugu beren hizkuntz hurbiltasuna (edo uruntasuna) oinarri dela testuen euren jatorriaz gogoetarik egin dezakegun aztertzeke, badira aldaera eta anzekotasun fonetikoak, morfologikoak eta lexikoak:

MI-k erabat gauzatua du, ezagun denez, txistukarien neutralizazioa (143 *xaunacas*, *xaunensat*, 148 *espatac*, 149 *dosu*, 150 *sendua*, *suc*, 155 *a sa*, 167 *eroçi*, *yçutu* «cegar», etab.)<sup>42</sup>, *RS*-en oraindik abian zena eta honetan gorde dira zenbait bokal geminatu (*laar*, *ataarte*, *abaa*, etab.) eta sudurkari (*burdiâ*, *gastâe*, *ygu*<sup>^</sup>*y*, etab.) harengan eriden ahal ez ditugunak; *RS*-en *-n* nahiz *-ø* aurkitu ahal dugu MI-ren ia salbuespen gabeko *-ø*aren aurrean, partizipioaren hedadura irrealetan ia burutua da 1653an eta hasia baino ez askoz gehiago *RS*-en; lexikoan *RS*-eko hapax eta forma gutxi lekututako zenbait falta da, jakina, MI-rengan (*lauzatu*, *marka*, *or* eta *etsai* B-n...).

Erabateko berdintasunak (*daude* eta beste asko aditzean, *etse*, *eralle*, *eugi*, *llobea* eta beste hainbat lexikoan) eta ezaugarri bereizle amankomunak (txistukari disimilazioa, *-n* > *ø* aipatu neurrian, \**ezan*-en erabilera, *irapazi*, *luki*, *ezain*...) ez eze, bi *testuen* artean emandako hamarkadek —zazpi baino gehiago ezaugarri anitzi dagokionez— azaldu ahal dituzten korrespondentziak ere gogoan izan behar ditugu testu

<sup>41</sup> Partez, bederen.; gogora bedi bere hiztegitxoaren aurretik ezarri pasartea: «Pondremos aquí vn vocabulario breve de los nombres que más esquisitos son en nra. lengua, porque ay muchos que con el mismo sonido y significaç[ión] del romance se vasquensean,...» (160); euskal garbizaletasunaren historiaren aldetiko iruzkin baterako ikus Lakarra 1992 eta ondoko lanak.

<sup>42</sup> Honetan Betolatzarengandik ere aldentzen da Zuazok (1996a) erakutsi bezala.



hauetan islatzen diren hizkeren arteko hurbiltasuna edota urruntasuna erabakitzeke; hots, goian ukitu diren fonetikazko hiru ezberdintasunak ia ezer ezean gelditzen dira 1) txistukari neutralizazioa, mendebaletik ekialderantz hedatzen den berrikuntza dela jakinik (eta / j / > / x / erdararen interferentzia dela, Bilbo bezalako hiri batean beste inon baino lehenago espero dena) eta 2) oharturik bokal sudurkariak eta geminatuak eta arkaismoak direla lehen testuetarako eta modu batera edo bestera ezabatuaz joan direla euskalki guztietan, iparmendebaleko bizkaiera barne. Morfologian ere ez gaitu harritzen Mikoletarengan aurkitzen ez dugunak (*daminda*, *ikedak ta dikeada* famatua, etab., *-rean* soilik ablatiboan) eta ezta RS-en aurkitzen dugun bikoiztasunen batek ere, *-n / -ø* lehenaldian, esaterako: testu honetako hizkeraren polimorfismo bereziren bat proposatu beharrean horko errefrau guztiak ez direla MI-ren hizkera bereko (hots, Bilbo bertako) onartzea aski litzateke; hau, ordea, ez da garestitze berezirik teoriarako, lehen esan bezala herri ezberdinetan bildutako errefrauak —ez nahita nahiez gunee batetik urrutiegi— izan baitaitezke, bilduman honen edo haren (gogora M-k aipatu *ukuzka*) bestelako etorkirik ezagun baita inoiz.

Alabaina, seguruenik ez dira BZean bi testu beren artean hurbilago RS eta *Modo breuea* baino; Bilbon bilduak ez badira errefrau hauek —ez guztiak eta ezta beharbada gehienak ere— ez bide dira handik urruti eskuratuak, eta ezin dugu inor handik at horiek bilatzeko (zein itzulzkeo) aukera hobean inon asmatu.

## 5. Bibliografia

- ALTUBE, S. (1934): *Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de d. R.M. de Azkue*, 2. arg., Bilbo 1969.
- ARANA, J.A. (1987): «Betolazaren *Doctrina Christiana*», *Euskera*, 31, 505-526.
- AZKUE, R.M.: RS-en EDIZIOA
- (1905-06): *Diccionario vasco-español-francés*, 2. arg. eraskin batekin, Bilbo 1969.
- (1923-25): *Morfología vasca*, 2. arg. Bilbo 1969.
- (1935): «Evolución de la lengua vasca», *Euskera*, 57-120.
- (1933-47): *Euskalerrriaren Yakintza*, Espasa Calpe, Madril.
- CONCA, M. & GUIA, J. (1996): *Els primers reculls de proverbis catalans*. Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Barcelona.
- GARATE, G. (1995): *Euskal atsotitzak. Basque Proverbs. Gero*, Bilbo.
- GOROSTIAGA, J. (1953): *Vocabulario del Refranero Vizcaíno de 1596*, Salamanca.
- HARITSTXELHAR, J. (1991): «Parémiologie et mnémotechnie: l'exemple basque», in Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren Gehigarriak 14, Donostia, 185-200.

- (1992): «Jainkoa eta jainkotiarrak Oihenarten atsotitzetan», in *Luis Villasanti omenaldia*, Bilbo, 195-207.
- (1994): «Emaztea Oihenartek bildu atsotitzetan», in *Oihenarten Laugarren Mendeurrena*, Bilbo, 273-294.
- IRIGOIEN, A. (1958): «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario», *Euskera*, 3, 105-32.
- (1977): «Bilbo eta euskara», *Euskera*, 22: 2, 385-425.
- (1985): *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*, Bilbo.
- (1987): *De re philologica linguae vasconum*, Bilbao.
- 1992): «Gnomica oihenartiana», in *De re philologica linguae vasconum*, IV, Bilbo, 1-77.
- (1996): «*Gnomica Biscaiensis. Refranes y Sentencias de 1596* junto a los recopilados por Oihenart», *Euskera*, 41, 611-640.
- KALTZAKORTA, X. (1996): «Euskal atsotitz bildumak», *Euskera*, 41, 689-718.
- LAFON, R. (1943): *Le système du verbe basque au xvième siècle*, 2. arg. Donostia 1980.
- (1968): «L'imperatif en basque au xvi<sup>e</sup> siècle», *BSL* 63, 110-140.
- (1975): «Sur la déclinaison dans le biscayen du xvième siècle», *BSL* 70: I, 275-290.
- LAKARRA, J.A. (1984a): *Euskal Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak (1700-45)*, tesina argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- (1984b): «Bizkaiera zaharreko ablatiboaz», *ASJU*, 18: 1, 161-194.
- (1984c): «*Bertso bizkaitarrak (1688)*», *ASJU*, 18/2, 89-184.
- (1985): «-Ø/-tu bizkaiera zaharrean», *Euskeraren Iker-Atalak*, 3, 281-292.
- (1986a): «xvi. mendeko bizkaierazko errefracuz: I. Garibairen bildumak», *ASJU* 20/1, 31-66.
- (1986b): «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* 20.3, 639-682.
- (1990a): «RS-en testukritikazko arazoak: Hernán Nuñezengandik itzulia ote?», in E. Perez & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*, Mundaiz, EUTG, 177-190.
- (1990b): «Epílogo (1989)», in L. Michelena & I. Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. *ASJU*-ren Gehigarriak 11, Donostia, 353-62.
- (1991): «Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi», in Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, *ASJU*-ren Gehigarriak 14, Donostia, 217-258.
- (1992): «Larramendirekin aurreko hiztegi-gintzaren historiaz: aztergai eta gogoeta», in Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain, 279-312.
- (1994): *Harrieten gramatikako hiztegiak (1741)*. *ASJU*-ren Gehigarriak 18. Donostia.
- 1995a) «*Hirur lengoaietan tresora*: I. Gramatika eta hiztegia; II. Elkarrizketak», *ASJU* prentsan.
- (1995b): «Gogoetak Pouvreauren hiztegiez eta hiztegi-gintzaren historiaz», *ASJU*-n prentsan.

- (1996a): «Iturrien erabilera eta tamainak egitura(z) zehaztuaz: *RS* eta *Hiztegi Hirukoitza*», *Uztaro*, 16, 21-55.
- (1996b): «Sobre refraneros antiguos vascos anteriores a Oihenart», in G. Aulestia (arg.), *Literatura vasca*. BISS, Gasteiz.
- (1996c): *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- prestatzen-a, «Errefrau bilduma zahar ezezagun batez».
- prestatzen-b, «Hizkuntza eta prosodia errefrau bilduma zaharretan».
- prestatzen-c, «RS-en jatorria berrazteruaz»
- prestatzen-d, *Testukritika eta euskal testuak*.
- prestatzen-e, *Bizkaiera Zaharreko Testuak*.
- LEKUONA, J.M. (1996): «*Refranes y Sentencias*: zenbait baliabide mnemotekniko», *Euskera* 41, 791-797.
- MITXELENA, K. (954a): «Nota sobre algunos pasajes de *Refranes y sentencias*». Orain *SHLV*-n.
- (1954b): «Textos vascos antiguos. Un catecismo vizcaíno del siglo XVII». Orain *SHLV*-n.
- (1955): «La *Doctrina Christiana* de Betolaza», *BAP*, 11, 83-100. Orain *SHLV*-n.
- (1958): «Introducción», in Mitxelena & Agud (arg.) *Nicolao Landucci. Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, *ASJU*-ren Gehigarriak 3, Donostia. Orain *SHLV*-n, II, 762-82.
- (1960): *Historia de la literatura vasca*, Madril. 2. arg., Erein, Donostia 1988.
- (1964a): *Textos Arcaicos Vascos*, Madril. Berrarg. *ASJU*-ren Gehigarriak 11, Donostia 1990.
- (1964b): *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Orain *SHLV*-n.
- (1964c): «Preámbulo [a la edición de *RS* por Urquijo]». Orain *SHLV* II, 786-791.
- (1964d): «*Refranero vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596*». Berrarg., *SHLV* II, 799-801.
- (1965): «A propósito de uno de los refranes de 1596». Orain *SHLV* II, 802-803.
- (1967): «Los refranes del cuaderno de Oihenart», *ASJU*, 1, 11-44. Orain *SHLV* II, 804-823.
- (1970): *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo.
- (1977a): *Fonética Histórica Vasca*, [FHV] (2. arg. zuzendu eta berretua), Donostia.
- (1977b): «Euskal hizkera eta euskal neurkera», *Euskera* 22. Orain *SHLV*-n.
- (1978): «Para la historia de la ortografía vasca», *FLV* 30, 393-7.
- (1979a): «La letra *h* en los *Refranes y sentencias* de 1596», *FLV* 32, 213-20.
- (1979b): «Algo más sobre grafías de *Refranes y sentencias*», *FLV* 32, 220-25.
- (1985): «Esaera zahar baten bigarren agerraldia», *SHLV*.
- (1987-): *OEH= Orotariko Euskal Hiztegia- Diccionario general vasco*. Bilbao, Euskaltzaindia.

- ORPUSTAN, J.-B. (1992):  
 — (1996): *Précis d'histoire littéraire basque. 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara*. Izpegi, Baigorri.
- PAGOLA, R.M. et alii (1992): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Bizkaiera*. 3 lib., Deustuko Unib., Bilbo.
- SARASOLA, I. (1980): *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Bartzelona.  
 — (1983): «Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos», *ASJU* 17, 69-212.  
 — 1984hh, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- SOTO-MICHELENA, M.J. (1978-79): «El lexicón de *Refranes y Sentencias* de 1596», *ASJU* 12-13, 15-86.
- URGELL, B. (1985a): «Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*», *ASJU* 19: 1, 65-117.  
 — (1985b): «*Refranes y Sentencias*-eko hitz ordenaz», lan argitaragabea.  
 — prestatzen, Doktorego tesia.
- URKIZU, P. (1989): «Garibairen eskuizkiribu galdu bat (1592)», *Mundaiz* 37-38, 33-85.
- URQUIJO, J. (1908-9): «Los refranes de Sauguis», *RIEV*, 2, 677-724 eta 3, 144-57.  
 — (1911-33): «Los *Refranes y sentencias de 1596*. Estudio comparativo», *RIEV*. Berrarg. [zati bat], Auñamendi, Donostia 1964, 2 lib.  
 — (1919): *El refranero vasco: I. Los refranes de Garibay*, 2. arg., Bilbo 1976.  
 — (1967): «De paremiología Vasca. ¿Conoció Oihenart los RS de 1596?», *ASJU* 1, 3-10.
- VILLASANTE, L. (1979): *Historia de la literatura vasca*, 2. edizio osatua, Ed. Franciscana, Oñati.
- VINSON, J. (1891-97): *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Berrarg. faksim. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- ZELAIETA, A. (1988): «Rafael Micoleta, amudio: *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*», *Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura* 7, 133-214.
- ZUAZO, K. (1988): «Bizkaieraren ezaugarriez gehiago», *ASJU* 22: 2, 367-377.  
 — (1989): «Arabako euskara», *ASJU* 23: 1, 3-48.  
 (1996a):  
 (1996b):
- ZUBIAUR, J.R. (1990): *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, Deustuko Unibertsitatea-EUTG, Donostia.  
 — & ARZAMENDI, J. (1976): «El léxico vasco de los refranes de Garibay», *ASJU*, 10, 47-144.

## Hizkuntzaren historiako osagaiak *Refranes y sentencias-N*<sup>1</sup>

Alfonso Irigoien

[*Refranes y Sentencias*-ek] hizkuntzaren aldetik informazio oso zaharra ematen dute eta, lehen esan da, ez dakigula nor den biltzailea. Ni ere bat nator honetan. Edozein modutan ere, munduan zehar soldadu ezezagunari monumentua egiten bazaio, autore ezezagunari beste monumentu bat egin beharko genioke. (...) akort nago Lakarrak dioenarekin, hori Bizkai barrukoa dela. Hain zuzen ere, *inargin badagit*; eta hori, (...) tesia Fikari buruz egin zuen hemengo ikasle izan zen batek, eta han *dinardu* erabiltzen dute eta besteak *dihardu*, eta beraz, hori ere horren alde legoke.

Edozein modutan ere, [RS-en] informazioa, hizkuntzaren historiari buruz, handia da. Jakina, autorea ezezaguna, eta apur bategatik, liburua bera ere ezezaguna. Zeren eta Darmstadtteko bibliotekan zegoen ale bakarra eta ez osoa; eta Van Eysi eskerrak argitaratu zen. Bestela euskaldunak enteratu ere ez ginen egingo. Eta gure gauza onez, sarri askotan, kanpotarren bidez enteratu gara. Pertsona batek bildu zituen han-hor-hemen errefrau hauek. Eta gainera, errefrauak (...) genero literarioa [dira], bueno, errefrauak ahozkoak dira, ahozkotasuna dute; ez da literatura; bildu egiten dira. Horiek ziren jendearen bizitzako parte bat. Ahoz esaten ziren eta buruz ikasten ziren, nire ustez. Eta, gainera, beti buruz ikasten zirenez gero, formak, arkaismoak, oraindik zaharra goak egiten dituzte, zeren eta buruz ikasten dituztenez gero, hizkuntza aldatu bada ere, errefrauak beti ez daude aldatuak. Aldatzen dira horiek ere, baina astiro-astiro.

---

<sup>1</sup> Alfonso Irigoienaren testuaren orririk ez dugu. Berak hitzez emandako hitzaldia zintan hartua izan zen. Handik jasoa ekarri dugu hona. Bidezkoa denez, ahozkotasunaren estiloa duen testua da horren ondorioz.

Eta, jakina, esaterako, hartzen badugu «*Gaçean, gaçean, / ta ez Ybarguengorean*»<sup>2</sup> «De la sal, de la sal, y no de la de lbargüen», itzulpena ere bai baitu. Horrek ez du, dirudienez, zentzunik; baina *Bienandanzas y Fortunas* irakurtzen bada —eta hori aspaldi esan zuen Urquijok—, gertatu zen, bada, orduan, banderizoak zeudenean, elkar hiltzen zuten inolako problemarik gabe. Elkar hiltzea ez da gauza berria. Eta orduan, pertsona bat hil nahi zuten eta inbitatzen zuten bazkaltzera. Eta, (...) seinale bat zegoen noiz aterako zen pertsona bat [beste] hura hiltzera. Eta seinale hori zen: «*sal, sal*», «*gatza, gatza*». Ez, «*sal, sal* —para matarle—», diferentea da. Eta, (...) hil zuen, eta abar. Eta (...) errefracuan gelditu zen: «*Gaçean, gaçean, / ta ez Ybarguengorean*». Baina euskaldunek ere egin zuten zer hori, eta hori izango zen jendearen artean korritzen zuen zerbait, nire ustez. (...) *Bienandanzas y fortunas* XVgarren mendean idatzia da. Beraz, lehenagokoa, bi mende lehenago gutxienez. (...) errefracuek iturri zaharra izaten dute eta alderdi horretatik arkaismoak nabarmenagoak dira.

Jakina, errefracuak gainera, eginik daude «con números en cada palabra para que se entienda en ambas lenguas: en romance y vascuence». Beraz, hitzak zer esan nahi zuen, bada, dena ipini zuen. Eta eskerrak honi badakigu, sarri askotan, hainbat hitzek zer esan nahi duen, zeren eta arkaikoak baitira. Beste alderdi batetik, gauza egokia da, zeren eta nik Oihenarten errefracuak ere ikertu nituen, eta gainera edizio kritiko bat egin nuen Oihenartena, non edizio kritiko horren kausaz Azkuek *Hiztegian* ipiniriko hitz bat aldatu behar baita eta, agian, ez dute aldatu nahiko, zeren eta *erkidegoarekin* baikabiltza, eta, jakina, Oihenartek «faute d'impression» delakoan ipintzen du, hori ez dela horrela. Baina jendeak ez du «faute d'impression» hori ikusi, eta pasatu da Azkueren *Hiztegitik Orotarikora* eta guztietara. Eta, azkenean, monstro bat ere egin da *erkidegoarekin*, horrek ez baitu hori esan nahi. Baina, (...), *con su pan se lo coman*.

(...) Oihenartena ere ikertu egin dut, eta (...) konparatuz gero Oihenartena eta *RS*, gauza asko berdintsuak dira. Zeren eta garai haretan, Euskal Herri osoan bereizten zen aoristoa eta aspektua markatzen zuen denbora. Esaterako, ez zen berdin *ekarri zuen* eta *ekar zezan*. Bata zen perfektua eta bestea ez. Eta hori gertatzen da *RS*-en ere, berdin, berdin, berdin. Eta hartzen baldin badira (...) Oihenarten (...) aoris-

<sup>2</sup> *Refranes y Sentencias*, 273garrena. Hemendik aurrera doazen aipamenak, *RS*-ekoak badira, Joseba Lakarrak egin berri duen edizioaren araberakoak izango dira: LAKARRA ANDRINUA, Joseba (1996): *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketa eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbao.

to gnomikoa deitzen diodan hori, zeren eta hori grekoan ere gertatzen baitzen. Grekoz baziren denborak aspektua markatzen zutenak, eta aoristoak, aspektua markatzen ez zutenak. Ez grekotik hartu dugulako, baizik eta hizkuntzak hala gertatu direlako, besterik ez. Eta orduan, jakina, hartzen da *RS* eta aoristo gnomikoa agertzen da iraganean, grekoz bezala, zeren eta grekoz aoristo horrek iraganeko balioa zuen; baina aoristo gnomikoa errefrauetan agertzen zen iraganarekin, baina haientzat, grekoentzat balio unibertsala zuen, ez zen iraganekoa bakarrik, etorkizunerako ere balio zuen. Eta euskaraz gauza berbera gertatzen da, eta zerak, *RS*-ek ditu... mordoia!, halakoak, aoristo gnomikoak; eta Oihe-nartek ere ez gutxiago, gehiago igual. Eta (...) agertzen da: «*laygui cidi naguia, / erra cizan uria*<sup>3</sup>». «Leuantóse el perezoso y quemó la villa». Eta hori da aoristo gnomikoa, errefrauetakoa. Esan nahi du: nagia jeikitzen den bakoitzean huria erretzen duela. Huria edo antzeko zerbait, edo egingo du deskalabro bat, (...). Eta errefrauek irakaspén hori du. Aoristo gnomikoek hori esan nahi dute. Eta hemen datoz... mordoia! (...)

Bada tesia doktoral bat René Lafonena *Le système du verbe basque au xvième siècle*. Euskararen ikerkuntzan ikaragarritzko aurrerapidea egin zuena, nire ustez. Gauza batzuek zuzendu egin behar dira. Zeren eta orduan pentsatzen zen berboaren pasibotasunaz eta honelako gauza batzuek zuzendu behar dira, noski. Ikaragarritzko tesi ona da. Nik hor ikasi dut aoristo[a] —berak aoristo hitza ez du erabiltzen, beste terminologia bat erabiltzen du—. Eta hor dago guzti hori. Eta (...) aplikatzen da hori XVIgarren mendeko iparraldeko autoreetara, (...) hartzen da *RS*, eta bat dator. Zeren eta *ekarri* delakoaren flexio berbalak aoristo balioa baldin badute autore zaharretan, *RS* errefrauetan ere gauza berbera gertatzen da. Ez errefrauek handik hartu dutelako, euskara orduan horrela zelako baizik, han eta hemen. (...) *RS*-ek: «*Adiunça onean nentorre / vaya ezer ez necarre*<sup>4</sup>». «En buena sazón vine mas no truxe nada». Eta hori beti itzultzen dute gaztelaniazko pretérito indefinido deitzen dutenaz. Eta ez inperfektuarekin, ez baitu... Eta berdin gertatzen da *egin*-ekin. *RS* delakoan bada Iparraldekoen artean agertzen ez deneko gauza bat; esaterako, *egin* aoristo da beti; baina Iparraldean, normalki, iraganean bakarrik erabiltzen dira, eta presenteko forman erabiltzen direnean bilosik ez dira sekula agertzen; orduan zentzu subjuntiboak dute. *RS*-en presentean bilosik ere agertzen dira; (...) «*Zaran bat daguiñac bi day*<sup>5</sup>». «Quien hiziere un cesto hará

<sup>3</sup> *RS* 294garrena.

<sup>4</sup> *RS* 332garrena.

<sup>5</sup> *RS* 34garrena.

dos»; «...*bi day*». Ez da itzultzen «hace», baizik «hará», zeren eta aoristo baliokoa denez gero, ez zuen presenteko balioa, ez zen inperfektoa. Gehiago adierazten du halako posibilitatea edo halako zerbait. (...) jakina, halako flexio berbalak euskaratik desagertu egin dira eta bakarrik rekuperatu nahi izan dira, baina rekuperatu dira ez hamaseigarren mendean ziren moduan. (...) Ardanzak esaten du ez dakit noren aurrean «*zin dagit*». Baina hamaseigarren mendean esango zioten : ez, «zuk zin egingo duzula, akaso, diozu», baina zin egiteko esan beharko zenduke «zin egiten dot». (...) orduan afirmatiboa bailitzateke. Bestea ere afirmatiboa da, baina «*zin dagit*» [badiozu], orduan zuk ez duzu zirik egin. Zin egin duzu, akaso zin egingo duzula. Hori da kontua. Hamaseigarren mendean horrela ulertuko zuket. Bueno, ez dago problemarik, zeren eta konsensu juridikoa bestea da, baina linguistikoki problema hori dago. Eta (...) halako gauzak RS-en agertzen dira eta horri eskerrak ezagutzen dugu. Esaterako, beste aoristo gnomikoa: *artzaiok* —edo seguru asko hori irakurri beharko da «artzaiök» bokal nasalarekin, «artzainok», orduan bokal nasalak existitzen baitziren Bizkaian, nahiz eta ez ziren markatzen, «*Arzayoc arri citea / gaztaeoc aguir citea*<sup>6</sup>». «Riñeronse los pastores de ovejas, y parecieron los quesos». Horrek esan nahi du borroka egiten duten bakoitzean agertzen direla. Zeren eta bakoitzak, bada, izkutuan gordeko ditu edo ez dakit zer... —«Non daude? Non daude?» —«Ah, ez, hemen daude». Borroka egiten ateratzen dira. Eta hori bizitzako esperientzia nabarmena da. Batzuetan dute sekulako esperientzia hemen. Eta horiek denak aoristo gnomikoaren bidez egiten dira.

(...) bai, Gorostiagak egin zuen hiztegitxo bat horrena. Baina... gainera, ez bakarrik hori, RS argitaratu zenean, Van Eysek argitaratu zituen 1896garren urtean, hirurehun urte zirela, eta orduan hona heldu ziren erretra hauek, eta Azkuek *Euskalzaleak* errebistan argitaratu zituen komentaturik eta abar, baina (...) edizio zabaltzekoa gehiago —ortografia aldaturik eta abar—; guretzat duten balioan bada, orduan zabaldu zirela besterik ez, jakiteko.

Eta hori dela kausa, bereziki orduko euskal literaturan hainbat hitz RS-en bakarrik datozenak zabaldu ziren. Eta oraindik batzuk iturri horretarik ezagutzen ditugu, zeren eta hemen: «*Astoagaz adi quirolan / ta deyc buztanaz biçarreen*<sup>7</sup>». «Regocíjate con el asno, darte ha en la barba con el rabo». Baina hori «deporte» moduan ipini dute. Eta gai-

<sup>6</sup> RS 386garrena

<sup>7</sup> RS 116garrena. 63garrenean ere badakar beste bat hitz horrez: «*Gorhúa garrían, / ta gogoa quirolan*». «La rueca en la cinta, y el pensamiento en el regozijo».



nera, ez dago ondo harturik, zeren RS-en «*kirola*» da eta ez *kirol*, zeren eta bestela *kirolean* esango zukeen. Eta (...) orduko hainbat hitz, *txiro* eta horrelako hitzak, erabili izan dira euskal literaturan, orduan, hau zabaldu zenean, zabaldu zirelako baita ere jendearen artean. Edozein modutan ere, bada, esaterako, horren ikerketa eginez gero, (...) luze joko luke eta nik esanplu batzuk esanik, hor utziko nuke, zeren eta argitaratu behar baita. Nik behintzat Durangokoa argitaratuko dut eta hemen esaten diren gauzak ere argitaraturik geldituko dira.

Baina, (...) *-i-* sustraidunak ere erabiltzen ditu eta, (...) bada erre-frau bat esaten duena: «*Neurez ez dot, / balinde baniqueçu*<sup>8</sup>» edo «*Baçint baniqueçu*<sup>9</sup>», itzulpenik ez balute filologo batzuk sekulako problemak izango zituzten hori ulertzeko. (...) itzulpena duenez gero, oso ondo dator sisteman eta abar, baina horiek dira arkaismoak. «*Balinde*» *-i-* sustraidunak «eman» zentzuan, hori beti aoristo balioarekin, zeren eta (...) «eman» zentzukoak erabiltzen dira. «*Demaen*<sup>10</sup>», hemen ere agertzen da, hori konjugatu egiten baitzen: «eman»; *-i-* sustraidunak ere «eman» esan nahi zuen. Eta Iparraldean *deraut* ere bazegoen, hori aspektuduna. Eta orduan, horiek ziren polirrizoak esan dezagun, zeren eta «eman» esateko hiztun berberak batzuetan sustrai bat erabiltzen zuen eta beste batzuetan beste bat, eta beste batzuetan beste bat. Eta horiek ere hemen, Iparraldean erabiltzen diren modu berberean agertzen dira. Agertzen ez dena da *deraut*, hori ez da agertzen.

Baina, bueno, badira diferentziak, noski, esaterako..., beste gauza bat, esaterako, *joan* laguntzaile intransitibo moduan eta *eroan* laguntzaile transitibo moduan. Horrek Bizkaiko literaturan Mogelen denborara arte edo geroago iraun izan du, Mogelek ere erabiltzen baitu; baina RS halako gauzez beterik dago. «*Guichia guichia asco equin doa*<sup>11</sup>». «Se suele hacer mucho». Edo eta «*Dindica murcoa betatu doa*<sup>12</sup>». «Gota a gota se incha el cántaro». «*Aldi guextoan jayo doa / hospe gextocoa*<sup>13</sup>». «En mal punto nacer suele el de mala fama». Eta hori erabiltzen du ohitura adierazteko; eta transitiboa baldin bada, *eroan* agertzen da. Iparraldean halako formarik gutxi erabiltzen da, baina Oihenartek baditu. Eta Leizarragak ere bai; eta halako perifrasiak, batez ere, Bizkaian berandura arte iraun dute.

<sup>8</sup> RS 91garrena. «De mio, no tengo, si me diessen daros ella» itzulia.

<sup>9</sup> RS 409garrena. «Si me dieseys daros ella» itzultzen du.

<sup>10</sup> RS 454garrenean. Honela da erre-frau osoa: «*Emayten deusenari / demaen leguez ar bez*». Biltzaileak itzulia: «A quien selo dan tómelo como selo dieren».

<sup>11</sup> RS 61garrena. Itzulpen hau ematen du: «Poco a poco se haze mucho».

<sup>12</sup> RS 94garrena. Honela itzulia: «Gota a gota se hinche el cántaro».

<sup>13</sup> RS 107garrena.

Baina, dirudienez, horiek euskara zaharrekoak ziren eta Iparraldean agertzen badira, horiek oso zaharrak dira, noski. Eta *RS*-en halako gauza zaharrak aurkituko dituzue pilaka.

Nik beste berbo bi ere aipatuko nituzke: «*Ausso Chordon arz orri / ta nic yñes dayda*<sup>14</sup>» eta (...) «*Egaz manequi / ora nequiqueo choriari*<sup>15</sup>». Eta horiek dira intransitiboak, datiboari begira; eta zentzua dute «sujétate al oso», baina esan nahi du «coge el oso» edo «sujétate al pájaro»; baina esan nahi du «coge el pájaro». Eta halako berboak *RS*-en bakarrik agertzen dira. Eta nik halakoei bueltak ematen dizkiet, eta horiek oso zaharrak izan behar dute, eta ez dakit, beharbada eraman gaitzakete egoera zahar batera susmo moduan...gehiegi eraiki ezin baldin badugu ere horrezaz.

\* \* \*

[Bigarren galderakoan Alfonsok osatua]. Gero elkarrizketan ere izango da [era], baina...

«*Adi adi / ce jaun goycoa dagoc adi*<sup>16</sup>». Guk *jaok* [yaøk] esaten dugu Arratian eta *jagok* [xagok] bestetan; baina hemen, Txorierritan *dako* eta horrelakoak erabiltzen dituzte, eta *dagok* ondo legoke Txorierrirako. Eta «*a la orozkoana*», (...) Azkuek Mikoleta estudiantzerakoan ere bere oharretan, eskuz eginiko oharretan, «oino ikas» ipintzen du. Erraturen bat ote den ipintzen du, eta dino: «*a la orozkoana*». Baina badakigu ez dela «*orozkoana*», Bilbokoa zen. Eta Azkuek Orozkoko euskara nahikoa maite zuen. Eta, gainera, Orozkokoekin niri gertatu izan zait, batzar batera joan eta hasi hitz egiten eta «—zu Orozkokoa zara ez da?» Oso nabarmena da Orozkoko euskara. Nik hemen ez dut Orozkoko gauza gehiegirik ikusten, ulertzen duzu? Bueno, edozein modutan ere, bildumak ez du nahi ta nahi ez leku batekoa izan behar, ze errefrau hauek bildu zitezkeen leku bat baino gehiagotan. Eta, gero, beharbada, kopiatu zituenak ere kutsua emango zion, edo halako zerbait. (...)

Jakina, garai hartako sistematik hona aldakuntza nabarmenak izan dira. Eta bata izan da aoristoaren zentzua galtzea. Lehen bazuen zentzua. (...) hori da sistema bat orduan zebilena. Eta kasu askotan arkaiko bihurtu dira, baita Ifarraldean ere. *Etor dadinean* eta horrelakoak

<sup>14</sup> *RS* 422garrena. Biltzaileak honela itzulia: «Ten Ordoño a esse Osso, y yo haré huyda».

<sup>15</sup> *RS* 230garrena. Itzulia: «Si volar supiese trabaría el pájaro».

<sup>16</sup> Lehenengo errefrau, honela itzulia: «Mira con cuydado que el Señor de lo alto te esta mirādo».

lfarraldean ez dut uste gehiegi erabiltzen direnik. Eta, (...) gaur erabiltzen da, batez ere, sistema perifrastikoa.

(...) aoristo balioa zuten sistema sintetikoak desagertu egin ziren, hain zuzen ere, aoristo sentidua galdu zutelako. Eta gero, recuperatze-rakoan lehengo sentidua recuperatzen ez baldin bada, orduan, beste zentzu bat ematen zaio, ulertzen? Eta sistema aldatzen da. Edozein modutan ere, sistema perifrastikoa sistema askozaz aberatsagoa zen bai lfarraldean eta bai hemen, orain erabiltzen dena baino, ze gauza askotan sinplifikatu egin dira gauzak. Jakina, nik sostengatzen dut, (...) euskarak beste munduko hizkuntza guztiak bezala, hizkuntza mailak dituela eta, sarri askotan, guk hartzen ditugu plano berbera balitz bezala, eta, batez ere, euskara batuaren alde hertsiki ari direnek plano bat besterik ez dute ikusten. Eta plano horretan hitzegiten dute eta abar. Eta hori ez da egiazko errealitatea. Errealitatea da den modukoa... Eta errealitatea ezagutu egin behar dugu; ikertzaileek, batez ere, ezagutu behar dute errealitatea.

Ezin jarri gaitzke halako utopia polit batean. (...) literaturan ere mailak izan litezke, eta hori da Euskaltzaindiko norbaitek ulertu nahi ez duena. Eta, jakina, maila horretan, sistema zaharreko zenbait gauza erabilgarri dira, beste batzuk igual ez. (...) modu arrunt batean ez lira-teke erabiliko, baina goragoko maila batean bai. Eta goragoko maila batean erabiltzeak ez du esan nahi «jendeak ez du ulertuko», ez, jendea tontoa balitz bezala jokutzen dugu, eta hori ez da horrela. Eta ondo idazten direnean gauzak, jendeak gustora irakurtzen ditu eta ikasi egiten du konturatu gabe. Hori da kontua. Eta, (...) hizkuntza aberastu nahi baldin badugu, sistema, nik ez dut esaten sistema osoa recuperatu behar denik, kontuz. Gaur, *ekar zezan* eta horrelako gauzak erabiltzea, urrunegi joatea litzateke. Bueno, igual poesian batek egin dezake horrelako zerbait, baina hortik kanpo ez. Eta, (...) sistema sinplifikatu...

Baina gauza asko, esaterako, *gaur etor baledi, etortzen balitz, etorriko balitz* ez ziren gauza bera. *Gaur etor baledi* jendeak ez du erabiltzen, eta *etortzen balitz*, zera, Frai Bartolomek erabiltzen du, ulertzen? Eta, orduan, hizkuntza sinplifikatzaera doa. (...) sinplifikazio hori, urrun baldin badoa, hori izango da etorkizunean. Baina horri guk eutsi egin behar diogu. Guk horretan konserbadoreak izan behar dugu. (...) bat izan liteke progresista gauza askotan, baina bestean progresista izanik ere, hizkuntzan konserbadorea izan behar da. (...) gainera, progresista beste kontuan ea nor den progresista eta nor ez, hori lio ikaragarri bat da.

Nik uste dut asko izango dela...



## **Zeberioko esaera zaharrak etnografia bidetik**

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Esaera zaharren mundua ezin da bizitzaren osotasunetik kanpo atera eta horrexegatik, On Jose Migel Barandiaranen proposamenaren barruko Atlas Etnografikoaren barruan kokatu eta aztertu nahi nuke. Gure Etnografia lanetan bildutako datuak, gure herriaren tradizioetik hartuak dira gugana heldu diren neurrian. Gaur eguneko kultura ez da urteetan zehar gure herri zaharretik etorri zaiguna bakarrik, ezpabere, lau haizeetatik gugana heldu eta onartutakoa ere.

Gure ikerketariko asko deskripzio estatikoak dira, ia morfologikoak, kontestutik aterak. Baina, gauza bat da datu biltzea beste barik eta beste bat « izate kulturala »ren berri ematen diguna. Beraz, herri-bilketa giza-kontestutik isolatzea eta objetibatzeak errealitatetik urrunduko gaitu.

Irudi ikustetik bakarrik ezin dugu gure kulturaren berri sakona jakin, gizakiak bere medioan bizi duena zehatz jasota baino. Bizi ez dena nekez ulertuko da etnologian.

Gauza edo jazoera baten deskripzioak ez du estatikoa izan behar. Herri baten, gizartean, elementu bakoitzak fisikoki eta izakeraz jokatzen du gizatasunean, bizitzaren joanean-joanean, norbere eta gizartearen kultura garatzen.

Gure bilketa lanean jaso den materiala zenbateraino bizi den adierazi behar da batetik, eta herrian edo herriz kanpo noraino hedaturik dagoen bestetik.

Euskal Herrian, oraindik, leku zabal edo txiki asko dago bilketa-lana egin gabe. Egin behar urgentea dugu. Batetik lekukoak zahartuz doazelako eta bestetik mundu modernoari begirako aldaketa arin bat bizi dugulako.

Lurralde bakoitzeko herri-jakiturriadun lekukoak norainoko akulturazio prozesuaren deskribapena egiteko daukagu neurri handi baten.

Esandako guztiagatik, urgentea eta behar- beharrezkoa dugu bilketa proiektu hau metodo egoki batez aurrera eroatea Euskal Herri luze

zabalean. Talde-laneko monografia zehatz hauekin, Euskal Herriaren bitzite kulturala jasoko dugu.

On Jose Migel Barandiaranek proposatu zuen Atlas Kultural hau aurrera eramateko, Etniker taldeak sortu zituen. 1969an, *Departamento de Arqueología de la Universidad de Navarra*. 1972an, Gipuzkoan, *Sociedad de Ciencias Aranzadi de San Sebastián*. 1973an, Bizkaian, *Departamento de Etnografía del Instituto Labayru de Bilbao*. 1974an, Araban, *Seminario Alavés de Etnografía*. 1986an, Iparraldean, *Association Lauburu de Bayonne*.

Etniker taldeen ikerketa bidea, puntu hauetan laburtuko genuke, beti ere, On Jose Migel Barandiaranen erizpidea jarraituz:

Ikerlari bakoitzak, norbere herrian egingo du azterketa. Alde batek barrurik hara ezagutzen duelako bere herria eta bestetik herritarren-ganako harremanetarako bidea egina daukalako.

Kuestionario berdinez eta metodologia berberaz ezagutaraziko da herri baten bizikera eta bere kultura.

Ikerlari bakoitzak, tokian tokiko hizkuntza-erregistroa ezagutuko du. Era honetara, zehaztasunez jokatuko du transkripzio lanetan.

Bilketa ez da morfologia hutsa izango, izakera bakoitzaren funtzioa eta kontestu kulturala adieraziko da.

Datu etnografikoak, lekukoaren memoria heltzen denerainokoak izango dira. Ez dira pasatutakoak bakarrik izango. Noraino bizi eta onartu diren ere adieraziko da. Gainera, bizikera berriak ere jasoko dira, noraino berriak zaharra aldatu duen esanez kultura aldaketa prozesuan.

Etniker talde-lanak kontrastatu egingo dira lurraldeka lehenengo eta urteroko talde guztien bileran.

Kuestionarioari dagokionez, Etniker taldekideok kuestionario berbera darabilgu gida bezala gure kanpo-lanetako bilketa egikeran. Baldintza hau behar- beharrezkoa da osotasuneko bilketa lan bat egiteko.

Horretarako, On Jose Migel Barandiaranek «Guia para una encuesta etnográfica» sortu zuen eta bertan, 850 galdera agertzen dira, bederatzi kapitulu nagusitan banatuz:

1. Auzo eta herrien datu geografikoak
2. Sail domestikoa: etxea, elikadura, janzkera, familia eta harremanak...
3. Sail domestikoko usadioak: tresneria, garbikuzia, jolasak, gaisoak, erlijioa, pasaje erritoak (jaiotza, bateoa, ezkongaiaroa, ezkontza, heriotzea...).
4. Ekintza saila: nekazaritza, artzaintza.
5. Ekintza saila: Itsas tresnak eta arrantza.

6. Ekintza saila: nekazal-explotazioa.
7. Ekintza saila: Artesania eta gainetikoak.
8. Lurralde saila: Herria, auzunea. Lege eta ohitura araudia.
9. Kulturizazioa: Etxea, eskola, siniskerak, jaiak, urtearoak, mitoak eta gainetikoak.
10. Biografia-etnografikoak: Berriemailearen datuak, formazioa, bizitze neurria, harremanak, statusa, kultura aldaketa, gainetiko bizikerak...

Kuestionario hau, gida komun bezala darabilgula esan dut, absolutu kutsua albo batera utzita. Izan ere, tokian tokiko elkarrizketak egin ahala, galdera berriak etortzen zaizkizu gogora eta hori ere jaso egiten da eta gero kontrastatu.

Biltze lanerako inkesta dela eta, etnikerkideok geure maisuaren bidea jarraitzen dugu. On Jose Migel Barandiaranen inkestaren helburua hauxe litzateke: Gure herriaren izakera bereizten duten arau-sistema, estruktura eta funtzioak aztertzea.

Eginbehar honetan, gure herriarenganako obserbazioa eta informazioa lirateke biltze ardatz nagusienetarikoa.

a) Obserbatze hau ikuspuntu bitatik egindakoa izango da: alde batetik morfologikoa eta bestetik funtzionala.

Ikerketa morfologikoa objektua bere elementuetan analizatuko du euren sintesia eginaz.

Esate baterako, etxe bat, bere plano eta orokorrean aztertuko bada ere, bere zatiak ere egingo dira osotasun horretara heltzeko.

Azterketa funtzionalak ostera, konportamentu, helburu eta esangurak edukiko ditu aztergai bezala. Funtzioa zatiturik azter daiteke baina gero espazio-denporan estrukturatu behar da, gizakiaren urteetan zeharko humanizazio eta guzti.

Gure azterketak, bada, objektu materialetik funtzio fisikora joan behar du lehenengo eta hortik esangura edo bizikera kulturalera.

b) Informazioak obserbazioa osatu behar du. Inkestalariak gutxienez aurreko mendeko datuen berri jakin behar du, (zaharragoak baditu hobe), EBOKAZIO itxurazko bat lortzeko.

Berriemaileak, ahal dela, natiboa izan behar du. Bere aurrekoak bertakoak izan badira hobe kontextu diakroniko on bat egiteko

## **Zeberioko esaerak**

Etnografiako ikuspuntu orokorra eman ondoren, esaeren munduan sartuko gara eta esandako guztiaren barruan kokatu.

On Jose Migel Barandiaranek, bere « Guía para una encuesta etnográfica»-ko «Grupo doméstico» deritzon atalean hauxe dino: «Cada lugar, accidente geográfico, objeto y hecho que se describa, debe ir acompañado del nombre y de los dichos populares que al mismo se refieren, procurando que la transcripción se haga con la mayor exactitud.»

Esaerak ez dira bizitzatik apartekoak, bizitzarenak dira, espazio-denporan mamituak eta belaunaldi bakoitzak onartuak bizitzaren joanean joaneango legean.

Bide bat zelangoa den jakiteko, norbera bertatik ibilita egotea lakorik ez dago. Ni, On Jose Migel Barandiaranek sortutako ETNIKER taldekidea nauzue eta bere inkesta Zeberio neure herrian egiten nabil hogei urte luzeotan.

Inkestaren barruko esaera mundua biltzeko, nik neuk egin dut neure bidea. Zein eta hauxe: Nire neure gurasoak ditut berriemaile. Esaeretakoz batez ere neure ama.

Hasieran, inkesta egin ahala, esaeren galdera egiten hasi nintzen baina emaitza urritxua sugertatu zitzaidan.

Baina nire neure bidea zabaldu nahian, bitargi bat ikusi nuen esaeren ebokazioa lortze-bidean: «Bizitza non, esaera han». Eta orduan esan nion neure amari: «Eutsi koadernoan, urte barruko egun, jai, ospakizun, ekintza, bizikera, ohitura eta abar guztiei buruzko esakerak bertan idazteko!» Esan banion ba ze...

Asteburuetan, Zeberio baserrira joaten nintzen eta naizenetan, han neukan eta daukat nire ama kuadernoan zabalik esaerak edo / eta antzekoak erakutsi nahian.

Nire lana, esaerok fitxatu eta aztertzea da. Dagoeneko, 500 etik pasatu gara eta urteetan ibili arren, oraindik ez da agortu esaera-iturria. Beraz, arrazoiak du On Jose Migel Barandiaranek, ni neu ez banenbil barrurik harako bilketa egiten, pentsatu ere ez horrelako altxorrik aurkitzerik. Esaera batek askotan, beste bat dakar eta nik neuk ere gurasoengandiko esaera asko bizi ditut eta hori oinarritzakoa da ebokazioa lortzeko.

## **Bilketa metodoa**

Ahorik hara zein magnetofono edo bideorik harako esaera bat, ahal denik eta zehatzen idatzi behar da iturri zuzena adierazteko.

Aurgorazkoa izan arren, nik neuk hiru eratara idazten ditut esaerok: Alde batetik transkripzio fonologikoan, bestetik, fonetikoan eta azkenik literario arautuan (lehenengo bere euskalkian eta gero nahi



bada batuan). Gehiago oraindik; esaera bat, bere kontestuan sartu behar da eta horrela ere argitasun gehiago behar bada, eman egin behar da, sarri askotan, bizitzaren joanetorrian zaharkiturik geratu delako edo / eta beste edozein arrazoigatik. Horrez gainera, eta etorkizun luzeari begira, ondo legoke beste hizkuntza batera itzultzea ere.

### **Esaeraren nondik norakoa - neure bidea**

Jarraian datozen esaera edo / eta antzerako guztiak, neure ama-gandik jaso ditut urteetan zehar.

Lehentxoago ere esan dut baina galdeketa bakoitzean esaera bidiru baino ez nituenez lortzen, azkenean, koadernu sistemara jo behar izan dut. Eta gaur bat, bihar bi, hona hemen bostehunetik gora, urteko bizitzatik atereak, oraingoz alfabeto-ordenaz eskeiniatz.

Dena den eta argitasun bidean, neure amari bildutako esaera bat edo besteri jarraipena egingo diot, Zeberiotik kanpo, beharbada, eza-gutu ere ez direlako egingo. Nik haragokoari eskeintzen diodanaren antzerakoa neugana baletor, pozik baino ere pozago hartuko nuke altxor eder hori neurea aberasteko.

Adibide batzuk hartuz, hona hemen horietariko esaera bat edo beste bere inguru eta guzti, etnotestu, bertsio literario-etimologiko eta batua erabiliz argibidean:

1. « iñorriena iten gabis»

Lit. inurriarena egiten gabilz.

Bat. inurriarena egiten gabiltza.

Fabula zaharretik dakigunez, inurria lan eta lan dabil udaroan negurako egiten eta baserritarrek ondo dakite tertzio egokian lortu behar dena urtean zehar jango bada. Uzta ona lortzea beharrezkoa da baina gero ere zaindu egin behar izaten da. Horretarako ere inurria eredu antzekoa izaten da. Inurriak, behin uzta lortu eta gero, zaindu egiten du bere inurri-mendian. Udagoien eta neguan busti egiten zaizkio haziak eta alde batetik, erne ez egiteko, begia jaten die lehenengo eta usteldu ez egiteko, eguzkitara atera eta sikatu. Guzti honetatik bada, baserritarren arteko esaera hauxe izaten da: « iñorriena iten gabis».

Gaur egun esaera hau egokiturik dago bizitzako beste arlo batzuetara. Ni txikitarik bialdu ninduten eskolak ikasten eta sarri entzun diet nire neure gurasoei hauxe esaten: «ia ba, eragon iñorria les ikisteari gixon andie ixiteko biger etzi beten» (lit. ea, bada, eragon inurria lez ikasteari gizon handia izateko bihar etzi baten).

## 2. « árdurak lagundukotzu»

Lit. ardurak lagunduko deutsu.

Bat. Ardurak lagunduko dizu.

Esaera honek bere historia du. Nire amamak kontatzen zigun bera txikia zela, sarri entzuten ziela esaera hau bere aurrekoei. Lehenengoz entzun zuenean hauxe gertatu zitzaion: Orandino umea zela, uretan joateko esan zion bere amak. Garai hartan ura errekatik ekarri behar izaten zen, kantin bi lepoan, beste bat eskuan eta sarritan erradea buruan zela. Nire amamak, hartu zituen tresnok eta errekarantz abiatzerakoan esan zion bere amari: ama, buruko erradea nok alztatuko dit ba burura? Ardurak lagunduko deutsu- erantzun zion eta joan zen nasai. Errekara heldu, tresnok urez bete eta han zegoen ezarrita ardurari itxaroten.

Itxaron eta itxaron, gogait eginda zegoenez gero, hartu erradea erdi hutsik, imini buruan zelanbeist eta etxera bueltatu zen. Etxera allegatzean badinotso amari ernegu sartu eta guzti: ama, ez dit ba beorrek esan árdurak lagunduko didala? Bai —erantzun zion bere amak— joan zaizu árdura laguntzera. Orduxean ulertu zuen esaera horren esangura.

## 3. «Saldaingo txakurrena pasau yako».

Lit. Saldaingo txakurrarena pasatu jako.

Bat. Saldaingo txakurrarena pasatu zaio.

Eta zer gertatu zitzaion Saldaingo txakurrari? Bada, hauxe: Saldain, Zeberrioko elbarrengo auzune bat da eta hango txakurren batek, seguru, eguerdiko gosean, bere etxeko bazkariari itxaroten egon barik, Uriondoko auzunera joatea pentsatu zuen, behin haraz gero, han tertziozago bazkaiteko. Joan, joan zen baina Uriondora ailegatu zenerako, han denak bazkalduta. Orduan, etxerako bideari eragon zion eta Saldainera heldu zenerako, berekoak ere bazkalduta. Egun horretan bazkaldu barik lotu zen eta hortik esaera hau.

## 4. «kontu erratuena batzean».

Lit. kontu erratuarena batzean.

Bat. kontu erratuarena batzen.

Behin baten, gizonen bat ei zebilen eskean etxerik etxe eta zerena batzen zuen itauntzen ziotenean, hauxe erantzuten ei zuen: «Ba hara, kontu erratuarena batzen nabil. Orain dela urte batzuk, zenbat urte biziko nintzen kontuak atera nituen eta urte bakoitzerako neure haziendetarik urteko honenbesteko bat jaten hasi nintzen. Alosoko bizimodua neukan, egia esateko. Urteak joan urteak etorri, haziendak amaitu zitzaizkidan baina bizitzako urteak ez, horregatik nabil eskean kontu erratuarena batzean».

5. «Estan bedarra beres igertu».

Lit. ez dan bedarra berez igartu.

Bat. Ez den bedarra berez ihartu.

Herritarren artean, era askotako kritikak egiten dira eta sarri askotan fundamentu bakoak, enbidia edo txartoikusigureak eraginda. Berbabidetariko bat nesken ernaritzea izaten da.

Sarri askotan, neska bat mutil batekin ikusiz batera, berbabideak hasten dira: bateko ernari egongo dena, besteko ez dakit zer etab. Honelako kritiken aurrean, ondogureko edozeinek erantzuten duen esaera hauxe da: « egia bada, denporak agertuko dau edurra mendian eta ez-pabere, eztan bedarra berez igartuko da».

6. «mendie artu».

Lit. mendia hartu.

Bat. mendia hartu.

Esaera hau ganaduentzat erabilten da batez ere, baina pertsonetara ere pasatu da. Artzainak ganaduentzat barruti bila ibiltzen dira, solorik solo edo mendirik mendi.

Udagoienerantz, denporaldi handiak egiten dituzte ganaduek mendian eta pastoreak egunero joaten ibili beharrean, noizbehinka baino ez dira joaten. Horretarako ganaduak leku-ingurune jakinean euki behar izaten dira. Horregatik, alde zurretik, mendia hartu edo egokitu egin behar dute urrunegi aldatu ez daitezen. Mendia hartzea, EGOKI-TZEA da, pastu-mendiari gustua hartzea.

Pertsonetan beste hainbeste gertatzen da, baina ez pastuagatik, ezkontzagatik baino. Lehenago, batenbat ezkontzen bazan baserri batetik bestera, «mendia hartu» behar izaten zuen ondo izateko, «mendia hartu» ezik, beleak beti bere haitzera!

7. «ezkurdunena pasau yako»

Lit. ezkurdunarena pasatu jako.

Bat. ezkurdunarena pasatu zaio.

Esaera honek bere historia du. Behin baten zeberioztar batek txerriak zeuzkan etxeingurutik soltuan, haizpeko ezkurak edo / eta beste zeozerrekin mantentuz.

Urte baten, ezkur gutxiko urtea antza, larritu egin zen eta zena bari guraizanari jaramon gehiago eginik, esan eta esan zebilen auzokoan artean: -«aurten eskur asko yaok» (aurten ezkur asko zegok)- «nok esan doa ba? « (nork esan dik ba)- «neuk (g)ure» (neuk gura).

Bizitzan sarri gertatzen da hau, hots, dena barik nahi dena aipatu. Kasu honetan erabiltzen da goian aipaturiko esaera.

## 8. «Lápikerona eisu»

Lit. Lápikerorena egizu.

Bat. Lápikerorena egin ezazu.

Lápikero ezizenez ezagutzen zen gizona hil zenean eta bere hiletak ospatu, hauxe gertatu zen: Garai hartan hiru eratako hiletak egiten ziren: primerakoak, hiru abaderekin, segundakoak birekin eta terzerakoak batekin.

Egun horretan herrian abade bi baino ez zeuden eta kanpoko bati egin zion dei parrokoak.

Baina, zergatik ez dakigula, tardatu egiten zuen kanpoko abade horrek eta gorpua hartzeko ordua ailegatu zen.

Parrokoa joan zen gorpua hartzen kaltzada zaharrera eta latineko kantu arterik kantu arte ez zeukan gogoan besterik kanpoko abadea baino. Ardura zen primerako hileta egin behar eta hirugarren abadea falta. Entierria eleizara heldu zenean eta parrokoa sakristiara joan kapa kendu eta kasuila iminteko, nor eta kanpoko abadea ez du bada aurkitzen nasai-nasai jarrita sakristian! Orduantxe esan zuen abade parrokoak: « aurrerantzean etxoak ernegauko azkenerarte» (aurrerantzean ez joat / diat ernegatuko azkenerarte).

Esaera honen aplikazioa hauxe litzateke: epebako batzuk estutu egiten dira eta sarritan ondo urtengo duten ekintzen aurrean ere larri egoten dira zein txarto bideratu edo. Hortxe erabiltzen da esaera hau. Orain, dena beti azkenerako uztea ere, kontuz! Denak du neurri bat!.

## 9. «bidertzeko aratxak eta tabernako neskatxiek, sarri sirrie!»

Lit. bide ertzeko haritzak eta tabernako neskatxiak sarri zirria.

Bat. bide ertzeko haritzak eta tabernako neskatxak sarri zirria.

Solo edo basabideetan sarri egoten da arbolaren bat eta gurdi beharren bat egiterakoan sarri ikutzen da bidertzeko arbola hori eta urraturen bat egin, azal-zurituta utzirik. Tabernako neskatxiak ere arrisku hori izaten dute, batez ere euretariko bat edo beste batazurre-rakoa baldin bada.

## 10. «baspiek erantau otzos maixuek»

Lit. bazpiak erantatu deutsoz maixuak.

Bat. bazpiak (bazpi=bartz) erantatu dizkio maixuak.

Garbikuzi gutxirekin dabilenen artean errez aurkitzen da zorritzot bat baino gehiago. Zorritzot bat, bartz edo bazpiz beterik egotea ez da milagro.

Lehenago, eskola-maixuak, gaurkoak baino joleagoak zirenez gero sarritan emoten zituzten kokotekoak, eskuaz zein urrizpaluaz. Hori gertatzen zenean, norberak edo sarriago besteren batek esaten zuen: «bazpiok erantatu deutsoz edo deustaz». Hau da, buruko ileak astindu dizkiola golpez, berba baten esanda, maixuak jo egin duela esateko modu eufemistiko bat.

# Euskarazko eguraldi-errefrauk

Xabier Kalzakorta

## 1. Abiapuntua

Lurgain honetan gizonak bere oinak jarri dituzenez gero, inguruko aldaerak, eguraldiaren aldantzak-onerakoak, txarrerakoak zein edozertarakoak- begiz ikusi, gorputzez senti eta buruz arrazoitzen ahalegindu da. Gizona gizon deino inguruko eguraldi-aldaketei erreparatu die, eta, aldaketok arrazoitzen eta hitzez adierazten ahaleginak egin ditu. Gizona, garai zaharretan, ehiztaria izan omen zen, gerora artzaina, artzaingoa utzi gabe nekazari ere egin zen, eta azkenik, itsasoan ibiltzen ere ausartu zen. Nekazariak zein itsasgizonak eguraldiaren mende bizi ziren eta beharrezko zuten, ahal zen neurri estuan, eguraldi-aldaerak igertzeko gai izatea. Horretarako eguraldia bera zen gertatuko zenaren iragarle. Zerua gorritzen bazuen arratsaldean, hurrengo egunean euria egingo zuen. Zerua goizean gorrituz gero, ordea, arratsaldea euritsu izango zen. Zeruak berak iragartzen zuen, beraz, gertatuko zenaren berri, eta gizonak, zeruak iragarritakoa igarri beharra zuen. Esate baterako, *Red sky, by night Shepherd's delight* zioten irlandarrek eta *Red sky in the morning, shepherd's warning*. Euskarara itzuliz *Zeru gorria gauaz, artzainen poza* eta *Zeru gorria goizez, artzainak kontuz*. Konturatzeko bagara, bi errefrauetan *artzaina(k)* aipatzen dira eta artzaina da pozten edo kontuz ibili behar duena. Zergatik? Eguraldi-jakituria artzaintzari berari dagokiolako. Neurri batean, artzainak artaldeak larratzeko beharrezkoa duelako jakitea etorriko den eguraldiaren berri. Artzaina, nekazaria eta itsasgizona eguraldi-jakituria honen mende zegoen. Nekazariak hazia noiz eta nola erein jakin behar du uztarik bilduko badu. Itsasgizonak ekaitza noiz etorriko den ere jakin behar du, bere bizia salbatuko badu. Lurretik zein itsasotik bizi denak, haize, euri, elur, ekaitz eta eguzkiaren berri izan behar du. Jakituria hau hitz gutxitan trinkotzen edo laburtzen da. Ingelesez eman ditugun errefrauen euskal ordainak *Goiz gorri, arrats iturri* eta *Arrats gorri, eguraldi* ditugu,

besteak beste direla. Konturatzen bagara ingelesezkoak eta euskarazkoak bat datoz oinarri edo funtsean. Ingelesezko bietan zerua aipatzen da *sky*, euskarazkoetan ez dago aipatu beharrik *gorri* hitza esaten dugunean ulertzen dugulako zer den *gorri* dagoena, zerua, hain zuzen. Gaua «night», gorri «red» eta goiz «morning», ordea, beharrezkoak dira aipatzea. Badute ingelesezko erretrauek halako zeharresan edo sulerentzia bat euskarazkoek ez dutena. Zein da? Artzaina pozik dago zeru gorria ikustean iluntzean, hurrengo egunean, edo goizean, *eguraldi ona* izango duelako, baina ez du esaten «eguraldi ona» zuzenean, pozik dagoela baizik. Era berean, goiz gorria ikusten badu «kontuz» horrek beldurra adierazten du. Zeren beldurra? Euria egiteko beldurra. Euskarazkoek ere, badituzte beren gatza eta indarra ere. Ikusi dugu, batetik, begien bistakoa den substantiboa edo «zeru» hitza kendua dagoela. Goiza berez ezin baita «gorria»izan<sup>1</sup>, denborak ez baitu kolorerik, sagar batek edo gereziek izan dezaketen bezala. *Arrats iturri* delakoak ere baditu norma edo lege-hauste zenbait. Batetik *iturri(ak)* arratsean izango dira, hau da, inesiboarekin «noiz» bat markatzen dugu. Eta *iturri* hitzak euria adierazten duenez, euriaren ordezt dago, beraz, metafora bat dugu *iturri* delakoa. *Goiz gorri*, *arrats iturri* diogunean lau hitzetan jakituria laburbiltzen dugu, gorago aipatu dugun eguraldi-jakituria. *Gorri* eta *iturri* hitzak hoskide dira, eta lau hitzeko esaera zaharra gogoratzen lagunduko digute. *Arrats gorri*, *eguraldi* diogunean hiru hitz baino ez dira agertzen, oraingoan «hitz-ekonomia» handiagoa da, hiru hitzez ideia bat agertzen dugulako, eta, oraingoan ere, hoskidetasuna gordetzen dugu *gorri/eguraldi* hitzekin. Eguraldi delakoak *eguraldi ona* adierazten du. «Ona» hitza, gorago esan dugun «zerua» bezala begien bistakoa denez, ulertzen da, hiztunen buruan dago. Euskaraz, badugu besterik ere, *zeru gorri* adierazteko baditugu *oskorri*, *orzgorri* hitzak, guztiok onartzen dugunez *ortz(i)* + *gorri* konposiziotik eratorria, eta Leizarragak erabiltzen zuenez *zeru orzkorria* ere bai<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Hemen jakina lexikalizazioa ere gerta daiteke *goiz gorri* delakoa bihur daiteke *goizkorri*, eta, era berean, *arrats gorri arraskorri*. Hasiera batean tropo bat biltzen zuten izen + adjetiboa> izen lexikalizatu bihurtzen da. Halaxe darabil, esaterako, Orixek *Euskaldunak* 1972ko edizioa, 89or. 625 *Illunabarez, Migel ageri/Anbulete'ko egira;/ leenik begia zuzen zizta du/ Gorriederraren kabira. /Goizgorri baino maiteago du/ arrasgorriren ditzira:/ onek, arean, baitakarkio/biamon on idurira*. Lexikalizazioa erretrauetan bertan ere ematen da. Hor dugu, esaterako, Azkuek berak bildua duen Azk1182-*Goizkorriak euri-tsu, arraskorriak aizetsu*. Los arboles de la mañana (son) lluviosos, los de la tarde ventosos (B, Dic.)

<sup>2</sup> Hona hemen Leizarragaren *Testamentu berriko* pasartea (s. Matthey Cap. XVI.): 1Eta ethorric Pharifeuc eta Sadduceuc, tentatzen çutela requiri ceçaten cembeit

## 2. Herri-jakituria, euskal adibideak

Jakituria modu hau, gizaldiz gizaldi eta belaunez belauen etorri da.

Euskaraz, esaterako, Bizkaian esaten zena bat dator Zuberoan esaten denarekin, eta berdin esan dezakegu gainerako lurraldeez. Eman ditagun zenbait adibide. Hasi gaitzen Bizkaitik. Mogelek agertzen du bere *Peru Abarca* lanean: 30-*Gois-gorri, laster euri* eta 31-*Arrats-gorri, goisian eguzqui*. Azkuek Azk 1128-*Arrats gorri, eguraldi (AN, B)*. *Arrats gorriak aizetsu, goiz gorriak euritsu* (B-mur-ol, G-errezil), Azk 1176-*Goiz gorriak, arratseko iturriak* (B-nabarniz). Joan gaitzen orain Gipuzkoara: Isastik 41-*Goiz gorri, euri daidi; arrats gorri, eguraldi*. Arreboles de mañana, aguas; y arreboles de la tarde, buen tiempo. Larramendik bere *Corografía de Guipúzcoa* lanean dio: «Aquí tienen un refran: *Goiz Gorri euri daidi, arrats gorri eguraldi*, y quiere decir que arreboles encendidos de la mañana son señales de agua y los de la tarde de buen tiempo»<sup>3</sup>. Nafarroakoa da Arakistainek Larramendiri bidali zizkion errefrauetaan ere agertzen dena: Los arreboles de la tarde indican serenidad, los de la mañana agua. *Arrats gorri eguraldi, goizgorri, euri dagui; ó tambien, eurilari*, n. Azken n. delakoak Nafarroakoa dela salatzen du<sup>4</sup>. Berdin bildu omen zuen Azkuek 1128-*Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri eurilari* Oihartzunen ere Azk1128-*Arrats gorri, eguraldi, goiz gorri laster euri*. Azk-1176-*Goiz gorri, aize edo euri* (AN-b, B-l) Lapurdin ere berdin Darthayet-en arauera 12-*Goiz hortzadar, arrats iturri*. Baxenafarroan ere antzera, Azk-1176-*Goiz odei gorri, arratseko euri* (BN-s). Zuberoako Maulekoa zen Oihenartek 199 *Gois gorriac dakarke vri, arrats gorriac eguraldi*. La matinée rouge est presage de pluie, la soirée rouge promet beau temps. Erronkarin Azkuek 1128-*Arrats odoi gorri, biramenean eguzku gorri*.

---

figno cerutic eracuts liecén. Baina harc ihardeften çuela erran ciecéen, Arratfean, erraiten duçue, Dembora eder equinen du: ecen gorri da ceruä.

3 Eta goicean dioçue, Egun tempeffate equinen du: ecer *ceruä orzgorri gaitz* da. Hy-pocritác, ceruären irudiaz, iugeatzen daquičue, eta demboretaco fignoéz ecin diroçue? LARRAMENDI, Manuel de: *Corografía ó decripción general de la muy noble y muy leal Provincia de Guipuzcoa*, Barcelona, 1882, 45 or.

<sup>3</sup> LARRAMENDI, Manuel de: *Corografía ó decripción general de la muy noble y muy leal Provincia de Guipuzcoa* Barcelona 1882, 45or.

<sup>4</sup> Arakistainek errefrau bakoitzaren ondoren (n) edo (g) bat agertzen du. Bera Gipuzkoako Itziarkoa zen izatez eta Larramendiri errefrauak eta hitzak bidali zizkionean errefrau bakoitzaren ondotoxoan jatorria markatzen zuen. Jatorria era bitakoa izan zitekeen, sorlekukoa, hau da Gipuzkoakoa (g), edo bera egoitzaz zegoen lekukoa, hau da Nafarroakoa(n). Leku bietakoa era izan zitekeen (n)(g). Era horretara zehaztasun interesgarri bat agertzen da. Zehaztasun hau ez dakar, guk ikusi dugunetan, ez Azkuek, ez eta *Orotariko euskal hiztegiak*.

Adibide gehiago ere eman ditzakegu, ez baititugu argitaratuako guztiak eman, baina ez da gure asmoa errefrau beraren aldaera guztiak artikulatu honetara ekartzea<sup>5</sup>. Ohart gaitezen ezaugarriarik behinenekin. Konturatzen gara euskaraz hitz egiten den lurralde guztietan ematen dela. Hasi Bizkaiko lurretik eta Zuberoa zein Erronkarin dokumentatzen da. Errefrau-altxor zaharrenetan ere agertzen da. Hasi xvigarren mendetik eta gaur egunera arte. XVI.mendeko *Refranes y Sentencias* delakoan falta bide da —edo ezagutzen dugun pusketan, osorik ez bait dugu ezagutzen— baina Garibaik badakar B 48 —«Porque en aquella tierra las nubes (nubes) coloradas por la mañana significan agua, y por la tarde, sol, dicen: Mañana colorada lluvia hera, Tarde colorada sol *Gox gorric euri daidi, Arras gorric eguzqui*<sup>6</sup>. Denboran hurbil dagoen Isastiren bilduman ere agertzen da.

Gaur egunean ere, zorionez, nekazarien ahotik erraz entzun daitekeen esaera zaharra da. Gaur den egunean entzun daitezkeen artean eman dezagun Zeanurin esaten dena, bertako alaba den Pilar Ziarrustak ahoz eni esana: *Gox gorri, galgarri; gau gorri, ongarrri*. Hemen, aurrekoetan ez bezala, beste joko interesgarri bat agertzen zaigu *gorri-garri*, hain zuzen. Errefrau hau irlandarraren tankerakoa dugu, zeharresanez oratua, ez digulako esaten, euskal errefrau gehienek bezala, *euria* edo *haizea* egingo duen, ongarrri/galgarri izango dela baino. Eguraldi ona egingo duela *ongarri* zehar hitzarekin ematen zaigu aditzera, eta txarra *galgarri* delakoarekin.

Iruzkintzen ari garen errefrau eredu honek baditu hizkuntzaren aldetik hainbat aberastasun, iraisean edo handi-handika hemen aipatuko

---

<sup>5</sup> Bide batezko adibide argigarri bi, hala eta guztiz ere, emango ditut. Polikarpo IRAIZOZ-EN *Yesu-Kristo gure jaunaren bizia* 1934 agertuan, 233-234or., 91-Farisauak ezaupide bat eskatzen-Farisauen orantza (Mt, XVI, 1-12; Mc. VIII, 11-21) Honela itzultzen du: «An urbildu zitzaizkion Farisauak eta Sadukearrak, eta arekin eztabaidan asi ziran. Zerutikako ezaupide bat eskatzen zioten, narrikatuz. Arek berriz erantzun zien: «Arratsean esaten duzue: Aro ona izango da, ortzia (zerua) gorri gorri dago ta. Goizean ortziaren aurpegia ezagutzen badakizue, ta denboraren ezaupideak berriz ezin aditu ditzakezue?» Pasarte honen azpiohar gisa halaxe dakar: Euskeraz ere ola esaten dugu: «Arrats gorri, biar eguraldi; goiz gorri, arrats euri. Yesusek esaten die bere etsaiei: Zeruari begiratzuz amatzten duzue zer eguraldi, zer aro egingo duen. Eta nik eginen ditudan gauza arrigarriak ikusiz, ezin asma al dezakezue, zuei agindutako Mesia ni nazelaz».

Orixek egindako Mistralen *Mireio* lanaren itzulpenean ere badakar probentzalek dioten errefrau beraren euskal ordaina Mistral'en *Mireio* 1930, 111or.: «Langile-nagusi zar au, eguzkiak kiskali edo iparbeltzak orro egin, beti aurrena lanera. Zazpi seme bera bezain mardul ta beltzeran, berekin zekartzen. Igitariak ao batez aukeratu zuten buruzagi, ta bidez alere. Asi zen bada Luenti: esana egi bada «Goiz-gorri arrats-iturri» nik ikusi dudana negargarri da inñolaz ere nagusi».

<sup>6</sup> ZUBIAUR, J.R. eta ARZAMENDI, J.: «El léxico vasco de los refranes de Garibay» in ASJU 1976, 76or.



ditudanak. Aditzari dagokionez, Garibai zein Isastiren bilduman *huri daidi* forma zaharra agertzen da. Hamaseigarren mendean korritzen zuten forma zaharretariko bat da *daidi* delakoa<sup>7</sup>. Gero, itxura guztien arauera, *daidi* delakoa *dagi* bihurtu zen, Arakistainen adibidean agertzen den bezala. Harrigarriena dena da Larramendiren garaian ere erabiltzea, Larramendik ere hala dokumentatzen baitu. Geroko testigantzetan ez da horrelakorik agertuko. Deklinabideari dagokionez, Garibairen errefrauak bi ergatibo mugagaberen altxorra eskeintzen digute B48-Gox *gorric huri daidi*, Arras *gorric eguzqui*. Mugagabetasun horrek zer adierazten du? Edozein *Gox gorrik* euria dakarrela, edozein *arras gorrik* eguzkia dakarren bezalaxe. Gauza bera gertatzen da, gure artean hainbat aldiz iruzkindu den Oihenarten 229-*Herric bere legue, exec bere astura* delakoarekin. Guri dagokigun errefraua, ordea, guk dakigunez behintzat, ez da era horretara aztertu. Hiztegiari dagokionez ere, hainbat zehaztasun eman daitezke, guk, ostera, bat baino ez dugu aipatuko. *Eurilari* hitza Arakistainen eta Azkueren bi errefrauetan bakarrik agertzen da. Itxurak direnez, gainerako euskal literatura osoan ez da agertzen *eurilari* delako hitza<sup>8</sup>. Errefraua izan da, beraz, hitz horren gordeleku. Azkueren testigantza benetakoa izanez Nafarroan entzuten zen bera bizi zela *eurilari* delakoa.

Hainbat testigantza izateak zer esan nahi du, nahitanahiez ematen dela, kasu guztietan inoiz huts egin gabe, errefrauan esaten dena? Gure testigantzak gutxi balira ere, ez ote da harrigarria beste herri batzuetakoekin bat etortzea? Guk hona Irlandakoak ekarri ditugu Azkuek, esaterako, latinekoekin ere erkatu zituen. Larramendik berak dio errefraua horrezaz hitz egitean: «Es el mismo proverbio que tenían en Judea los escribas y fariseos de que hace mención Cristo: *Facto vespere dicitis serenum erit* (MATTH., XVI) *rubicundum est enim coelum et mani, hodie tempestas, rutilat eim triste coelum*. Pero en Guipúzcoa engaña el refrán, y engañan también (...)»<sup>9</sup>. Beraz errefrauak engainatzen duela dio andoaindarrak. Ohartu bagara Oihenarten errefrauaren

<sup>7</sup> Zehaztasun gehiago nahi dituenak ikus beza «verbes servant d'auxiliaires mais employes comme verbes independants, avec leur valeur propre» kapituluia Lafonen *Le système du verbe basque au XVI siècle* lanean 80-132 orrialdeetan, -idi- aditz laguntzaileaz esaten dituenak guztiz interesgarriak dira.

<sup>8</sup> *Eurilari* hitzak, gainera, itxurak direnez, ez du kiderik, ez du bere saileko lagunik. Ahaleginak egin arren ez dugu aurkitu ez *elurlari*, ez *izozlari*, ez *txingorlari*, ez antzerakorik. Orobat gertatzen da beste zenbait errefrautan *hitz-ontzi*, *huts-ontzi* delakoan edo *atzerrri-otserri* alean. «Otserri» eta «huts-ontzi» hitz konposatuak bakarrik, edo ia bakarrik errefrauaren B osagaiean agertzen dira.

<sup>9</sup> LARRAMENDI aip. lana 45or.

itzulpenean ere *La matinée rouge est presage de pluie, la soirée rouge promet beau* dio. Euskarazko *dakarke* delakoak, «ekar dezakeela» adierazten du, «ez nahitanahiez ekarriko duela». Ingelesezko adibideak ere esanguratsuak dira, batean poza dago eta bestean beldurra, gertagarria delako baina ez nahitanahiez gertatzekoa. Gero aztertuko dugu, zehatzago eta zabalago, azken puntu hau.

Eman dezagun, ikusten ari garen errefrauaren antzerako bestetxo bat: Azk 539-*Mari gorri: biar eguzki ta etzi euri* (B-zean). Honen gisako beste bat Azk 540-*Mari gorringo: biar ta etzi eguzkia egingo* (B-dima), eta azkenik, Azk 541-*Mari gorringo gorringo ¿gaur ala biar euria egingo? Gaur edo biar euria ezpada, Mariak eperdian emongo* (B-g, Dic.). Hiru hauetatik lehena hartzen badugu, ezin da ukatu guk aztertzen ari garenekin baduela antzekotasunik. Alde batetik *gorri* delakoa *euzki* eta *euri* direlakoekin hosiak da, eta ordena bera ere, *eguzki* eta *euri*arena bezalakoa da. *Marigorria*, ordea, ez da zero gorria bezalakoa, hura xomorra bat delako, eta, hau, oster, elur, euri eta gainerako elementuen iturburu. Marigorri putz egin eta geroko gertagarritasuna ere ez da sartzen zero gorriak dakartzan euri edo eguzkien maila berean. Bata esperientziatik sortutako jakituria da, eta, bestea, sineskeria eta haur-munduko mailakoa. Oraingoz esan dezagun bi formulok, euskaraz behintzat, duten antzekotasuna ukaezina dela. Kontuan hartzen badugu haur ttikiek, Azk 539-*Mari orri biar eguzki etzi euri* esaten dutela, Marigorri deitutako xomorro bat eskuzabalean hartu eta putz egiten zaionean, ume-mundura goazetik ezin uka.

### 3. Eguraldi-errefrauen ezaugarri bat: laburtasuna

Eguraldi-errefrauk bi osagaidunak dira. Ideia bat bi osagaitan ematen dute. Bi osagaidun eguraldi-errefrauaren ezaugarri behinenetako bat laburra izatea da. Eman dezagun *elur-urte*, *gari-urte* errefrau eza-guna. Lehen osagaia *elur-urte* dugu, eta bigarrena, *gari-urte*. Bi osagaiok bereizteko koma bat erabili dugu. Ikusten denez ez dago aditz jokaturik. Aditza ulertu egiten da, inplizitua da «izan» aditzaren «da» adizkia litzateke. Ez dago, era berean, artikulurik ere. Artikulurik ez jarzea errefrauek duten hitz-ekonomiaren beste ezaugarri bat dugu. Ahalik eta errefraurik laburrena izateko hitz konposizio bi agertzen dira. Errefrau horrek adierazten duena da «elurra sarri edo ugari egiten duen urteak,» (*elur-urte*)»ondorio ona ekarriko duela, garia ugari egongo delako» (*gari-urte*). Guzti hori, ikusi dugunez, modurik laburrenean emana dago, bi hitz konposatuz. Euskera zaharrean baliteke are labu-

rragoa izatea «galurte» izatea *gari-urte* izan beharrean, *galereite* eta *gari-ereite* biak dokumentatzen baitira.

Eman ditzagun adibide gehiago. *Martian çenbatetan, Aprilean aynbatetan* errafrau entzuten badugu korrespondentzia bat dagoela nabaritzen dugu. Baina, zer da neurri berean, batean eta bestean, ematen dena? Garai bateko nekazariak ulertzen dute, hemen inplizitoki dagoena: izotza. Garibairen errefrau honek honelako azalpena du erdaraz: A 15 «Porque a los hielos de Março corresponden comunmente los de Abril, dicen *Martian çenbatetan, Aprilean aynbatetan*». Errefrau bera ikusten dugu, esaterako, mende honetako bildumetan, hona hemen, Zarautzen Juan Irurataienak bildua *Martxoan zenbat izotz, Apirillean ainbeste elur eta Mayatzean ere bildur*<sup>10</sup>. Ikusten denez, Garibairen errefrau bera dugu, baina azalpen handiagoa duela, hemen ez da esaten martxoan egiten duen izotz bera egingo duela Apirilean. Hemen korrespondentzia Martxoko izotzetik Apirileko elurrera doa, batetik, eta Maiatzeko berri ere esaten da, bestetik. Badira beraz, nolabait esan, hitz-ekonomia handiagoa duten errefrauak. Eman dezagun beste adibide bat. Ormetxeak<sup>11</sup> argitaratu zuen *40-Artoa Donianetan zozo, San Pedroetan bela*. Zer esan nahi du errefrau horrek? Zer ikuskizun dute artoak, zozoa eta belea hegaztiak, eta Doniane eta San Pedro urteko egunek? Ekar dezagun Gotzon Garatek ematen duen adibidea: *San Pedrotan artoak belea estali* ondoan erdarazko itzulpen eta argigarria duela (Por San Pedro el maíz tiene que cubrir ya al cuervo», es decir, que tiene que ser más alto que el cuervo)<sup>12</sup>. Oraingo adibidean badugu aurreko Ormaetxearenean agertzen ez den aditz argigarri bat «estali». Badira, hala eta guztiz ere, esaera zahar bera modu luzeagoan ere. Entzun dezagun Aiztiriren azalpena: «*Artoak San Juanetarako zozoa estali behar du, eta San Pedrotarako belea*». Bazen, bestalde, esaera ederrik, «lurraren emankortasuna» eta arto onaren neurriak adierazteko ere. Matxinbenta aldean honela zioten. «*Eta Santiagotarako zezena*», esaten omen zuten hor nonbait, kosta aldetik.

Nekez ulertuko luke kaletar batek *Artoa Donianetan zozo, San Pedrotan bela* delakoa. Aiztiriren azalpenarekin ondo ulertzen da zer den adierazten dena. Artoaren hazte prozesua markatzen zaigu, Donianetarako (Ekainaren 24) zozoa bezain handi izan behar du, San Pedrotarako (Ekainaren 29) belea estaltzeko adinakoa, eta azken gehi-

<sup>10</sup> IRURETAGOYENA, Juan de: «Refranes y dichos populares», in *Anuario de Eusko Folklore* 1921, 55or.

<sup>11</sup> ORMETXEA, P.A.: «Esakunak», in *Euskal Esnalea*, 1909, II, 30.

<sup>12</sup> GARATE, Gotzon: «Características de los refranes vascos», in *Paremia*, n.º 6, 267-270 or.

garri bat ere badu itsasertzetik zetorrena, *Santiagoetarako* (Uztailaren 25) *zezena*. Uztailaren hogeitabostean beraz, artoaren uztaroa etorria da.

Orain arteko adibideetan ikusi denez, zenbait kasutan errefrauak badu luzagarri bat. Eman dezagun beste esaera zahar pollit baten berri: *Handia banintzen txikia banintzen maiatzean buru nintzen*. Esaera hau dukegu Euskal Herri osoan ezagun eta zabalduenetakoa. Errefrau beraren aldaerak elkarren ondoan jarriko bagenitu hamabostetik gora aterako litzazkiguke. Aldaera guztiok, ordea, oso txikiak dira. «Buru nintzen» edo «burutu nintzen» edo «buruan nintzen» eta antzekoak. Egitura bereko errefrau oso pollitak era badira, egituraren behintzat kide-kide direnak, Intza 295-*Goiz banintzen, berandu banintzen, garizuma beti negu nintzen*, edo, Intza 988-*Itzotz pixka batekin iges nintzen: elur monton aundien erori nintzen*, edo, Intza 1959-*Txikia banintzen, aundia banintzen aprillen lorean nintzen* (Babaz esana). Gariaren gaineko esaera zahar honek badu Aiztirik bildutako ale batean luzapen interesgarri bat: *Haundia banintzen, txikie banintzen, maiatzean buru nintzen, berrogeigarren egunerako oramahien ora nintzen*. Ale honetan ikusten denez, badago bestetan inon aurkitu ez dudana *berrogeigarren egunerako oramahien ora nintzen* luzapena.

#### 4. Izadi-errefrauak eta eguraldi-errefrauak

Eman dezagun goian aztertutako *goiz gorri, arrats euri* bezalako alea. Hemen izadiko elementu batek, goiz gorriak, iragarten digu arratsean euria egingo duela. Jakituria bat agertzen da. Hau ongarri da artzain, nekazari, marinel zein ehiztarietzat, garai bateko lanbide edo ariera zaharrak aipatzearen. Eguraldi-errefrau bat dugu hau. Eman dezagun Izadi-errefraua izango litzatekeela errefrau honen izendatze generiko bat. Izadi-errefrauen barnean nekazari-errefrauak eta marinel-errefrauak behintzat bereziko genituzke. Artzain-errefrauak eta ehiztari-errefrauak ere badira, baina hauek askozaz bakanago. Nekazari eta marinel errefrauen artean, hainbat azpisail egin daitezke. Badira batetik iragarpen-errefrauak. Iragarpen-errefrauak gure eguraldi-errefrauak dira, eguraldi errefragen helburua batez ere iragartea delako. Hona hemen adibidetxo argigarri bat: Azk1658-*Asteleneko euria, aste guztiko euria*. Bada nekazari-errefragen artean sail interesgarri bat, guk uzta-errefrauak deituko diegu. Zehatzagoak izango bagina erein-uzta errefrauak direla esango genuke. Zer dira uzta-errefrauak? Noiz zer erein behar den markatzen duten errefrauak dira. Uzta-errefrauak noiz den ereiaroa markatzen dute batez ere: *San Jurgi artoak ereiteko goizegi*,

*San Markos artoak ereinda balegoz.* Errefrau honen bidez epe bat markatzen dugu. Guk errefrau mota honi *uzta-errefraua* deituko diogu laburzurrian. *Ereiaroak*, hitzak berak esaten duenez, ereiteko aro bat markatzen du. Hazia garai jakin batean ereiten da, ez noiznahi. Artoa, garia edo edoizen laborek badu ereiteko denbora jakin bat. Eman dezagun RS 330-*Done Meterij Celedon porru ereyaro on*. Por Sant Meteorio y Celedon buena sazón desenbar porrina. Noiz den garai egokia esaten da errefrau horretan, edo nahiago bada, garairik egokiena markatzen da. Eman dezagun beste adibidetxo bat Barandiaranek Saran bildu zuena: *Maiatza pardo, eriaroa klaro*. Ale honek maiatz euritsua ereiario egokia dela markatzen digu. Kontutan izan beharrekoa da *ereiario* hitzak ereiteko aldia markatzen zuela hasiera batean, eta geroa, hilabete jakin bat «Junio»<sup>13</sup>. Geroago ikusiko dugunez badago uzta-errefrau berezi bat: *Or irtete, galereite*.

Errefrau hauek gehienetan noiz den aroa markatzen dute, baina inoiz edo behin noiz erein behar ez den ere bai: RS 558-*Ylbeeran ereyn ceguic arean*. Kasu honetan noiz erein behar ez den markatzen da. Ilargiak baditu beherapenak eta gorapenak, ilargia beherapenean dagoe-larik, *ilberan*, ez da erein behar ezer, hori da errefrauak markatzen duena.

Eguraldi-errefrauek eta uzta-errefrauek kontzeptu desberdinak markatzen dituzte. Ale batzuetan eguraldi-errefrauek eta uzta-errefrauek bat egiten dutenik ezin uka.

## 5. Eguraldi-errefrauen egitura

5.1. Herriak ezagutzen dituen baieztapen jakin batzuk dira errefrauak, egia itxurakoak, herri baten jakituria hitz gutxitan laburbiltzen dutenak. Errefrauetan jakituria, egiak, erakutsiak, laburbiltzen dira. Errefrauek buruan erraz hartzeko moduko molde laburretan trinkotutako jakituria dute. Jakituria hau belaunez belaun gurasoetatik semee-

---

<sup>13</sup> Gutxi dira, egia esan, «-aro» duten hilabeteen izenak. Gehienek «-ila» dute. Ba-dira, hala ere, ale bakan zenbait. Hor dugu, esaterako, geroago ikusiko dugun «ostaro». *Erearo, ereiario, eriaro* hitzak badu aldaketa nabarmen bat: «errearo». Harrigarria da nola itzuli duten zenbait tratadista euskaldunek. «Epoca, sazón de siembra» edo antzeko zerbait esan beharrean Astarloak «temple de mucha suavidad» *Apología*, 386or. eta Campionek «mes de mucho calor». Guk pentsatzen dugu «ereiario» dela zaharrena eta hortik datorkeela «errearoa», ekainean eguzkiak gogor jotzen duelako. Hala baldin bada herri-etimologia baten aurrean gaude. Harrigarria badirudi ere, Caro Barojak Campioni ematen dio arrazoia *Estudios vascos Txertoa*, 81or.

tara iragana da. Errefrau-multzo honetan eguraldi-errefrauek sail berezi bat osatzen dute, edo nahiago bada, azpisail bat. Errefrau hauek duten helburua etorriko den denbora iragartea da.

Norbaitek euskaraz «euria dakar» badio, jakingo du zergatik dioen, hodei beltzak ikusi dituelako, euri-haizea somatu duelako, edo bera bizi den mendi jakin baten gailurra hodei beltzak mendean hartu duelako, edo beste arrazoiren batzurengatik esango du. Inguruko eguraldi-aldaketen arrazoiak eskarmentuak eman dio. Eskarmentatuak, edo hezurretaraino eskarmentua sartua duenak, badaki zeruan irakurtzen. Itsasoan bizi izan denak beti leziatez prozesu bat hartu behar izan du, apendizgoa behar izan du. Apendizgoan dagoenak nahitanahiezkoa izan du, itsasoko zein lugintzako lanbideetan, eguraldiazko jakituria ere. *Iragarpen* bat agertzen dutenez gero eguraldi-errefrauek, *iragarpen-errefrauek* ere deitu izan dira<sup>14</sup>. Denbora-erregela edo legeak dira, nekazari eta itsasgizonentzako iragarpenak jatorrian. Gaur egun ere, gizarte kaletartu honetan erabil ditzakegun arren, garai bateko uzta-garai edo nekazaritza garaiko usaina dutenik ezin uka. Euskaraz badugu mordoxkada bat, nire uste apalean gehiegi izan ez arren, bilduma polit askoa osatzen dutena. Nekazaritza girokoak askozaz gehigo dira itsas girokoak baino. Sail handiagoa osatzea, nekazaritza arlokoak gehiago bildu den seinale da, ez gehiago egon denarena.

Egiturari bagagozkio, eredu finko bat agertzen dute gehienetan eguraldi-errefrauek. Hitz bitan honela laburbil daiteke «A baldin bada, orduan B». Eman dezagun artikulua buruan ekarri dugun errefraua: *Goiz gorri, arrats iturri*. Hemen ez da agertzen aditz bat bera ere, baina errefrauek dituen bi zati edo buruen ordenak honelako zerbait adierazten du: *Goizean zerua gorri badago, orduan arratsaldean euria egingo du*. Guk baldintza bat osatu dugu, baldintzaren zati biek: protasia eta apodosia. Protasiak bere aditza du eta apodosiak ere berea. Gure adibidean adizki biak desagertu dira. *Goiz gorri* A dugu eta *arrats iturri* B. Beraz, (A gertatzen bada, B da ondorioa). Errefrau bat, ikusten dugunez bikoitza ere izan daiteke «A bada, orduan B, C bada orduan D». Tankera horretarikoa litzateke *Arrats gorri, eguraldi, goizgorri, arrats iturri* baina utzi dezagun puntu hau geroko.

5.2.(A baldin bada, orduan B) Egituraren zehaztasunak, gehigarriak Esan dugu eguraldi-errefrauen egiturarik behinena (A baldin bada, orduan B) dela. Iruzkintzen ari garen errefrauen beste aldaera bat ekartzekotan Azk 1150-*Eguzki txuri, laxter euri* litzateke. Egitura soil edo behineko horrek baditu ondorioan luzagarriak. Honelaxe formula-

<sup>14</sup> WOLFGANG, Mieder: «Los refranes meteorológicos» in *Paremia* 5, 58-65or.

tuko genuke (A baldin bada, orduan B, edo B'). Hona adibideak Azk 1197-*Itsas zuri, aize edo euri*. Hemen baditugu A batetik, baina ondorioan B edo B'. Hau da *itsasoa zuri* agertzen bada *haizea* aterako du edo *euria*. Aukera bi ematen ditu *itsasoa zuri* egoteak. Behin honetaraz gero, beste aukera bat ere egongo litzateke (A baldin bada, orduan B eta B') eta hirugarren bat ere bai (A baldin bada, orduan B edo B' edo B») Azk1216-*Odei gorri, aize edo euri, egoa ezpaledi*. Kasu honetan ondorioa hirukoitza da, hau da, hodei gorria ari badu, edo haizea atera dezake, edo euria egin dezake, edo hegoaizea. Guzti hauek, hondararren hondarrean, egitura bera dute. Kontua da B delakoa aukera gehiagokoa izatea. Bakoitza ez denean, bikoitza eta are hirukoitza izatea, adibideetan ikusi dugunez. (A baldin bada, orduan B eta B») formula beteko lukeen adibidea, apur bat ezkutuan badago ere, Arakistainen 17-*Ni erramuren bildur, egin dezan cizorcaquin elur* n. Zergatik? (X-ekin y) delako egitura euskaraz (x eta y)-ren baliokidea delako. Errefrau hori beste modu honetara eman daiteke *Ni erramuren bildur, egin dezan cizorca eta elur*. Orain arteko adibideak B bakarra edo gehiagokoak dira, batetik, eta baiezkoan agertzen da gainera. Badira, ordea, beste egitura zenbait (A baldin bada, ez B) eta (A baldin bada, ez B ez B") *Abendoa churi, ez ardi ez achuri*. Zehaztu daiteke gehiago ere: (A eta A' baldin bada, orduan B) Azk 1154-*Eguzkia eta euria, Martiko eguraldia*. Azk 1169-*Euria ta iguzkia, karakolentako ezteia*. (A eta A' baldin bada, ez B) Azk1134-*Hedoi eta haize, euririkan ez*. (A ala A' baldin bada, orduan B) Azk 1166-*Euri ala ekhi, hoala kaparaki*.

Esan dugu orain artean eguraldi-errefrauen oinarritzko egitura (A baldin bada, orduan B) dela. Euskal adibide gehiago eman behar balitz Arakistainen 16-*Apirilla euritsu, Urte hura ogitsu*. Kasu honetan ere argi ikusten da, Apirila euritsu baldin bada A, orduan urte guztia ogitsu edo ogi askokoa izango da B. «Ogitsu» hemen hartu daiteke bere lehen zentzuan, hau da «galburutsu» (ogi «espiga»), eta bigarren zentzuan ere (ogi «pan»). Gisa bereko adibide gehiago ematera: Azk 1130-*Asentsio-letañak euritsu, urte bere ogitsu* edo Azk1136-*Edur urte, gari urte*. Azk1147-*Eguerdiko euria, egun guztiko euria*. Azk 1162-*Elur urte, zitu urte*.

Baina zenbaitetan (B) bakarrik da eta beste zenbaitetan (B eta B') ere izan daiteke. Eman ditzagun Arakistainen adibide gehiago 17-*Ni erramuren bildur, egin dezan cizorcaquin elur*. Por la Samana Santa, suele granizar ó nevar. Azken errefrau hau ez da *Apirila euritsu, Urte hura ogitsu* bezalakoa. Hemen ez da (A baldin bada, orduan B) esaten, hemen ondorioa goaz zuzen zuzenean, beti edo ia beti *zizerkora* eta *elurra* egiten duelako Apirilean, inoiz edo behin egiten ez badu ere. Eguraldi-errefrauak, beraz, aldakortasuna markatzeko (A bada, orduan

B) dute, eta, iraunkortasuna edo finkotasuna markatzeko (B) eta (B eta B) da. Arakistainen 15-*Otsaillac buztanaz, Marchoac bularraz*, g. n<sup>15</sup> errefrauarekin kontuz ibili behar dugu. Zergatik? *Otsaillac buztanaz* A bezala, eta *Marchoac bularraz* B bezala, ulertzen badugu, gaizki ulertzen dugulako. Errefrau honek ez du esan nahi, *otsailak buztanaz*, hau da, otsaileko azken egunak (*buztanaz*) txarrak badira, ondorioz martxoko erdialdea (*bularraz*) txarrak izango direnik. Errefrau honek adierazten duena da, otsaileko azken egunak eta martxoko erdialdekoak biak direla eguraldi txarrekoak. (B eta B) dugu Arakistainek berak azaltzen digunez (A últimos de *Febrero y mediados de Marzo, suele hacer mal tiempo*)

5.3. (A baldin bada, orduan B eta C baldin bada, orduan D) edo (X eta Y) errefrauak.

Eman dezagun goian formulatu dugun tankerako errefrau bikoitz horren adibide bat: *Bichinchoz hotz néguaren bihotz, bichinchoz béro negua guero*. Honen egitura litzateke (A bada, orduan B, eta, C bada orduan D). Hemen dioguna begien bistakoa dela deritzagu. *Bichinchoz hotz* A litzateke, *neguaren bihotz* B eta *bichinchoz bero* C, *negua guero* D. Errefrau bikoitzak deitu ditugun hauek, bikoitzak direlako, barkarka ere eman/ematen dira. Horrexegatik ikusten ditugu *goiz gorri arrats euri* bezalakoak bere hutsean edo gehigarria dutela (*arrats gorri, goiz eguraldi*).

Errefrau bikoitzok, ikusten denez, bi errufrau uztartu dituzte. Bi errefrau uztartuok X eta Y izendatuko ditugu. Egitura, beraz, litzateke (A baldin bada, orduan B) guzti hau X, eta, bigarrenik (C baldin bada, orduan D) guzti hau Y. Konturatzen bagara, errefrau uztartu edo bituok ez dira nolanhika ematen. Eguraldi-errefrau uztartu edo bitu bat emateko, X eta Y-ko lehenburuetako A eta C direlakoak elemendu komun bat izan behar dute, elementu komun hori substantiboa da, eta aldakorra, adjetiboa. Eman ditzagun adibideak 18-*Candelaria bero negua dauca guero: Candelaria otz, negua joan da motz* (n). Errefrau hau Arakistainena da, eta berak bildu zuen bezala ekarri dugu hona. *Candelaria bero* A litzateke, *negua dauca guero* B. Beraz, (A baldin bada, orduan B). Ikusi dugun bezala, A eta B pusketak osatzen dute errefrau bat, lehen errefrau X izendatuko dugu. *Candelaria otz* C litzateke, eta *negua joan da motz* D. Badugu, beraz, bigarren errefrau (C baldin

---

<sup>15</sup> Errefrau honen ondotoxan n, g agertzen zaizkigu. Zer esan nahi dute markatxo horiek? Nafarroan eta Gipuzkoan bietan erabiltzen zela XVIII erdialderantz errefrau hori. Arakistain gipuzkoarra zen semez, baina Nafarroan bizi izan zen luzaroan. Batzuetan n jartzen du, hau da, Nafarroa, bestetan g hau da Gipuzkoa, eta inoiz, biak batera ere bai, errefrauaren zabaltasuna handiagoa dela adieraziz.



bada, orduan D). Bigarren errefrau honi Y deituko diogu. Errefrau bitua beraz X eta Y errefrauok osatzen dute. Eguraldi errefrau bituok edo uzartuok emateko beharrezko oinarri edo baldintza bat izan behar dute A eta C-ko substantiboa bat bera izatea, eta, adjetiboa desberdina, edo alderantziz. Aztertzen ari garen errefrauan A, (*Candelaria bero*) da eta C, (*Candelaria otz*). Erraz konturatzen garenez, bietan *Candelaria* agertzen da eta aldatzen dena *bero* eta *otz* da, adjetiboa, beraz. Berdin A (*Bichinchoz otz*) eta C (*Bichinchoz bero*). Artikulu honen buruan aztertzen hasi garena, berezi xamarra da zeren A (*Arrats gorri*) eta C (*Goiz gorri*) hemen batera datorrena adjetiboa da eta ez substantiboa. Jarri dugun arrastotik apurren bat aldatzen da beste hau: Azk-Goizeko *ustrukua, arrats euri; arrasti(ri)ko ustrukua, biar etorri*. Azken adibide honetan, A (*Goizeko ustrukua*) eta C (*arrastiriko ustrukua*) direlakoetan bat da datorrena (*noiz*)-ko *ustrukua* da.

Azkenik esan dezagun, A eta C-K bina hitz dituztela eta bi hitzetako bat bera ere ez datorrela bat. Hala eta guztiz ere, paralelismo bat baldin badute, orduan ere ematen da eguraldi-errefrau bitu edo uzartua. Hona hemen adibide argigarri bat: Azk1179-Goizeko *lañoa, erro-tari; arratseko gorria, pelotari* (G-lazk). Hemen ikusten denez, A (*Goizeko lañoa*) eta C (*arratseko gorria*) direlakoetan, bateratasuna egituran eta ideia hurrenkeran dago, batean *goiza* agertzen baita, eta bestean *arratsa*. Egitura zereko zera litzateke, nolabait irudikatzearen. Hoskidetasunari dagokionez gehienetan A eta B -ko amaiera bat dator, eta, era berean, C eta D-koa, nolabait esatearren. Badakit ez dela zehaztasunaren amorez esandakoa, baina argigarritasunaren alde jokatzeko duenez, esango dut lau puntuko errefrauak ditugula 1-(*gorri, eguraldi, gorri, euri*), 2-(*hotz, bihotz, bero, gero*), 3-(*bero, gero, otz, motz*), 4-(*ustrukua, euri, ustrukua, etorri*), 5-(*lañoa, erro-tari, gorria, pelotari*). Konbinazio guzti hauek ikusita, zer ondorio atera dezakegu? Badaude batetik hoskidetasun berekoak, 1a litzateke, badira, bestetik, bi hoskidetasunekoak 3a eta 4a dira, eta, azkenik oskidetasuna X-tik Y-ra bitartekoa dena, eta hor daude 4a eta 5a. Eguraldi-errefrau modu hau litzateke bi osagai nagusiok X eta Y lotuen izango litzukeena.

Errefrau bitu edo uzartuok badute ezaugarri markatu beharreko bat: (X eta Y) izan beharrean beste batzuetan (Y eta X) agertu daiteke eta, jakina, X alde batetik eta Y bestetik. Hiru erataria ager daitezke, beraz. 1-Goiz *gorri, arrats iturri; arrats gorri, eguraldi* alea modu hauetan ager daiteke 2- *Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri, arrats iturri* edo 3-*Arrats gorri, eguraldi* bere bakarrean eta 3-*Goiz gorri, arrats iturri* deslari dela ere.

5.4 (X eta Y) errefrau bituen muina: paralelismoa eta oposizioa.

Eman dezagun errefraurik laburrena: Azk 1340-*Etxe hutsa, alagari; betea konsolagari*. Hau errefrau bitua dugu *Etxe hutsa* A dugu, *alaga-*

*rr* B, batetik, eta A eta B osagaiek X osatzen dute. (*Etxe*) *betea* C dugu, eta *konsolagarri* D. Azken C eta D osagaiek Y eratzen dute. Zein da errefracaren egituraren muina? Hondarraren hondarrean paralelismoa eta oposizioa da. Azaldu dezagun xehekiago. X-eko A eta Y-ko C, hau da, lehen osagaiek, paralelismo handia dute eta X-eko B-k, eta Y-ko D-k ere, paralelismo handia dute. Paralelismoa hitz bera errepikatzean ematen da. Eta oposizioa, adjetibazio kontrakoa erabiliz. Batean (A) *etxe hutsa* aipatzen da, C delakoan, justu kontrakoa, *betea*. Zer den *betea* ondo ulertzen da, *etxea*, hain zuzen. Ondorioa ere batetik paralelismoz josia dago, biek dute -garri atzizkia, eta bestetik, oposizioan bata *ala*-garri dugu, eta bestea justu kontrakoa, *konsola*-garri. Eman ditzagun adibide gehiago: Oih 178-*Gandeialu hoz, negua boz: Ganderalu bero, negua Pascos guero*. Oih 307-*Mahats-arno doiac ditu flacoac ascarzen; soberac ascarrac flacazen*. Oih130-*Elhurra, bere aroan, assegarri, hanti campoan gossegarri*. 489-*Baladrea sendoen hilgarri, erhoen sendogarri*. Guztiak hartu ditugu Oihenarten bildumatik. Oih 178-ean, ikusten dugu paralelismoa A eta C osagaietan *Ganderailu* aipatzen baita, eta B eta D osagaietan, *negu* sustantiboan. Hona arte paralelismoa. Oposizioa, kasu honetan adjetiboetan ematen da, batean *hotz* da eta bestean *bero* eta ondorioak ere justu kontrakoak dira. Oih 307-an ere berdin gertatzen da. A eta C osagaietan *mahats-arnoa* dugu. Batean, ordea, *doia* dugu, «juxtua» eta bestean *sobera*. Ondorioak, beraz, B eta C kontrakoak dira, batean *flacoac ascarzen* direlako eta, bestean *ascarrac flacazen*.

Errefrau bituek euskal errefrau-bildumetan gehienetan idazkera markatu bat izan dute. X alderdia eta Y alderdia bereizteko (;) erabili ohi da. Kasurako, gorago jarri dugun Oihenarten egitura bera duen Azk 1665-*Hazila hotz, negua motz; hazila bero, negua gero*. Osagaiak (guk darabilgun terminologiaren arauera) komaz markatzen dira, eta alderdiak puntu eta komaz. Errefrau bituen bi alderdiak bereizirik ere joan dira askotan, bi errefrau desberdin balira bezalaxe. Eta inoiz edo behin errefrau bituaren alderdi bakarra ematen da. Zein da ematen den alderdia? Erantzuna jakinekoa da: X. Askozaz ere arraroago litzateke Y alderdia bere hutsean agertzea.

5.5. (X eta Y) eta (X eta Y eta Z). X eguraldi-errefraua eta bestea ez denean.

Apurka apurka gehituz eta zehaztasun gehiagoz jantzen joan gara hasieran eman ditugun formulak. Eguraldi-errefrau bakunak eta eguraldi errefrau bituak eman ditugu. Gerta daiteke errefrau bitu bat, errefrau bakun baten ondorioa baldintzara pasatzen denean. Horrelako gu-txi ikusi ditugu. (A baldin bada, orduan B, B baldin bada orduan C). Hona adibidea Azk-1218 *Trumoi-urte, arto-urte; arto-urte, kaka-urte*.

Kasu honetan, *Trumoi-urte* A dugu, *arto urte* B, bi osagai hauek osatuko lukete X delakoa. Y delakoaren lehenburua B dugu *Arto-urte*, eta, ondorioa *kaka-urte*. (X eta Y) eguraldi-errefrau bituen adibide gehiago: 1159-*Elur larriak, egunaldi; elur xeak, elur andi*, eta, Azk 1161-*Elur xeak elurte andi, elur larriak egunaldi*. Bi adibide hauek agertzen duten berezitasuna gorago ere esan dugu, (X eta Y) zein (Y eta X) eman daitekeela. Gauzak gehiago zehaztu beharko bagenu, ordezkotza hau ezin gerta daiteke (A bada B, B bada C) egitura duten (X eta Y) direlakoetan.

Eman dezagun adibide ohargarri bat: Azk1199-*Izarrak argal badira, biramenean eguraldi ona; usu badira, euria*. Markagarria da alde askotatik. Batetik estarian egon ohi den zorioneko baldintza hemen agirira etorri delako. X-eko A, *Izarrak argal badira* da. Y-ko C, *usu badira* delakoan, ulertzen dugu usu diren horiek *izarrak* direla, beraz elementu komuna jan edo ezabatu egin da.

Azkenik aipa ditzagun zenbaik kasu bitxi Azk1200- *Izotz andia, elur-gura; neskatxa ederra, dantza-gura; neskatxa zakarra, mutil-gura* eta Azk 1134-*Hegoi eta aize, euririkan ez; solas eta elhe, obrarikan ez*. Bi adibide hauetako X delakoa, eguraldi-errefraua da, Y ostera ez. Beste errefrau txertatu bat da, zentzuz ondo datorrena Azk 1134-an (X, Y eta Z) ere badugu. Errefrau molde hauetan bigarren zatiak hartzen du indarra Y-k hain zuzen, eta lehen zatia bigarrenaren indargarri poetikoa da. Kasu hauetan kopla zaharren teknika dute funtsaren funtsean.

5.6 (X eta Y) errefrau modu berezi bat euskaraz, B eta D osagaiak-garri atzizkidunak.

Badira hainbat errefrau euskaraz -garri atzizkiarekin bukatzen direnak, gehienetan definizio-errefrauak dira. Esate baterako *egia, askoren ergarria*. «Egia» da A, eta B egiaren definizio bat dugu. Tankera horretarikoak asko ditugu. Oihenarten bilduma hartuz gero 300-*Lehia gaiza berantgarri, 461-Vrgoi gaiza hastangarri, 571-Ederreguia itsusgarri, 576-Elhe ederra egunaren laburgarri, 601-Gaiz hartua eracatsgarri, 610-Guison prestüaren errana mugarri*. Badira osagai bietan, A eta B direlakoetan, -garri dunak ere: 69-*Bata mingarri, berzea sorgarri*. Bi lehen errefrauetan zer den «lehia» eta zer «Vrgoi» B osagaietan definitzen da. 69 alean, ordea, atzizki bera baina kontrako erroa duten A eta B amaierak ematen dira. Bi -garri duten errefrauak badaude euskaraz eta, gainera, (X eta Y) errefrau bituak izan ohi dira: Oih 408-*Xokarraria, xotila bada, da gosogarri, toldea bada erdeinagarri*. Errefrau bitua genuke hau baldintza bera, ageriki edo inplizitoki dagoela. Guri dagokigun -garridun errefrau bitua Oih130-*Elhurra, bere aroan, assegarri, hanti campoan gossegarri*. 489-*Baladrea sendoen hilgarri, erhoen sendogarri*. Bi garridun errefrauak: Azk 422-*kanpoan xoragarri, etxean ger-*

*lagarri*, edo *Zuhur hitzak* liburuak dakarren aldaerarekin «gerla gorri». Errefrau bituak ditugu: Azk 2390-*Gabea pairagarri, ukhana hondagarri*, Azk 1205-*Lehia zaharren hilgarria, gazteen penagarria*, Azk 1340-*Etxe hutsa alagarri, betea konsolagarri*, Zuh 718-*Gogoetak sentimenduen pizgarri, sentimenduak xedeetan sustagarri*.

Egitura honetakoa da Mogelek dakarren 47-*Otz larreguija, zarren ilgarrija, ta gazteen zaargarrija* alea. A delakoan izadi elementu bat dakarrenez gero, ezin dugu esan eguraldi-errefraua ez denik. Errefrau bera agertzen da «hotz» jarri beharrean «negu» jartzen badugu Azk 1782-*Negua zaharren hilgarria ta gazteen zahargarria*. Izadi elementurik gabe Azk 1205-*Lehia zaharren hilgarria eta gazteen zahargarria*. Gisa honetakoa da gorago jarri dugun Zeanuriko *Gau gorri, ongarrri; gox gorri, galgarri*.

## 6. Iragarpen-sineskizunak eta euskal mitologia

Badira, zabaldu berri dugun sail honetan, zenbait gauza harrigarri. Esan beharra dugu, aurren aurrenik, badirela zenbait sineskizun edo sineskeria errefrauen tankera dutenak. Badute, gu aztertzen ari garen iragarpen-errefrauak bezala, (A baldin bada, orduan B) egitura finkoa. Biltzaile gehienek *creencias* bezala izendatzen dituzte, eta, hala ez denik ezin da ukatu. Euskaraz egin direnean azterketa eta bilketa lanak ere, *sineskizun* bezala agertzen dira. Guk, nolabait esan, *iragarpen-sineskizunak* direla esango genuke, *iragarpen-errefrauen* eredura. Tankera honetako iragarpen-sineskizunok A osagaiean numen edo izaki mitologiko bat agertzen da, eta B osagaiean, eguraldi fenomeno bat, gehienetan *elurra* eta *euria*, baina *elur-urte* eta *haize-urte* ere izan daitezke. Hona bildu dudak argigarri-eskutadatxoa:

Bitoriano Gandiagak Oñati inguruan bildu zuen *Anbotoko señoia ikusten daniel, laster izaten da eurixa*. Badirudi, beraz, garai batean Anbotoko señoia ikusten zutenean zeruan, bazekitela euria ekarriko zuena. Ez da aipamen soil bat, gerora kontaera hau biltzen baitu: «*Zapatan beera doiala, ezkerretikan dao aiz bat ta an daukala Anbotoko Señoiak bere etxia, entzun izan dogu. Sua ta garra bat, gordeleku bat euki bear dau Señora orrek*), emen esaten zan. Emen jenteak esaten eban Señora ori egoten zala Zapatakokoba ortan ta ortik Anbotora pasaitenzala. Sarri entzuten gen: *Anbotoko señoie, a ibillikoda or denpora txarrak eiteko*». (Estefanía Arregui). Bada, Villasantek Graziano Anduagari bildu zion kontaera batean ere (46-Errudia ta aapixua), tankera horretako sinesterik: «*Gogormendiren gaiñean dago Gaiztozulo. Obeto esateko, Buetraitzen ondoan. Auxe da Gorgomendiko Señoia-*

ren bizilekoa. Buztana luze ebala etortzen omen zan Anbototik Gorgomendira. Ura gorgomendin zegoanean, negua txarragoa izaten zan(...)<sup>16</sup>»

Kasu bietan A osagaiean jeinu mitologiko baten agerrera dago, eta B-ean gertatuko den fenomeno atmosferikoa. Ez dira kasu bakarrak. Barandiaranek bildu zuen Zegama eta Ispasterko beste siniskizun batean: *Marie Labakok labakoa dauko da euria eingo du laister*<sup>17</sup>. J.M. Etxebarriak ere tankera horretako sineskizunak bildu ditu<sup>18</sup>. Faustino Etxebarriak ere Anbotoko señorearen gainean narrazio bizi hau eskeintzen digu: «*Zelan Anbotoko señoreak egiten ebazan iru urte Anboton eta beste iru Gorbaian, eta bateti bestera sutan pasatzen zala; askok ikusi ebela pasatzen, beti gabaz; Gorbaian egoten zala, koba baten. Gorbaian egoan urteak zirala edur urteak, eta Anbotoko urteak aize urteak*»<sup>19</sup>. Narrazio txiki honetan edur-urte edo aize-urte izango den asmatzeko zein egoitzatan dagoen Mari Anbotoko jakitea nahikoa zen. Junes Casenavek Zuberoako basajaunaren gaineko narrazio tiki bat eman ondoren hona zer dioen: *Basa jauna Iratirik eraisten zenean Barneix bordara orroaz, biharameneko elürra züzün*<sup>20</sup>. Basajaunaren egitekoetariko bat, basoan bizi ziren artzain-ulhainak babestea zenez, artzain-ulhainek orroaka sentitzen bazuten, hurrengo egunerako elurra etorriko zela ulertzen zuten.

## 7. Uzta-errefrauk eta euskal mitologia

Azkuek *Euskalerrriaren Yakintza*-ko III alean, errefrauen sailkapen ezagun bat egin zuen. Sailkapenak zortzi sail nagusi zituen eta azkenik bederatzigarren bat, sailkatzen zail ziren gainerako ale guztientzat. Izenburua ere halaxe jarri zion «gainerakoak», «*los restantes*» erdaraz.

<sup>16</sup> ANDUAGA, Graziano: *Aitonaren uzta* Kuliska sorta 47-48, Zarautz 1961, 67or.

<sup>17</sup> BARANDIARAN, Jose Migel: *Obras Completas II*, 405or. «La niebla que se forma a veces en la entrada de ciertas cuevas es el humo que sale del horno donde Mari cuece su pan (labasu=fuego del horno), según las creencias de Gegama e Ispaster (Mari la del horno cuece el pan en el horno y luego ha de llover), dicen en Ispaster, cuando ven la cumbre del monte Otoy coronada de nubes.

<sup>18</sup> ETXEBARRIA, J.M.: *Gorbeia inguruk Etno-ipuñ eta Esaundak* Labayru ikastegia. 19.3. *D'Anboton egoten sanean kosetxea ohea ixiten sala Supeliorren oten sanean baño*, 186or.

<sup>19</sup> ETXEBARRIA, Faustino: *Nire gazte denpora* Auspoa 237, 47-48or.

<sup>20</sup> CASENAVE-HARIGILE, Junes: «Sineste zahar eta ez hain zahar» in *Anuario de Eusko Folklore* tomo 35, 1988, 65-82or.

Sail hau da, bistakoa denez, nahastetsuena. Azter dezagun horko ale bat 2771-*Osto-irtete, arto-ereite; osto-erortze, gari-ereite* (G-at). Errefrau hau uzta-errefraua da. Noiz erein behar diren gari-artoak esaten zaigu. Badu ezaugarri nagusi bat (A orria da, B artoa eta C orria, D garia). Uzta errefrau gehienak ez bezala ereiaroa ez du markatzen santu batek, gauza naturalago edo naturari edo izadiari lotuago batek baizik, orri irtete-ak, alegia.

Errefrau hau *San Jurgi, artoak ereitego goizegi; San Markos artoak ereinda balegoz* -en sailekoa dugu. X delakoaren A osagaien *Osto-irtete* esaten da. Ostoak irtetzen duenean orduan da garaia artoa ereiteko, eta era berean, ostoak erortzen direnean orduan da garaia garia ereiteko. Errefrau hau errefrau bitu edo uztartua da: (X eta Y). Adibide miragarri honetan azter daiteke A eta C osagaien oinarri bera *osto*, eta aldagarria, *irtete, erortze* eta abar. Badu beste berezitasun bat, euskal uzta-errefrau zaharretan agertzen dena: A, B, C, D osagaien hoskidetasuna aditz izenaren bidez lortzen da. Arakistainek ere bildu zuen tankera honetako ale bat, baina ilunxko gelditzen da bere erdarazko azalpen luzea gorabehera: *or erorte galercite; literalmente significa que el tiempo de la sementera de trigo suele hacer malos temporales, de manera que ya se cae aquí, ya acullá el sembrador y parece quiere decir que las cosas muy útiles y necesarias, no se han de omitir por la dificultad.* Hemen ere X-eko bi osagaiak aditz izenarekikoak dira. A delakoa *or erorte* litzateke, eta *galerzite* iluna B. Zer deabru da *galerzite* delakoa? Geroxeago askatuko dugu gorapiloa.

Kontuak honetara, eman dezagun Barandiaranek bildu zituen San Martinen mitologia kontaera bat:

*Ataunen kondatzen dute Samartintxiki joan zela Muskia mendira, Basajaunek garia erruz biltzen zuten mendi garaira. Basajaunekin eztabaida zegoelarik, bere borondatez garimeta baten gainean erori, eta abarkak garialez bete omen zituen. Samartintxiki bere herrirantz zihola abarka barneak garialez josiak zituen. Basajaunetariko bat kontuan erori zenean aizkora jaurti omen zion. Geroxeago gure heroiak Basajaunei kanta hau entzun omen zien: Or irtete, arto ereite; or erorte, gari ereitte; Sanlorentzôta arbi ereitte.<sup>21</sup>*

Ikusten dugunez, Azkuek errefrautzat bildu zuena Ataunen, Barandiaranek, dugu berean, osoago bildu zuen. Esaunda bat bildu zuen Barandiaranek, Azkuek errefrau bat bildu zuen leku berean. Esaundaren giltzarri den errefrau gisako esaldi eginean ere, Barandiaranek badu gehigarri bat : *Sanlorentzota arbi ereitte* Azkuek bildu ez zuena. Behin

<sup>21</sup> Esaunda honen jatorrizko narrazioa ikusi nahi izanez gero ikus bedi BARANDIARAN, Jose Migel: *Obras completas II*, «Muskin» 46or.

honetaraz gero, esan daiteke esaunden giltzarriak errefrau modura iraun dutela gure artean. Guk atal honetan azterkizun dugun alean, Barandiaranen esaundan, giltzarria (X eta Y eta Z) litzateke. Gauzak honetara, zer da Arakistainen bilduman agertzen den *or erorte*, *galercite*? Aita Fitaren transkripzio oker bat da, inolako dudarik gabe. Errefrau horrek honela behar luke *or erorte*, *galereite*<sup>22</sup>. Hau da «c» delakoaren orde «e» jarriz gero, ez dugu inolako zalantzarik. *Orri erorte* -ren forma zaharra *or erorte* dugu, *orri bel(tza)*-ren forma zaharra *orbel* dugun bezalaxe. Era berean *gari ereite*-ren forma zaharra *galereite* dugu, gari bahe-ren konposizioa *galbahe* dugun bezalaxe. Ikusten denez Arakistain askozaz ere lehenagokoa izan arren, ez zuen esaunda bezala erregistratu. Baliteke errefrau moduan korritzea eta esaunda baten giltzarri bezala ere bai. Basajaunen (edo deabruaren) ereiteko formula miragarria denez, izadiko elementu batek markatzen du beste baten garaia, hau da, orri irtetek markatzen du arto ereiteko garaia. Azkuek bildu beste esaunda batean Barandiaranen antzeko giltzarria dakar baina modu zaharragoan, hona adibidea: *Orri-irtete*, *arto-ereite*; *orri-legorte*, *arbi-ereite*; *orri-erorte*, *gari-ereite*<sup>23</sup>. Zergatik da zaharragoa Azkueren aldaera? Konturatzen bagara biak dira (X eta Y eta Z). Barandiaranen adibidean jatorrizko egitura hautsi egiten da *San Lorentzotan arbi ereitte* esaten denean, Azkuerenean, ordea, egitura zaharra gordetzen da *orri-legorte*, *arbi-ereite* esaten baitu, jatorrizko *orri-legorte* gordeaz. Esan dezakegu, nolabait esatearren, errefrau jentila-edo nahiago bada jentilerrefraua- kristautu egin dela kristau egutegiko «San Lorentzo» sartzen baita<sup>24</sup>.

<sup>22</sup> Horrelaxe transkribatu dute, hain zuzen ere, berriki argitara den Fr. Migel San Frantziskorena (Zuzaeta) eta Fr. Jose Jesus-Mariarena (Arakistain) *Idazlanak* Karmel-sorta 10 alean. Badago Arakistainek egiten duen erdal azalpenean ezkutuki bat baino gehiago, nahiz eta hitzez hitz azalpena eman. Esate baterako, la sementera de trigo *galereite* da zalantzarik gabe, baina *malos temporales* zergatik da *or erorte*? Arakistainek erorte delakoaren azken -te delakoa ekaizte eta haizete bezalakoetan agertzen den -te atzizkiak identifikatu du? Badakigu orria erortzen denean udazkena dena, eta eguraldi txarra egiten duena gehienetan, baina hortik *suele hacer malos temporales* delakora ez ote dago alde handitxo? Arakistainek berak dakarren 1047 Apedrear las nubes, *arria erorte*, *gazcaragarra iaustea*, N. horretan ote dago baieztapen honen giltza? Bestela esan, arria erorte beste modu batean uler daiteke, edo laburbil daiteke: ar erorte edo antzeko zerbait? Edo berak hala ulertu ote zuen?

<sup>23</sup> AZKUE, Resurrección María: «San Martin eta Basajauna» in *Euskalerrriaren Yakintza* II, Madrid Espasa-Calpe 1942, 311or.

<sup>24</sup> Urrunago ere joan daiteke gure arrazonamenduan, esaunda bera kristautu dela diogunean ez dugu esaundaren heroea ikusi besterik, San Martin(txiki) edo San Pedro da. San Martin gehiagotan agertzen da San Pedro baino. Garia edo artoa dutenak izan daitezke, edo Basajauna(k), edo jentila(k), modu zehazgabeagoan, edo, azkenik, Deabrua bera. Deabrua bada ikusten da hor ere, nolabait, badagoela «kristautze» bat.

Eman dezagun tankera honetako beste adibide miragarri bat: Kandido Eizagirrek *elorritxua loran dao, artua ereitten giro dao* dakar bere hiztegia. Errefrau hau oso dokumentaturik dago. Azkuek, esaterako, 1157-*¿Elorria lora dago? Artoa ereiteko giro dago*, dakar, edo, *Elorria loran dago, jartoa ereinda balego!* Uzta-errefrau hauetan elorria loran egoteak markatzen du noiz erein behar den artoa. A osagaia landare baten lorea dugu, beraz noiz baten marka, eta B osagaia artoa ereitea. Hain dokumentaturik egon ez arren arras interesgarri da Azk 1929-*Arantza beltza lore-zabal, arto-lurrak are zabal*. Errefrau honetan ere, Azkueren testigantza hutsa bagenu ez guke jakingo zertarakoa den, baina Aitzirik esaten digunez, berdin adierazten du artoa noiz erein behar den. Aitzirik ematen dizkigun aldaerak: *Arantza beltza agoa zabal, arto lurrek ago zabal* (Goldaratz aldean) eta *Arantza zurie loran dago arto egiten giro dago* (Gabiria aldetik) Arantza beltzaren lorea<sup>25</sup> edo arantza zuriarena, zabaltzen denean orduantxe da garaia arto-lurrak ere prestatzeko. Tankera berekoa da Aitzirik dakarren beste adibide miresgarri hau: *Gaztaiña-orrixa ahuntzaren belarrixa aiña luzatu arte, artorik ez erein*. *Esaten omen zuen Arantzazuko Sorandietako Pedro Urzelai aitona zaharrak. Arantzazu toki goia izaki, bazuen nonbait zerbaiten eskarmentua ere*. Hemen ere aurrekoetan bezala A delakoa gaztaina orri eta ahuntzaren belarriaren arteko konparantza batez ematen da. Konparantzak neurri bat ematen du, behin neurri hori betez gero bide ematen zaio B osagaiari.

Adibide harrigarriago bat litzateke Satrustegik bildu zuena *Elorria loran dago, mirua loka dago, artoa ereiteko a zer sasoia dagon!* Adibide honek badu datu interesgarri gehiago ere. Batetik (A eta A' baldin bada, orduan B). Landare bat loran egoteaz gainera beste zehaztasun bat ematen du: mirua ere loka egotea. Landarea eta hegazia dira, beraz, iragarleak. Geroago aztertuko ditugu hegazti iragarleak. Oraingoz ohart gakizkion B osagaiari. Azkuek bildutako 1157-ko *jartoa ereinda balego!* eta Satrustegiran *artoa ereiteko a zer sasoia dagon!* horietan desira bat agertzen da, errefrauek duten berezko esaldi enunziatioetik urrundu eta besterik agertzen zaigu. Satrustegiren kasuan Samartintxikiren esaunda bat ere agertzen da:

---

<sup>25</sup> Arantza beltzaren lorearen sinbologia, uste dugunez, gaur egun baino zabalago zatekeen garai zaharretan. Kopla zaharretan familiako etxeko jaunetik etxeko andrera jauzi egiteko *arantza beltza ostroa txiki/puntara zaigu loratu/orain emendik bear genduke/etxeko andrea koplatu* erabiltzen da. Era berean, kopla-klitxe bezala, gainerako etxekoen nota batetik bestera pasatzeko ere, erabiltzen da, zein zaldun gaztetik dama gaztera, zein etxeko andretik zaldun gaztera.



San Martin kalean bizi zen gure Lukas, eta berak zionez, San Martin izan zen lehenbiziko nekazaria. Deabruak bakarrik zekien harek baino gehiago.

*Urte batez artoa erein zuen deabruak eta harriturik zegon jainkoaren gizona. Nolabeit eskuratu nahi zuen hazi pixka eta etxera joan zitzaion. Bikortu berria zuen artoa eta pila haundi bat lurrean.*

*—Hauxe da edertasuna!— esaten dio.*

*—Urte ona izan dut.*

*—Apustu, baietz zuk baino arinago ikutu gabe jauzi egin...*

*—Bai, bai; oraintxe.*

*Deabrua arin zegon eta ez zuen artorik ikutu. San Martin erdian sartu zen belaunak jo arte. Bere anketako abaletan ereman zuen arto haziarekin ba zuen urte hartan ereiten hasteko.*

*Hazia bai eta noiz erein ez jakin, nahiko lan izan zuen San Martinek negu hartan. Beti zelatan. Udaberriko orri ta lora guziekin, andrea bialdu zuen deabruaren etxera.*

*—Noizbait ereitekotan, orai izango da; bestela, gurea joan da. Zoaz eta ea zerbait ikasten duzun.*

*Deabruaren etxean haur txikia izanki, abestu egiten zion norbaitek. Bertsu bat hartu zuen berak:*

*Elorria loran dago,  
Mirua loka dago,  
artoa ereiteko  
a!, zer sasoia dagon!<sup>26</sup>*

Orduan ikasi zuten noiz ereiten den artoa.

Guk errefrau moduan ezagutzen duguna bada zerbait gehiago: Ume bati kantatzeko sehaska-kanta bat dugu. Kasu honetan deabrua da artoa noiz erein behar den dakiena, Barandiaranen adibidean Basajaunak. Deabruak bere umeari kantatzen diona ez da edozein kanta, sehaska kanta bat baizik. Ezin zitekeen bestela izan E-LO-rria LO-ran dago, /Mirua LO-ka dago, /artoa ereiteko/ a! zer sasoia dagon! delakoan «lo» hitza errepikatu egiten da, behin eta berriro, kantaren barruan umea lokartzeko. Horixe baita lo-kantetan errepikaten den hitz loerazlea, gure kasuan ilunago eta ederrago agertzen da errepikatze hori. Miru zuria udaberriaren etorreraren adierazle ere izan da Kandido

<sup>26</sup> SATRUSTEGI, Jose Maria: «Notas sobre nuestra tecnología tradicional», in *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 1976, VIII, 121-133 or.

Izagirrek dioskunez<sup>27</sup>. Eta errefrau moduan ere agertzen da *Miru zurixa etorri da ta, artua ereiten hasi biheko dogu*. Ikusi dugunez errefrau moduan ez bakarrik, esaunda bateko kanta ere bada.

Kantamodu hau ez du bakarrik Satrustegik bildu, Barandiaranek ere bi bersio kantatu ematen dizkigu. Lehenean, Zerainen, basajaunari Samartintxikik arto-hazia ostu ondoren basajaunak *Elorritxo loran dago, artoa erein-da lo dago* «kantatu» egiten du. Bigarreanean ere, basajaunak *Elorritxo loran dago, artoa ereiten giro dago* «kantatu» egiten du. Barandiaranek *artoa erein-da lo dago* Zeraingo aldaeraren azkena, hots, gure B osagaia, behin arto-hazia erein ondoren «erne» arte lurpean lo dagoela interpretatzen zuen<sup>28</sup>. *Erne* euskal aditzari erdarazko «germinar» eta «despertar» esangurak egokiro egotziz. Gure ustez, ordea, Satrustegiren bersio osoagoak ematen digu auziaren giltza. Lokanta edo sehaska-kanta da, azken finean, basajaunak edo deabruaren emazteak kantatzen duena, eta, lokantaren ezaugarri dira -LO- errepikatu hori ezezik, agertzen diren ttikigarriak ere bai. Barandiaranen bi bersioetan ere *elorritxo* esaten baita eta ez *elorría*.

Ikusi dugunez Prometeok Mitologia klasikoan sua ostu zien moduan Jainkoei, euskal mitologian, San Pedro eta gehiagotan Samartintxiki izan da Basajaunei edo deabruari jakiundea ostu diena. Nola egin zerra, noiz erein artoa, errotaren «kokotza» nola egin...

## 8. Beste tankera bateko ipuin gisakoak

Aurrerago ikusiko dugunez, badira eguraldi-errefrau elkarrizketatuak. Guk atal honetan elkarrizketaz harago dauden ipuintxoak jarriko ditugu. Badira zenbait errefrau ipuinei dagozkienak. Eman dezagun, martxoan apirila baino euritsuagoa dela. Nik egia esan, ez dut ziurtasun handirik, erdarazko errefraueta *Abril, aguas mil* besterik gertatzen dela adierazten baitigute. Eman dezagun Azk 1763-*Marti kakatsu, april ederrean sartu nayatzu* alea. Zer adierazten du ale horrek? Martia ka-

<sup>27</sup> «Mirusuri» hitzean: Aparece aquí por abril, señala la primavera.

<sup>28</sup> BARANDIARAN, Jose Miguel: *Obras Completas I*, 57-58 or. «En la región de Cerain es la semilla de arto «mijo» o «maíz» la robada al basajaun por San Martinico. Este oyó cantar lo siguiente: *Elorritxo loran dago, artoa erein-da lo dago* «el espinito está en flor, el mijo sembrado dormido está», lo que señalaba la época de la siembra del mijo o del maíz y suponía que éste duerme entre la siembra y el momento de su germinación, creencia vinculada, al parecer, al sentido de la voz vasca *erne* que significa «germinar» y «despierto». En otra versión el basajaun canta: *Elorritxo loran dago, artoa ereiten giro dago* «el espinito está en flor, para siembra del maíz buena sazón».

katsu dela, hau da, eguraldi gaiztoa, bustia, nahasia egiten duela mar-txoan, *kakatsua* dela, aldiz, maiatza ederra da, eguraldi hobekoa. Lehen pertsonan agertzen denez, *nayatzu* (natzaizu) «ni» bati dagokio, eta «ni» batek hilabete ederrago batean sartzeko guraria adierazten du. Azkuek Elorrion bildu bazuen ere, nik Zenurin bizi-bizirik aurkitu dut. Errefrau hori bere hutsean eman didate zenbait berriemailek, baina, bakar batek berari dagokion ipuintxo batekin. Nik hona, labur-zurrian, Zeanuriko Eulogio Gorostiagaren narrazioa ekarriko dut:

*Bein baten, Marti-soso batek sei ume asi ei situen. Baye ondo lu-matu orduko edurtze aundi bet bota ioan, da otzagaz ume guztiek tra-gau iyakozan. Orduen Marti-sosoak esan ioan: Marti kakatzu, Marti ka-katzu, Aprille urrezkoan sartu nayatzu.*<sup>29</sup>.

Ikusten denez, Martizozoak agirika egiten dio Martxoari bere ume-txoak hil dizkiolako. Ipuin labur horretako azkeneko errieta da errefrau modura gelditu dena. Errefrau hori, esaterako, ez zuen Eulogio Gorostiagak bere bilduman sartu<sup>30</sup>, baina gaur egun Zeanurin bizirik dago. Kirikiño idazleak ere entzun zuen ipuintxo hau eta honela idatzi zuen *Euzkadi* egunerokoan:

*Jakiña da artzaiñak neguaren arerio andiak dirala. Obeto esateko, negua da artzaiñen arerioa, ta artzaiñak orregaitik ezin dabe ikusi ne-gua begi onakaz. Agaitik ba, Martiko illa igaro zanean eta Aprilla sartu artzaiñak pozez beterik esan eutson Martiari destaiñaz:*

*Marti kakatsu/April ederrian /sartu naiatzu./Zeure menbean/Oin enaukozu,/Atzeraik iñoz/Euko ez al dozu.*

*Martiari ule guztiak astindu jakozan au entzunik eta artu eban amurru gorriaz esan eutson Aprillari:*

*April laguna,/ ekazak egun bi,/artzain lotsabako/zikin onerilkendu daiodazan/eun ardi ta begi.*

*Eta Aprillak emon eutsozan Martiari egun bi, edo geiago, eta onek bidaldu eban bere eguraldia, aize, tximista, trumoi, txingor, euri; eta gure artzain on-uste osoduna, txilibitua jo ta jo ebillela kerizpe gozatu baten, otoz otoan arrapatu eban*<sup>31</sup>.

Kirikiñoren narrazioa osoagoa da, baina ikusten denez baditu kide-tasun nabarmenak. Batetik *Marti kakatsu April ederrian sartu naiatzu* delakoa, Eulogio Gorostiaga zein Azkueren modu-moduan, baina luza-

<sup>29</sup> BARANDIARAN, Jose Miguel: *Obras Completas II*, 261or., XXI alea.

<sup>30</sup> GOROSTIAGA, Eulogio: «Folklore. Refranes y frases recogidos en Vizcaya», in *Euska-lerriaren Alde*, 1929, XIX, 447or.

<sup>31</sup> BUSTINZA, Ebaristo «Kirikiño»: «Egunekoa», in *Euzkadi* 1913-IV-5 Ipuina ez dut bere osoan aldatu. Ikusi nahi izatera *Egunekoa* Sutondoan sorta Aurkezpena eta itzaurrea: Xabier Perea. Aurkezlan eta Moldakuntza: Jesus M. Agirre 26or.

garria duela. Bestetik Apirilak eta Martxoak izandako egunen trukea agertzen da. Hauei *ordiz egunak* esaten zaie eta Europako kultura osoan sartzen dira. Apirilari egun bi eskatzea, eta artzainari ehun ardi eta begi bi kentzea uste baino egitura finkoagokoa da. Satrustegik bilduak dituen narrazio hauetan ikusten denez:

### 1. Martxoa eta artzaina

*Izena duten guziak ba dira, esan zidan egun batez. Urteak eta egunak ere bai. Eta hizketan zekiten denak, garai hartan. Martxoa oso txarra izan omen zen eta artzaiak asarre. Bazen nunbait artzai oker bat, bazka guziak jan eta gaizki ibili zena. Martxoaren azken egunean, eguerdi aldera, nun esaten diok eskuak itxi ta:*

*—Marxo kuerno! ehik eta leher egik!*

*Bai, Martxoari gaitzitu ere. Zeukan egun erdia aski ez zuela, beste bi egun eta erdi eskatu zizkion Apirilari.*

*—Apirila, biribilalekartzkik bi egun ta erdi/artzai horri kentzeko ehun ardi ta begi hori.*

*Ordu arte txarra bazen, gerokoa ez omen zen hobe. Euria eta elurrai eman, errekek haunditu eta artaldea urak ereman. Azken azkena aharikoa, eta zaparretan trabaturik gelditu.*

*Ala Jainkoa! esaten du gizonak. Hi beintzat ez haiz galduko.*

*Bi eskuz lotzean aharikoak adarrarekin begia hustu. «Ordiz egunak», esaten diete, geroztik egun hoiei.*

### 2 Otsaila

*Otsaila ere ez da mutil ona. Baztar guzietan bildur diote euskaldunak. Horregatik esaten da:*

*Otsail txiki asarrea/ez haiz hi besteak baino hobe.*

*Aetzak kendu nahi izan omen zuten. Erabilia hartu ere bai. Zaharrenetako bat zutitu izan beher zuen eta esan:*

*—Gaizki, oso gaizki gabiltz otsaila kentzen! urte guzia gaiztatuko luke. Kendu ez baino, bere hortan lotu (horregatik utzia omen da).*

*Nork nori eskatu zizkion egun bi, martxoak apirilari, edo martxoak otsailari? Garbi dagoena da otsaila dela egun gutien duen hila, eta beste errefrau honetan ikusten denez Intz 1247-Martxoak bi egun eskatu zizkion otsailari (au 28-kin gelditurik) eta oriño bizirik zeuden ardiek bi egun aietan il zituen. Eskatu zizkion bi egunak «ordiz egunak» deitzen diote. Damaso Intzak zehaztasun argigarri bat jartzen du erre-*

frau horren buruan «Ipui ezaguna beste lekutan». Kontua da guk hona aldatu ditugun aleak baino askoz gehiago ez ditugula bildu. Bi narrazio klase ditugu, inolaz ere. Bata martxoak otsailari eskatzen zizkionak eta bestea martxoak apirilari eskatu zizkionak. Narrazio bietako giltzarria edo hitz-giltzak errefrau modura gorde dira. Kontaerak dio artzain bat martxoaz trufatu zela martxo gaiztoak ardirik hil ez ziolako, honelaxe esan omen zion:

Ai Martxo, Martxo/txartxo, bustartxo! Biño nere ardiyak eta artan-txuak/itten ttek salto.

Egun hartan bukatzen zen martxoa eta Apirilari egun bi eskatu zizkion. Apirilak eman zizkion egunak hotz eta elurtsuak izan ziren eta artalde osoa hil zion artzainari aker betoker bat izan ezik<sup>32</sup>.

Martxoaren amaierako eta Apirilaren hasierako bi egunei, *Zozomikoteak* edo *zozomikatuak* deitzen zaie eta egun hotz eta beldurgarriak omen dira<sup>33</sup>.

Testigantzarik politenetako bat Orixek emana da, hona beraren hitzak:

*Zozo mikote, zozo bikote: zozoak bikoka kabi-egiten asten diran garaia. Martxoaren azkeneko bi eta Apirilaren leeneko bi egunak, Martxoak esan omen zion Apirilari: «Apiril, biribil, ekatzik egun bi». Ta apirilak: «Martxo Martxo: ematen dia esker gaizto. Nere ardirik aulenak egiten dik zazpi oin salto». Leenagoko urte batez eman egin omen zizkion, eta artaldea erreka ezin pasaz ito»<sup>34</sup>.*

Errefrau-bildumetan bada guri dagokigun ale interesgarri bat. Damaso Intzaren bilduman agertzen den Ezkurrako errefrauto bat iruzkinduko dugu hemen: 1518-*Eguberritan ilbera: iotez ilberri*. Zer adierazten du erran delako errefrau horrek? Batetik, garai bi ematen dira «Eguberri» eta «laute», eta, bestetik, ilargiarenaldi «bi hilbera» eta «hilberri». Guk uste dugu urteko garai jakin batzuk ilargikoaldi batzuetan ematen dela adierazteko dela. Eguraldi-errefrau hau esaunda batego hitz giltzarriarekin lotua dago. Hona bi hitzetan esaundaren hariak:

<sup>32</sup> Iturriak ikusi nahiz gero ikus bedi LEKUONA, Manuel «Fiestas populares» *Anuario de Eusko Folklore* 1922, 25or. edo *Idazlan osoak* II, 418or.

<sup>33</sup> Era horretara ekaitz bat datorrenean «zozomikatuak eldu dira» esan ohi da.

<sup>34</sup> ORMAETXEA, Nikolas «Orixek»: *Euskaldunak* «Axurtaro» atalean, La Gran Enciclopedia Vasca-ko edizioan 291or. Oin oharrean agertzen den XLVII Zozo-mikote bero da asia, eldu da «Apiril biribil». Martxo gogorak aurrera ardirik/artaldeetan ezin il./ Eska ditio, beti bezala, aurten ere beste egun bi; esker gaiztoaz bialdu dizu: «Ez nauik iretzat opari-il». Nere ardirik txarrenak zekik/ egiten zazpi oin-salto./ Bizirik utzi ditidakenak/ ba dituk urren-urteko/ otsa-il baiño anekerrago aiz, katamotz-il odolgiro./ Aurten il adi go-seak, eta neguak berriz biztuko?»

*Salomonek ba omen zuen arreba bat bera bezain zuhur eta askojakina. Salomonek gurasoak gaisorik zituen eta, bietarik bat bat hiltzen bazen, arreba izan behar zen mezularia. Salomonen arrebak «hil» hitza aipatzen bazuen Salomonek berak hitz hori esateagatik hilgo zuen arreba. Arrebak orduan honela dio Bazkoz hil zahar; iñaute hil berri; hire ta nere aita ez tuk ez gose, ez egarri. Orduan Salomonek berak dio «Beraz hil ditun?» Eta arrebak erantzun «Nik ez zioat, hik diok»*

Formula bera errepikatzen da guk ditugun esaunda guztietan. Adibidekoa Aita Donostiak<sup>35</sup> bildua da. Juan Manuel Etxebarriak *Marti ilbera, ateste ilbarri, Salomonen ama, es egarri*<sup>36</sup>. Azkuek bi hauetatik aldentzen den aletxo bat eskeintzen digu<sup>37</sup>.

## 9. Eguraldi-errefrauen balio konnotatiboa

Badira eguraldi-errefrauen artean, ikusi dugunez, zehaztasun handia ematen dutenak. Zehaztasun askoz handiagoa ematen dute, berez, eguraldi-errefrau bitu edo uztartuek. Nik esaten baldin badut Azk 1222-*Ur-urte, elur urte*, edonork ez daki errefrau horretan gordetzen den jakituria. Era berean, Azk1223-*Urriko edurra, zortzi ilabeteko edurra* bezalako aleak informazio ezkutu handiagoa du, *euria egiten duenean atertu* esaten dudanean baino, inolako zalantzarik gabe. Itxurak direnez, eguraldi-fenomeno begibistakoak aipatzen dituzten errefrauak zentzu konnotatiboan erabiltzen dira. Baina hauek ez dira hartzen eguraldi-errefrautzat. Eguraldi-errefrauen ezaugarriarik inportanteena balio denotatiboa da. Iragarpen-errefrauek ez dute besterik esaten zuzenean esaten dutena baino. Iragarpen-errefrauen helburua iragartea baino ez da. Balio denotatiboan bakar-bakarrik mugitzen dira. Gorago ikusi ditugun balio zuzenean erabiltzen diren iragarpen-errefrauak, betiere esangura zuzenean erabili direnez, zenbaitek ez dute hartu errefrautzat.

Frantsesez badiot «*Après la pluie le beau temps*» errefraua, esangura konnotatiboan darabil eta horrexegatik beragatik hainbat egoera desberdinetara egokitu ahal dut. Adierazi dezaket horrexekin haserrealdiaren ondoren adiskidetasuna datorrela. Guretzat orain arteko eguraldi-errefrauen ezaugarria izan da beren balio denotatiboan edo zuzene-

<sup>35</sup> Aita Donostia: «Cuentos populares breves» in *Idazlan osoak I*, 138or.

<sup>36</sup> ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta esaundak* Laratz-Ahozko bilduma 2, 137or.

<sup>37</sup> Azkuek, esaterako, bere «61-Hil-berria» Euskalerrriaren Yakintza II, 177or., honela dakar «Oilarrak gauerditan behin eta bietan yoten du. Zure ama andreak eztu aditzen ez behin ez bietan.»

nean erabiltzen zutela nekazari-marinelek. Eguraldi-errefrau orokor zenbait, ostera, beren balio konnotatibo edo zeharkakoan erabil daitezke. Azken hariraino ere eraman daiteke goian esan duguna, hau da, badira eguraldi-errefrauaren osagaiak izan arren, balio konnotatiboan bakarrik erabiltzen direnak. Esate baterako, Arakistainen 48-*Oñaztura andi, ta eugigichi* delakoa ezin da ulertu inolaz ere (A baldin bada, orduan B) Oinaztura handia egiten duenean, gehienetan edo ia beti, euri anitz egingo du. Baina errefraua zentzu konnotatiboan bakarrik hartzen badugu erdarazko *Más el ruido que las nueces* errefrauaren zentzuan ulertu beharra dago. Halaxe itzultzen du, hain zuzen ere, Arakistainek. Euskaraz adibidetxo gehiago ere aurkitu ditugu. Eman dezagun Azkuek dakarren 1143-*Hegoaren ondotik euri*. Nekez uler daiteke Azkuek itzulpen zuzena ematen baitu. Landerretzek, ordea, 163-*Hegoaren ondotik euri* (BNC) errefrauaren itzulpenean *Après folies, amer chagrin*. Itzulpenean argi ikusten da pozaren ondoan nahigabea adierazi nahi duela, hau da, zentzu konnotatiboan. Beste horrenbeste esan daiteke Azk 2383-*Eztik artho zehea haizeak eramaten* eta Land166-*Eztik artho xehia, haiziak erematen* (BNC) *Il n'y a pas à s'inquiéter de trop petites choses. Deminimis non curat praetor* agertzen baitu itzulpenean.

Azkenik, modu konnotatiboan ere erabiltzen zela dirudi Land 215-*Urthian behin da Bazko. Terme opposé à de trop fréquentes pré-tentions*. Konnotazio mailara iritsi den alea dugu 47-*Pazko goiz baliz, Martsoz ez baliz*. Si Pâques était tôt, S'il n'était pas en mars<sup>38</sup>. zerbait egin daitekeela baina bere garai egokia behar duela adierazteko erabiltzen da, erdarazko «Cada cosa a su tiempo, y los nabos en adviento» alearen antzerakoa.

Badira zenbait ale konnotazio edo idiomatismo mailara iritsi ez direnez, (X eta Y) errefrau bituak direnak, lehenengoa X eguraldi-errefraua da eta Y maila konnotatiboa duena: Azk1185-*Iduzki-aizeak beroki guti, gizon beharrak adiskide guti* edo beraren aldaera ttipia *Iduzki haizeak beroki guti, jende beharrak fagore guti* eta 1215-*Norte haizeak gorderik ez, pobreak adiskiderik ez*.

Aletxo hauek baino ez ditugu euskaraz aurkitu baina erderetarako hona aldatuko ditugu Wolfgang Mieder-ek dakartzan «*One swallow does not make a summer*» erdaraz kide bera duena «*Una golondrina*

---

<sup>38</sup> ETCHEPARE, Jean: Voici un proverbe, usité un peu partout et assez fréquemment employé, sur les sens duquel on discute à perte de vue:(...) Les paysans vous le servent fort judicieusement, et sans méprise aucune, quand ils veulent vous faire entendre qu'une chose est faisable, mais qu'il y faut le temps. Dans leur pensée, l'échéance la plus rapprochée de Pâques est enmars. Ex.: *Etche hori eina litake ja, Pazko...* etc.(100. Les Aldudes, 22.-XII-1926)

*no hace verano*»<sup>39</sup>. Euskaraz Jusef Egiategik dioen bezala «*Bena adagioak dio «Aiñhera bakhoitzak ez tiala bere hegaletan bedatsia ekhar ten*»<sup>40</sup> edo Zabalak dakarren bezala Zab 908-*Enara batek ez du udaberria egiten*. Ingelesez ba omen daude gehiago ia zentzu konnotatiboan erabiltzen direnak: *Lightning never strikes twice in the same place* (euskarazko itzulpena: oinaztuak ez du jotzen bi aldiz leku berean) *A sunshiny shower never last half an hour* (eusk itzul. euri zaparradak eguzkiarekin ez du ordu erdi baino gehiago irauten) *Frost year, fruit year* (eusk. itzul izotz-urtea, fruta urtea) *Winter eats what summer gets* (eusk itzul. neguak jaten du udak lortzen duena)

Badira balio denotatiboa eta konnotatiboa errefrau berean uztartzen duten aleak ere Azk 1163-*Elurra, zuria delarik, beltza da*. Elurraren kolorea, begibistakoa, *zuria* da. Hona hemen balio denotatiboa. *Elurra beltza da*, maila konnotatiboan, atear hertsia, kanpoko lanak atzeratu eta elkarrekiko bizitza ezintzen duelako.

## 10. Eguraldi-errefrauen sailkapenak

Era askotara sailkatu dira eguraldi-errefrauok, urte-muga edo urtarook kontutan harturik, hilabeteka, asteko eguneka. Haizea, euria, hodeiak, lainoa, ostadarra, txingorra, ura, elurra, edo nolabait esatearren, elementuak kontutan harturik. Animaliak denbora iragarle gisa harturik, santuen egunak, ereintza eta uzta markak harturik, santuen egunak eguraldi aldaketaren seinaleztat harturik eta abar. Guk hona horrelako zenbait ekarriko ditugu.

### 10.1. Urtea aipatzen dutenak

Egitura (A baldin bada, orduan B) dute baina A eta B hitz konposatuak dira. *x-urte* da A, eta *y-urte* da B (*Elur-urte, gari-urte*). Badago egitura horren aldaera bat: urte *x-ekoa* da A, eta *y-zkoa* da B, RS150-*Hurte erurrezkoa, garizkoa*. Bigarren molde honetako errefrau gehiago ere izango ziren aintzinatean, baina gure artera adibide bat baino ez zaigu iritsi.

<sup>39</sup> Erdaraz baditu hainbat aldaera Correasek adibidez: *Una golondrina no hace verano, ni una sola virtud bienaventurado*. (Ac., Santillana, 704 eta Celestinak, VII) *Una golondrina no hace verano*. (Quijote, I, 13)

<sup>40</sup> EGIATEGI, Jusef: *Lehen liburria edo Filosofo huskaldunaren ekheia*(785) Euskal klasiako Txomin Peillenek prestatua 244or.



Urte guztiak ez dira fruitu guztientzat berdin. Zenbait urtetan fruitu baten ugaritasuna egoten da eta beste batzuetan beste batena. Arbolek, pertsonak bezala, atsedean egin behar dute eta horrexegatik urte batean fruitua oparo ematen badute, hurrengoan nekez emango du. Baserritarrek urte batean, esaterako, sagarraren ugaritasuna edo frankia badute Markinaldean «*sagar-urte da*» esaten dute, edo «*aurten sagarra urgari da*» edo, «*urte da*». «Urte» hitza mugagabeen erabiltzen dute. Ugaritasuna ez badago fruitu batean, «*ez da urte*» edo, dokumentatua dagoenez *ezurte da*. Hizkuntza guztietan daude honelako errefracuak. Hona hemen erderazko zenbait adibide Correas-en lanetik hartuak: *Año bueno, año de nabos. Año de heladas, año de parvas. Año de neblinas, año de harinas. Año de nieves, año de bienes. Año de nieves, año de mieses*. Euskaraz ugarien dabilen tankera honetako errefracu<sup>41</sup> *elur-urte, gari-urte* dugu. Lehen errefracu-bilduman ere agertzen da RS150-*Hurte erurrezcoa, garizcoa* eta Iturriagak ere badakar bertsoetan: *Argatic errepain bat/badegu diona/elur urtea dala/gari urte ona. Gari-urte delakoaren hitz-konposizio zaharra galurte* dugu Kandido Eizagirrek Oñatiko hiztegian dakarren moduan, beraz *#erur-urte, galurte* litzateke euskara zaharrean edo RS150-*Hurte erurrezcoa, garizcoa*.

Hona euskarazko adibideak: Azk 1136-*Edur-urte, gari-urte*. Azk 1162-*Elur-urte, zitu-urte*. Azk 1201-*Izotz-urte, gari-urte*. Azk 1220 *Txinbilo-urte, elur-urte*. Azk 1222-*Ur-urte, elur-urte*. Eta (X eta Y) Azk 1218-*Trumoi-urte, arto-urte; arto-urte, kaka-urte*. Intz 262-*Ostots-urtea, arto-urtea*. Intz 726-*Arri-urte, arto-urte*. Intz 778-*Ur-urtea, elur-urtea*. Intz 875-*Elur-urtea, arto-urtea*. Intz 969-*Patxaran-urtea, elur-urtea*. Intz 1348-*Urte idorra, gaztain-urte*. Intz 1396-*Ezkur-urtea, sagu-urtea*. Intz 1506-*Turmoi-urtea, arto-urtea*. Intz1520-*Elur-urte, arto-urte*. Intz 1529-*Nunu-makil-urte, arto-urte*. Intz 1666 *Elur-urte, urte on* Intz 1710-*Ur-urte, sagu-urte*. Intz 1889-*Elur-urte, patxaran-urte*. Intz 1991-*Auts-urte, arto-urte*. Intz 2011-*Dama-urte, arto-urte*<sup>42</sup>. Intz 2028-*Ezkur-urte, sagu-urte*. Intz 2455-*Hur-urte, elur-urte*. Era berean Tiburtzio Izpitzuak ere Larrabetzun bildu zuen *euri-urte, arto-urte* badugu.

Ez dira sartzen formula horretan, baina hala ere talde berekoak dira: Azk1158-*Elur askoko urtea, urte doatsua*. Azk1173-*Ezurteko gau-zaa, iraupen bagea*. Azk1206-*Martxoa eurite, urtea ogite*.

Hauak dira eguraldi-errefracu laburrenak. Ikusten denez oso egitura markatua dute: beti ematen da hitz-konposizioa A eta B osagaietan. A

<sup>41</sup> Nik neure amari ere tankera honetako errefracuen artean hauxe bakarrik bildu diot, *elur-urte, gari-urte* aldaeran.

<sup>42</sup> Dama deitzen diote artondo txuriari.

delakoaren determinatzaileak izan daitezke izadiko elementuak: *Elur, euri, ur, turmoi, harri, ostots, izotz, auts*, B delakoaren determinatzailea lurreko frutu bat izan ohi da, modu generikoan *zitu* (fruta), edo modu zehatzagoetan: *gari, patxaran, gaztain, ezkur, arto*. Determinatua beti da *urte*, A eta B alderdietan, gehienetan modu mugagabea, eta kasu batzuetan artikuluekin. Artikulu gabe bada, modu zaharra dela deritzagu eta osagai bietan izango da hain gabekoa. Artikuluduna bada, osagai bietan artikuluekin, hau modu berria da, itxura guztien arauera.

Orain arte ikusi ditugun euskarazkoek eta erdarazkoek egitura bera dute. Badira erdarazko zenbait A eta B direlakoak biak fruitu baten, edo are animalia baten aipamena egiten dutenak, izadiko elementua aipamen gabe, beraz. Animalia agertzen bada B delakoan agertzen da *Año de bellotas, año de palomas*. Inoiz edo behin bietan animaliak ere agertzen dira *Año de ovejas, año de abejas*. Hona Correasen liburu-koak: *Año de bellotas, año de palomas. Año de brevas, año de canse-ras. Año de gamones, el trigo a montones; o año de montones. Año de glande, año de landre. Año de muchas endrinas, pocas hacinas*.

Euskal errefrauetan, itxura guztien arauera, ugarien A delakoan izadi-elementuduna da. Lege nagusi honetatik badira zenbait salbuespen. Izadi elementurik agertzen ez duten ale bakantxo batzuk badaude. Hau da A eta B osagaietan fruta agertzen dena, edo animalia bat: Azk 338-*Ardi-urte, atun-urte*. Intz 1529-*Nunu-makil-urte, arto-urte*. Intz 2011-*Dama-urte, arto-urte*. Intz 2028-*Ezkur-urte, sagu-urte*. Interesgarriak dira Barandiaranek Heletan bildu zituen bi ale hauek: *Intzaur anitz den urtea, arto-urte* azken hau dudarik gabe leku berean esango zen *intzaur-urte, arto-urte* zeren eguraldi-errefrauan agertzen den frutak ugaritasuna adierazten baitu. Errefrau baliotsua da Barandianek Heletan bildua *Belar-urte, behar-urte*, belarra ugari dagoen urtea nekoso edo lan handikoa delako<sup>43</sup>. Errefrau honen justu kontrakoa agertzen da *Zuhur hitz 1240-Belar urte, deusez urte* alean. Batean belar-urtea, urte ugaria dela dio, eta bestean, justu kontrara.

A eta B osagaien ordena ere aldatua egon daiteke. Esate baterako, bietara ematen da, Intz 969-*Patxaran-urtea, elur-urtea* eta jatorrizko ordenan Intz 1889-*Elur-urte, patxaran-urte*. Aldatua dago baita ere: Azk1220 *Txinbilo-urte, elur-urte*. eta Intz 778-*Ur-urtea, elur-urtea*.

Badira egitura honetako salbuespen miragarri zenbait. Nekazari giritik atera eta beste gizarte egoera batzuetara egokitutako errefrau

<sup>43</sup> BARANDIARAN, Jose Migel: «Etnografía de Heleta», in *Anuario de Eusko Folklore*, n.º 34, 1987, 65-77or.

polit askoa, hona hemen Lander 100-*Gerla urthe*, *gezur urthe*. Errefrau hau mugalde bietan aho-mihitan erabili zen gerra-urte nekezetan. Gipuzkoako euskaraz *gerra-urte*, *gezur-urte* esaten zen eta halaxe agertzen da besteak beste direla Lekuonak argitara zituen XIX.mendeko eskutitz batzuetan<sup>44</sup>. Errefrau dokumentatu horren ondoan badira Zuh 1636-*Gerla urte*, *gose urte* eta 1637-*Boz-urte*, *gezur urte* bi aleak ere. Azken hau *Zuhur hitz* bildumaz landa beste inon dokumentatu ez duguna da. Azkuek ere ekarri zuen Az 1711-*Gose-urte*, *osasun-urte* harri-garria ere. Goseak osasuna nola ekar dezakeen pentsatzen nekez egiten bazaigu ere. Tankera horretakoa da Duvoisinek *Revista Euskara*-n argitaratu zuen 140-*Ezkont urthe*, *erho-urthe*<sup>45</sup> ale preziatua, Bizkai-Gipuzkoetan korritzen duen *Ezkondutako urtea ta txarria hildako astea* esaera zaharraren kidea litzatekeena.

## 10.2. -te atzizkiaren bidezko eguraldi finko eta jarraitua markatzen duena

Eurite, bustite, elurte, idorte, jelate, izozte, ekaizte eta are ihinzte, gehienetan lehen osagaiko A delakoan aurkitzen dira. Gorago esan dugun bezala *elur-urte*, *gari-urte* errefrauaren kidea multzo honetan Azkueren 1781 eta Intxauspereen 102-*Negua elhurte*, *uda ogite* izango da. Azk 1769-*Martxoa eurite*, *urtea ogite*. Oih 308-*Maiatz eurite*, *urte ogite* gero Darthayetek ere (5 zenb.) ekarriko duena ere sail berekoa da. Ikusten denez lehen osagaiean, A delakoan, agertzen da eguraldiari dagokion fenomeno, elurte, eurite.. eta B delakoan fruitua. Orain arte ikusi ditugunetan, biek dute ondorio bera zeren «gari» eta «ogi» hitzek esangura bera dute. Harrigarriena beharbada ogite bezalako hitza sortzea da errefrauaren bidez, errefrauaren inguramen horretatik kanpora nekez dokumentatzen baita. Gerta daiteke A eta B osagaietan bietan agertzea -tedun eguraldi-fenomenoa. Larramendik dakarren

<sup>44</sup> LECUONA, Manuel: «Cartas andoaindarras» in RSBAP N°18, 386or.1962

Adierazgarriak dira pasarte hauek:

Carta novena: Gaurco Gacetan iracurridegu Urmenetan Hernanico accioco partea. «Guer-urtea, gezur-urtea» esan zuenac ondo esan zuan Carta décima: Ainbeste guezur dabil, ecen, esaten dizuteguia: eguiaren antz guziaquin jancitaco berri bat ere ecin sinistu diteque, piscabat ecusi arte do cuarentena labur bat eman gabe

<sup>45</sup> Année de mariage, année de folies.-(On le dit á l'occasion de folles depenses que certaines gens font soit pour le epousailles, soit pour formation de nouvel etablissement.)/Año de matrimonio, año de locuras./(Dícese esto á propósito de los locos gastos que hacen ciertas gentes, ya con motivo de las bodas ya con el de la creación de un establecimiento.)

*Leorte aundia len, bustite andia aurten* tankera horretakoa da, eta -te-duna A bakarrik, *Bustite handietan, aphalago eginen da istila* errefraua dirudiena<sup>46</sup>. Sail honetakoa dugu Intz 1950-*Martxoko ostotsa, berrogei eguneko ekaiztia* alea. Bi osagaietan eguraldi-fenomenoa agertzen da. *Zuh 1174-Urtarrila idorte, laboraria dirute* delako alea ere bete-betea sartuko litzateke sail honetan. Urtarrilean idortea egiten badu, laboraria aberastu egingo dela dio. Ohartzekoa da *dirute* delakoa sortu dela errefrauan hoskidetasuna eta betiko egitura ere agertzeko. *Dirutea* diru garaia izan daiteke -te atzizkiak osatua edo -ate amaiera («ate» piloa adierazten duela) duen hitz konposizioa, *duhulate* bezala. Ihinzte *Apirilean ihinzte, gero urte ogite* alean agertzen da bakarrik.

Tankera honetako errefrau guti gelditzen dira gaur egun. Badirudi garai zaharragoetan ugariago izango zirela.

### 10.3. *Eguna, astea aipatzen duten errefrauak*

Tankera honetako errefrauak askoz gutxiago dira. Errefrauren bi osagaietan konposizioa egiten dutenak erabat urri dira. Urte hitza bi osagaietan dituztenak baino askoz gutxiago. Aurkitu ditugun ale bakanak Azk 1752-*Maialen eguna, esne-eguna*. Intz 830-*Magdalen-aste, ezpara-aste*. Lehen errefrauetan, ikusten denez, A osagaian urteko egun bat markatzen da, eta B osagaian fruitua. Konposiziorik gabe egiten diren eguna edo astea aipatzen dituzten errefrauak askoz gehiago dira esaterako *Abenduko eguna, argitu orduko iluna* ezaguna edo *San Markos astea, artoa ereiteko astea*.

### 10.4. *-tsu atzizkiaren bidezko eguraldiak markatzen duena*

Aurreko apartaduko bezalako errefrauak agertzen dira honetan ere. *Euritsu, haizetsu, eguzkitsu* bezalako elementuekin osatuta agertuko da A osagaia, eta B ere gehienetan -tsu batez markaturik agertuko zaigu. Sail honek ikuskizun handia du gorago adierazi ditugun bi sailekin. Esate baterako *uri-urte, ogi-urte* errefraua beste modu honetara ere eman daiteke: Oih 308-*Maiatz eurite, urte ogite*. Bai eta Zuh 1231-*Urte euritsu, urte garitsu* bezala. Hiru errefrauek muin bera dute, nahiago bada Oihenartena da zehatzagoa urteko zein hilabetetan ema-

<sup>46</sup> *Eskualduna* 30-10-1908, 4 *Orotariko euskal hiztegia*-n eta *Retana*-renean agertzen da. Azken hau da iturri nagusia.

ten diren euriak markatzen duelako. Hiru errefrauetan A osagaien markatzen da izadiko «euria» elementua eta B osagaien fruitua. Tankera berekoak dira Zuh 1201-*Apirila euritsu, urte ura ogitsu*. Azk 1130-*Asentsio letaniak euritsu, urte bere ogitsu*. edo Azk 1755-*Maiatz paskoak euritsu, urte ogitsu*, edo aldaera bera den, Azk 1806-*Pazko maiatzekoa euritsu, urte hori ogitsu*.

Sail honetan, ordea, ez da beti A elementua eta B fruitua. Izan daiteke A eta B osagaiak biek markatzea elementua: Zuh 1135-*Negua de-nean eguzkitsu, ondoko uda euritsu*, edo laburrago, Zuh 1182-*Negua iguzkitsu, ondoko uda euritsu*. Gerta daiteke A ilargiaren aldi bateko adierazle izatea eta B animalia bat -tsu atzizkiarekin. Azkuek Markinakotzat dakar *ilberakoa oilandatsu, ilbarrikoa oilaskotsu* (E Y I, 98or.) ale polita. Ale hau (X eta Y) izango litzateke, C eta D hegazia -tsu ugaritarena adierazten duen elementuarekin.

Interesgarriak dira sail honetako (X eta Y) errefrauak. Guk geure lantxo honetan azterkizun dugun Zuh 1235-*Goiz gorriak euritsu, arrats gorriak haizetsu* alean B eta D osagaiak elementudunak eta hoskideak dira. Zuh 1258-*Maiatza fardo, ogi eta ardo, maiatza euritsu, laboraria urgulutsu* alea zinez interesgarria da zeren (A baldin bada, B eta B') da X delakoa, eta, (C baldin bada, D) da Y. Ikusten denez gehienetan hoskidetasuna bi osagaietan -tsu batez egiten da. Tankera honetakoa da Zarautzen bildutako *Paskoa Mayatzekok euritsu, urte ura ogitsu; Santiyo-Santanak euritsu, urte ura artotsu*<sup>47</sup>.

Badago, azkenik, sail honetan ale interesgarri bat (A eta A' baldin bada, orduan B) Azk 1755-*Maiatza uritsu, ekhaina erhautsu, orduan da laboraria urgulutsu*. Azken egitura hanpatuxea da: (A eta A' eta A'' baldin bada, orduan B) egitura bete-betean duen errefraua: Zuh 1202-*Apirila euritsu, maiatza ihitsu, ekaina errautsu, orduan da laboraria urgulutsu*.

## 10.5. *Animalia aipatzen dutenak*

Sail hau zoritxarrez oso urria da. Oso ale gutti aurkitu ditugu guk erabili dugun euskal errefrauen *corpus*-ean. Eguraldi-errefrau gehien

<sup>47</sup> Jakina, bi errefrau balira bezala bata bestearen azpian jarrita daude. Guk, ostera, elkarren ondoan jarri ditugu. Esaera zaharra Juan de Irutetagoienak bildua da «Refranes y dichos populares» in *Anuario de Eusko Folklore* 1921, nº 1, 55or. Honelaxe agertzen da berez 1-*Paskoa Mayatzekok euritsu, urte ura ogitsu*. Pascuas de Mayo lluviosas, aquel año abundante en trigo 2-*Santiyo-Santanak euritsu, urte ura artotsu*. Santiago y Santa Ana lluviosas, aquel año abundante en maíz.

oinarrizko egitura bera dute hauek ere: (A balin bada, orduan B). Errefrauhuen helburua ere iragarpena da: iragarpen-errefrauhak dira. Iragarleak animaliak, abereak, piztiak zein hegaztiak dira. Nola igerri daiteke eguraldi txarra edo ekaitza datorren? Zailok bildu duen *Gatua uskiz suari, beldurra denbra gaxtoari* delakoak adierazten digu katua sutondoan atzez badago denbora gaiztoaren beldur dela. Bizkaian bertan ere antzerako bat badugu, Juan Manuel Etxebarriak bildu duenez, *Katuek surtera adi, aurie seguru*.

Arrantzaleek, ordea, beste era batera diote Azk 638-*Txoriak goitik, ekatxa beetik*. Dugun errefrauhu-libururik zaharrenean ere, *Refranes y Sentencias* delakoan, RS 70-*Cucuen cantazean euri ta eguzqui*. Ezagutzen dugun tankera honetako eguraldi-errefrauhak bildumarik politenetakoa Xarles Bidegainena da, hona zenbait: *Erten da: to, okiloa ai duk arbolari kokha, okhiloa egarri, euri inen dik*<sup>48</sup>. Okila ari bada arbolari mokoka euria egingo duela. Era berean Zuberoan *Ükhül berdiak markhatzen dik ebia, nabetan sartzen dük ebia ari denian*<sup>49</sup>. Okil berdeak markatzen du euria, lautadan sartzen da euria ari denean. Tankera honetako errefrauhak ez datoz bat batean eta bestean, Zuberoan (Cheraute) diotenez: *Erraiten dizie ba ai delaik kaxkan (ükhüla), ebia izanen dela*<sup>50</sup>, aldiz Azkainen guztiz kontrara: *Erraiten dute, kantari delaik (okila), idortea*<sup>51</sup>. Arrast-Larrebieu Zuberoako herrian ere: *Üküla errekan, harrezak kapitxüna kaallan*<sup>52</sup>. Guzti hauek ikusi ondoren atera ditzakegu ondorio zenbait: Iragarpen-errefrauhak beti lehen osagaien A animalia bat agertzen dute, eta bigarrenean, animalia horrek iragartzen duena B. Itxura guztien arauera, animalia berak leku batetik

<sup>48</sup> «Okhiloak etziela nahi putziain xahatzen ari eta gio okhiloa egarri zela ta edaten zien bakharrik gisala ostoetarik erori ura, euria ari zelaik bakharrik eta koskaka ari delaik arbolari: to egarri uk euri nahi fite» Okhiloak zangoak biziki garbi ditu: etzielakotz nahi putzuain xahatzen ari. Eta gio, ahatik, egarri ederrik pasatzen. Erten, erthen, «Eztuk nahi zikhindu egarriaekilan egoin hiz.»

On dit: tiens, le pivert, est en train de cogner l'arbre, le pivert a soif, il va pleuvoir. Que le pivert n'avait pas voulu nettoyer la fontaine et après le pivert était assoiffé et il buvait seulement paraît-il l'eau tombé des feuilles quand il pleuvait seulement, et quand il frappe dans l'arbre: «tins il a soif, il veut pleuvoir». Que le pivert avait les pattes très propres et qu'il ne voulait pas les salir à nettoyer la fontaine. Et après cependant, il passe belle soif. On le dit, on le dit. «Tu n'as pas voulu te salir, tu resteras avec la soif». (738or.)

<sup>49</sup> Larrau L1

«Le pivert annonce la pluie, quand il rentre vers la plaine, c'est la pluie»

<sup>50</sup> «On dit oui que quand il cogne, il pleuvra».

<sup>51</sup> «On dit que quand il chante, c'est la sécheresse»(745or.).

<sup>52</sup> Le locuteur d'Arrast-Larrebieu adopte cet aspect codé dans le proverbe suivant: «Le pivert au ruisseau, prend ta capuche sur la cheville»Lui-meme commente: ükhüla errekan, marka ebia dela, «Le pivert au suisseau, c'est signe de pluie»(746or.).

bestera, eta are leku berean, iragarpen desberdina eman lezake. Dena dela Euskal Herri gehienean badago halako bateratasun bat. Guk hemen gehien ikusi dugun hegazti iragarlea okila da eta okila gehienetan agertzen da euri eske, Zuh 1289-*Okiloa hasten bada kantuz, euri aizea laster hasiko hixtuz*. Agustin Etxeberri saratarrak joan den mendean bildu zuen errefrau argitaragabe batean ere halaxe agertzen da: *Okila kanta gura, uri beldurra*. La pie-vert chanter peur de la pluie<sup>53</sup>. Ikusten denez hegaztiak dira gehienetan eguraldi-iragarle, gainerako etxabe-reak edo piztiak bakan agertzen dira. Xomorroak ere izan daitezke, bakan bada ere, eguraldi-iragarle: armiarma Azk 310-*Amarratzak egurasa, gainean euri-jasa*. Intz 565-*Armiarmaren pausoa, euriaren asmoa* (euriaren aurretik armiarma aundiak agertzen). Edo gorago ikusi dugun ume-munduko Azk 539-*Mari gorri: biar eguzki ta etzi euri*.

Badira (X eta Y) iragarpen-errefrauak ere: Azk 515-*Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan*. Ale preziatua dugu, era berean, Azkuek Erronkarin bildu zuen: 2598-*Kurri beera, gari-azi; Kurri gora, olo-azi; erin zan baratzean azazi*. Errefrau honetan hegazti mota batek, lertxunak, markatzen du noiz erein behar den garia edo oloa. Lertxunek (kurriek) hegaz egiten badute goian edo behean, markatzen dute zer erein (erin) behar den baratzean. Baina ale hau baino askozaz garbiago, hona hemen joan den mendeko Ameriketako aldizkari batean<sup>54</sup> aurkitutako ale preziatu bi 6-*Ukula leku aphaletik kantuz, denbora charrá, leku goratik, denbora ederra eta Ainharak apha, euria bertan; ainharak gora, denbora ederra*. Bi ale hauetan ukula (okila) eta ainhara (enara) dira eguraldi-iragarle. Gorago aztertu dugun (X eta Y) errefrau bituen egitura bete-betekoak, gainera.

Tankera honetako errefrau gisako alerik harrigarriena Azkuek bere hiztegiko *oilo* hitzean dakarrena da *Oiloak zorriketan, ardiak zintzarri-dantzatzen, oillarra goizean kukurrukuka asten danean, beia dardaxatzen diranean, txitxarea luze luze lurraren gainean dabilenean, enarak lurra ia-ia joan dijoazenean euria laster* (G-and). Hainbat animalia agertzen zaizkigu euriaren iragarle: *oiloa, ardia, oilarra, behia, txitxarea eta enarak* eta animalia bakoitza ekintza bati lotua dago *oiloa zorriketan batetik ardiak zintzarri dantzatzen* eta abar. Errefrau hau hainbat erre-frauren bilketa dela dirudi *oiloak zorriketan euria laster* eta *ardiak zintzarri dantzatzen euria laster* eta abar.

<sup>53</sup> Euskal Herri osoan hedatua dagoela esan dugu. Nik neuk ere Markinaldean entzun dun lehorte haundia dagoenean *basoan okila egoten dala euri eske*. Azkuek ere bildu zituen horrelakoak: 572-*Okila kantetan, euria atetan* eta *Tokila kantari, uria fite*.

<sup>54</sup> IZENIK GABE: *Californiako Eskual Herria*. Los Angeles hazilaren, 30a 1895.

### 10.6. *Landare bat denean iragarlea*

Hau da sailik urriena. Uzta-errefrauetan A osagaia izan daiteke ereiaroa edo uztarua markatzen duena. Tankera horretako adibideak bakan xamarrak badira ere, baditugu zenbait. Eguraldi-errefrauetan, ostera, ez dugu A osagaien landararik agertzen denik; *Euskalzale* aldizkarian agertu zen artikulua batean bakarrik ikusi ditugu tankera honetako aleak<sup>55</sup>. Beharbada ez dira errefraua ere izango. Hona aleak *Euria egingo dau:Kardu latzak bere ortz zorrotzak eta azala estututen dabezanean*. Eta azpian *Irusta edo sekula bedarren lorea luzatu ta arteztuten danean*. Aldiz eguraldi ona egingo du: *Jerikoko larroseak bere orriak batu ta tximurtuten dauzanean*.

### 10.7. *Izar edo argizari edo zeruko elementu bat denean adierazlea*

Tankera honetako saila erabat interesgarria dugu. Lehenengo osagaien izar edo ilargi edo hodeia agertzen da. Ilargia agertzen denean bere aldietan ager daiteke: ilgora, ilbehera, ilzahar, ilberri, ilbete. Ilargia da ugarien agertzen den argizaria. Esate baterako Intz1261-*Naiz il-zar, naiz ilberri, emaiizu azia egualdi onari*. (X eta Y) dugu Barandiaranek Saran bildu zuen *Ilargiak adarrak bilduak baditu denbora ederra inen du, adarrak xabal baditu, uria inen du*. Era berean (X eta Y) dugu Intz 970-*Pazkotan il-berri: azarua egiteko beariko dittuk idi berrik*. *Pazkotan il-zar: askiko ttuk (dituk) edozein bei zar*. Oñatin Kandido Izagirrek bildu zuen *Otzailgo ilbete, edurra ni bete*. Ilargiaren eraztuna ere izan daiteke eguraldi-iragarlea. Azkuek Erronkarin bildu zuen 114-*Goikoaren zerkoak agortan tu urtsiak*. El cerco de la luna seca los aguariles (manantiales pequeños). Izarrak nekez agertzen dira. Oso gutxi dira izarrak aipatzen dituztenak. Abenduko izarra, esaterako, ez da bat ere fidagarria zeren Intz 729-*Bide-ondoko arbola, abenduko izarra, ostatuko neskatx ederra: iruek ondatzeko arrisku bera dute*. Era berean Martxoko izarra ere ez da batere fidagarria zeren Intz 1817-*Martxoko izarrak eraman du nere bior zarra*. «Martxoko elurrei ta otzei beldur» azaltzen du ondoren. Zav 669-*Buruileko izar nasaiek arnoa (deitzen) nasaiki*. Euskal errefrauen artean ugari dokumentatzen da ez dela fidatu behar *zeru izartsuan ez emazte nigartsuan*. Adibideak Oihenarten-gandik hasi eta Azkueren (1199) eta *Zuhur hitz* liburuan agertzen dira.

<sup>55</sup> IZENIK GABEA: «Euria ta aberria», in *Euskalzale*, 1897, 198or.



Beharbada gehien agertzen den argizaria eguzkia da Intz 296-*Kandelera egunean eguzkia ikusi baño, otsoa ardi tartean ikusi naiago*. Neguko eguzki txuria zen itxura guztien arauera nekazarientzat beldurgarriena Intz-1012 *Eguzki txuri, atze beltza* edo Intz 1263-*Neguko eguzki txuriaz ez fia!* Hodeiekin agertzen direnak guti dira, esaterako, Intz 2239-*Odei oiek leokatu(r)ik daude, ta ez da euririk*. Azalpena Intzak berak dakar «Odeiak berex samar daude, le(i)okaturik, tartean leio antzeko utsuneak dituzte». (X eta Y) adibide miragarria da baina maila desberdinekoak X eta Y: Zuh 1217-*Zeru hedoikatua sanjakor, begitarte tindatua zimelkor*.

#### 10.8. *Hilabetea aipatzen dutenak*

Sailik eder eta zaharrenetakoa hona aldatzearren 1596ko *Refranes y Sentencias*-koa ekarriko dut RS 4-*Abenduco lañoa euria edo egoa* RS 28-*Daguenileco euria ardaoa ta ezta*. RS 43-*Mayaz yluna ta baguil arguia, hurte gustico oguia*. Beharbada RS 89-*Osaylgo euria, erayten dituz onçoeriac*. RS 129-*Opeyl bustiac, dacaz oguiac*. RS 149-*Hurrieteac hurri gauçac, ta hurri dira aren bear[r]ac*. RS 268-*Mayaçean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo*. RS 323-*Hosaylean, aldiz eguzquitán, aldiz sutanzean*. RS 368-*Hosaylean hurteyten daroa [a]rçac leçerea*. RS 411-*Ar eçac mayazean aunz ball[z]aren ezne-rean, ta aquio veti betseguien ezne-rean*. RS 416-*Opeileco herlea enezat, mayaçecoa anajeenzat*. Hona aldatu ditugun guztietan A osagaien agertzen da beti hilaren izena eta B osagaien zer gertatzen den. Badira, nola ez, hilabetea eta izar, ilargi edo eguzkia nahasten dutenak. Goraxeago ikusi dugun *Otzailgo ilbete, edurra ni bete* litzateke erakusgarri bat.

#### 10.9. *Errefrau solasdunak*

Sailik bitxi eta harrigarriena iruditu zait beti. Badira, batetik, landareak edo frutuak lehen pertsonan hitz egiten dutenak, eta bestetik, elkar hizketa edo solasa duten aleak. Bakar hizketako ezagunena: «*Handia banintzen txikia banintzen, maiatzean buru nintzen*»- *esan zuen gariak*. Errefrau hau Euskal Herri osoan dokumentatzen da eta betiere gariak lehen pertsonan hitz egiten duela. Gariaren garatzea adierazten da errefrauean, garia gehiago handitzen da maiatz hileko egun batzuetan, gainerako urteko hilabete osoetan baino. Badira gehiago ere. Hona hemen ale polit bat Intz 165-*Idik (idiak) esan omen zun: Maiatz luzia, maiatz gosia. Arek eraman zun nere alabia*.

Lehenengo jarri dugun gariaren esaera zaharrean, ohartzekoa da baldintza bikoitza A osagaien, eta ondorioa B-an. Tankera berekoa da Azk 2442-*Goiz bazen, berandu bazen, garizuma negua zen* eta are osoago: Azk 1687-*Garizuma goiz bazan, berandu bazan, erdia gutxienez negu zan, guztia ezpazan*. Adibide hauetan hirugarren pertsonan dago «garizuma» delakoa, baina lehen pertsonan ere egon daiteke Intza 295-*Goiz banintzen, berandu banintzen, garizuma beti negu nintzen*. Ale honetan A osagaiko egitura B-ra ere ekartzen da. Gariak, zein beste edozein landare zein animaliak, lehen pertsonan hitz egitea euskal ikerlari zenbaitentzat, garai zaharretako animismoaren agerpena da<sup>56</sup>. Berakatzari egindako galdera ere agertzen da ale polit honetan Azk 1842-«*Zegaitik geratu az orren ziztrin?*», *itandu eutsen berakatzari bein*.-«*San Martin aurretik enenduelako erein*», *erantzun eban berakatzak*. Gariaren kasuan noiz burutzen den bezala, kasu honetan noiz ereina izan behar den dio berakatzak edo baratxuriak.

Baditugu, zorionez, animalien arteko zenbait elkarrizketa pollit ere, Intz 1598-*Ardiak esan omen zun: Ama Birjiña martxoko, ni mendian gallurrerako. Beiak berriz: Ni San Markon beldur. Ardia martxoko belar berriaren ametsetan, beia berriz San Markoren kazkabarrari beldurrez*. Interesgarria da era berean Azk 518-*Kukuak esan eban, Santa Maria Martikoz ez baetorren, bere ondrak egiteko*.

Tankera honetako errefrau elkarrizketatuak gutxi ditugu zoritxarrez. Badirudi garai zaharragoetan gaur egun ezagutzen ditugunak baino gehiago izango zirela. Eman dezagun adibidetzat oso ezaguna den Azk 9-*Andre Maria Martxoko, beia larrean aseko*. Errefrau honetan noiz dagoen belarraren ugaritasuna adierazten da. Andre Maria Martxoko da urteko egunik seinalatuena eta eguraldi-errefrauetan oihartzun handia izan duena. Ideia bera, jakina, bakarrizketa bidez ere eman daiteke. Damaso Intzak, esaterako, Intz 2112-*Ama Birjiña martxoko, ni mendian larrez aseko...Ola esaten ardiak*. Errefrau honetan aseko dena ardia da eta ez behia, denok dakigunez ardi-behiek belarra jaten dute eta errefrau batek ardiak hitz egin dezake eta besteak behiaz. Hemen, ordea, guri dagokigun kontua da ardiak berak esan zuela «ni mendian ase-

---

<sup>56</sup> SATRUSTEGI, Jose María: «Los factores étnico-culturales de una zona de Navarra», in *El libro blanco del euskera*. Guk erdarazko pasartea aldatuko dugu hona. Artikuluaren laugarren atalean honela dio: «Animismo: La palabra tiene su propia valoración en el contexto de las tradiciones vascas. / Fue instrumento universal de entendimiento entre todos los seres de la Creación (...) Las leyendas vascas tienen de protagonistas no sólo a los animales, sino también a las plantas. El trigo canta victoria por mayo»*Haundia banintzan, txikia banintzan, maiatzian zorruan nintzan*» (Grande o pequeño enfundado en mayo).

ko». Errefrau bera ere eman daiteke elkarrizketa bidez. Azkuek, esaterako, Azk 8-*Andra Maria Marxoko, ni mendirat opoko*-esan zuen ardi antzuak. «Opoko joatea» orpoaren gainean joatea da, eta ibilmodu hori pozaren adierazle da. Ardi zahar jakitunak, ostera, Arakistainek bildu zuen bezala *Ni erramuren bildur, eguin dezan cizorcarequin elur, n.* Jakina, ugaritasun garaia laburra da Andre Mari Martxokotik (martxoaren 25) Erramura bitartekoa<sup>57</sup>, eta ezaldia luzea...Andre Maria Martxokoz izan ohi dute, gorago esan dugunez, ardi-behiek asealdia Intz 1108-*Ama Birjina martxoko, ardi antzue larrean aseko* eta Intz 1458-*Ama Birjina martxoko, beiek geien aseko*. Andre Maria Martxokoz etorten da kukua, eta kukuaren etorrerak udaren etorrera markatzen du. Neguaren akabera eta Erramu edo San Markos beldurra agertzen dute errefrau hauek: Intz 992-«*Ama Birjiña martxoko (e)man diok neguari ostiko*» *Ori esan omen zuen beiak «San Markok bildur neri» esan omen zuen beorrak*. Berdin beste honen kide den Intz 2421-«*Andredena martxoko, nik negiari opoko (ostiko)*» *esan omen zuen beorrak. Eta «Ni Erramuren beldur, kixkorrez (kazkabarrez) egin dezan elhur» esan beiak*. Ikusten denez bi errefrau hauetako animalia hitzunik behi-behorrak dira. Konturatzen garenez, batean behiari dagokion esana, bestean behorrari dagokio. Gure baieztapenetan urrunago ere joan gaitzkeela iruditzen zaigu. Lehen pertsonan agertzen diren eguraldi-errefrauak elkarrizketa bateko hitzun baten solasa gorde delako da, eta bestea galdu delako. Hona hemen adibidea: Arakistainek bildu zuen: *Por la Semana Santa, suele granizar ó nevar. Ni erramuren bildur, eguin dezan cizorcarequin elur, n.* errefrauan argiro ikusten denez behiaren solasa da. Zer da gertatu dena? Damaso Intzak, Nafarroan berean, errefraua askozaz osoago bildu zuen bi mende geroago<sup>58</sup>. Damaso Intzaren 2421 errefrauaren behiaren solasa eta Arakistainek bildutako aleen arteko berdintasuna harrigarria da. Erramu-eguna aipatzen duen eguraldi-errefrau solasgabea da Intz 2420-*Andredena martxoko behia larrean aseko. Erramu egunerako zezena da beldurxko*. Erabat harrigarria iruditzen zaigu errefrau solastun hauen artean ani-

<sup>57</sup> Erramu-eguna aldakorra da, guztiok dakigunez, goizen jota martxoaren 22 izan daiteke eta beranduen apirilaren 25. Udaberriko ekinozioaz gero (martxoaren 21) egiten den lehen ilargi beteko hurrengo igandea.

<sup>58</sup> Baieztapen hau arriskutsua izan daiteke. Erdal herrietako erromantze zaharrak askozaz soilago edo laburrago dira gehienetan joan den mendeen, edo mende honetan bildu direnak baino. Gehienetan, itxura guztien arauera, erromantzeak mendeen joan-etorrian aberastu egin dira. Baliteke lehen pertsonan emandako Arakistainen errefraua aberastu izana elkarrizketa bihurtuz. Guk, ostera, eguraldi-errefrau honen egitura solastua kontutan harturik, elkarrizketa bakarrizketatua dela deritzagu.

malia-hizketa berdinuz Satrustegik bildu zuen ale aparta: *-Andredena Mari Martxoko gure behia larrean aseko!* -esan zuen pozez gizonak-*Muu! Gero duk Erramu!*-idiak baztarretik. Ale honetan solastunak, aurrekoetan ez bezala, idia eta gizona dira. Gizonak gizonara hitz egiten du eta idiak idiara, *Muu!* eta *Erramu* hitzekin jolas egiten baitu.

Badirudi zenbait errefrau era bitara eman direla solasarekin eta solasik gabe. Pentsa daiteke solastuna dela forma osoagoa, baina ez da nahitanahiezko kontua. Eman dezagun adibide bat Intz 149-*Apirila fan ta maiatza gero ganbaraein baztarrian agotza bego* (*Maiatzean bear izango da oraindik agotza, lastoa*). Errefrau honen bidez noiz ganbararaten edo biltzen den lastoa adierazten da. Errefrau bera agertzen da Satrustegik bildu zuen ale pollit honetan *-Apirila joan da, Maiatza gero!*-dio gizonak.-*Ganbara zokoan agotza bego*-erantzuten dio idiak. Hemen aurreko alean bezala solastunak gizon-animaliak dira.

Harrigarria bada ere Nafarroan bildu dira gehienbat tankera honetako errefrauak. Azkueren, Intzaren eta Satrustegiren errefrauak Nafarroakoak dira eta are Arakistainena ere. Erronkarin Azkuek bildu zituen bi adibide jarriko ditut hemen Erronk 25-*Ariak, Maiatza elteari deuri deuri erraten dau nausiar*. El carnero, al llegar Mayo, le dice al dueño dinero dinero. Erron 203-*Olo beltzak erran zaun nausiar: erin nazain berant nola erin nazain goixtar, martxoraino ez nuk ikusi bear*.

Badago azkenik ukitu nahi nukkeen puntu bat errefrau solastunon sailean. Errefrauak direla ere ezin da goitik behera baieztatatu. Errefrau-bildumetan agertu ohi dira eta mehatxu gisako bat egin ohi dio gizonak elurrari edo Izadiko elementu bati. Adibidez: Azk 1156-*Eizak eizak ebia, gure etxean bazegok garia. Eizak, eizak elurra, gure etxean bazegok egurra. Eizak, eizak kaskabikoa, gure etxean bazegok anka bikoa*. Azkuek errefrautzat zeukan gorago jarri dugun alea eta «Eguratsezkoak» sailean dakar. Askozaz ezagunagoa da, zabalagoa den neurrian, da *Elur-melur ez nauk ire beldur etxean badiat arto eta egur*<sup>59</sup>, baina

<sup>59</sup> Beti agertzen da oso antzera, ia aldaketarik gabe. Ohargarria da gainera elur-melur formularen bidez ematen dela beti. Hobeto esan dezagun, lehenburua beti da elur-melur, eta azkenburua, arto eta egur. Ez da esistitzen, guk dakigunez, euri-meuri, izotz-mizotz, haize-maize bezalakorik. Hona aurkitu ditudan zenbait aldaera Zuhur 1127-*Elur melur, ez nuk hire beldur, etxean badiat nahiko arto eta egur* Azk761-*Elur, melur, enuk ire bildur: badiat etxean arto ta egur*. Azk 1160-*Elur melur, enuk ire beldur, etxean badiagu arto egur*. Intz 218-*Elur-melur, ez diat irebeldur, txabolan badiat naiko arto ta egur*. 2018-*Elur-melur: ezdiat ire beldur, badiat etxean arto eta egur*. Intz 2287-*Elur-melurre, ez diat ire beldurre; badiat etxian arto t'egurre*. Orixeek ere bere Euskaldunak «Artazuriketa» atalean badakar Janaririk bearrena-naiz lurmen, naiz elur-/artoa da; artatik beintzat ez luke bear xûr./Orduan, bai, «*elur melur, ez nauk ire beldur; / etxean ba diat arto eta egur*». Itzulpena gainera «entonces se dice el proverbio...»

azken hau errefraua izateaz gainera haur-mundukoa ere bada, hurrek negualdian esan ohi zuten erreztatua da, itxura guztien arauera<sup>60</sup>.

Atal honetara aldatu ditugun errefrau solastun guztiek badute hizkuntzaren aldetik alde interesgarri bat: hika agertzen dira solas gehienak. Gizonak elurrari, zein euriari zein idiari, zein ardiari, zein landareei hika egiten die. Badago zehaztasun handiago bat: hika beti da markagabea edo toka, inoiz ere ez da noka<sup>61</sup>.

## 11. Eguraldi errefrauk eta papaitak

Atal labur honetan bi ale interesgarri aztertuko ditut. Denok dakigunez, abendua da ilun-ordu gehien duen hilabetea. Argi-ordu gehien duena, ostera, San Juan eguna. Horrelaxe adierazten da Larrabetzuan Tiburtzio lzpitzuak batutako errefrau batean *Egunik luzeena, San Juanena; geurik luzeena, Santa Lusiena*. Hala ere errefraurik ezagunenetako bat *Abenduko eguna, argitu orduko iluna*. Abenduko egunen artean Santa Luzia eguna da gehien markatzen dena. Hor ditugu Barandiaranek Liginagan bildu zituen *Santa Luzia eguna, argia baita ilhuna* eta *Santa Luzia eguna, argia deneko ilhuna*. Tankera berekoa da *Azaroko eguna, bostak eta illuna* Juan de Iruetagoienak Ataunen bildua. Egunaren argi-orduak apurka-apurka, egun batetik bestera gehituaz joan ohi dira. Gehitze hori irudi baten bidez eman ohi da gehienetan. Apurka- apurka joatea, oilo baten pausuak markatzen du. Adibidez Berziako errefrautegian *O empezar o ano xa crecen os dias un zanco de galo*<sup>62</sup>. Euskarazko aleetan ere oilo edo oilar baten pausuak, edo arrak, edo atzaparrak markatzen du apurka-apurkako egunargiaren luzatzea Azk 182-*Santa Luzia egunerako eguna oiloa(re)n atzaparra azitzen* edo Barandiaranek Ezkurran bildu zuen bezala *Santa Luzietako ollon arra bat eguna luzatzen*<sup>63</sup>. Apurka-apurka hasten bada ere egunargia luzatzen, behin garai bateraz gero, egun batetik besterako luzapena handia da. Hasieran oilo-pausuka luzatzen bada argia, gerora ahuntzaren edo or-

<sup>60</sup> EJ IV, 309or. Elurra denean Saraitzun erraten da: *elu[rr]a melurra, banikan ire beldurra. Oilategian matsa legoan(leioan) gatza, Martin kalabaza*. Olastegi Otxagabiko usa baten izena da.

<sup>61</sup> Hika markagabeaz, edo emakumeei ez beste guztiei zuzentzen zaienaz, badago artikulua interesgarri bat Mitxelenarena «Gabriel Arestiri» in *Egan*, 1-6, 157-160or eta *Euskal idazlan guztiak VI* Hizkuntzalaritzaz I, zen 26, 179-183or.

<sup>62</sup> CASTELAO DIÑEIRO, Santiago: *Refranero berciano*, Ediciones Lancia 1991 67or.

<sup>63</sup> BARANDIARAN, Jose Migel: «Contribución al estudio Etnográfico del pueblo de Ezkurra», in *Anuario de Eusko Folklore*, n.º 35, 1989, 43-64or.

katzaren jauzika egiten da. Hona adibide gisa Barandiarenek bilduak Li-ginagan: *Urtatsetik Apaizio, olluaren urhatsez: Apaiziotik eta Kandeallua orkatzaren jauziez*, Dohoztin<sup>64</sup> *Santa Luzia orduko eguna luzatzen da ahuntzaren yauzia* eta azkenik Heletan<sup>65</sup> *Urtatseko, orkatzaren jauzia luzatzen da eguna*.

Guzti honek zer ikuskizun du papaitekin? Errefrau hauetan irudiekin jokatzaren denez gero, oilo-urrats/basauntz-jauzi erabat egokia da igerkizunerako. Damaso Intzak bildu zuen igerkizun pollit batean honela esaten da: *Erregetan ollarraren arra, San Antonetan mandazaien legoa, otsaillaren erdira, loa begira. Zer da?* Igerkizun honetako galdera asmatzen ez duenari argigarri bat gehiago ematen zaio: *Ta martxoaren erdin, gau ta eguna berdin*. Zehaztasun guzti hauekin asmatu ezinik dabilenari zer den salatzen zaio: *Egunaren luzetasuna...* Egun-orduak eta gau-orduak berdintzen dira udaberriko ekinozioan, Martxoaren erdialdera (21 zuzen esateko). Erabat bitxiak dira errefrau hauetan erabiltzen diren animaliak, batetik oilo/oilar hegaztiak eta bestetik, ahuntz, basauntz, orkatz, orein animaliak. Hegaztien atzaparra da neurri batean, eta bestean, abere handien jauzia.

Errefrau ezagunenetako bat Azk 1760-*Maiatzean tipi baniz edo handi baniz, burutu behar niz* edo Intz 42-*Garia: txikia banintzen, aundia banintzen, maiatzian buru nintzen* (Zuazu) edo Satrustegik dakarrenez *Haundia banintzan, txikia banintzan, maiatzian zorruan nintzan*. Errefrau hau Abeletzek papaita moduan dakar *Mayatzean txiki banaz edo andi banaz, burutu biarr naz. (Zer naz?)Gariyari yagoko esakun au*<sup>66</sup>.

## 12. Hilegunak edo zotalegunak

Baditugu hitz bi gauza bera adierazteko *hilegunak* eta *zotalegunak*. *Hilegunak*, guk dakigula, Bizkaian eta Bizkaiko euskaraz hitz egiten den lekuetan erabiltzen da. Oñatin ere erabiltzen da, Bitoriano Gandiagak eta Kandido Izagirrek agertzen dutenez. *Zotalegunak*, ordea, iparraldeko lurraldeetako hitza da. *Hilegunak* eta *zotalegunak*, Azkuek esaten zuenez, «igarregunak» dira eta zer eguraldi egingo duen asmatzeko edo igartzeko balio dute. Hegoaldeko sistema eta iparraldekoa ez da

<sup>64</sup> BARANDIARAN, Jose Migel: «Rasgos de la vida popular de Dohozti», in *Obras completas IV*.

<sup>65</sup> BARANDIARAN, Jose Migel: «Notas para un estudio de la vida en Heleta», in *Anuario de Eusko Folklore*, n.º 34, 1987, 65-77or.

<sup>66</sup> ABELETXE: «Esakun zarrak», in *Euzko Enda*, Mayo 1939, n.º 45.

bera. Iparraldean urtarrileko egunekin egiten da eta hegoaldean abuztukoekin. Lafittek *zotalangunak* barik *egun zotalak* erabiltzen zuen, eta zotal delakoa, adjetibo moduan erabiltzen zuen, erdarazko «augural» adierazteko. Hona iparraldeko testigantza Lafitten lumatik:

*Bainan sineste xaharren arabera, eguberri ondoko egunak argi eta garbienak ziren ber, gure arbasoek uste zuten urtarrileko hamabi lehen egunak zotalak zirela, hots, bakoetak aintzinetik salatzen zuela nolako aroa izanen zen berari zoakon ilabetean. Urtarrilaren lehena nolako, urtarrila bana bertze halako; urtarrilaren bia nolako, otsaila holako, eta abar...Egun-go egunean «meteo» delakoari fidago ez ote giren egun zotaleri baino!<sup>67</sup>*

Hegoaldean abuztuaren lehen hamabi egunekin edo lehen hogetalauekin egin daiteke. Harrigarria badirudi ere, Oñatin bertan Izagirreraren arabera abuztuko hilaren lehen hogetalau egunekin egiten zen, eta Gandiagaren arauera, lehen hamabiekin<sup>68</sup> «*Illegunak, igarteko egunak dira. Agostuaren lenengo amabi egunak izaten dira*». Izagirrek berak dioenez eztabaida harrigarri bat izaten zela dio: lehenengo eguna urtarrilaren lehenerako edo abuztuaren lehenerako balio duen<sup>69</sup>. Hilegunei buruz Gregorio Mujikak artzain-sinestea zela zioen eta zertxobait idatzi zuen artzainen testigantza zenbait jarriaz<sup>70</sup>.

### 13. Euskarazko lehen eguraldi-errefrauak

Euskaraz dokumentatzen ditugun lehen eguraldi-errefrauak *Refranes y Sentencias*, Garibairen bildumetan eta Isastirenetan agertzen dira. Bilduma hauetatik kanpora, Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* lanean harmarrietako esapide zaharrak, zein eskutitz eta era guztietako dokumentuetan agertzen diren esaera zaharrak ikus litezke. Badago, zorioenez, besterik ere. Gonzalo Correas-ek bere *Vocabulario de Refranes y Frases Proverbiales i otras Formulas komunes de lalengua castellana* bilduman, 1627 urtekoa guti goiti behiti, euskal errefrautxo bat agertzen

<sup>67</sup> LAFITTE, Pierre: «Eguberri-aroa Eskualdunen ohiduretan», in *Gure Herria*, 1969, 353-364 or.

<sup>68</sup> GANDIAGA, Bitoriano: «Arantzazuko folklore gaien biltzeaz», in *Euskera*, 1956, 206-231or.

<sup>69</sup> IZAGUIRRE, Cándido: «El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes», in *ASJU*, IV, 1970, 133 *Illégunak*: Los 24 primeros días de agosto; se comienza a contar desde el 1; pero se disputa si el 1 vale para enero o el mismo agosto; en esos días de agosto varía mucho el tiempo (CL., P. Urc.)

<sup>70</sup> MUJIKA, Gregorio: «Ill-egunak. Pronóstico de pastores», in *Euskalerrriaren Alde*, 1913, III, 77or., eta «ill-egunak. Pronóstico de pastores», in *Euskal Erria*, 1907, LVI, 12-13or.

du *San Simon y Juda, negua el duda. Negua el duda quiere decir en vascuence «el invierno es entrado. Eta ondoren honela jarraitzen du San Simón y Judas, mata los puercos y tapa las cubas eta San Simon y Judas, si no me guardas y no me ayudas, no tendrás de mi ayuda. Correesek 25.000 errefrau edo ahozko testigantzatatik hiru behintzat jarri zituen San Simon eta Judaren gainekoak eta bakartxo bat euskaraz. Errefrau honek gaur egunera arte iraun du. Azkue, Damaso Intzaren bildumetan agertzen da, eta baita hainbat gehiagotan ere. Garibairen bilduman agertzen da errefrau bera A 62, B 53-*San Simon eta Judaetan, onziak anko-raetan*. Arrantzale-errefraua dirudi Garibairen ale honek. Delako esaera zahar hau Gipuzkoa-Nafarroetan luzagarri batez esaten da *San Simon eta San Juda negua (h)eldu da eta artzain gaixoa mendian galdu da*.*

#### 14. Santuen forma zaharrak eguraldi-errefrauetan

Errefrauak santuaren izenaren forma zaharraren gordailu dira, baina ez nahitanahi ez. Adibideak metaka eman ditzakegu, eman dezagun seinalaragrietariko bat. Vicente-ren formarik zaharrenak euskaraz Bikendi, Bikenti<sup>71</sup> dira. San Bizenteren gaineko errefrauak Euskal Herri osoan ugarienetakoak dira, eta ugaritasun guzti horretan ez da forma zaharraren arrastokorik bat bera ere aurkitu. Badaiteke forma zaharretik hurbilen dagoena Azkuek bere herrian, Lekeitioan, bildu zuen aldaera dela, hau da, (San)*Bixenti* delakoa. Hamaseigarren mende honddarrean argitara zen RS bilduman berean dugu testigantzarik zaharrena: 318-*Done Viçen arguia guztioençat dacar oguia*. San Viçente reluziente para todos trae pan. Mende honetan bertan ere baditugu hainbat testigantza, iparraldean, dakigunez, *Bixintxo*<sup>72</sup> dugu Azk15-*Bi-*

<sup>71</sup> Hona hemen Mitxelenaren zehaztasunak: Bikendi, bikenti Vicente: top. Bikendi en Vizc (ermita de S. Vicente de Miqueldi), ap, Biquenti, Viquendi (casa solariega en Aizarna, Guip.) «doné Vikenti, qui veut dire Saint Vincent» Oih. Préface, cf. CSM 48 Tellu Vinçentize (Alava, año 952); top. Domitxenti en Garde, Roncal, a comparar con Gauzfredus capellanus Sancti Vincentii et clerici de Garde Pedro i 43 (concordia entre el abad de Leire y los vecinos de Garde, año 1098). En RS 318 Done Viçen arguia «San Viçente reluziente»; Gar dice

<sup>72</sup> Gehienetan Bixintxo agertzen da iparraldean *done* edo *san* aurrean gehienetan ez duela. Inoiz *Bixintxo saindua* agertzen da. Hitz honek baditu bustidura eta atzizki ttikigarria ere. Horrexegatik itzultzen du Barandiaranek «Vicentejo» erderara. «Notas para un estudio de la vida en Heleta», *Anuario de Eusko Folklore*, 1987, n.º 34, 77or. agertzen diren narrazioetan ere halaxe agertzen da «Bixintxo sainduak galde omentzien norbait aterbe puxiño bat bi teilakilan egiteko Etxohoineko larrean(...)»

Beste narrazio batean(...)»Gero Bixintxoren zanguak ur-errekaño batean sartu eta bera han utzi omentzuten».



*xintxoz hotz, neguaren bihotz; Bixintxoz bero, negua gero.* Azkuek, dirudienez, Fabre-ren bildumatik hartua duke, nahiz eta espresuki ez aitortu, zeren eta Fabre 5-*Bichinchoz hotz néguaren bihotz, bichinchoz béro negua guero.* Froid pour la Saint Vincent, coeurde l'hiver; chaud pour la Saint Vincent, l'hiver vient ensuite. Hegoaldean, ostera, San Bizente, mila aldiz dokumentatua da, eta nik neuk etxean bertan mila aldiz entzuna Azk68-*San Bizente otza, neguaren bi(h)otza.* Iparraldeko bildumetan ere agertzen da Vinsonek dakarrenez Vin214-*San Bizente otzakin ordago negua, aurtengoak bestela ausi du burua* «Sain Vincent avec les froids, c'est là l'hiver; celui de cette année autrement s'est brisé la tete».

Forma zaharrea bakarrik agertzen da San Jorge (Lat. nom. Georgius), Jurgi/-ki. Errefraurik zabalena bezain ezagunena dateke Azk 79-*San Jurki, artoak ereiteko goizeti; San Markos, artoak ereinda balegoz.* Errefrau honek artoa noiz erein behar den markatzen du bi dataren birtartez, ereiaroaren epea hobeki markatzeko. Hoskidetasunak bi egutegiko bi santuk markatzen dute, San Jurgik eta San Markosek. San Jurgi Apirilaren 23-a da eta San Markos Apirilaren 25-a da. Beraz badago hiru eguneko tartea artoa ereiteko. Ba ote dago zehaztasun handiagorik? Hoskidetasunaren aldetik *Jurgi/-ki goizeti* eta *goizegi* direlakoekin dator eta *Markos balegoz* adizkiarekin. Batek baino gehiagok esango luke *balegoz* Bizkaiko forma dela eta gainerako euskalkietan *baleude* dela *balegoz*-en ordain. Lapurdin bertan -de pluralgilea erabili beharrean (#dago+ -de>...>baleude), Bizkaiko erara egiten dute -z(i) plurala. Marcelino Soroak berak ere, gipuzkera zoragarrian idatzi arren, errefrau hau Bizkaiko erara dakar:*San Jorji, artuak eregiteko goizegi; San Markos, ereiñak balegoz*<sup>73</sup>. San Jurgiren antzera beste santu batek ere markatzen du ereiaroa Santa Engrazik: *Santa Engrazi artoak ereiteko goizegi.* San Jurgik eta Santa Engrazik hoskidetasun asonante bera dute eta egutegian ere oso hurbil daude elkarrengandik Santa Engrazi apirilaren 16-a baita.

Badira forma zaharra eta berria biak agertzen dituzten errefrauak. San Lorenzo-ren forma zaharra *Jaun Done Laurenti* edo *Jaun Santi Lau-*

<sup>73</sup> SOROA, M.: *Baratzan* Auspoa 31,75-76or.

—Bai jauna; artuak inguru abetan planta polita dakate. Jorratu egin bear. Artuak bere sasoyan jorratzen ez ditunak, lan txarra dauka, zergatik gero belarrak itotzen ditu, lurra zikintzen da, eta artua gelditzen da belarren azpiin, eta biar du dobe denbora.

—¿Ta zer garai da onena artuak ereiteko?

—Artuak ereiteko...esaera dan bezela: San Markos astia, atzia baño aurria obia; edo beste gisara: San Jorji, artuak eregiteko goizegi: San Markos, ereiñak balegoz.

—Eta egun bat besterik ez dago bitarte.

—Ez, jauna.

*renti* dugu (Lat. nom. Laurentius), eta, berria, bistakoa denez, San Loren(t)zo. Hamaseigarren mendean bertan dokumentatzen du Garibaik B-51 *Jaun done Laurenti, Escu bate-an euria, beste-an ilinti*<sup>74</sup>. Forma zaharretik ezer asko aldatu gabeko ale bat bildu zuen Azkuek Zaraitzun eta Erronkarin Azk 110-*Santo Laurendi, beroari ilindi*. San Lorenzo, tizón a la zarza (BN-salazar, R-bidangoz). *Santo Laurendi* delako hau gaizki transkribatuko zuen Azkuek Erronkarin -*nti* bukaera eskatzen baitu hango lege fonetikoak Mitxelenak ohartu zuenez. Eta Errefrau bera dakar Vinsonek D'Artayeten bildumatik 219-*Yondone Laurendi, esku batean uria, bertzean itchindi*. «Saint-Laurent, la pluie dans une main, le tison dans l'autre». Forma berridunak dira Vinsonen 218-*San Lorenzok badakar zerutik euria, lurrak emango dio ongi ethorria*. «Si saint Laurent (11 août) apporte du ciel la pluie, la terre lu donnera la bienvenue, eta Azkueren 80-*San Lorentzok esku batean sua ta bestean ura*. Errefrau bera txertaturik ikusten dugu zenbait kanta zaharretan ere esaterako «Ama Birjiña Erkudengoa» Aita Donostiak bildutakoan 1 *Ama Birjiña Erkudengoa, lelurretako xuria, / esku batian eguzkia ta / beste eskuan euria: lark guretako gorderik daukalkonbeni zaigun guztia*<sup>75</sup>.

Forma zahar eta berria hartzen du San Blas santuak. Forma zaharrean<sup>76</sup> *Jon done Baladi*. Kasurako hor dugu Azkueren Azk 45-*Jon done Baladi, gutaz urrikal adi*. Señor San Pelayo, compadécete de nosotros (S) batetik, eta, bestetik, sua itzaltzen zenean esan ohi zen formulari: *Jaun done Baladi/nik sua estali/ edozein gaixto jin baladi/bortan bedi arri*. Uste dugu Azkue handiak oker itzuli zuela *San Blas* itzuli beha-

<sup>74</sup> ZUBIAUR, J.R. eta ARZAMENDI, J.: «El léxico vasco de los refranes de Garibay», in *ASJU*, 1976, 55or.

A 6: «Porque las fiestas de San Lorenzo mediado Agosto suele hazer grandes calores y juntamente suelen sobrevenir muy de ordinario grandes rebatos de aguas en nuestra tierra, dicen en ella: *Jaun Santi Laurenti escuvatean euri vestean ilinti*. El señor Sant Lorenço en la vna mano el agua y en otra el tizón.»

B 51: «Porque el día de Sanct Lorenço, por la mayor parte, ó haze gran fuego, ó caen grandes aguas en aquella tierra, dicen: Señor Sanct Lorenço, Mano una en llubia, otra en tizón. *Jaun done Laurenti, Escu bate-an euria, beste-an ilinti*.»

<sup>75</sup> RIEZU, Gorge de : *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak* Archivo P. Donostia Lecaroz, 217or.


<sup>76</sup> Sua itzaltzean, lotarakoan amets onak izateko eta abarretarako egiten ziren otoitz ttipiak ikusi ditut, Aita Donosti, Barandiaran eta Satrustegiren lanetan eta ez dut forma zaharririk ikusi. Badira zenbait forma ulertzen zail *San Morelli, / suba euk omendi, / ez piztu ta ez itzali, / Jesukristo etxen hontan sar bedi*. Donosti 164or. Aita Donostik berak ez du itzultzen *San Morelli* delakoa.» Oraciones, practicas religiosas y medicinales populares» *Obra Completas V 137-172or.* eta SATRUSTEGI, J.M. «Luzaideko otoitz ttipiak», in *Egan*, 1-6 19-31or.

rrean *San Pelayo* itzuli baitzuen. Forma zaharrarekin batera agertzen da forma berria ere, hor dugu, Azkueren bidumako Azk 69-*San Blas ta Santa Agedako feriak, mutil-neskatxen ezaupideak* delakoa.

San Justo-ren forma zaharra *Yondone Justi* da eta Belaren erre-frauen artean agertzen da 35-*Jondone Justic hegalac busti*. Hoskidetasun bera aurkitzen da *San Agustin larrin busti* Aitzirik dakarrenez. San Emeterio euskaraz San Medar omen da Azkuek dakarren ale honen arauera: Azk 92-*San Medarrez uria? berrogei egunez uria*. ¿Lluvia por San Emeterio? En cuarente días lluvia. Barandiaranek ere errefrau bera bildu zuen Saran *Sen Medard uri, berrogei egunetan uri*. Itzulpena, os-tera, «Si llueve por Sen Medard..» San Severino, San Semeder omen da, herri-etimologia eta guzti Azkueren ale honetan, Azk100-*San Semeder egunean uria egiten baldin badu, kaskoiak guziak nigarrez egoten dire*. Si llueve el día de San Severino, todos los gascones suelen estar llorando (AN-bera).

Badira Santu izen zahar gehiago ere. Guk atal honetan interesgarrienak bildu uste ditugu. Lantxo honetako zenbait atal ahulxko gelditu dira, halabeharrez eta denbora eskasez. Hurrengo batean, egokierak hala agintzen badu, aztertuko ditut eguraldi-errefrauen alderdi gehiago.







# Alfonso Irigoienek ekarriaz mahaingurua<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *ENSEIUKARREAN* aldizkariaren 12garren zenbakia aurkeztuaz batera mahaingurua egin zen Alfonso Irigoienek oroimenez eta haren ekarriari buruz 1997ko apirilaren 23an.





## Alfonso Irigoienen ekarria

Juan Manuel Etxebarria

Ongi etorri mahaingurukide, Deustu zein haragoko ikasle-irakasle, gainetiko guztioi eta batez ere Alfonso Irigoienen emazte Libe eta seme Enekeri gure entzule izateagatik.

Alfonso Irigoienen ekarria arakatzeko asmoz eratu da gaurko mahainguru hau Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologia Sailean, jakinik, gure artetik joan berri dugun Alfonso Irigoien bera izan genuela Euskal Filologia Sail honetako zutaberik garrantzitsuenetarikoa.

Ekarria ugaria, zabala, zehatza, landua eta sakona denean, ez da erraza honelako ekintza labur baten osotasunean adieraztea, baina, besteak beste eta aurrezdik jakinik mahainguru honen mugak, ahalegin bat egin nahi genuke Alfonso Irigoienen ekarri multidisziplinarrera hurbiltzeko.

Horretarako lau aditu elkartu ditugu. Hiru Deustuko bertoko irakasleak eta bat Gazteizkoa, garai baten Deustukoa izandakoa. Rikardo Zierbide dugu berau eta beronekin egin zituen Alfonso Irigoienek hainbat haronako Europatik zehar eta hortik Alfonsori berari sarri entzuna: «nire euskal irakatsiak internazionalak dira».

Gaurko emanaldiari hasiera emateko hona hemen mahaikide baikoitzak jorratuko duen ikuspuntuaren berri:

- Rikardo Zierbide jaunak Onomastika arloari ekingo dio.
- Adolfo Arejita jauna hizkuntzalaritzaz arduratuko da.
- Rosa Miren Pagolak dialektologia jorratuko du.
- Jabier Kalzakorta jauna literatura munduan sartuko zaigu.

Besterik gabe eta mahainguru hau Alfonso Irigoienen ekarri aberastera hurbiltze-lagun izan dezazuen, hitza ematen diet neure mahaikideei.



# Alfonso Irigoien eta Euskal eta Pirineo inguruko Toponomastika

Rikardo Zierbide

Alfonso Irigoienen lanak, Koldo Mitxelena (Cf. *Apellidos vascos*, «Notas lingüísticas a la *Colección diplomática de Irache*» FLV, Y, 1969, 1-59 orr., e.a.), Julio Caro Barojak (*Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Donostia, 1945), etabarrek buruturikoekin batera, interpretazio filologikoaren alorrean daude. Bere ekarpenak kualifikatuak dira, beti ere fidagarri diren autoreek esandakoen errepikapen hutsera mugatu gabe, argitaratutako goi eta behe Erdi Aroko ondareen miaketan eta iturri greko-latinoetan oinarrituz lehen eskuko dokumentazioa eskaintzen digula kontutan izanik.

Azalpenak beren testuinguru lexikalarekin lotuaz, lexiko historikoa eta Pirineo inguruko toponomastika oinarri harturik *Pertsona-izenak euskaraz nola eman* (Deustuko Unibertsitatea, 1994) obra hezurramitu zuen. Nabarmentzekoa da bereziki Leire eta Iratxeko monastegietan zein xiv eta xv. mendeetako Nafarroako populazio zentsuetatik, Jerusalemgo San Juan Ordenako Nafarroako Prioretxe Handiko dokumentaziotik (xii eta xiii mendeak) edo eta *Censos de Olite (1244-1266)* direlakoetatik, *Libro del Concejo de Olite (1237-1523)* etabarretik jasotako Ertaroko nafar ondareetatiko berba onomastikoen aipamen zorrotza.

*Acta nominum christianorum*, op. Cit., 23-130.or.-eko bere *Lehenengo zerrenda*, ezinbesteko ekarpena da zozokeriak husten jarraitu nahi ez duen filologoarentzat.

Honen harian, ez zaio umorerik falta -a —gizonezkoentzat— eta -e —emakumezkoentzat— bokalen inguruan okerreko ustez Pedro Pablo Astarloari egotzitako errezerkiak komentatzerakoan esaten duenari, cf «En torno a las vocales -a, propia de varón, y -e, propia de hembra», *Euskera*, XXII, 1977, 561-623 or. Okerreko ustez diot, Astarloak Ervás y Pandurorengandik jaso baitzuen.

Azpimarratu nahi dut hemendik aurrera Ertarorako nahitaezkoa den dokumentazio ugari eskuratzen hasiak garela Nafarroaren kasuan, eta neurri apalagoan baita Arabarako ere (cf. Emiliana Ramos andrea-ren doktore tesia, *Apeo de Vitoria y de su jurisdicción (1481-1486): Transcripción y estudio lingüístico*).

Halaber, nabarmendu nahi dut 1987an elkarrekin hasi eta bere he-riotzera arte luzatuko den 200.000 erregistratutako gorako Euskal Herriko iturri onomastikoen husturan eginiko lana, bereziki emankorra Nafarroari (Goi Nafarroa eta Ultraportuetakoa), Zuberoari, Arabari, Gipuzkoari eta Bizkaiari dagokienez. Azken hauen artean Araban (xvi-xix mendeak), Bizkaiari (xviii mendea. *Foguera* edo sutegiak) eta Gipuzkoan (baserriak) burututako inbentarioa gailentzen da.

Nafarroarako 1605-1606eko Populazio zentsuak, Iruñeako populazioa eta Gamazadako liburua zerrendatu gabe daude. Gipuzkoa eta Bizkaiari dagokienez beharrezkoa da Euskadiko iturri dokumentalen (Ediciones de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos) eta beste-lako agiri solte ugariren hustura egitea.

Alfonso Irigoienek, PatRom Proiekturako idatzitako artikulua bikaintan, gaur egun Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan zentsatutako-koen zerrenda ere erabili zuen.

Itzul gaitezen *Bigarren Zerrenda, Altera Acta nominum Christianorum et nominum originis mythicae, op. Cit.*, 131-278 orrialdeetan argitara ateratako bere ekarpenen azterketara. Izan ere, bere iruzkinen artean jatorri hebraitar biblikoko onomastikoen gainekoak, jatorri latinoa, germanikoa edo eta euskal-pirenaikoa dutenei buruzkoak... bereizi beharra dago. Izen hebraikoei dagokienez, gure omenduak nafar aljametako ertaroko onomastiko hebraitarren zerrendarik ez zuelakoan nago, ezta kopuruz gutxi ziren Arabako aljametakorik, ez eta Balmasedako aljamakorik ere. Hau dela eta, *Abel, Abraham, Adam*, e.a. gisako izenei buruzko bere iruzkinak, dokumentazioari dagokionez, hobe daitezke. *Adrián, Didaco, Aemilio, Felix, Vital, Amigo, Amoros, Asensio, Auria, Bello, Bono, Calvo*, e.a. bezalako latinetikoko edo erromantzeaturiko izenen inguruko bere ekarpenak, eta are gehiago euskal-pirenaiko dei genitzakeen onomastikoei buruzkoak, hala nola *Aita, Anaya, andere* edo *Andreona, Andregoto, Andregaila*, e.a. gisako aldaki edo konposatuak, *Apex, Arceiz, Abarca, Anso, Aznar, Belasco, Ene, Eneco* eta honen aldakiak, *beltza, Gastea*, e.a., onak dira besterik gabe, oso onak akaso.

Jatorri germanikotik datozenen alorrean, *Alaman, Arnalt, Elvira, Aymar, Gonzalo* e.a. esaterako, edo *Angles* bezalako gentilizioak, gogoan izanik bere zorrotasun intelektuala, ez da dudarik bai iruzkin filologi-koetan bai dokumentazio bilketan aurrera egingo zuela.

Zenbait ikerketa zehatz aztertzeraz igaro aurretik, hala nola *Eneco* eta *Garcea-Gastea* eta euskal eta Pirineo inguruko toponimiari buruzko bere estudio bikainak, zerbait gaineratu nahi dut. Lema tipoei eginiko komentarioetan azaltzen dituen eduki toponomastiko eta lexikoko ekarpenez ari naiz. Ez zen prozesu linguistiko esperimentalak azaltzearekin konformatzen, v.gr. *Eneco*-n, *Ene*, *lñigo*, e.a.-en derib., beren eratorriak ere izendatzen zituen, *Enecot*, *Enecote*, *Enequy*, *Eynego*, *Yenega*, e.a. eta baita beren patronimikoak, *Enecoiz* kasurako, beren lekukotasun toponimikoekin batera. Alderdi honetatik eredu dira *Eneco*-ri —semearen omenez— eta *Gasteiz*-i («Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico», *Vitoria en la Edad Media, Actas del Primer Congreso de Estudios Históricos*, Vitoria-Gasteiz, 1982) buruzko monografiak.

Era berean, guzti honi euskal hitzen inguruan ari delarik hauek erromantzez dituzten paralelismoak seinalatuz burututako bere ekarpen kualifikatuak gaineratu behar zaizkio. Hauxe dugu, esate beterako, *Erb*-en kasua, cf. *Op.cit.*, 211 eta hurr. Orr., non Juan Carrascoren obra den *nomina* eta *cognomina* harrobi aberatsetik eta xiv eta xv. mendeetako Nafarroako sutegi edo fogeraioetatik jasotako dokumentazio ugariarekin batera, beste zenbait autorerena, hala nola F. Salaverrirena, e.a., Bizkaiko oikonimoen lekukotasun oparoak eta hauei erromantzez dagozkienak ere, *angosto*, *congosto*, e.a. aipatzen dituen.

Halaber, Alfonso Irigoienen obran aipagarriak dira hainbat euskal hitz toponomastikoren jatorri latinoari buruzko ikerketa zuzenak eta berauen dokumentazioa Euskal Herriaren luze zabalean. Adibide mordoa seinala liteke, *Estibaliz* eta bere aldakiak kasurako, lat. *Aestibaliz*-etik datozenak, edo *fortis*-etik datorren *Orti-Urti*, *Urtuño*<*Fortunius*, eta *Urturi* bezalako konposatuak.

Jatorri prenominal edo toponimikoko onomastikari egindako ekarpen mamitsu honen barruan, jatorri ezberdineko *nomina* eta *cognomina*-tik jasotakoa nabarmentzen da, hala nola *Galochas*, *Galopin*, *Galvarra*, *Gayllart*, *Gayzco*, *Gento*, *Gil*, *Gomença*, *Gurea*, *Jurdan*, *Laent*, e.a.

Azkenik, aipatutako obraren azaleko miaketa honen barruan aipatzekoa da bere *Laugarren zerrenda*, 267-282. Orr., non *Aita*, *Alegre*, *Almoravit*, *Amuna*, *Andre*, *Brunisent*, *Chufat*, *Emazteona*, *Giralt*, e.a. bezalako *nomina*-k aztertzen dituen.

Uste dut aintzat hartzekoa dela zerrenda hauetan Alfonso Irigoienek bestelako lekukotasun batzuk eskaintzen dizkigula, haugariko asko lehen eskukoak, argitaraturiko xii-xv.mendeetako Nafarroako iturrietatik jasoak, hala nola Leyre, Iratxe, Jerusalemgo San Juan-go kartularioak, edo Artajona, Iruñea, e.a.-eko dokumentuak, non etorkizuneko

ikertzaileek printzipioz seguruak izango diren lekukotasunak aurkituko dituzten.

Bere bigarren obrari buruz, *Bibliako eta Grezia zaharreko pertsona izenak*, autoreak bere kasa argitaratu zuena, Bilbao, 1996, zera baino ez dut esango, ez dela, nire ustez PatRom-i egindako bere ekarpenetan eskaintzen diguna bezalako estudio filologiko huts-hutsa, ezpada ordenagailu teknika bidezko populazio izendegi modernoan miaketa lanari esker maiztasuna eta portzentaiak gehituz, gerkera eta latinaren bidez iritsi zaizkigun eta, gure kasuan, euskal eta nafar komunitateetan iraun izan duten izen hebraitarren aipamena.

Falta dena, eta ez da Alfonsoren errua, Erdi Aroko Nafarroa, Araba eta Bizkaiko (Balmaseda) aljametako izen edo nomina hebraitarren egiaztapena da, nik neuk eskuartean darabildan lana alegia, eta 1996an Aberdeen-go *Nazioarteko Zientzia Onomastikoei buruzko XIX. Biltzarrean* agertu nuena.

Bere doktore tesiaren defentsa baino lehen, neronek zuzentzeko ohorea izan nuena, bere ekarpenen kalitatea berari bakarrik badagokio ere, eta hogeitaz urte luze baino gehiagotan zehar, Alfonsok txapela kentzeko moduko zorrotasuna erakutsi zuen bai grekolatinitatetik, bai Erdi Aroko iturri historikoetatik eta baita gaur egungo kontsignaziotik jasotako lekukotasun historikoen hautapenean, gerkera eta latinaren, erromantzeen eta euskal fonetika historikoari buruzko bere ezagutza sakonean oinarrituz, beren aldakiak garatu zituelarik.

Azken bi hamarkada hauetan zehar maiz berba onomastikoen gaineko hainbat zalantza eta komentariori buruz berarekin pertsonalki jarduteko ohorea izan dut, bai ahoz, telefonoz zein idatziz, eta gai honen inguruko bere ekarpenak aintzat hartzeko modukoak direla baieztatu dezakidalakoan nago.

Bigarren parte honetan omenduak bere *De Re Philologica Linguae Vasconicae*-eko II.etik V.era arteko aleetan (1987-1995) argitaratutako onomastika lanei buruzko zenbait ohar egingo ditut. Aipatutako lehen aleari dagokionez, berak lat. *Ligoarius*-etik, cf. *Saint Lizier* Cousserans-en, Salat-eko erriberan edo Landetako *La Grande et la Petit Vallée de Leyre*, erartzen duen *Lehioar* toponomastiko zaharrari eta honen aldakiei zein lat. *Vermiculus*-etik datorren *Bermeo*-ri egindako ohar bikainak nabarmendu nahiko nituzke.

Era berean, II.aleko 193. eta hurr.orr., «-ain, -ein, zub.-añe bukaerako zenbait toponimoren patronimikoen jatorriaz» («Sobre el origen de los patronímicos de ciertos topónimos terminados en -ain, -ein, sul. -añe») jarduten du, non latinaren pertsona izeneztapen sistema gogorarazi ondoren, Goi Erdi Aroko dokumentazio tinko batean oinarrituz Alfonsok -onis genitibo barbarotiko hainbat eratorpenen sintesia egiten

duen. Inongo zalantzarik gabe, *-iz*, *-ez*, *-oiz*, e.a. bukaerako patronimiko askoren jatorriaren gainean momentura arte ondoen egindako sintesia dugu.

Aipatutako alean II. alea argitaratu aurreko toponomastikari buruzko hainbat lanen zerrenda bat aurki daiteke, 15 guztira, oker ez bago. Horien artean, nire iritziari jarraituz, *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico* monografia, Bilbao, 1981, 82 orr. nabarmendu nahiko nuke. Lan exhaustiboa dugu, zeharo zaila dena gainditzea eta autoreak 1981eko irailaren 21-etik 26-ra bitartean Gasteizen ospatu zen *Ikasketa Historikoen I Biltzarrean (I Congreso de Estudios Históricos)* aurkeztutako komunikazioan erabili zuena.

Aipagarria da halaber, hein batean Andrés de Mañaricúa historiagi-leak eskainitako datuetan oinarritzen den *Las lenguas de los vizcaínos: Antroponimia y toponimia medievales* izenburua daramana, Bilbao, 1985, 145 orr.

Harritzekoa da, penagarria den neurrian, beren burua Bizkaiko toponimia historikoan aditutzat duten zenbait pertsonen ikerketa honen ekarpen zorrotzak ezagutu ez izana eta ez ezagutzea. Nik, argi eta garbi, gaia ikutu aurretik Alfonso irigoienek honezaz idatzitakoa arretaz irakurtzea gomendatuko nieke, horrela alperrikako ahalegin franko ekingo baitute.

Era berean *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao, 1986, 307 orr. laneko ekarpenak ere azpimarratzekoak direla uste dut, neronek urte berean Donostian antolatu nituen Udako V Ikastaroetan berriz ikutu zuen gaia alegia, eta 1996an Aberdeen-en (Eskozia) *Nazioarteko Zientzia Onomastikoei buruzko XIX. Biltzarrean* egindako komunikazioan atzera ere jorratu zuena.

Beste lan batzuk, hala nola «En torno al topónimo *Fila Ruuia*», «Formas de nombres de las localidades vizcaínas», «Sobre el origen del topónimo *Tudela*», «Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca», «Palabras y topónimos vascos en Briones», e.a., argi erakusten dute 1972an hasitako ibilbide zientifikoan agertu zuen gaitasuna.

III.alean ni neu kolaboratzaile izandako ohorea dudan onomastikazko hiru estudio ditugu. Euskal lurralde eremuari dagozkion PatRom Proiekturako onomastikazko hiru estudio errejionalen gainekoak dira: *Juvenis*, *Furnarius* y *Pons*, cf. Op.cit., 155-160 orr.

Bereziki interesgarria da Lizarra inguruko hizkeren, toponimiaren eta onomastikaren ezagutzari Alfonsok egindako ekarpena («Las hablas, toponimia y onomástica de Tierra Estella», III.alea, 163-192.orrr.) eta toponimiako *-di<-dui<-doi* atzizkiaz idatzitakoa, cf. Op.cit., 31-81 orr., beti ere *Durango*, *Los Arcos*, *Aiesa* eta *Bilbao*-ri dedikatutako

artikuluak alde batera utzi gabe, cf. Op. Cit., 137-142, 143-154, 161-2, 297-304.orr.

IV. alean, Bilbao 1992, urte horretan Donostian Koldo Mitxelena zena inguruan egin zen mahainguruko bere interbentzioa argitaratu zuen. Iratxe, Iranzu eta Nafarroako San Juan de Jerusalem prioretzeko ondareetatik jaso Erdi Aroko Nafarroako dokumentazioaren inguruan Koldo Mitxelenak egindako estudioen, eta batez ere, *Apellidos Vascos* obraren garrantzia azpimarratu ondoren, Alfonso, amateurismoa eta fantasiazko etimologiak alde batera utzirik, euskal toponomastika filologo historizista gisa lantzearen erabat alde azaltzen da.

Aipatu obran, 115-131.orr., *Las fogueraciones vizcainas del año 1704 y siguientes* izenburuaz, 1991ko Maiatzean Lisboan ospatu zen PatRom proiektuaren Nazioarteko V Jardunaldi eginiko aportazioa argitaratu zuen. Gure omendua Gernikako Juntetxean eta Bizkaiko Foru Aldundian gordetako dokumentazioaz baliatu zen. Beranduago, ordenagailuz zehatz-mehatz traskribaturik, material hauek erabili zituen PatRom-erako artikuluak komentatzeko. Jarraian, Alfonsok moeta honetako gaien azterketari ematen zion garrantziaz jabetu arazten gaituzten bederatziti artikulu gehiago aurki ditzakegu, 133-230.orr.

Azkenik, bere V. Alean, Bilbao 1996, toponomastikari buruzko hamalau lan gehiago argitaratu zituen, hauen artean, bere kalitateagatik, PatRom proiekturako idatzitako *Formación de hipocorísticos en la onomástica medieval del área vasconica* gailentzen delarik. Cf. Op. Cit., 1-26.orr.

Prestakuntza paleografikorik ez zuenez, Alfonso Irigoien bere estudioetarako garantiako edizio kritikoez baliatu zen. Sarritan niregana jotzen zuen dokumentu orijinalen kopietan aurkitzen zituen hitz toponomastikoen irakurketa kontsultatzeko, arrisku gabeko apustua egin asmoz. Alde honetatik bere lan ugarietan aipatzen dituen lekukotasunak garantia osokoak direla baieztatu daiteke. Bistanenez ez zuen dokumentazio guztia eskuratzetik izan, gerora datu berriak ezagutzera eman baitira.

Era berean *Estratificaciones toponímicas de tipo vasco en La Vallée d'Ossau*, op. Cit., 27-43.orr. estudioa nabarmentzen da, eta baita beste batzuk ere, hala nola *El nombre de persona medieval Herremelli/Ferramelli, Toponomástica y antroponimia del dominio lingüístico vasconico*, azken hau 1993an Trier-en (Alemania) ospatutako Zientzia Onomastikoei buruzko Nazioarteko XVIII Biltzarrean aurkeztua. Halaber, *Armentarius* eta *Asinari* artikuluak, 1993an Neufchâtel-go (Suitza) Unibertsitatean ospatutako Nazioarteko VII PatRom Jardunaldietan idazten dudan honekin batera aurkeztuak, eta *Iruña-Pamplona, Eibar, Biarritz, Orereta, Burgo*, e.a.-i buruzko beste zenbait gehiago.



Orohar, azaldutakoaren ostean eta ondorio gisa, Alfonso Irigoienek toponomastikaren alorrean —batez ere Euskal Herrikoa eta Euskal Herri ingurukoa— egindako lanari dagokionez, bere osotasunean hartuta tinkotasun handikoa dela eta goraiatzeko moduko zintzotasun zientifikoa dariola esan nahiko nuke.

Bere lanetan zehar, utzidazue 25 urte baino gehiagoko harremanaren ostean omenduari beti izan diodan afektu eta estimuaz esaten, Euskal Herriarenganako zuen maitasun sakona, are gehiago esango nuke, grina garbi eta egiazkoa ikus daiteke. Benetako bitxigile lana den mendeetan zehar lurralde hauen luze zabalean izan diren pertsona zein toki izen zaharren azterketa zehatzari eskainitako ehundaka orrialde horiek, bere herriarengatik sentitzen zuenaren erakusgarri den pazientziaz eta lan handiz —nekeza batzutan baina beti ere emankorra— landutako poema eder bat osatzen dute.

Elikagai osasungarria, lan mardula, pertsona eta toki izenen bidezidord makurretan barrena batzutan pausu seguruz, bestetan tentuz jarraitu ahal izateko bide aldez urratua utzi digu eta beharbada horretan datza harekin harremanetan izan ginenon eta haren lanak irakurtzen ditugunon Alfonsorenganako eskerrona.

Eta proposamen gisa, lagun eta lankide baten lanaren zati bat erakusteko atsegin handiz parte hartu dudana mahainguru honetan aditzera eman nahi dut euskal toponomastika zaleentzat oso mesedegarria izango litzatekeela Deustuko Unibertsitateak Bizkaiko Jaurerriko Hezkuntza Sailaren laguntzaz obra hau guztia ale bat edo bitan biltzea. Alfonsok merezi du. Eskerrik asko.



# Alfonso Irigoienen Linguistika ekarriaz

Adolfo Arejita

Zail egiten zait Alfonso Irigoien luzaroan irakasle-lagun eta maisu izan dudana berba egitea, hari buruzko edozein alderdi dela ere, beraren giza nortasunaren aipurik egin barik. Urte luzeetan irakasgela beraren eta azken urteotan aldamenean egonak, eta denbora luze guzti horretan haren langintzaren eta kezken berri zuzen eta jarraikoa izanak ezinbestean lokarri hestuak sortu ditu gure artean, giza mailakoak barne direla.

Esan dezadan hasteko, Irigoien irakaslea joan doan belaunaldi baten lekuko modura ikusten dudala gauza askotan. Harako belaunaldi zaharreko maisuen estiloa jagon duela, bai jakitearen transmisioan, bai bere giza nortasunean, nik lehenago Manuel Lekuona bezalako gizonetan ikusi izan dudanaren antzekoa. Etika handiko gizona, barruz garbi eta argia, arazoei aurrez begiratzen ziena. Belaunaldi zaharrekoen antza aurkitzen diot, jakitea transmititzeko zeukan estiloan ere. Ezagutzen dudanetik gehiago ikusi dut, edozein bere bilera, batzar, ospakizun edo lagunartean zela, egina zuen azkenengo idazlan edo liburua banatzen: Euskaltzaindiko akademikoen artean, Unibertsitateko irakasle-lagunen artean edo bestetariakoetan. Egiten zuen ikerketa edo artikulu bakoitzaren kopiak ateratzen zituen —hemen Deustun nork ikusi ez du fotokopia-gelan edozenbat ale atera eta bere sakeletik ordaintzen— eta lagun eta ezagun hurrekoen artean banandu. Idatziok ez ziren sarritan azken emaitza, behin behineko idazketak baino. Euskaltzaindiko idazkaritzan aurkeztu eta zigilua emango zion lehenengo beharbada, hurrengo bileran tratatua izan zedin, edo jardunaldiren batzutan edo kongresoren baten aurkeztua zatekeen agian, edo bere buruz idatzia beste barik. Handik egun batzutara edo astebetara beharbada —ez zuen bakerik izango, harik-eta azterlan horri akabua eman arte— bigarren idazketaren, oraingoan behin betikoaren, kopia emango zizun, eta aurrekoa desegiteko esan. Ikerlan horren zergatia azalduko zizun bide batez, eta sarritan Euskal Akademian izandako eztabaida edo auziren bat egongo

zen oinarrian. Agian, norbaitegaz edo batzuekin hizkuntza-eritzietan izaniko gorabeherak direla-ta sututa eta haserre agertuko zen. Ia beti arrazoi osoz, zeren defenditzen zituen ikuspuntuak sakon ausnartuak eta sustraiz atereak zituen ia beti. Eta berbak haizeak eroaten dituela-ta, idazteari ekingo zion, eta beharbada lan monografiko osoa eskainiko zion harako azter edo auzigaiari. Berak eskuratzen zizun idazlana irakurri ondoren, punturen batez edo bestez argibidea eskatuko zizun eta pozik eman behar ziren zertzeladak. Punturen baten norberak zerbait gehitu edo zehaztu ezker ere, ontzat hartzen zuen esanikoa. Alfonso eskuartean zerabilen lanak bizi zuen: adimenean eta konputagailuan eihoten zuen ikerketa hori zen beraren bizigarria. Eta hori zen, maisu handien antzera, bere ikasleei irakatsi eta transmititzen ziena ere. Halan dela ze, ikasle eta irakasle-lagun, guztiok geunden Alfonsoren kezka eta auzi akademikoen jakitun.

Holakoa izan da etxe honetan nik eta beste askok Alfonsogaz euki dugun jakintza-harremana, aldi berean giza harreman estua izan dena. Atsedendialdiak, eskola-bitarteak izango ziren abagadune erazkoa beragaz berbetako. Unibersitateko irakasgelak, kafetegia, eskailarak, beheko larrain inguruko igarobideak, igogailua, goiko osteko aparkalekurako oinezko bidea, Indautxurako bidea autoz., era adiutua zen auzion gainean jarduteko. Ezen ezin uka genezake, Alfonso berbarduna izan dela, lagunekin berba egin zalea, hizkuntza, onomastika zein beste jakintza arloko arazo eta kezka kontatu zalea, eta atsegina zen berari entzutea, beragaz autuan, solasean jardutea, baldin interesaturik ba-zeunden gai horretan.

Jakintza mailan gutxi lagunt diezaiokeen nik, agian nongo edo hango lekukotasun batzuk emanaz edo gramatika-punturen baten neure eritzia agertuz. Baina bada puntu bat, nik esandakoari jaramon egin diona. Sarri esaten nion: «Zuk idatziz ipin itzazu zeure usteak, gogoetak eta ikerkuntzak. Egingo dizute kasu edo ez, emango dizute arrazoi edo ez, baina idatzia han gelditzen da, iraun egiten du. Oraingo zein geroko belaunaldiak jakin behar dute euskararen inguruko gorabehera guztien berri.»

Horrela bada, ikerkuntzak ezeze, mundu akademikoan izan dituen tentsio eta tirabira akademiko nagusiak ere idatziz ipini ditu: ugariak dira bada, gutun, erantzun edo ohar gisa, honako edo harako puntuan azaldutako eritziak. Izan ere, Alfonso zehaztasun eta diziplina handiko gizona izan da. Zehatz azaldurik eta dataturik utzi digu, noiz, non, nori eta zergatik zuzendu dion harako gutuna, epistola, erantzuna edo azterketa. Eta berak sarri aitortzen zidan azken aldiotan: «Urlia horrek ez bide daki, nik berari idatziz erantzuten diodanean, gerorako idazten ari naizela, historiarako ondarea uzten.» Ondo zekien, edozein ere gai edo

puntutan eduki zezakeen eztabaidan, berbazko tirabira sutsuek baino gehiago balio zutela, ondoren idatziz onduko zituen gogoetak. Eta dinamika horren barruan eihotu gure omenduak lan asko eta asko. Euskaltzaindiko batzarretan —euskaltzain osoenenean zein gramatika edo onomastika batzordeetan— euskararen batasunari begira mahairatutako gaien inguruan. Interakzio egon ez balitz, ez zitukeen egingo lanetariko asko, batez ere azken urteotan.

Eztabaida puntuok berdin ziratekeen grafia arlokoak, morfologia-koak, sintaxikoak zein lexikokoak. Adibide bat edo beste emateko: hitz mailegatu arrunten amaierako *-o/-u* bokalen arteko aukera, *j* grafiaren problematika egungo euskarari, Hitz hasierako *la-*, *le-*, *lu-* bi silabakoak nola eman euskal toponimian, *Ez ukatzailea*, *Bailitzan*, *bailirean* erako adizkiak tradizioaren araura, *baten / batean / batetan* izen sintagma mugagabeak, *araura / arauera* formez, *(-)erazi / (-)erazo / eragin* faktitiboak, *eritzi* aditza, *etorriko zen* eta *etorriko zatekeen* tipoko perifrasiak bereizi beharra, *ene / nire / nere / neure* edutezkoak, *isla / irla* eta *ugarte* hitzak, *Ozeano Atlantikoa* eta ez *Atlantiar Ozeanoa*, kultura-hitzak euskaraz nola eman, eta beste asko.

Irigoieneren emaitza osoari begiratua eginez, landu dituen arlo nagusiak hauek izan direla esan daiteke: euskal gramatika, eta bereziki gr. historikoa; onomastika, toponimia zein antroponimiari zegokion guztian, batez ere agiri zaharretako lekukotasunetik abiatzen zela; eta ezin ahanztu dezakegu literatura-sorkuntza, dela prosa poetikoa dela poesia dela autobiografia.

Irigoieneren arduratan zegoen azken aldian, berak eginiko lanaren transmisioaz. Egia da *De re philologica* horietan bildurik zuela artikulatu txikien arlorik handiena, baina lehen alea faksimilezko bilduma besterik ez zen, eta hango lanetariko batzuk ez ziren berak nahiko zukeen zehaztasunaz argitaratu izan. Lanetariko batzutan grafia eta morfologia ere aldatu izan zioten. Arazoa ez zen, beraz, lanak biltzea bakarrik, ezpada berak idatzi izan zuen bezala ateratzea; berak zerabiltzan grafia eta morfologia-formak zainduaz, eta ez batzutan egin zioten bezala, normaren edo arauaren izenean aldatuz argitaratu orduan.

Une batez proposatu nion gramatika arlo lan hautatuen bilduma txukun bat argitaratu behar genukeela, agian herri erakundeen babesaz, horretara bere ikerketa-ekarria nabarmenago gera zedin eta batzuk onartu nahi ez zioten maisutasuna bere lekuan jartzeko. Irigoienek ondo ikusten zuen hori, baina lan osoen lehen ale bezala. Ez zuen gehiegi atzeratu nahi lan osoen argitarakuntza; horretarako unea heldua zela uste zuen. Azkenekuntz biziagotu egin zitzaion kezka hori, eta horren ardura nik har nezan nahi zuen, lan handiegia ez zela izango eta. Jakina, idatzitakoaren zati handi bat, berariaz azken denborakoa

—*Macintosh* zorionekoak gure eskuetara etorri zirenezkerokoa— konputagailuan sarturik zuen, eta arteragokoaren zati bat ere idazkari bategen informatizatu zion, bere sakeletik ordainduaz. Nik, oraindino produzitzen ekin behar ziola erantzuten nion, bere bizitzako unerik emankorrenean oraintxe zegoela, eta beharbada Bizkaiko Aldundiak -edo eskaini lekiokkeen omenaldi nagusiren bat izan zitekeela abagadune ona lan osoen edizioa egiteko. Azkenean, tamalez, ez diogu Irigoien irakasleari eman, bere idazlan guztiak batera argitaraturik ikusteko poza, baina dena dela, galdu ere ez, aurrerago egingo den esperantza.

## Hizkuntzalaritzara ekarria

Irigoien hizkuntza-ikerketan, bera kide izan duen Euskaltzaindiaren ibilari loturik doa gehienbat, hasierako lanetarik eta heriotzeraino-koetara. Ezin esan daiteke gauza bera onomastikako lanakatik; beste erakunde batzuk eraturiko kongreso, jardunaldi eta bileretarako idatziak dira hauetariko asko.

56gn. urtean hasiko da Irigoien gaztea Azkueren inguruan eta haren biblioteka eta arkibuak oinarri dituela lehen azterketak egiten. Batean haren hiztegiari gehiketak egiten, bestean Mariano Mendigatzak euskaltzainburuari bialduriko gutunak, Azkueren beraren gutunak edota Intxauspek Bonaparte printzeari bidalitakoak argitaratzen *Euskera* aldizkarian. Euskal Akademiaren berbideratzean bete-betean sartuko da, honen egitasmoetan parte zuzena hartzen duela. Hala, euskal testuen edizioen atonketan ere abiatuko da; adibidez, Lardizabalen *Testamentu berriko kondaira*, edo Tristan de Huandurraga-ren sermoi eskuidatziak.

Gramatika gaietarako zaletasuna hasieratik bertatik erakutsi zuen Irigoien-ek, eta gai maiteenetariko bat euskal aditzaren nondik norakoa zuela ere bai. Horretarako, aurretiaz, beste batzuk idatziak ere ondo gogoetatuak zituen. Berariaz, hurreko zituen Azkue, Altube eta Mitxelena-renak. Ikerketan murgildu-ahala, urrunagoko zituen Schuchardt, Lafon eta beste askoren ekarriekin aberastuko zituenak. Edozela ere, goizetikoa dugu *Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario* (1958) lana. Azkuek *Morfología*-n erakutsitakotik aldendu eta Altubek bere *Observaciones* delakoan Bizkaiko aditzaz diotenaren alde azalduko da, lehentxoago Mitxelena agertu zen bezala, baina garai hartan bizkaiera idazten zuten gehienek joeraren kontra. Eta bizkaieraren aditz sistema zaharra aztertzeke, gerora ere egin izan duen modura, buru-belarri murgilduko da tradizio zaharreko euskal testuetan,

eta *status quæstionis* zein den azaldu ondoren, proposamenak egingo ditu eredu literarioari begira. Ordukerik erakutsiko du *Refranes y Sentencias*, Mikoleta, Kapanaga edota Bizkaiko klasikoak —Mogeldarrak, Astarloa, e.a.— azterkatuak zituela. Gerorago, ekialdeko tradizioari jarriko dio arreta, eta begi zorrotzez arakatuko ditu hango autore zaharrik: Leizarragaren Testamendu berria, Oihenarten atsotiz, neurtitz eta historia-lanak, Etxepareren poesia, Belapeyreren katexima, Maister-en Imitazionia, Axularren Gero, Etcheberry biak eta beste. Gipuzkerazko tradizioa ere hurretik segituko du, gramatikan Larramendi eta Lardizabalaren lanetan erreparatuz, eta testuetan, Otxoa de Arin bezalakoetan. Nafar tradizioan, Lizarraga Elkanokoa du aipatuenetarikoa.

Edozela ere ezinbestekoa da Erdi Haroko dokumentazio zaharrean bilatzen dituen euskara-arrastoak aipatzea. Horretan Mitxelena ere ibilia zen, baina Irigoien corpus zabalagoan murgildurik ibili zen, Done Miliaga Kukullako eta Nafarroako kartulario eta agiri zaharretan euskararen aztarrenen bila: hala frogatu zuen hainbat toki-izenen «gardentasuna», euskal erroen bidez haien etimologia argituz; baita ere gizakiei zegozkien *prænomen*, *nomen* eta *cognomen* askoren atzean zeuden euskal hitz eta atzizki bitxiak argiratuz. Nafar antroponimia zaharrean, adibidez: *Johan çuhurro*, *Saluador çalduno*, *Lope Hederro*, *Johan Sagarro* bezalako izenetan mugatzaile hurbil zahararren aztarrena aurkituko du. Eta hori esanez, berez legez dator *Haur ola zirola* lan mardula gogoratzea. Mugatzaile, erakusle eta pertsona-izenordainen arloa izan da Irigoienek sakonen ikertu duenatarikoa. Era berean aipagarria da izen-sintagma mugatzailek gabekoez eiho eta Iruineko batzarrean aurkeztu zuen lana. Zer esanik ez deklinabidearen arloan, baina honezaz aurre-rago jardungo dut.

Euskal aditzaren garapen historikoa zuen beste aztergai nagusietariko bat. Ez zion nahiko eritzi Lafon-ek aztertutakoari euskal aditzaren sistema zaharren inguruan. Mitxelenaren bilakuntzak ere ondo gogoan zituen. Baina urrunago jo gura zuen konparaketaren bidez. Horretarako eraz zetorkion Salamanca-n hizkuntza klasikoetan jaso zuen zimendu sendoa, eta geroago Krutwig-en arrimura *Yakintza Baitha*-n sakondutako grekoaren ezaguera. Euskal aditzaren egitura perifrastikoaren eraikuntzan latinak izan duen eragina edota erromantze-hizkuntzen paraleloan garatutako sistema argitan jarriko du Irigoienek. Euskal aditz zaharren aspektu / aspekturik eza oposizioaren bilakuntzan asko lagunduko dio greko klasikoaren ezagutzak, eta Leizarraga, Oihenart eta *RS* bildumako testuen ezagutza sakonak. *Sistema perifrastikoaren laguntzaile batzuen jatorriaz* edota *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco* dira lan adierazgarrienetarikoak, azken aldion eskuartearen borobiltzen zerabilen *Hitanoaz* deritzana ahaztu barik.

Euskal testu zaharretako forma ilunak argitzen egin duen ahalegina ere ez da nolanahikoa. Errioxako *glosa emilianense* famatu bien inguruan edota Bizkaiko Diputazioko Mendietaen kuadrako esaldiaz eginitako bilaketa-ahaleginak eman daitezke honen adigarritzat.

Halako baten Macintosh konputagailu txikiak merkatura zirenean argi berri bat agertu zen Irigoienen ikerkuntzan —Alfonso eta ni lehenengoetariko bezeruak izan ginen Unibersitate honetan—. Sistema informatiko berri horrek sekulako mesedea egin zion Irigoieni —beste inori baino handiagoa esan nezake ia— bere ikerlanen gatazkatik irtean. Artean Olivetti beltz moderno haietariko bat zeukan, pastila txiki batzutan orrialde gutxi batzuk memorizatzeko ahalmena zeukana. Sistema horretan atereak dira *De re philologica linguae uasconicae II* (1987) eta beste monografia batzuk. Baina konputagailu banako berriak mekanismo indartsuagoa zuen memoria gordetzeko, eta horretara arindu zitzaizkion hainbat oztopo. Eginiko lanaren zuzenketarena, adibidez. Artean eskuz egin behar zirenak, eta sarritan argitaratze bidean akats larritz gertatzen zirenak, aurrerantzean eroso eta akats gutxiagoz egin zitezkeen. Jakin behar da, Alfonso beti kexu izaten zela, berak argitaratzeko bidalitako lanek jasaten zituzten lorrintza eta akats larriekatik. Hemen beste zertzelada bat ere egin behar da. Arrazoi normatiboak direla-eta, Euskal Akademiako aldizkarira bidali zituen lanen batzutan forma-aldaketak ere egin izan zizkioten, egilea aldaketekin ados egon ez arren, irentsi behar izan zituenak.

Horregaitik bada, arnasa sakon hartu ahal izan zuen, disketearen bidez, lanak berak atunduriko modu-moduan argitaratu ahal izango zuelako segurantzia izan zuenean. Eta ez zion nahiko eritzi konputagailu-programak ondo ikasteari, ezpada fotokonposizioan sartu zen bete-betean. Ahalegin horri zor zaio, hein handi baten, *De re philologica* bildumako azken hiru aleak nahiko denbora laburrean atera izana.

Baina bihur nadin berriro gramatikako ikerlanetara. Goian aipatuz gainera,, deklinabidea izango du begikoenetariko bat. Berari zor zaio Euskaltzaindiak ontzat eman zuen deklinabide-paradigma bateratua. Irigoienek haren finkapenerako Euskaltzaindira aurkeztu zuen txostena aho batez onartu zen. Eta horretan erabili zuen malgutasunari eskertu behar diogu, bai terminologia eta bai atzizki-aldaira batzuk (*-rik* ablatibo ad.) paradigma horretan agertu izana. Deklinabidearen alorrean ekarri zehatzagoak ere baditu, berariaz leku-denborazko kasuen eta bizidun-bizigabeen partiketaen inguruan. Gure irakaslearen begi zorrotzak, irakaskuntza bidez zabaldu diren zenbait topiko ankazgora bota ditu euskal testuen tradizioan zein ahozko lekukotasun ugarietan oinarrituz, eta bere galbahe hestutik datuak iragaziaz.



Modu berean aipa nitzake hitz-elkarketaz eta berariaz deribazio-atzizkiez garatu dituen lan batzuk. Aipagarri dira, *-ti* atzizkiak eta *-di*, *-dui*, *-doi* kolektiboaz dituenak.

Etimologo legez intuizio zoliz, metodologia ziurrez eta ondorio oparoz lan egiten dakiela erakutsi du. Arlo honetako emaitza ugarien artean, bat da aipagarria: *euskara* / *-era* hitzari, Garibaik darabilen *enus-ker*a forma bitarteko dela, *\*enau(t)si* aditz formatik etor arazten diona. Ez da meritu gutxikoa *Bilbao* eta *Askao* toki-izenen argibidean erakutsi duen zolitasuna ere.

Euskal testu zaharren edizioaz ere arduratu da behin baino sarriago. Berari esker ikusi ahal izan genuen inprimaturik *Refranes y Sentencias* bildumaren lehen edizioaren faksimila. Bilboko euskarari arduraren berezia jarri zion beti, eta hala agertarazi zituen Bilboko gabon-kanta zaharrak, J.M. Zabalaren omenez Euskaltzaindiak Bilbon eratu zuen batzarrean, edota *Constitucioneco Damiari* 1820-23 inguruan jarritako bertso-bildumak.

Ez naiz omenduaren lan eta iker-eremuetan gehiago luzatuko, eta eritzi osoko bat ematera mugatuko naiz. Irigoien-ek, lehen esan dugun legez, Euskaltzaindiko lan-batzordeen inguruan —gramatika dela, toponimia dela, herri-literatura dela, lexiko-sorkuntza dela, edota batasunerako hautatu beharreko formak direla— edota hark eraturiko jardunaldi edo kongresuen inguruan ondu du linguistika alderdiko lanik gehiena. Eta zorionez, lan-batzordeotan ez da izan elementu pasibo bat, ekimen handikoa baino, horrek nahigabe ugari ekarri badizkio ere: gizon ernea, iker eta jakin zalea, edozein gai dela ere azken hondoraino etekina ateratzen saiatuko zena. Batzar akademikoetan erabilitako gaiak haria ematen zioten, haren inguruan, bakarrean eta erosoago, ikerlana bilbatzeko.

Irigoien ez da izan ondorio arin edo soilekin erraz kontentatzeko gizona. Gai baten murgiltzen zenean, barrutik helduko zion gai horri, ia modu obsesibo batez ekingo zion, harik-eta ahal zen guztia argitu arte. Dohai aparta eduki du hizkuntza-datuak erlazioan jartzeko, datu soltee-kin egitamu bat, egitura bat eraikitzeko. Azterketa egitorduan beti aztertuko zuen lehenik *status quæstionis* delakoa. Ikerketa puntuz puntu garatuko zuen ondoren, datu-pilo galanta eskuartearen zuela —hobeto esanda, buruan, adimenean—, eta horrez gainera bibliografia ugaria beti. Horrela azkenean, ondorio jakin batzutara helduko zen. Ondorio ziurrak, sendoak, ondo oinarrituak, batzutan harrigarriak besteontzat. Ilun ikusten zuen hartan ez zuen eritzirik hutsean emango; aidean utziko zuen arazoa, etorkizunean argitzeko zain. Hala ere, hipotesi gisa bideren bat proposatuko zuen, frogarik edo daturik ez izanagatik, bere logika sendoak edo intuizio zoliak argi-izpiren bat nonbaitetik ikusten uzten ziotenean.

Amaitzeko zertzelada bat egin nahi nuke Irigoienen lanerako ahalmen ikaragarriaz. 1980. urte inguruan hasiko da beraren lan-emaitez oparoena, eta 1986-87 ingurutik bizkortuko da, *De re philologica II* aterateaz bateratsu eta ostean. Ezin ukatu tesiaren pisu astuna lepotik kentzeak asko lagundu ziola emankortasunean. Konputagailuen aroan sartzeak ere ez gutxi. Unibersitate honetako ikasle-irakasleen artean aurkitu zuen jera onak eta estimazioak ere baietz esango nuke. Eta etxekoen artean aurkitu zuen berotasunak ere ez gutxi. Ez da alferrika-koa beraren liburuek daramaten eskaintza: «Neure emazte eta seme / Libe eta Eneko-ri».

Emaitzak guztion begi aurrean daude. Astegunetako gau-ordu luzeak eta astegoienetako gau eta eguneko orduak ekin ahalean pantaila aurrean eman ondoren, astelehenetan artikulua bat eskuan zuela aurkeztuko zen Unibersitatara, eta ikasle-irakasleok gogotik eskertuko genion haren oparia, berari adore emanez halaxe lanean gogotik ekin ziezaion aurrerantzean ere. Harik-eta Herio latzak aldamenetik urrundu digun arte.

## A. Irigoien eta Euskal Dialektologia

Rosa Miren Pagola

A. Irigoienek omenez antolatu den ekintza akademiko honetan, bere ekarriari buruzko dagokidan alderdia ikusi aurretik, nire lehenengo hitzek Alfonsoren pertsona eta haren gizatasuna gogoratzekoak nahi dute izan.

Bihotz handiko pertsona zen Alfonso, ongi ikusi ahal izan nenez, asko izan baintuen ezagutzeko hainbeste harreman, ekitaldi eta hitzas-pertutan. Bere ingurukoei eta bere joranei osotasunez emana, ez zen inori makurrik edo amarrurik egiteko kapaz.

Ingurukoek artean, lehenengo eta behin, bere emazte Libe eta seme Eneko, nortzuri eskeintzen zizkien bere lanak eta argitalpen guztiak. Bi pertsona horiek ziren Alfonsoren bizitzako ardatzetako bat. Horiekin batera, lagunak, ezagunak eta Euskal Herriaren alde zihardutenak. Beti zen prest batekin nahiz besterekin, honekin edo harekin lan egiteko egiaren eta Euskal Herriaren alde.

Egia aipatu dut, eta inori baino hobeto zihoakion Alfonsori Aristotelaren harako hura, guk latinez ezagutzen duguna, grekeraz esango zen arren aurrenez: «*Amicus Plato, sed magis amica veritas*». «Lagun dut Platon, baina lagunago egia». Alfonso egiaren alde azalduzen zen, eta horretarako agertzen du Alfonsoren zintzotasuna, adiskide eta lagunei eskaintzen zion zintzotasun bera. Egiaren alde eta manipulazioen aurka aritzen zen eta berotzen, baina pertsonen errespetu handiz betiere; ez zioten denak horrela hartzen, ordea.

Egiarekin batera, Alfonsoren joran nagusia eta beste afan guztiak gatzatu edo mamitzen zituena Euskal Herria zen, garbi zuelarik Euskal Herriaren habe nagusia euskara dela.

Horra, bada, zeri eta nori eskaini zizkien bizitza eta afanak. Badugu zer eskertu Alfonsori, gazte-gaztetarik ikusi baitzuen nondik bideratu behar zituen pausuak, eta horri ez zion sekula hutsik egin. Eta, bukatzeko sarrera hitz hauek, Euskal Ikaskuntzen Institutuak ere eskerrak eman nahi dizkio, sorreratik bertatik izan duelako laguntzaile.

Irigoienen ekarria dialektologiaren ikuspuntutik azaltzeko, ekarri hori sail edo arlo desberdinetan jaso behar da, berak ere euskararen hizkuntz-azterketa, besteak beste, arlo zabal eta desberdinetan egin eta euskara alderdi askotarik jorratu zuelako. Ez nuke Alfonso dialektologoa izan zenik esango, ez baitzuen euskal dialektologiaz ikerketa berarizkorik egin; hala ere, haren lan guzietan euskal dialektologiarako oso probetxugarriak diren datuak eta azterketak aurkitzen direnez, ezinbestekoa gertatzen da edozeinentzat haren lanetara jo beharra.

Toponimia eta, beste maila batean dagoen arren, baita antroponimia ere garai desberdinetako estratifikazioez osatzen da. Arlo hauek aztertzeko, beraz, ikerketa lana ez da, betiere garaien eta lekuen arabera, material biltze hutsa; hori lehen pausua baino ez da, oinarrizkoa bada ere. Horren ondoren dator materialen deskribapen eta analisi xehea eta zehatza egitea eta, horretan finkatuz, hizkuntzaren historia eta bilakabidea, nahiz onartua dagoena zalantzan jarri, nahiz, datu eta deskribapen berriek horrela eskatzen badute, berriro eraikitzea.

Material onomastikoak erabat ilunak edo aski gardenak izan daitezke. Edonola ere, gehienetan, lekukotasun horien informazioa bilakabide fonetikoetan oinarritzen da, inoiz baita aldaketa morfologikoak ere gertatzen direlarik. Berreraiketak jatorrizko formara eramango du batzutan edo, kronologia kontutan hartuz eta, betiere, bilakabideak aurrera eramanez, forma bilakatura iritsiko da besteetan. Datu horiek nondikoak diren eta non biltzen diren kontutan hartuz gero eta beraien banaketa diatopikoa baldin zedarritzen bada, benetako ikerketa zientifikoari emango dio bidea, hizkuntzalaritza historikoa eginez eta, horrenbestez, dialektologia diakronikoa, dena aldi berean.

Alfonsok onomastikaz egin zituen lan ugariak maila historiko horretan ezarri behar dira. Horregatik, dialektologiarekin zuzen-zuzenean lotzen dira. Egia esan, ez dut inor ezagutzen Euskal Herriko nola Euskal Herriaren inguruko dokumentazioa, Erdi Arokoa batez ere, Irigoienek bezain zehatz eta sakon ezagutu eta arakatu duenik. Haren ikerketa lanak eta haren burua bera ere informazio altxor ikaragarria ziren eta zehaztasun haundiz kokatzen zuen beti edozein datu zegozkion eta kronologikoan eta espazioan. Ongi ezagutzen zuen nahiz fonetikako, nahiz morfologia edo lexikoarekiko ezaugarri bakoitzaren bilakabidea eta hark hartzen zuen hedadura diatopikoa. Guzti honek, zer esanik ez, balio handia du euskararen bilakabidea ezagutzeko, eta euskararena esanez, euskalkiena esan nahi baita derrigorrez. Horra, beraz, zer garrantzia duen Alfonsoren lanak euskalkiaki sakonki aztertu eta ezagutu nahi dituenarentzat eta horra Alfonsoren ekarria euskal dialektologiari.

Halere, esan bezala, Alfonsok euskara zeinahi alderditatik jorratu zuen eta, horien artean, euskal literatura klasikoa ere sakon zuen aztertua. Leizarraga, Mikoleta, **RS**, Kapanaga eta idazle gehienek hizkuntzari buruzko nahi zuen datuaz gai zen edozein momentutan oroitzeko ziurtasunez. Oroitu, erabili eta euskararen historiarako baliatu. Honetan ere lan asko aurreratu digu dialektologia lanetarako, idazle horiek euskalki desberdinetakoak diren heinean.

Ezin izango nuke, beraz, hemen, ezta laburbilduz ere bere lanak aipatuz, euskal dialektologiarentzat suposatzen duten ekarria. Dagoeneko klasikoak gertatu diren zenbait artikuluko aipatuko nituzke: «Las lenguas de los vizcainos: antroponimia y toponimia medievales», «Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográficos en áreas vascófonas de administración romanizante hasta el presente», «Cuestiones de Toponimia vasca circumpirenaica»<sup>1</sup>; «Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico» eta «Euskal toponymia eta dialektologia»<sup>2</sup>, hauek, besteren artean, euskal dialektologiarentzat beziki interesgarriak gertatzen diren datu eta analisisiez josiak bait daude.

Dialektologiaren ikuspegitik, fonetika mailan nabarmentzekoak dira diakroniarako: «En torno al topónimo *Fila Ruuia* de 1215 y 1216»<sup>3</sup>, «Etimología del nombre vasco del vascuence y las vocales nasales descritas por Garibay (siglo XVI)»<sup>4</sup> eta sinkroniarako: «**J** grafiaren problematikaz egungo eguneko egoera»<sup>5</sup>, «Euskara normalizatuaren ahoskatzeaz»<sup>6</sup>, «Algunas cuestiones relacionadas con la **[j]** en lengua vasca»<sup>7</sup>. Lan hauetan, isoglosen arabera gertatzen diren ezaugarriak seinalatuz gain, teoria interesgarriak azaltzen ditu.

Maila morfologikoan, euskal aditzaren garai zaharreko bilakabidea, euskalkien arabera, begi zoliz aztertzen du hainbat artikulutan, esaterako, «Sistema perifrastikoaren laguntzaile batzuen jatorriaz»<sup>8</sup> eta honen antzerakotan. Aditzaren tratamenduaz at, deklinabideaz eta erakusleaz ere dialektologia diakronikorako ezinbesteko erreferentziak

<sup>1</sup> Hirurak, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Departamento de Lengua Vasca, Universidad de Deusto, 1986, liburuan bilduak daude.

<sup>2</sup> *ASJU*ren Gehigarriak, XXVII. alean argitaratua, orain, gehitua eta zuzendua: *De Re Philologica Linguae Vasconicae* V, Bilbao, 1995, 145-199. or.

<sup>3</sup> *FLV* 26 (1977), 235-238.

<sup>4</sup> *FLV* 56 (1990), 139-147.

<sup>5</sup> *Euskera* XXIX (1984), 595-598.

<sup>6</sup> *Euskera* XXIV (1978), 631-638. Inguru honetan ere idatzi zuen: «Hizkuntzaren normalizazioa, kontzientzia linguistikoa eta euskal ebakerak», *Euskera* XXXI (1986), 351-359.

<sup>7</sup> *Euskara Biltzarra-Congreso de la Lengua Vasca*, Vitoria-Gasteiz, 1988, 269-289.

<sup>8</sup> *Euskera* XXII (1977), 655-657.

gertatu dira honako lan hauek: «Erakusleez», «Deklinabideaz»<sup>9</sup> eta «Haur ola zirola. Elementos deícticos en lengua Vasca»<sup>10</sup>.

Bestalde, ez nuke nahi aipatu gabe utzi euskal dialektologiarekiko Alfonsok bere hasierako lanetatik izan zuen begiramena. Oker ez bano, argitaratu zuen bigarren lana «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección Maria de Azkue»<sup>11</sup> izan zen, dudarik gabe erronkariaren ezagutza eta azterketarako gutun hauek duten garrantziaz oharturik. Lexikoari dagokionez ere, helburu berdinez eginiko Alfonsoren hainbeste lan ekar daitezke hona. Aipa dezagun, esaterako, «Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta (1845-1923)»<sup>12</sup>, zeinekin, egileak berak artikularen sarreran dioenez, Azkuek bere hiztegirako erabilitako iturrietako bat argitaratuz gain, lurralde zehatz bateko hiztegia argitaratzeko helburua zuen: «porque en él están recogidas y apuntadas las voces de una zona solamente, es decir, del sistema lexical del valle del Baztán. Blas de Fagoaga, Mariano Iceta, u otros, en calidad de baztaneses, podrían hacer observaciones a este vocabulario, verificando los vocablos y sus valores semánticos e incluyendo otros que no lo están»<sup>13</sup>.

Euskal dialektologiaren historiarako interesgarriak gertatzen diren Inchauspek Bonaparteri idatzitako gutunak ere bere lehenengo garaian argitaratu zituen<sup>14</sup>.

Esan daiteke, bada, Alfonsoren ekarria, euskal dialektologiaren edozein alderditatik begiratzen dela ere, aberatsa eta emankorra dela. Batez ere, euskal dialektologia nola sinkronian hala diakronian aztertu nahi duenak, ikuspegi historikoz nahiz deskriptiboz, Alfonso Irigoienek lana ondo ezagutu, aztertu eta arakatu beharko duela, horrela jokatzuz, lan asko aurreratu ezezik, jarraiko bidea eta aurrera begira emango duen edozein pausu askoz ere tinkoagoak eta bermetasun osoagoak izanen bait dira.

<sup>9</sup> Biak *Euskera* aldizkarian, XXIV (1978), 713-759.

<sup>10</sup> *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*, Bilbao, 1981, 365-402.

<sup>11</sup> *Euskera* II, (1957), 119-170.

<sup>12</sup> *Euskera* VII (1962), 135-193.

<sup>13</sup> *Op. cit.* 138. or.

<sup>14</sup> «Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Euskera* II (1957), 171-260.

# Alfonso Irigoienen poesiaz harripausu bat edo beste

Xabier Kalzakorta

## 0. Abiapuntua

Alfonso Irigoienen poesiaz idazteko behar nituen lorratzak behin eta berriro pentsatzen ari nintzela, zeharbidez, Chuang Tzu filosofoaren ipuintxo edo apologo bat heldu zitzaidan eskuartera. Delako ipuintxo horretan solasean dauden pertsona batek besteari galdetzen dio ea biderik badagoen. Besteak erantzuten dio biderik bere osotasunean izan ez arren, bide gainean jartzen diren oinen esparrua bakarrik balego, nahikoa litzatekeela. Ez omen dago, beraz, besterik *bideginen* ari gara, bidezkoaren oinek zanpatzen duten esparrua baino. Esparru hori da bakarrik bidaztiarentzat bide. *Bideginen* berariaz jarri dugu, Alfonso-ren olerki baten izenburua baita. Behin arrasto hau markatuz gero, hainbat bide markatu daitezke.

Egin dezagun kontu, hasteko, idazle bakoitzak bere bizitzan hainbat irakurketa egiten dituela, irakurketok, nahietanahiez, bere produkzioan markatzen dira, denak ez badira ere, bai zenbait. Garbi dagoena da irakurri ez den liburu batek, edo idatzi ez den batek ezin duela eraginik izan. Beraz, idazleak badu arrasto bat, edo tradizio bat, batetik denborak eman diona, eta bestetik, bere aukerak eta edersanak eman diona. Hori da idazlearen *ore*-etariko bat. Kontua da *ore* hori nola oratzen duen idazleak, nola txertatu eta erabiltzen duen bere idazlanetan. Horrezaz landa, badira, literatura, edo, *lehen oinean* dagoen ore horrezaz landa, kritikoez egin duten tradizio horren gaineko ikerketa edo azalpena. Honi, guk lantxo honetan, *bigarren oina* deituko diogu, eta bigarren hau izateko noraezekoa dugu, jakina denez, lehen oin hori izatea. Idazleak, edozein idazlek, *bi oin* hauek izaten ditu eskuera bere produktiorako. Badira, nola ez, bi arrasto hauek gainera, hainbat gehiago ere. Bata, idazlearen bizitza bera da. Bizitza horretan milaka eta milaka bizipen kateatu daude, eta, kontu horretan, denak gara des-

berdin. Bizipenetan badira suzko burdinaz zigitaturiko markak —erraie-tan beti eramango dugun arrasto ezabaezina—, eta, edozein haize al-dakorrek ukitzen gaituenetan bezala, ia markarik gabeko arrasto leunak. Badira bi muturren artekoak ere bai, jakina, zein bere neurrian. Behin gauzak honetara, egin dezagun kontu bakoitzak daraman ibil-bidean, obra bakoitza «harripausu» bat dela. Harripausua, Bizkaian esaten dugunez, ibaia zeharkatzeko ibian azaleratzen den harria da. Bi-deaztiak, bustiko ez bada, harripausuetan oina jarriz zeharkatu beharko du ibaia. Irudi hori erabilirik idazle bakoitzaren «arripausuak» idazlea-ren «obrak» edo lanak lirateke. Hori da bere bidea, hots, Chuang Tzu filosofoak zioen bezala, «bidea» berez ez litzateke oinak zapaltzen duen lur eremu urri-murritza baino. Zeintzu dira, beraz, Alfonso Irigoie-nen lan literarioak? Zeintzuk dira beraren harripausuak?

Alfonsok hitz lauz zein hitz neurtuzko emaitzak ditu. *La Gran Enciclopedia Vasca*-ko liburukietan agertzen ziren olerki solteak<sup>1</sup> *Sorterriaren alde* (Kriselu 1976)liburuaren azkenaldean agertzen dira. *Herriaren gara bizi* (Leopoldo Zugaza 1979) liburuko hasierako bertso librezko poema solteak alde batera utzita, azken lan honetako zein *Orbel eta Orri* (1980) liburuak hamalaurkunez edo sonetoz oratuak daude. *Hi ta ni garade zu, to ez date no* (Bilbao 1989) bere azken sorkaria, prosa poetikoz eta hamalaurkunez osatua dago. Hauek izango lirateke, hurrenez hurren, Alfonsoren ibilbide poetikoaren harripausuak. Lau liburuak osatuko lukete *lehen oina* deitu duguna. Obra hauek agertu ahala egon ote da kritika lanik? Arripausu hauek eman ote diete, gainerako poeta zein kritikoei, *orea* kritikalanik egiteko? Nik egia esan ez dut aurkitu Anjel Zelaietak egindako kritika lanaz landa beste ezer<sup>2</sup>. Nik neuk ere, *bigarren oin*-erako, kritikoak ibili behar dituen harripausuak ibili nahi nituen, besteren irakatsiak neuretu eta aztertu nahi nituen, neure esantxoak indarturik eta sustraiturik emateko. Ahaleginak ahalegin, ez dut Alfonsoren poesiaz idatziriko kritika lanik aurkitu. Gogoan dut bera-rekin izandako elkarriketa batean, behin egin zidan aitortpena, idazlea-rentzat dagoen gauzarik krudelena isiltasuna zela, inork ezer ez esatea.

Nik, egia esan, ez dut neure burua poesia kritikotzat. Ezer juzkatzea zail bada, poesia juzkatzea da zail. Ezer azaltzea zail bada, poesiarren barne hariak azaltzea da zail. Uste dut lehen oineko zein bigarren oi-

<sup>1</sup> «Itza. Arnas estua...», *Egan*, 1964, 72-74or.»Olabeagatik (desde Olabeaga)», in *La Gran Enciclopedia Vasca*, 1967, II, 167-168or. «Poemas en euskera», *La Gran Enciclopedia Vasca*, 1966, I, 234-235or.

<sup>2</sup> AMURIZA, X. *et alii: Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien bertsogintzaren lekuko*, Bilbao Bizkaia Kutxa 1993



neko harripausu asko ongi zapalduak euki behar dituela kritikoak bere ahokadak bota baino lehen. Poeta batek apurka apurka bere olerkiaren hariak ehuten ari dela, mila joko sartzen dira poetaren kontzientzian. Milaka hari mehez iruten da denik olerkirik ttipiena eta xingleena ere, eta hari mehe horiek poetaren kontzientzian daude. Beste kontzientzia batetik hari mehe guzti horien arrastoa bilatu ote daiteke? Gaur egun Gongora irakurtzen duenak Damaso Alonsoren bidetik irakurtzen du. Damaso Alonsok markatzen ditu *bigarren oin*-eko harripausu zenbait. Idazleak berak markatuko balitu zer gertatuko litzateke? Eman dezagun euskal adibide bat, Bernardo Atxagaren *Etiopia* lanean agertzen den «Lizardi Rimbaud etorri duk hitaz galdezka» poemaran iruzkin-tzean, ez da berdin Bernardoren azalpena, eta gainerako kritikoena, eta guztiak dira duin eta arrazoizko. Geure arrastoean sarturik, gutxi dira Alfonsoren beraren azalpena dutenak, baina badago bat edo beste «Urbiapeko arri landu ori» delakoaren noiz-nolak Alfonsok berak azaltzen ditu *Sorterriaren Alde* laneko 76-77 orrialdeetan azaltzen du. Azalpen hori gabe zenbait zeharresan ulertuko lirateke, baina inguru osoa inola ere ez.

## 1. Zein dira alfonsoren ereduak

Badira hemen berak aitortutako eredu edo ispiluak *Sorterriaren alde* lanean «Bederatzi puntuan kantuz» maisutzat hartzen ditu Fernando Amezketarra (2-*Fernando Amezketarra / dut aita nirea, / maisu bikaña eta / adiskidea*), Xenpelar (3-*Bigarren maisua dut / Xenpelar zikiro. / Gerra nahi dutenai / bota bi tiro*) eta Txirrita (4-*Irugarren gizona / Txirrita gizona*). Gainerakoak ez ditu lehen mailakotzat (5-*Tantai auen ondoan / pilla bat badago*);). Hemen maisuak izate hori bertsolaritzan maisuak direla adierazi dezake, eta ez bere ibilbide poetikoan. Guk geure lantxo honetan bi arrasto markatuko ditugu. Alfonsoren lanean agertzen diren ahozko literaturako erreferentziak edo «arripausuak», eta, poesia kultuaren eragin bat edo beste aipatu ere.

## 2. Poesiaren neurriaz

*Sorterriaren alde* lanean badira bertsolaritzaren arrastotik sortutakoak, eta bide berriagoetako olerki libreak ere bai. Bertsolaritzaren arrastokoak dira bederatzi puntuko bertsoz osatuta dagoen «Bederatzi puntuan kantuz» eta Iparragirrenen konposizio ezagun bateko izenburu bera duen «Artista euskalduna», zortziko txikiz egina. *Herrian gara bizi*

lanean orrialde bakotxietan hamalaukoak dakartza eta biritxietan koplak. Koplak beti du hamalaukoarekin zerikusia. Lotura hori gorde nahi izan da liburuan barrena. Adibide gisa, Uparan Arratiako umetako basterria da eta koplan ere erreferentzia egiten dio umezaroari (*Mendi gainean elurrez, / harana umetan hurrez, ihurtzuriak joarren gaude / beti haragi hezurrez*). Orbel eta orri lanean koplak bi agertu arren, gehiena hamalaukoz osatua dago eta *Hi ta ni garade zu, to ez date no* lanean ere, gehien erabiltzen duen neurria hamalaukoa da. Gehienbat darabilen neurria, beraz, hamalaukoa da. Ohartzekoa da, berak beti euskaraz ari dela ere *soneto* hitza darabilela<sup>3</sup>.

Harriagarri da hamalaukoa euskaldunek gutxi erabili duten neurria izanik, Alfonsoren produkzioa ia hamalauko hutsezkoa izatea. Hamalaukoa gutxi erabili bada ere, bada liburu bat edo beste hamalauko hutsez egina. Egia aitortu behar badut, bada nik maite dudan poesia-liburu pollit bat, xume bezain sarkorra: Polikarpo Iraizozen *Kristo gure Jauna eta andre dena Maria*<sup>4</sup>. Liburu horretako hamalaukoek badute segida bat, hari kronologiko bat zaintzen dute, Alfonsorenak, ostera, beste era batera eratuak daude, hamalauko bakoitza beregaina da ez du zerikusi derrigorrekorik aurreko edo atzekoarekin. Beregaintasun hau batez ere *Herrian gara bizi* obran ikusten dugu. Hor badago denetik, amodiozkoak: «ni ta no, «badiosnat»; Lezamako hilerrian irakurria: «Mikel Zarateri»; Aulesti inguruko bizipenetan oinarriturik: «Gailurrean», «Itxura berriz».

### 3. Sinbologia maila

Zeinek bere sinboloekin jokutzen du. Idazle bakoitzak edo poeta bakoitzak bere bereak dituen sinboloak eratzen ditu bere idatzietan. Betiko sinboloek halako indar berezia eman dieten poetak badira. Kontua ez da *nork* lehendabizi *zer* erabiltzen duen, *nola* erabiltzen duen baino. Borges batek *ispiluak*, *laberintoa*, *tigreak* erabiltzen ditu. Ez ditu berak lehenengoz erabili, baina gutxi dira berak bezain indartsu sinbo-

<sup>3</sup> *Hamalaudun, hamalaurdun, hamalauko, hamalaukun* tankerako hitzik ez darabil inoiz, beti «soneto». *Hi ta ni garade zu, to ez date no* delakoa, xerokopiaz eman zuenean *Soneto, prosa poetiko eta abar* jarri zion izenburua, eta behin liburu gisa eman zuenean ere Atarikoan: «*sonetoak* eta abar, ordea gehienak ageri dira ordukoan, bat edo beste izan ezik». Antzerako zerbait gertatzen da *aditz* hitzarekin. Alfonso beti verbo edo berbo, grafia euskarara ekaririk, hitza erabiliko du eta ez «aditz».

<sup>4</sup> Ezagutzen dudana edizioa *Herrian gara bizi* laneko sorta berean dago *Irixko xorta* Leopoldo Zugazak argitaratutako sailean

look erabili dituzten poetak. Gure euskal alorrera hurbilduz, Arestik, besteak beste direla, *harria* eta *mailua* erabili zituen. Alfonsok badu «mailluaren golpez» deituriko olerki bat *Sorterriaren alde* liburuan. Arestiren gaineko mahai inguru batean, berak aitortu zuen bazituela mailua agertzen den hainbat kuadro eginik ere. Gogoan josia dudan esaldi bat ere esan zuen «mailuak lotzen narauko ni Gabriel Arestiri»<sup>5</sup>. Alfonsoren poesian, badira, nik uste, hiru sinbolo behintzat: *arranoa*, *haritza*, *mailua*. Haritza, denok dakigunez, Gernikako haritza, Euskal Herri osoko sinboloa delarik, hainbat eta hainbat aldiz erabili izan da euskal poeten artean, batez ere foruak kendu edo erauzi zizkigutene-tik. Alfonsok bere burua haritzat zeukan, baina haritz bihurri eta arro-ken hartekotzat:

*Nik neure burua basa haritz bihurri bat bezalako ikusten dut, haitzarteko zirrikietan sustraiak sendo bota dituen. Halabaina arren ez dut uste ene zuhaitza besterik gabe bihurriena datekeenik, mundua oso aberatsa baita, zorionez, edozelako kasuz. Eta zerbait bihurri bihurturik hesi bat osatuko dugu askatzea erraz izango ez dena eta gero haritz berriak barrutiko lur mardulean hazi ahal izango dira guren. Euskalaritza. Euskal haritza. Euskal haritz gurena eta guz-tien gainetik. Gernikakoa itzal egiten duela. (Sorterriaren alde lanetik hartua).*

Badira pasarte honetan hainbat gauza interesgarri.»haitzarteko haritzak» zeukala kontutan hartzen badugu badu Arestik Alfonsoren anaiari, Iñaki Irigoieni, eskeinitako bertso bat:

*Bilbo onetako euskalduntasun  
Zikotxaren señaleara  
Zeuek zarie arrokartean  
Agertu dan arbolea  
Eu baño beste mutiko batek  
etxok zapaldu kalea  
Nondik dabillan sorterrirantz  
Gaurko tabernazalea. (Bizkaitarra II, 1959)*

Gabriel Arestik Iñaki Irigoieni, «euskal jantza bikañen maitale su-tua»-ri, Arestiren hitzak erabiltzearen, eskeintzen dio bertso-sorta bat, garai bateko Bilbo erdaldun batean euskal dantzen gainean lanean ari zen langile suharrari. Harrigarria da Alfonsok berak darabilen «hai-

<sup>5</sup> Esaldia, bere esakizun bereziaz landa, beste zerbaitengatik lotu zitzaidala aitortu behar dut. «Narauko» delako adizkia eradun formakoa ei da, nor-nori-nork baina *nor* delakoa «ni» naizela.

tzarteko haritz» eta «arrokartean agertu dan arbolea» sinboloen bate-ratasuna<sup>6</sup>. Kontua ez da, ordea, hor bukatzen. Arestik bere burua ere, hasierako bere poesietan behintzat, haritzat zuen zeren ondoko ber-tsoan:

*Aspalditik dok ezagutu  
Nire pentsamentu gatxa  
Mobidu barik txirrinka pean  
Katigu naukan ekatxa  
Area peko sustar sakonok  
Egin nabena aretxa  
Makera lodi ta zikiñeri  
Emon deutesen pagatxa.*

Badira Arestiren eta Alfonsoren arteko bateratasun gehiago ere. Biak bilbotarrak izanik, Bilboko aberasbide eta, era berean, erdarabide izan den Nerbioi (edo nahiago bada Ibaizabal) ibaieko Olabeagari es-keini zion Alfonsok «Olabeagatik» olerkia *Sorterriaren alde*-n eta Ares-tik *Harri eta Herri*-n «Zorrotzako portuan aldarrika».

Hemen iruzkindu nahi dugun bigarren sinboloa arranoarena da. Al-fonsok bere burua arranotzat dauka. Arranoa hegaztietan errege da, gainerako hegaztiak baino gorago igaiten delako bere hegalaldian, eta hegalkada bortitzagoa duelako.

*Arranoaren bidean,  
herri geurea aldean,  
egan goazke eskua dugun  
argi printzaren haben. (Herrian gara bizi, 12or.)*

Hamalaurkunaren lehen laukoan ere badarabil arranoaren sinboloa

*Zatiturik herria ezin daite bil,  
arranoaren gisa ezin da zaindu,  
bide hori harturik gureak egin du,  
ezin naite jaikirik inola isil. («Aurrera» Herrian gara bizi, 13or.)*

Goragotik ikustea arranoari dagokio, esan dugunez, hegazti handi eta bortitza delako. Arranoaren kontrakoa, hegatzada laburrekoa, «oi-loa» da. Alfonsok arranoaren sinboloa erabili baino lehen, azken finean

---

<sup>6</sup> Hona aldatu dugun bertsoan bi pertsona agertzen dira, batetik «eu» eta bestetik «zeuek». «Eu» delakoan argi dago Iñaki Irigoien dagoena, kontua da «zeuek» horretan Alfonso bera era sartu daitekeela.

antzekoa den «talaia»-ren sinboloa darabil «Urrutira joan behar dugu» *Sorterriaren Alde*-n. Kasu bietan, talaiaren zein arranoarenean, «herria» zaintzen du talaiak eta arranoak. Esaten dugunaren erakusgarri *Hi ta ni garade zu, to ez date no* obrako «Gora nahi hutsala» olerkiko lehen hirukoa aldatuko dut hona:

*Jakitaterik ez da haren zaratan,  
hegaldatzez oiloen negurrizkoa,  
arrano beltzaren amets atakan.*

*Oiloa / arrano beltza* oposizioan daude, oiloak «hegaldatzez negurrizkoa» delako, edo lurretik gutxi zeruratsen delako, «arrano beltza» aldiz, lurra utzi eta zerurago hegaldatzen da. Alfonsoren inguruan ibili garenok, behin baino gehiagotan entzun diogu oilo eta arranoaren arteko metaforabide hau. Krutwig-en artikulu, zein edozein eratako idatziak irakurri dituen edozeinek ere ezagun duke gu hemen iruzkintzen ari garena. «Arranotasuna», edo gainerako hegaztien artean errege izatea, nolabait jainkoaren gradura igotzea da, gainerako gehienak oiloen hegatzada laburra badute. Dohai hau, azken bere liburuan Alfonsok dioen bezala, Mariurrikak eman dio. Hamalaurkunaren bigarren lauko eta lehen hirukoak bakarrik aldatuko ditut:

*Apolo-ren neurrian da joan asko  
Mariurrikanera, arnasa dena,  
berak eman baitzidan ene kemena  
hegan pasa lezadan arranoazko*

*itxuratan haitzaren laztasun-sena  
jainkoaren gradura iganik airez.  
urregorri bihurtu da hutsa zena. («Hezkuntza» *Hi ta ni...*)*

Derradan azkenik, arranoaren irudia euskal kantu aberkoietan erabili izan dela, ikusi besterik ez dago Zaldubiren «Gauden gu euskaldun»<sup>7</sup> Barbiarren «Gu, ez Eskualdunak»<sup>8</sup>.

<sup>7</sup> Laugarren ahapaldian: *Gure haritz hau, azken / mende hautaraino, / zaharturik ere zen / eder bezain sano. Bere lur hoin garbian / oso zagoeno / Gaietik zoakona / behar zen arrano.*

<sup>8</sup> *A-iu-iu! / Biba gu! / Arranoaren umeak oro, oro arranoak dituzu: / Aita arranoa dugu, / Aita arranoa dugu! / Gipuzko, Alava, Vizkai, Nafarroa, / Bache-Nabar, Lapurdi'ta Ziberoa! (bis).*

#### 4. Esaera zahar eta erramolde oihartzuna

Edozein poetaren lanak irakurtzen baditugu, kontutan eduki behar duguna da hizkuntza berean dagoen tradizioa. Tradizio hori mendeetako ondareak ematen du. Egia da, Borgesek zioen bezala, edozein idazlek bere tradizioa *aukeratu* egiten duela. Gaur egun edozein idazlek munduko ia edozein hizkuntzatako testuen itzulpena irakur dezake. Irakurtze hori bere aukeratik dator neurri handi batean, eta baita, Borgesek zioen modu batez esateko, halabeharrak eskuratzen dizkion lanengatik. Bi tradizio hauetatik, norberaren hizkuntzarena eta gainerako hizkuntzetakoa, lehena da detektatzen errazagoa, mugatuagoa eta neurri handi batean indartsuagoa delako. Egia da lehenean ere ederse-nak bere indar berezia duela. Eman dezagun adibidetxo bat. Gabriel Aresti izan zen Barrutia antzerkigilea deskubritu eta aztertu zuen lehenetakoa. Arestik maite zuen Barrutiaren *Acto para la medianoche* lana. Horren lekuko ez dira bakarrik eskeini zizkion artikuluak baita bere poesia bera ere:

*Orienteko perlea*  
 Nobia neurea  
*Biotzeko puskea*  
 Melitxu maitea  
*Non da zure legea*  
*Ta karidadea*  
 Eukizu piedadea  
 Egin mesedea.

Zortziko txiki hau Gabriel Arestik, ezkongaiak zirela, bere emazte izango zen Melitxu-ri idatzi zion. Letra etzana edo okertua berariazkoa da, intertestualitatearen marka da zalantzarik gabe. Barrutiaren lanean:

*264 Mari Gabontxo enea, biozeko puskea, Orienteko perlea,  
 Nun da zure legea? nun zure karidadea?*

Barregarriak bere emazteari esaten dizkionak, Arestik bere eginik, eta beste indar batez orniturik, esaten dizkio bere emaztegaiari.

Alfonsoren lanera bihurturik, esan dezakegu hainbat eta hainbat hamalaurkotan euskal atsotitzen, kantu zahar eta are esaunden azterrena ere aurki dezakegula.

«Txuntxun» (*Orbel eta orri, 20or.*): *Txontzon jaun hori, hautso gogor hartz horri, lagian hau hark mende hartuko laster, / agian duk heziko, ez hadi asper, / berde dadin itxuraz, zuri eta gorri.* Lauko honetan Oihenart 139-Eneco axeca hi harzari, nic demadan ihessari. RS

422-Ausso Chordon arzorri ta nic yñes dayda, esaera zaharren oihartzuna ageri da.

«Osina» (*Orbel eta orri*, 21or.): *Burdinarikan balu balizko olak / oporrean guztiok zoriz geundeke, / asmo balizko oro jarririk tente, ez du bana biderik jokoak bolak*. Lehen lauko honetan ere ageri dira esaera zaharren oihartzunak. Esaterako, Garibai: Valizco oleac burniaric eguin eçtaroa. Isasti: Balizco olaac burnia guichi. Berdin gertatzen da bigarren laukoan ere: *Jokoa ere ez da errenta merke / ezin pagatu bada galdurik dena, / dakarrela ondorik neke ta pena, / apurturik bihotza, begiz ahalke*. «Jokoa ez da errenta» euskaraz dagoen errefracurik dokumentatuenetakoa da Axularrengandik hasita hainbat aldiz dokumentatua.

*Egunari egunak sendo badeutsa* («Ageri da» *Herrian gara bizi*). Esapide hau Azkuek bere *Euskalerrriaren Yakintza III*, 278 or. dakarren berbera da: *Cambia mucho el tiempo (el día no agarra al día)* «eutsi» aditzaren adizki batean oinarritzen dena

Esaera zahar bat da: *Hiru gauzatzu dira alferrik galtzen: / mendian den egurra, itsaeturia / ta pobreen arrazoi eder garbia* («Ez bedi alferrik gal» *Herrian gara bizi*)

Aulestiko etxetorre bateko harmarriko esapide bat hartu zuen ikurtzat Eusko Ikaskuntzak. Alfonsok esapide bera dakar hamalauko baten lehen laukoan: *Asmoz eta jakitez bentzi leidi, ai! / txikiak maiz handia gure munduan*. («Aritze zuhurraren eragina» *Herrian gara bizi*)

Intertestualitate honen adibiderik bikainena «Bidean nuen pentsatu» (*Orbel eta orri* 28 or.) litzateke. Lehen laukoan: *Palanka Salamanka, palanka manka, / hari zuria fraken ilunetara, ezkonduen legea beronetara, / jentil zailak haraino jaurti palanka!* Lehen lauko honetan kanta baten «Txiki txikitik»<sup>9</sup> eta esaunda bat biltzen dira. 1000-1029 tipokoa<sup>10</sup>. Esaunda orretan heroiak palanka bat hartu eta jaurti baino lehen, *Palanka hasta Salamanka!* dio, denok dakigunez, eta jentilak ez jaurtzeko diotso ahaideak bizi dituelako Salamankan. Alfonsok lehen lauko honetan kanta ezagun baten pasarteak esaunda baten gitz-hitzak eta bere esperientzia pertsonala oratzen ditu. Badago gehiagorik

<sup>9</sup> Kanta honen zehaztasunetarako ikus *Nafarroa-ko Euskal-kantu zaharrak* Jorge de Riezuren edizioa, 1984, 51-53 orrialdeetan. Kanta horretan, denok dakigunez, lehen bertsoaren amaian *Salamankara nindoalarik / bidean nuen pentsatu / estudiante tunante bainan / obe nuela ezkondu* agertzen da, hortik beraz, izenburua bera «Bidean nuen pentsatu» eta lehen laukoan agertzen den *ezkonduen legea beronetara*, batetik, eta *hari zuria fraken ilunetara*, bestetik.

<sup>10</sup> Ipuinak eta esaundak katalogatzen dituztenak Aarne Tompson-en katalogazioaren arauera, halaxe egiten dute.

ere hamalaurkun horretan, jentiltasunaren goratze bat ere, nik uste, hauteman daiteke.

Intertestualitate guzti honetatik zer ondorio atera daiteke? Nere ustez, neurri handi batean, ahozko literaturaganako maitasunaren erakusgarriak dira. Oihenarten zein *Refranes y Sentencias*-ko esaera zaharrak bere sorkarrietan txertaturik agertze honek, ahozko literaturaganako maitasuna ezezik euskal testurik zaharrenenganako miresmena ere erakusten dute. Kontuan izan behar dugu Alfonsorentzat testu zaharrak izan zirela bere ikergai kutunenetakoak, eta atxikimendu hori bere sorkarrietara ere lerratzen da. Eman dezagun, kasurako, Alfonso-*ren ikerlan batek Oihenarten 37-Arrozac ez lan daidic, ez deraidic* esaera zaharra duela aztergai<sup>11</sup>. Esaera zahar horren *daidic* eta erazlea edo kausatiboa den *deraidic* ere txertatuko ditu bere sorkarrietan «Le-trak berriz» pasartea: *Eta berak erran didanez, gu gehienok gogoko dukegu, eta borondate hori nork bere buru bihotzetan barna eta sakon txertatu ondoan zuhurki lan badaidigu eta besteri ere baderaidigu sortuko baitira*. Are argiago agertzen da «Geure buruaren jabe» hamalaurkunko lehen laukoan : *Arrotzak ez lan deidik, ezta deraidik: / behar diat neurorrek egin neurea / ez dakion inori zabal bidea agintea dezan bil bere baitarik*. Adibideak banan banan jarriko bagenitu nik uste ehundik gora aterako liratekeela. Lantxo hau egiten nintzela berrogeita hamar ahozko erreferentzia baino gehiago aurkitu nituen: esaera zaharrak, erramoldeak, ipuinak, aho-gorapiloak... Erreferentzia guztiak iturriekin alderatuz banan banan jartzea irakurlearen nekagarri gerta zitekeela pentsatu ondoren, bakartxo batzuk aldatzea erabaki nuen

Bere poesia guztiak behin eta berriro irakurri ondoren ondorio bat atera uste dut. Hamalauko gehienetan euskal esaera zaharrak lehen laukoan txertatzen ditu eta ondoko lauko zein hirukoetan, lehen laukotik ateratako ondorio edo luzapenak egiten ditu. Bertsolariek, gehienetan, kontrako bidea erabiltzen dute. Bertsolariak errafraua txertatzen duenean bere bertsoan, gehienetan epifonema indartsu gisa azkenean txertatu ohi du, hau da, bertsoaren azkenean edo bertsosailarenean. Hau, jakina denez, ez da erabateko ez goitik beherako legea, baina beti gertatzen ez bada ere gehienetan gertatzen da. Bertsolariak bertso azkenean esaera zaharrik txertatzen ez badu ere, esaldi sentenziotsua txertatu ohi du. Adibiderik garbienenetako bat «Muñagorriren kantak» litzateke «bost negar egiteko / nunbait jaio giñan», «dolorezkoak dira /

---

<sup>11</sup> Esaera zahar honek badu berariazko lantxo bat eta bide batezko beste bat «Gnomica Oihenartiana».



gaur gure pausuak.», «gerrak ez dakar onik / iñundik iñora.» eta antzekoak bertsoen bukaera indartsu eta sentenziotsuak dira, azken puntuan, denok dakigunez indarrik gehien biltzen delako.

## 5. Alfonsoren poesia eta eragin kulturalak

Alfonso Bilbaon bizi zela hiru eratako giro kulturala behintzat izan zuen. Batetik berak eratu, eta gidatzen zituen bertsolari-txapelketak ditugu. Gidatu esan dugu, eta horixe da Alfonsok egiten zuena, «gidaritza-lana», garai haretan lege zaharreko bertsolariak bertso-jartzaileari «gidaria» deitzen baitzioten. Giro horrezaz landa Gabriel Aresti, Federico Krutwig eta abarren euskal giro aurrelariko partaide izan zen, eta baita, Bilbaon erdaraz idazten zuten Blas de Otero bezalako idazleena. Garai hartako berri ematen duten hainbat artikulu badira<sup>12</sup>. Giro guzti hauek berak ahoz aipatzen zituen, guk marraztu dugun lehen bidea izan bide zen Alfonsoren lehena «Laminerreka» hamalaukoan *bertsolaritzan nintzen hezi naikoa* aitortzen duenez.

Berak bertatik bertara ezagutu zuen giro horretatik zer edan zuen? Zer eragin izan dezake Blas de Otero edo, esaterako, Mirande baten-gandik. Arrasto hau zailagoa da zabaltzen. Hemengo harripausuak ez dira herri-literaturakoak bezain erraz aurkitzen. Jarri ditzadan adibide gixa bakartxo bi. Blas de Oteroren «1923» hamalauko lehen lauokoak eta Alfonsoren «Euria»k badute ikuskizunik:

*LLueve en Bilbao y llueve, llueve, llueve  
livianamente, emborronado el aire,  
las oscuras fachadas y las débiles  
lomas de Archanda, mansamente llueve.*(Blas de Oterorena)

*Ziri miri lanparra Bilbo gainean,  
Pagasarri, Artxanda, aldamen dena  
gerizazko lainotan, ilunska sena,  
jaino nintzen hiriak duen heinean.* (Alfonsorena)

Kidetasunak aurkitu nahi dituenak aurkituko ditu Yon Miranderen «Undina» eta Alfonsoren «laminerreka» direlakoetan. Bietan izaki mi-

---

<sup>12</sup> Bertsolarien girokoa «Balendin Enbeita: gizon, abertzale, bertsolari» «Balendin Enbeita Bilboko Areatza-n». Aresti, Krutwig eta abarrekoa «Gabriel Aresti eta bere inguruaz». Gehienak *De Re Philologica* liburuetan aurkitu daitezke. Badira, hona aldatu ez ditudan artikulu gehiago ere.

tologiko bati zuzenduak daude. Hemen, aurreko adibideekin ez bezala, olerkien amaierak jarriko ditut erakusgarritzat:

*Minetan daukazu giza-gogoa  
aenigma zarade ulhermenentzat.  
Nor zara? Ala bethi gezurrezkoa?  
Gogorapen, ala irudi soil bat? (Miranderena)*

*Ez niekinan non hintzen, beti hire zain  
ametsaren erdian dilindan hasiz,  
maitemindurik nauna bihotzez orain.(Alfonsorena)*

Miranderen eta Alfonsoren poemek badute kidetasunik Miranderen kasuan *bihotzean har* batez itsastarren undinaganako maitasuna adierazten dute, Alfonsoren kasuan *maitemindurik* agertzen da poeta. Miranderen adibidean *gizon-ametsa* agertzen da, Alfonsorenean *ametsaren erdian*. Miranderen olerkian *ihes joan zoaz* agertzen da, Alfonsorenean beti hire zain agertzen da. Eta hainbat kidetasun gehiago. Yon Keats idazle irlandarrak ere badu Lamia deitutako konposizio oso luze bat. Guk kidetasun gutxieneko zenbait ekarri nahi izan ditugu hona.

## 6. Alfonsoren ibilbide poetiko eta ideiez

*Sorterriaren alde*-ko bigarren zatian, hitz lauaren ondoren agertzen dira, gorago esan dugunez, han-hor-hemen barreiatuak zituen poema gehienak. *Herrian gara bizi* liburu saritua izan zen. *Orbel eta orri*-k aurreko liburuan agertu zituen hamalaukoen lorratzari jarraitu zion. Lorratz poetiko horretan bi azken liburuok lotuago agertzen dira. *Orbel eta orri*-k eta *Hi ta ni garade zu, to ez date no* lanek lotura handiagoa dute elkarren artean. Alfonsoren poesia gehiena, bizitza zertzeladeta-koak gorabehera, abertzaletasunez baino gehiago «herritasunez» oratuak daude. «Herritasun» horretara «ni» batetik abiatzen da, «ni ta laia» edo «ni arrano» naizen aldetik. *Orbel eta orri*-ren azken poemak ematen dio liburuari izenburua. Arrazoia da «Anbotoko neskatxa bu-luzgorria» Alfonsorekin haragitan biltzen dela lurrean «ohetzat han bazu-ten orbel-orririk» eta biltze horren ondorioa «ume bat» izango da. Ezer harrigarria bada, kasu honetan, «ni» batetik ihes eginik Alfonso hirugarren pertsonara aldatzea da. Eta hirugarren pertsona den «Alfonso» batetik berriro lehenera joatea, hots, «ni» batera. *Orbel eta orri*-ko azkenetariko lau hamalaukoetan, «Alfonso» edo «Irigoien» hirugarren pertsonan erabiltzen dute. Aditzak ere, jakina, hirugarren

pertsonan daudela «Gainean» delakoan bigarren laukoan ta *han prestatu dio porrusaldea* (Irigoienek) (Mariurrikari) ulertzen da<sup>13</sup>. Azken honetako alderik harrigarrietako bat, hamalaukoak osatugabeak izatea da, esaten ez dena esakizun bihurturik, edo esaten dena baino adierazgarriago.

Behin honetarako gero, edonork galdetuko luke zertara datorren liburuaren amaian Alfonso eta Mariurrikaren hartu-eman haragizko hori. Hona hemen neure azalpentxo xumea: Denok dakigunez, Mariurrika litzateke «jentilaro»-ko, —Salbatore Mitxelenak maite zuen hitz bat ahotan hartzearen— jainkosa, Zeus bat Grezian zena, edo Jupiter bat Erroman zena. «Arranotasunaren» edo goragoko mailan egoteari dagokiona da jainkosa batekin amodiotan egotea, izpirituz, eta harrigarriena dena, are haragiz ere. Haragiz batze horren ondoriozko izenburua da *Hi ta ni garade zu, to ez date no*: «Hi» Mariurrika da, «ni» lehenago aipatu dugun Alfonsoren bereizkarria, «zu» delakoa hirukote bati dagokio «ni» batetik «hi» bestetik, eta delako «hi» horretatik sortuko den fruitu edo umea hirugarrenik. Horra beraz izenburuaren lehen zatia, bigarrenak ere badu bere muina. *To ez date no* ez da erraz ulertzen. Axularren pasarte batetik aterea da *Amorantea zen nagusi: no zen tho: emaztea gizon, olloa ollar*. Axularren *no zen tho*, beraz, «emaztea zen gizona « adierazten du *no* bokatiboa emazteari zuzentzen zaio, eta *to*, aldiz gizonari<sup>14</sup>. *To ez date no* delakoak «gizona ez da emakumea izango» adierazten du, lehenago esan dugun bezala, *to* delakoa Alfonsoren «ni»-ri dagokiolako, ni beregain eta bakarti bat da, are jainkosa bati ere entregatzen ez zaiona<sup>15</sup>. Izenburuan berean, argi

<sup>13</sup> Badira Alfonsoren poesian nekez ulertu daitezkeen hainbat «kinu». Alfonso bera ezagutu zutenek harrapatuko dituzte nik salatuko ez ditudan hainbat eta hainbat, eta are nik ere harrapatu ez ditudanak. Bakar bat esango dut. *Porrusaldea prestatu* delakoa honela uler daiteke. Alfonsok bere lagun haundiei, lagun lagunei edo berarekin etxekotasuna zutenei *porrusaldea prestatzen* omen zien. Ni, zoritxarrez, ez nintzen iritsi Alfonsok prestatutako porrusaldea jatera. Hemen Alfonsok Mariurrikari porrusaldea prestatzen badio adiskidantza handi batera iritsi direla adierazi nahi du. Hortik doa «kinua».

<sup>14</sup> Azkuek bere *Morfologia vasca* lanean ere iruzkintzen du Axularren pasartea. Lekeitiarrak dienez, Bilbaon mende hasieran esaten omen zen ezin zela *En la casa de Miguel, él es ella, y ella es él* euskaraz eman, *bera da bera eta bera bera da* ateratzen delako izenordainekin jokatzu gero. Azkuek zionez Axularrek dioen moduan dago giltza *no zen tho* esapide edo erramoldean, hain zuzen. Delako esapide hori Silvain Pauvreau-k bere hiztegian ere badakar. Axularren pasarte osoagoa ikusi nahiz gero, jo bedi Villasanteren edizioko 228 pasartera.

<sup>15</sup> Hemen berariatz jarri dugu entregatu Alfonso ez delako Mariurrikari entregatzen, alderantziz baizik. *Orbel eta orri*-ko «bat» hamalaukoan lehen laukoan: *Anbotoko neskatxa buluzgorririk / entregatu zitzaion Irigoieni, / oraindaino zirrarak badiraut eni, oheztat han bazuten orbel orririk*.

ikusten denez, badago halako intertestualite-joko bat. Batetik, bertso-lariak erabili ohi duten *-de luzagarria, dirade, ziraden*<sup>16</sup> eta horrelakoe-takoa agertzen delako *garade* horretan, eta bestetik oihartzun klasikoa *no zen tho* delakoa aditz zahar kutsuko batez antolaturik *date*<sup>17</sup> batez antolaturik, hain zuzen.

Mariurrikaren aipamena ez da Alfonsoren poesian mitologiako ele-mentu bakartu bat. Lamien aipamena sarri egiten du, hamalauko bat ere badu berariazkoa, eta basajaun eta gainerako numen edo pertso-naia mitologikoena ere bai. Arrasto honetan, lehenago ibili ziren Pio Baroja bat erdarazko sorkuntzan eta Yon Mirande bat euskarazkoan. Alfonsok, Mirandek eta Barojak bezalaxe, asko estimatzen zuen «jentil-tasuna», euskaldunok kristautu ondoren ere, sineskizun eta ondare be-zala gaur egunerarte ia gorde duguna. Alfonsok bere prosa poetikoan Greziako mitologia eta euskalduna nahasi eta bateratu zuen. Prosa poetikoan esan dugu, baina prosa hori baino lehenagoko bere hama-laukoetan ere agertzen dira gerora garatu zuen lorratz honetako era-kusgarriak. Prosa poetiko horretan Ulises Izarora dator, hemen Athe-neta berri bat sortzeko. Nik *Atheneta* delakoa, Euskal Herri kulturazale eta Greziatik etorri den kulturaz oratutako bat ulertzen dut. *Atheneta* hori Bilbao bera ere izan daitekeela deritzat, Alfonsok ziutate honen-gana zuen amodio eta atxikimendua kontutan harturik.

## 7. Euskara zahar kutsuko eta lapurtar

Alfonsoren prosa poetikoa zein gainerako idatziak irakurtzen di-tuena berehala ohartuko da izenordeen erabileraz: *neuror, geuror*. Ize-norde indartu hauek *ni neuror / nik neurorrek, gu geuror / guk geuro-rrek* harrigarri egiten badira ere, ondo jakinaren gainean erabiliak dira. Alfonso, deklinabide zein morfologiako lanak egin zituenean, bide ba-tez bere eredu literarioa moldatzen ari zen. *Neror* bezalako formak Axu-larrek eta abarrek erabili arren, Alfonsok, ostera, *neuror* forma zaharra-gora jotzen du. Zaharzailea da, era berean, hainbat atzizki darabiltza-

---

<sup>16</sup> Bersolariak silaba bat gehiago behar dutenean batez ere erabiltzen dute. Inoiz edo behin, gerta daiteke halako dotorezia kutsu bat itsatsi nahirik ere. Poesia landuan nekez agertzen da baina ager daiteke. Alfonsok berak badarabil, eta Yon Mirendek, kasurako, «Undina» poeman: *Itsaso hurrunen harmonietan / uhinen alhaba jaio zinaden. / Geroz-tik zabilta zure orhoitzan / uharte gardenak ezin eriden.*

<sup>17</sup> Berak inoiz ironiaz azaldu zidan izenburu honetako zertzelada bat. -«Bai Euskal-tzaindira joan zen, X euskaltzaina, euskara zaharra eta ulertezina zela...» ahoan irri jos-takin bat zuela.

nean hala nola *ailiotsa, lizen, liren, date* eta abar. Adibideak milaka eman daitezke, baina ez da gure asmoa adibidez pondu hau hornitzea. Aresti ere tankera horretakoa zen, baina Alfonso bide horretan askozaz zihurragoa da. Adibidetxo bat ematearren «Balendin Enbeita Bilboko Areatza-n» Areatzako ekitaldi batean irakurritako lana aipatuko dut. Lantxo horretan Enbeitaren gorazarre bat egiten du, hizkera jaiki eta goratuan, azkenalderantz hamalauko bat dakar zahar kutsuko euskera eredia gehiago markatuz. Eta azken bezala, gain dotorea eman nahirik *Historiaren oldarrak ailiotsa hala lizen*. Edonor konturatzen da *ailiotsa* desirazko atzizkia ea *lizen* subjuntiboa berariaz maila goratu klasikoa emateko jarriak direla. Inoiz edo behin, berak sortutako adizkiren bat edo beste ere aurki daiteke *datzadan*<sup>18</sup>.


Hizkera goratu honek badu beste alderdi bat: Bizkaiko euskararena. Badira hainbat forma Bizkaiko bere lanetan *demonintru, ondorik* eta hainbat eta hainbat gehiago. Alfonsok Bizkaiko euskara literarioaren bi adarren bertatik bertarako ezagutza zuen. Umezaroa Arratiako Uparan baserrian eman zuen. Gerra garaiko umezaro hau, *Sorterriaren alde*-n eta gerora *Orbel eta orri*-ko olerki banatan eman zuen. Ezkondu ondoren Aulesti eta Leketioko euskeretako erreferentzia zuzena izan zuen. Erreferentzia hau bere ikerlan gehienetan agertuko da. Euskara molde honetako arrastoek ezin zuten beraz huts egin bere sorkarietan.

## 8. Azken eritzi gisa

Lantxo xume hau egitorduan lehenagotik zatika irakurriak neuzkan Alfonsoren sorkariak bere ordena kronologikoan berrirakurri ditut. Haren lanak irakurtzean, hitzekin batera harekin izandako bizipenak ere etorri zaizkit memorioaren bideren batetik. Nik egia esan, aitortza moduko zerbait egin beharko banu, esango nuke maiteago dudala Irigoien prosalaria, Irigoien poeta baino. Beharbada hamalaukoetan hitzek elkarren kontra gurrintz egiten dutelako, edo, beharbada, Alfonsok berekiagoa zuelako hitz laua. Damu izan dut, behin baino gehiagotan, lan hau egiten ari nintzela, hari ez galdetua hainbat eta hainbat zehaztasun. Damu izan dut, galdetu diodan bakarretan, sekulako pozaldia hartzen zuelako. Alfonsori galdetuz gero morfologiaren zehaztasunen bat, antiojoak erantzi, begiak gora begira finkatu eta irakasle jaun baten seriotasunaz hitz egiten zuen. Aldiz, Ulises egiaz eta begiaz Izarora

<sup>18</sup> Berariaz sortua dela uste dut. Berezko adizkia *natzan* litzateke, ni *natza*. Erazle edo faktitiboa *eratzan* da nor - nork. Nik umea seaskan *daratzat*.

joan ote zen galdetuz gero, begiek beste diztira bat hartzen zuten, irribarrea azalago izaten zuen eta hitzak doinu jostakorrigo batez jazten ziren. Literatura, beharbada, Miranderentzat undina dena delako, «giza ametsa», edo Alfonsok berak lamiaz zioen bezala «ametsaren erdian dilindan» dagoelako.







## Egingarria al da dialektologia estrukturala?\*

Egilea: Uriel Weinreich  
Itzultzailea: Iratxe Zuazola Olano

1. Gaur egungo hizkuntzalaritzan ikaskuntza estrukturalen eta dialektologikoen arteko aldea inoiz baino handiagoa da. Adostasun falta ez da konpontzen «fonema» eta «isoglosa» noizbait ikerketaren atal berean agertzeagatik. Ikasleei arlo bateko trebakuntza eman zaie beste-koaren kaltetan. Eremu lana bietarik batek bakarrik sustatzen du, eta kasu bakan batzuetan bakarrik, biek batera. Arlo bakoitzak dituen jarraitzaile porrokatuek lehentasuna eskatzen dute beren metodoarentzat, eta besteei «inpresionismoa» eta «metafisika» egozten dizkiete, kasuaren arabera; malguenak bakarrik daude prest onartzeko errealitate bakar bateko alderdi desberdinak baizik ez direla ari aztertzen.

Honek aspaldiko borroka batean abegi onez hartutako su-etena ematen du, baina su-eten duina ote da? Nekearen eraginez sortutako konpromezua azken finean ezin daiteke betegarri izan alderdi bientzat. Borroka konpon liteke bai estrukturalistek, bai dialektologoek hizkuntzari buruzko beren teoretan arrazoizko leku bat aurkituko balute beste arloarentzat. Baina, arloek elkar onartzeak biek parte hartu ahal izateko moduko hizkuntzari buruzko teoria bateratu bat ekarriko lieke. Hau oraindik egiteko dago.

Oztopoak handiegiak izan arren, hau idazten ari den honek gaindigarriak direla uste du. Hizkuntzalaritzaren baitan hain banatuta dauden aldaera bien teoriak, estrukturalarenak eta dialektologikoenak, alegia, gehiago hurbildu ahal izateko arazo asko gainditu behar dira, eta artikulua honek horietako batzuk zeintzuk diren iradokitzea du helburu.

---

\* WEINREICH, Uriel: «Is a structural dialectology possible?», in *Word X*.

Dialektologiaren ikerketarako hain garrantzitsua den artikulua hau orain arte ez da inoiz itzuli ez euskarara ez gaztelaniara. Ondo dakigu ikasketa filologikoen barruan dialektologiak leku nabaria duela, eta, hori dela eta, filologiako gaiak jorratzen dituen aldikari honetan argitaratuko dugu artikulua horren euskararako itzulpena.

Ezinbestekoa da gauzak behar baino gehiago sinpletzea, eztabaidako «alderdiak» ugariak baitira, eta hauek ere batasunatik urrun daude. Idazle hau ez litzateke ausartuko epaile izaten. Bakarrik espero du, suari egur gehiago bota gabe, eztabaida sustatzea interesen gatazka euren baitan bizi izan duten beste batzuekin.

Hotsen esparruan ikuspuntu estrukturala eta ez-estrukturala beste inon baino urrunago daude elkarrengandik, eta horrexegatik arazo fonologikoak dira nagusi lan honetan<sup>1</sup>. Azterketa semantikoak ez du berdindu (orain arte, behintzat) hotsen azterketa zehaztasunen aldetik; gramatikaren aldetik, berriz, ikuspuntu bereziki estrukturalak askoz ekarpen gutxiago egin dituzte.

2. Heterogenotasun hau guztia kontuan hartu gabe, hizkuntzalaritza estrukturalak sistema antolatu bezala definitzen du hizkuntza. Hizkuntzalaritza estrukturalaren efektu askatzaileetako bat izan da hizkuntza sistema bakar eta itxi bezala tratatzea posible egin duena; izan ere, sistema horren atalak bai bata bestearekiko oposizioak eta baita batzuek besteekiko duten funtzioak ere markatzen dituzte, eta sekula ez sistematik kanpoko ezerk. Baina antolaketak esparru mugatu bat izan behar duenez gero, hizkuntzalaritza estrukturalaren deskribapenean arazo handienetarikoa bat aztergaia gero, deskribatutako sistema berezia, alegia, zedarritzea da. Kasu idealetan bakarrik aldarrika dezake hizkuntzalaririk «hizkuntza» oso bat deskribatzen ari dela, hitzaren zentzu ez-teknikoan. Praktikan aztergaia gehiago zedarritu behar du. Ematen dituen pausoen artean hauxe da bat: hizkuntzalaririk bere datuetan puntu batzuk sailkatzen ditu beste sistema batzuetatik sortutako tartekatze bezala, hau da, elementu «sinkronikoki arrotzak» bezala (adibidez *bon mot* gainerakoan euskaraz dagoen perpaus batean). Pertsona ez adituek «hizkuntza» deitzen duten sistema multzoaren aldaera bat bakarrik deskribatzen ari dela ziurtatzea da beste pauso bat. Pauso hauek ordenan eman behar dira deskribatzen den materiala era batekoa dela bermatzeko. Badirudi hau deskribapen estrukturalaren behar-kizunetarikoa bat dela.

«Dialekto» terminoa maiz erabiltzen da sistema multzoaren azpisailkapen bat den deskribapenaren aztergaia izendatzeko, baina, azken finean, pertsona arruntek hizkuntza soila baino ez deritzote horri. Alabaina, «dialektoa» komunitate, herrialde, gizarte maila eta abarren hiz-

---

<sup>1</sup> Hemen egindako zehaztasun fonologiko batzuk N.S. Trubetzkoyren geografia linguistikoari buruzko artikulu honetan oinarritu dira: «Phonologie et géographie linguistique», *TCLP* 4.228-34 (1931); hau berriz argitaratu zen beste honetan: *Principes de phonologie*, Paris, 1949, 343-50. orr.

keta bezala definitzen bada, ez du ematen kontzeptua oso ondo egokitzen denik hizkuntzalaritza estruktural itxi baten barruan, espazio edo denbora ezaugarriez hornituta baitago, eta hauek ez dagozkie bete-betean sistema linguistikoei. «Dialektoak» elkarren ondoan edo urrun egon daitezke, eta garaikideak edo ez-garaikideak, prestigiodunak edo prestigiegabeak izan daitezke; ikuspuntu estruktural zorrotz batetik, sistema linguistikoak erabat berdinak ala desberdinak baino ezin dira izan. «Dialekto» terminoa denborazko izaerara mugatzea proposatzen dute eta, analisi estrukturaleko helburuetarako hemen aurkeztu den moduan, «aldaera» terminoaz ordeztzea.

«Dialektoa» berez heterogenoa izan zitekeen hizketa mota bezala ikusten duen alde ez-estrukturalarekiko begirunea dela eta, zenbait hizkuntzalarik deskripzioaren aztergaia «idiolekto» maila baino harago eraman dute. Termino hau Estatu Batuetan erabili izan da «pertsonei bakar batek momentu jakin batean hizketarako dituen azturen multzoa» adierazteko. Terminoak kritika gogorrak izan ditu bi arlotan: (1) hizketa ereduaren iraupena errazago egokituko zaie bi pertsoneri el-karrizketa egoera batean (*dialecte à deux* baten antzekoa) pertsona bakar bati baino; (2) «idiolekto»aren beraren barruan ere gehiago zatitzeko eskatzen duten desberdintasunak daude (adibidez «estilo»etan).

«Idiolektoa» deskripzioaren aztergai homogenoa da, eremu logikoetara eta, neurri batean, zentzugabetasunera murriztua. Alde batetik, Saussurek hizkuntzalaritza orokorraren zeregina munduko sistema linguistiko guztiak deskribatzea dela<sup>2</sup> esaten duenean berarekin bat etorritik gero, eta, bestetik, deskripzioak aldi bakoitzean idiolekto bakarra hartu ahal izanez gero, hizkuntzalaritza estrukturalaren zeregina amaigabea izateaz gain (eta hau negargarria baina egia izango litzateke), ondorioak arruntak izango lirateke eta gainera ahaleginak ez luke merezi izango.

Deskripzio lana material homogenotara mugatzeak paradoxa ekarri du, Zenok mugimenduari buruz proposatutako horretatik hain urrun ez dagoena, alegia. Mugitzen ari den gezi bat punturen batean dago denboraren une guztietan; tarteko uneetan tarteko posizioetan egongo da. Beraz, inoiz ez da mugitzen. Zorroztasunez aplikaturik, deskripzio estrukturalaren elementu tipikoak —«oposaketa» eta «unitate batzuek sistema bereko beste unitate batzuekiko duten funtzioa»— azterketa estrukturala ezgaitzera heldu dira ia partzialki antzekoak diren barietate batzuk aldi berean kontsideratzeko. Zorionez, ikerketaren aurrera-

---

<sup>2</sup> Ferdinand DE SAUSSURE: *Cours de linguistique générale*, 4<sup>a</sup> Paris, 1949, 20. or.

penak honezkero ez du eskatzen erabateko berdintasuna lanerako hipotesi bezala<sup>3</sup>.

Hizkuntzalaritza estrukturalaren teoriak sistema berezi eta homogeneoetatik maila altuago bateko sistemak sortzeko prozedurak behar ditu; izan ere, sistema berezi eta homogeno horiek deskribapenetik eratorri dira eta bakoitzak adierazpen eta edukiaren substantziaren antolamendu formal bakarra ordezkatzeko du. Sortutakoari «diasistema» deituko diogu, baina betiere baldintza batekin: horrelako hitzak onartzen ez dituen jendeak inolako arazorik gabe hitz egingo du supersistemaz edo, besterik gabe, maila altuago bateko sistemaz. Hizkuntzalaritza-aztertzaileek «diasistema» sor dezakete antzekotasun partzialak dituzten edozein bi sistemetatik (antzekotasun hauek dira, hain zuzen, bi sistema batze hutsetik zerbait desberdin egiten dutenak). Baina horrek ez du esan nahi beti zientzilari baten sormena dela bakarrik: «diasistema» pertsona elebidunek benetako modu batean esperimendatzeko dute (bi dialekto egiten dituztenak barne) eta hizkuntza-aztertzaileek «bat egindako sistema» deitzen dutenarekin bat dator<sup>4</sup>. Horrela izanik, «diasistema» bat sor dezakegu Yiddish mota batzuetatik non /i/ opo-saketa egiten duen aldakia bera /i/ fonema soilik duen beste aldaki batekin oposaturik baitago. Kontuan hartu behar da Yiddishez hitz egiten duen pertsona batek dialektoen arteko harremana dagoenean, solaskideak /i/ eta /i/ nahasten baditu, hari buruzko informazioa aurkituko duela, diasistema mailan berak egiten duen bereizketarekin kontrajarririk baitago. Horrek esango dio (modu «sinbolikoan» «sintomatikoan» baino areago), gutxi gora-behera, nongoa den solaskidea.

Egingarria izan daiteke, «dialektoa» denboraren arabera definitzen ez badugu, «dialektologikoa» «diasistema»ri dagokion adjetiboa bezala ezartzea eta, era berean, ikerketa dialektologikoz hitz egitea diasistemen azterketa bezala. Sistema desberdinak antzekotasun partziala dela-eta batera tratatzen direnean, sortzen diren arazoak ikerketa izango litzateke dialektologia. Bereziki estrukturala den dialektologiak desberdintasun partzialen ondorio estrukturalak bilatuko litzuzke antzekotasun partzialen esparru baten barruan.

Gauza ziurra da esatea dialektologiaren parte handi bat mota horretakoa dela eta beharrezkoak ez diren erreferentzia geografikoak, etnografikoak, kultura eta politikaren historiakoak, edo estrukturalismotik kanpoko beste faktore batzuk gordetzen dituela bere baitan. Gi-

---

<sup>3</sup> André Martinetek Uriel Weinreichi egindako hitzaurrean, *Languages in Contact*, Linguistic Circle of New York, 1. edizioa, 1993, XII+143. or, VII. or.

<sup>4</sup> *Languages in Contact*, 8. or. eta hur.

lliéron-en azterketa klasikoetan, ohiko interesa (bakarra ez bada) estrukturala da, «kanpokoa» baino gehiago. «Frantsesa» diasisteman, oso ondo erka dezakegu *gallus* hitzaren bilakaera -ll- > -d- egiten duen aldaki batean, aldaketa fonologiko hau eman ez zen beste aldaki batean izan duen bilakaerarekin, betiere aldaki hauen geografia osoa edo erlatiboa, edo kronologiari buruz ezer jakin gabe. Dialektologia estrukturala ez-geografikoa existitzen da; legezkoa eta etorkizun onekoa ere bada. Bere zeregin berezia sistemen arteko antzekotasun eta desberdintasunen azterketa da, eta hortik sortutako ondorio estrukturalena. Aurreko horrek ez du esan nahi, jakina, «kanpoko» dialektologia gainditu dugunik; gai hau beherago aipatuko dugu (7. sailean).

Ikaskuntza dialektologikoak zentzu estrukturalen ez dira, noski, gauza berria. Sarritan  $f_{i}^{us}$  bezala batu den «Yiddisheko *fus / fis* "foot"» bezalako binomio formulak beti izan dira fonologia historikoaren oinarria. Baina azpimarratu beharko genuke dialektologia estrukturala ez dela arazo historikoetara murriztu behar lehenago murriztu zuten punturaino. Aldakien arteko desberdintasun partzialen ondorioak sinkronikoak eta diakronikoak izan daitezke. Ondorengo hau «ondorio sinkroniko»en adibide bat da. Yiddisharen aldaki batean (Yiddisharekin jarraituko dugu koherenteak izateko), «foot» hitzaren singularra eta plurala horrela bereizten dira: (*der*) *fus* vs. (*di*) *fis*; beste aldaki batean, berriz, biak *fis* dira. Zenbakia bereizten duen aldakian, bestalde, singularra, *fus*, femeninoa bezala ematen da (*direkin*); hala eta guztiz ere, singularra eta pluralaren arteko bereizketa bokala kontuan hartuz egin daiteke: *di fus* «sg.» - *di fis* «pl.» Beste dialektoan, *fis* beti maskulinoa da, agian *der fis* singularra eta *di fis* pluralaren artean maskulinoak bakarrik bereiz dezakeelako edo, gutxienez, horrekin zerikusia duelako<sup>5</sup>.

Estrukturalismoa bere mutur logikora eramango bagenu, ez lituzke kontuan hartuko hemen iradokitako konparaketa moetak: sistemen baitako erlazioak aztertuko lituzke bakarrik; eta sistema perfektu batean atal guztiak elkarri lotuta daudenez gero («tout se tient»), gogorra da ikustea nola sistemak partzialki antzekoak edo desberdinak bezala ulertzen diren; edonork pentsa lezake guztiz berdinak ala desberdinak baino ezin direla izan. Era honetako kontsiderazioek Ginebrako eskolako Saussureren jarraitzaile ortodoxoei eragotzi zieten mailaka aldatzen diren sistemen azterketa gitea, uste baitzen hizkuntzak, konpa-

<sup>5</sup> Fonemikan ematen diren ondorio sinkronikoen adibide bezala, ikus: Anton Pfalz: «Zur Phonologie der bairisch-österreichischen Mundart,» *Lebendiges Erbe: Festschrift... Ernst Reclam*, Leipzig, 1936, 1-19. orr. Hau aldi berean germaniar fonemika eta dialektologia estrukturalaren adibide bitxietariko bat da.

ratzekotan, «maila» desberdinetan bakarrik konparatu ahal zirela<sup>6</sup>. Baina estrukturalismo malguago batek oztopo hau gainditu egin du sistema perfektu baten ilusioa ahaztuz, eta arlo diakronikoan emaitza nabariak sortzen ari da<sup>7</sup>. Orain aurrera-pauso handi bat egin beharko genuke eta partzialki antzekoak diren zenbait sistemaren azterketa konbinatu batean oinarritzen diren dialektologia sinkroniko edo diakronikoa posible direla baieztatu.

Hizkuntzalaritza estrukturalaren teorian emandako pauso honek, antza denez, asko egingo luke hau dialektologiara hurbiltzeko orain aurrera eramaten ari den moduan.

3. Proposatutako hurbilketa horretan, dialektologiaren partetik gertu geratu gara. Estrukturalistek dialektologia erabili ohi den moduaren kontra egindako objektzioa horrela formula daiteke: «diasistemak» sortzean ez dituzte aintzat hartzen osatzen dituzten aldakien egiturak. Beste modu batean esanda, gaur egungo dialektologiak sarritan erkatzen ditu sistema desberdinetako elementuak sistema horietan duten partaidetza sakona behar den moduan azpimarratu gabe.

Hotsen esparruan hau hurbilketa ez-fonemikoa izatera heltzen da. Dialektologo tradizional batek ez luke kezkarik izan behar zenbait dilektotako informanteak edozein hitzen baliokideak ahoskatzen entzuteko eta forma horiek «berdinak» ala «desberdinak» diren esateko. Demagun hizkuntza bateko lau hitzun hartu eta «man» ahoskatzeko esatean horrela egiten dutela: 1. [man], 2. [man], 3. [man] eta 4. [man]. Modu inpresionista batean, esango genuke 1 eta 2 «berdinak» direla eta 3 eta 4 ere bai; baina era berean esango genuke 1 eta 2 bikotea eta 3 eta 4 bikotea «desberdinak» direla. Oraindik ere demagun 1 informanteak bokalen iraupena adierazgarria duen aldaki bat hitz egiten duela; fonemikan forma hori <sub>1</sub>/man/ da. 2 informanteak ez du iraupen bokalikorik desberdintzen eta <sub>2</sub>/man/ eman digu. Ikus deza-kegu ere 3 informanteak ordezkatu duen aldakia, non irekidura mailarik altuena duen bokaleak /m/ eta /n/-ren artean [a] aldaki posizionala baitu; beraz, fonemikoki 3/man/ dugu. Laugarren aldakian, ez dago horrelako aldaki posizionalik; forma hori 4/mon/ izango litzateke. Azterketa estrukturala, beraz, ez-estrukturalaz bestelakoa da: orduan, 2 eta 3 agian «berdinak» izatera pasatuko liriateke (baina bakarrik, jakina, sistemak bestela ere erabat berdinak baldin badira); eta 1 eta 4,

<sup>6</sup> Albert SECHEHAYE: «Les trois linguistiques saussuriennes», *Vox romanica*, 5.1-48 (1940), 30 or. eta hur.; H[enri] FREI: «Lois de passage», *Zeitschrift für romanische Philologie*, 64.557-68 (1944).

<sup>7</sup> Ikus Alphonse G. Juilland-en fonemika diakronikoari buruzko bibliografia: *Word* 9.198-208 (1953).

berriz, desberdinak izango lirateke. Hizkuntzalaritza estrukturalak zera eskatzen du: parte hartzen duten sistemen formak lehenengo eta behin sistema horien baitan ulertzea, erabat berdinak ez diren bi sistemen unitate formalak, zorrozki esanda, neurtezinak baitira<sup>8</sup>.


Antzeko beharkizun bat egin genezakeen edukin unitateen edo «semantemen» inguruan. Ezin izango genuke esan, adibidez, Yiddisharen aldaki bateko *taykh* eta beste aldaki bateko *taykh* «berdinak» direnik, baldin eta batean ózereri («lakua») kontrajartzen bazaio, beraz «ibaia» esanahia besterik ez du, eta bestean, aldiz, ez bazaio hainbeste kontrajartzen eta edozein «ur masa» handi izendatzeko balio badu. Antzeko oharpen estrukturalak eskatuko lirateke diasistemetako «sinonimoak» direla eta. «Yiddish» diasisteman, *baytn*, *shtékheven* eta *toyshn* hitzek gutxi gorabehera esanahi berbera dute: «trukatu», baina ezin dira sinonimo izan aldaki mailan edozein aldakitan ez badira hirurak existitzen.

Adibide gramatikal bat ere aipa genezake. Sistemaren baitan duten funtzioaren arabera, ezin izango genuke justifikatu *vaysl* («Vistula ibaia») femeninoa Yiddisharen bi aldakietakoa bezala identifikatzea baldin eta batean *vaysl* neutroari («arrautzaren zuringo») kontrajartzen bazaio eta bestean, aitzitik, «arrautzaren zuringo» hitzaren (femeninoa ere) guztiz homonimoa bada. Zalantzagarrria ere bada bi aldaki hauetako edozein bi femenino legez identifikatu ahal direnentz kontuan hartzen badugu aldakietako batek ez duela genero neutrorik bete-betean.


Dialektologoa ohituta dago aldaki desberdinetako «substantzia» zuzenean konparatzen. Hizkuntzalari estrukturalak bere ustez forma linguistikoak definitzen dituzten elkarketa, kontrajarren eta funtzio multzoa eskatzen du; baina eskaera horrek korapilatsua, zentzugabea eta premiagabea («metafisikoa») ematen du dialektologoarentzat. Desadostasuna argiago agertzeko, eztabaidatu berri dugun arazo fonikoa mapa batean adieraziko dugu, eta hau tratatzeko modu tradizionala eta proposatutako estrukturala erkatuko ditugu. Argi dago ikuspegi estrukturalak nahasteak dakartzala, baina dialektologoa hauek beharrezkoak direla jabetuko da konturatzen denean fonemika, orokorrean hizkuntzalaritza estrukturala bezala, ez dela arazo jakin batzuk aztertzeo teknika berezi bat, baizik eta hizkuntzak funtzionatzen duen moduari buruzko oinarrizko aurkikuntza bat, eta hizkuntzalari estrukturalak horri lotuta daude bete-betean.

---

<sup>8</sup> *Languages in Contact*, 7. or. eta hur.



1. mapa: Tradizionala.



2. mapa: Estrukturala.

## BOKALA X HIZKUNTZAKO «MAN»en

2. mapan lerro bakar eta jarrai batek zerrenda fonemiko desberdinak dituzten aldeak banatzen ditu (alde ilunak bokaleen iraupena bereizten du, alde argiak ez du bereizketarik egiten). Marra bikoitzak hitz horretan fonema desberdinak erabiltzen dituzten aldeak bereizten ditu (distribuzio desberdintasuna). Puntuetako marrek desberdintasun alofonikoak bereizten ditu

Ikuspegi estrukturalan, hotsen arteko desberdintasun alofonikoak neurri batean desberdintasun fonemikoak bezain garrantzitsuak ez direnez gero, /a/ gune orokorrean [a] eta [ã] banatzen dituen isoglosa «substantziala» (2. mapa) estrukturalki ez da [man] = /man/ eta [man] = /mon/ ahoskerak banatzen dituen isoglosa guztiz formala bezain garrantzitsua; bigarren isoglosak ez luke inolako desberdintasunik adieraziko «substantzia»ren aldetik; mapa ez-estrukturalan ez litzateke nabarrituko (1. mapa). Beraz, dialektologo tradizionalak bere buruari galdetzen dio zer irabaz dezakeen marra «metafisiko» horiek ipiniz gero. Baina, mapa dialektologikoak aldatetaren irudi bezala ikusten badira diakronikoki, eta frogatu ahal bada fonema eta alofonoen arteko aldea materiala izan daitekeela hots aldaketa erabakigarri batean, orduan posible izango litzateke dialektologoak sinestea mapa estrukturala, azken finean, funtzionatzen duen hizkuntza baten errealitatetik hurbilago dagoela. Agian, antzeko arrazoiak eragileak izan litezke gramatika eta lexiko arazoetarako egokiak diren neurrian.

Dialektologoek konparaketetan erabiltzen dituzten elementuen funtzioak kontuan hartuko balituzte, «diasistema»ri buruz duten kon-



tzeptua hemen hizkuntzalaritza estrukturalarentzat proposatu den horretara hurbilduko litzateke, eta oso beharrezkoa ez den teoria bateratura helduko litzateke.

4. Ikaskuntza dialektologikoaren aztergai berezi bezala proposatu diren desberdintasun partzialak bi motatakoak izan daitezke: inbentario-desberdintasunak eta distribuzio-desberdintasunak. Bigarrenak ikaskuntza konparatiboen material estandarra diren bitartean, lehenengoei ez zaie dagokien indarra eman.

Inbentario-desberdintasunen adibide bezala, lehenengo eta behin kasu fonemiko soil bat hartuko dugu. Ondoko eztabaida honetan barra bakarrek (/) fonema multzoak inguratzen dituzte eta tilet bakarrek (~) aurretik dauzkaten zenbakiak identifikatzen dituzten aldakietako oposaketa fonetikoak adierazten dituzte; sortutako diasistemetako oposaketak tilet bikoitzek (˘) adierazten dituzte, eta diasistementzako formulak barra bikoitzek (//) inguratzen dituzte. Bost bokaleko sistema berdina duten bi aldaki hartuta, ondoko diasistema hau sor genezake:  $_{1,2} //i \sim e \sim a \sim o \sim u//$ . Orain demagun irekidura ertaineko lehendabiziko bokala aldaki batean bestean baino irekiagoa dela; hau isladatuko lukeen transkripzio fonetiko bat aukeratu ondoren, honela adieraziko genuke desberdintasuna diasisteman:

$$_{1,2} \left\| i \approx \frac{1e}{2\varepsilon} \approx a \approx o \approx u \right\|$$

Aurreko hiru bokale (1) bereizten dituen aldaki bat eta lau bereizten dituen (2) beste aldaki bat hartuta, bokalen diasistemari dagokion parte honela formulatuko genuke:

$$_{1,2} \left\| \frac{1/i \sim e \sim \partial/}{2/i \sim e \sim \varepsilon \sim \partial/} \approx a \approx o \dots \right\|$$

Hona hemen Yiddisharen gaur egungo bokale inbentarioa hiru dialektotako diasistema bezala hartuta: 1. Erdialdekoa («Poloniera»), 2. Hego-mendebaldekoa («Ukraniera») eta 3. Ipar-mendebaldekoa («Lituaniera»):

$$_{1,2,3} \left\| \frac{1/i : \sim i/}{2/i \sim I/} \oplus e \oplus \frac{1/a : \sim a/}{2,3 a} \oplus o \oplus u \right\|$$

Kategoria gramatikalen inbentarioko antzeko desberdintasunak ezar litezke, esaterako, bi genero hiruren aldean dituzten aldakienak, hiru konjugazio lauren aurrean dituzten-ak, eta ez horrelakoen artean. Adibide guztiak suertatzen dira hemen tentagarriak eta eskematikoak; diasistemaren baieztapen analitikoago baten posibilitateak, adibidez ezaugarri adierazgarrietan oinarrituta, oraindik ere ikertzeko daude.

Gauza bat ziurra da: hizkuntz harreman eta interferentzien azterketan (ikus 5. saila), inbentario-desberdintasunen irudi argia ezinbestekoa da<sup>9</sup>.

Distribuzio-desberdintasunak ezin dira zuzenean ondorioztatu inbentario-desberdintasunen alderapenetik, normalean biak ere harreman historiko zehatz batean egon arren. Esaterako, gorago deskribatutako «Yiddish» diasisteman, 3 aldakiko <sub>3</sub>/i/ fonema normalean 2 aldakiko kognatuetako <sub>2</sub>/i/ edo <sub>2</sub>/l/ren parekoa da, eta baita 1 aldakiko kognatuetako <sub>1</sub>/i:/ edo <sub>1</sub>/i/rena ere (<sub>3</sub>/sine/: <sub>2</sub>/sine/: <sub>1</sub>/sine/ «etsaigoa»). Horixe da, zen bezala, pareko hurbilenen arteko egokitzapena. Baina askotan 1 eta 2 aldakietan <sub>3</sub>/o/ak /u/en parekoak dira, gaur egun hiru aldakiek /o/ eta /u/ biak eduki arren. Horrela izanik, /futer/ek «aita» esanahia du 1 eta 2 aldakietan, baina 3 aldakian «larrua» adierazten du; /meluxe/k <sub>1,2</sub>«lanbide» eta <sub>3</sub>«estatu» esan nahi du; /hun/ek <sub>1,2</sub>«oilarra» eta <sub>3</sub>«oiloa» adierazten du. Aldaki hauen arteko harremana eguneroko esperientzia da milaka hitzuntzat, baina horientzat «Yiddish» hots sekuentzia hauek ez dira guztiz identifikatuko harik eta haiek egiten duten «Yiddish»aren aldaki berezi bera ere zehaztu arte. Beste alde batetik, ezin da ukatu Yiddish [fi l] (<sub>1,2</sub>«bete», <sub>3</sub>«batzuk») bezalako forma bat aldakietako batean duen esanahiarekiko elkarketaz bakarrik identifikatzen dela guztiz; hau da, aldaki batzuetan ematen diren kognatuetako hotsen distribuzio-desberdintasunak aintzat hartzen direnean. Orain arteko punturik ilunena da forma hori ez dela guztiz identifikatuko ezta *inbentario*-desberdintasunak kontuan hartzen ez badira ere; hau da, aldaki jakin horietako bateko fonemen arabera ulertzen ez bada: [fil] = <sub>1</sub>/fil/, <sub>2</sub>/fll/, <sub>3</sub>/fil/.

Amerikako ingelesaren fonemikari buruzko lan deskriptibo berriak hizkuntza «diasistema» bezala ia tratatu du, edozein modutan ere, hemen aurkeztutako beharkizunak bete gabe. Trager eta Smithen azterketa sarritan onartuak<sup>10</sup> Amerikako ingelesaren aldaki guztietako formak deskribatu ahal izateko ikur multzo bat ematen du. Posible egiten

<sup>9</sup> *Ibid.*, 1 eta hur. orr.

<sup>10</sup> George L. Trager eta Henry Lee Smith, Jr., *An Outline of English Structure* (= *Studies in Linguistics, Occasional Papers* 3), Norman (Okla.), 1951, bereziki 27-9. orr.

du, esaterako, hego-ekialdeko /p(ys/ pass transkribatzea dialekto bereko /p(t/ pat edo beste aldaki batzuetako /b yd/ bird eta beste hitz askotan erabilitako ikur berdin batzuk aintzat harturik. Horrek hautsi egiten du aldakien sistema fonemikoa diasistema sortu aurretik guztiz ezarri behar delako printzipioa, hemen babestutakoa, alegia. Ez dakigu Amerikako hego-ekialdeko ingelesaren fonemen zerrendan *passeko* /y/ beste aldaketako /r/ren inbentarioaren parte bezala bat datorren ala ez. Ezin dugu esan Ingalaterra Berriko kostaldeko *home* hitzaren [o] eta aldaki bereko *goren* [ow] fonema bera ala bi fonema diren. Era honetako arrazoiak direla eta, sistema kritikatu egin da ez duelako ematen deskribapen fonemikoa edo deskribapen multzoa, «tegi traskripzionala» baizik<sup>11</sup>. Oraindik ere, diasistema fonemikoa ezartzeko falta den pausoa erraza da ikusteko.

5. Orain dialektologia estrukturalak orokorrean hizkuntzalaritzaren baitan duen lekua birplanteatu eta zehaztuko dugu. DIALEKTOLOGIA SINKRONIKOAK partzialki desberdinak diren sistemak konparatzen ditu eta desberdintasun hauek antzekotasunen baitan dituzten «ondorio sinkronikoak» aztertzen ditu. DIALEKTOLOGIA DIAKRONIKOA alde batetik DIBERGENTZIArekin aritzen da, hau da, desberdintasun partzialek antzekotasunen arabera duten gehikuntza ikasten du eta antzekotasun handiago baten lehenagoko mailak birreraiki litzake (tradizioan, hizkuntzalaritza konparatiboa); beste alde batetik KONBERGENTZIArekin aritzen da, hau da, desberdintasunen arabera ugaritzen diren antzekotasun partzialak aztertzen ditu (tradizioan substratu eta adstratuen ikaskuntzak, «dialektologia elebiduna»<sup>12</sup> eta antzekoak).

Dialektologiaren kontrakoa hizkuntzak sistema desberdinak bezala banaka-banaka aztertzea da, baina ez du izen berezirik behar. Horrek erabateko sistemen deskribapen zuzenak, sistema horien konparaketa tipologikoak eta, diakronikoki, garai batean bat kontsideratutako sistemen aldaketen ikasketa suposatzen du.

6. Lehenago azaldu dugu diasistema berez sor daitekeela edozein aldaki kopurutatik helburu analitiko jakin baterako. Diasistema bat sortzeak aldaki desberdinak beren antzekotasun partzialek zehaztutako continuum moduko batean kokatzea adierazten du. Edozein modutan ere, dialektologia tradizioaletik estrukturalera pasatzean, arazorik pre-miazko eta larriena kontrakoa da; hau da, nola zatitu continuum bat

<sup>11</sup> Einar HAUGEN, «Problems in Bilingual Description,» *Report of the Fifth Annual Round Table Meeting on Linguistics and Language Teaching* (= [Georgetown University] *Monograph Series on Languages and Linguistics* no. 7), prentsan.

<sup>12</sup> Dialektologia elebidunaren saiakerarako, ikus Uriel Weinreich, «*Sábesdiker losn* in Yiddish: a problem of Linguistic Affinity,» *Word* 8.360-77 (1952).

aldaki desberdinetan. Zein irizpide erabili beharko genuke mota desberdinetako zatiketak egiteko? Erabili ote ditzakegu «hizkuntza»ren zatiketa ez-teknikoak —«dialekto»ak, «patois»ak eta horrelakoak— helburu teknikoetarako?<sup>13</sup>

Galdera hauei erantzun bat eman aurretik, behar-beharrezkoa da hizkuntza estandarizatu eta ez-estandarizatu bereiztea. Termino multzo hau proposatu dugu «estandar» hitz anbiguoaren erabilpena saihesteko, beste batzuen artean «gizartean onargarria», «ertaina», «tipikoa» eta gehiago adierazteko balio behar baitu. ESTANDARIZAZIOA, beste alde batetik, erraz erabil genezake hizkuntzaren erregulazio prozesu gutxi gora-behera konszientea, antolatua eta zentralizatu adierazteko<sup>14</sup>. Hizkuntza europar askok mendeetan izan dituzte aldaki estandarizatuak; lehenago «kolonialak» izan diren zenbait hizkuntza oraintxe ari dira prozesuan sarturik. Mailakatze guttiak ez dira estandarizazioaren balioak. Estandarizazio prozesuan, erregulazailerik eta jarraitzaileen arteko funtzio banaketa bat dago, gutxi gorabehera zehazki definitutako autoritateen (akademiak, hezkuntza ministraritzak, *Sprachvereine*, eta abar) eta kontrol bideen (eskolak, argitalpen bereziak, eta abar) eraketa. Esate baterako, nolabaiteko mailakatze dialektala eta anglizazio handia eman dira Estatu Batuetako hizkuntza inmigranteetan, eta esan genezake *plenty* bezalako hitz batek Amerikako koinê norvegiarraren parte bilakatu dela<sup>15</sup>. Baina hemen proposatutako zentzuan, ez dago norvegiar mundu zaharra ez bezalako den norvegiar amerikar «estandarizatu»rik, eta hizkuntza estandarizatuaren ikuspuntutik, *plenty* herrialdeko *slang*aren termino bat baino ez da.

Orain, estandarizazio prozesuaren beraren parte da hizkuntza baten nortasuna baieztatzea, beste hizkuntzetatik bereiztea eta beraren baitan desberdintasunak gutxitzen behin eta berriro ahalegintzea. Hizkuntza estandarizatuetakoinformanteek modu berezi batean erreakzionatzen dute; gainera, beste alde batetik, askoz ere errazagoa da hizkuntza estandarizatu bateko ereduarekin aritzea, horri buruzko oro-

<sup>13</sup> Dialektologia ez-zehatzaren baitan nolabaiteko zientzia-zehaztasun bat sartzeko posibilitatea André Martinetek aztertu zuen: «Dialect,» *Romance Philology* (1953/54), prentsan. Václav Poláček artikuluak «Contributions à l'étude de la notion de langue et de dialecte», *Orbis*, 3.89-98 (1954), beranduegi heldu zen hemen erabiltzeko adierazten duen bezain sakonki; izan ere, artikulu horrek adierazten du «hizkuntza» deitzen dugula antzekotasun partzialak gramatikalak eta desberdintasun partzialak, berriz, fonologikoak eta lexikalak dituen diasistema.

<sup>14</sup> Ikus *Languages in Contact*, 99-103. orr. Estandarizazioari buruzko liburu interesgarri bat hauxe izan daiteke: Heinz Kloss, *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950*, Munich, 1952.

<sup>15</sup> Einar HAUGEN: *The norwegian Language in America*, Philadelphia, 1953, 588. or.

korpenak egitea eta aplikagarritasunaren mugak ezagutzea. Hizkuntza ez-estandarizatu edo HERRI-HIZKUNTZAREN<sup>16</sup> mailan, aldaki bat eta besteen arteko desberdintasun bereiztua EZ da aldaki horren hiztunen esperientziaren parte bat, eta askoz ere zailagoa da ordezteko. Adibidez, erraza da formulatzea non bukatzen den holandes estandarizatua eta non hasten den alemaniera estandarizatua, baina guztiz arazo desberdina da herri-holandesa eta herri-alemanieraren arteko pausoa helburu teknikoetarako erabiltzea.

Dialektologoez, orokorrean, hizkuntza estandarizatuarekin aritzea saihestu dute eta herri hizkuntzetara mugatu dira<sup>17</sup>. Beraz, bai praktikan bai teorian hizkuntz continuuma zatitu eta ordenatzeko arazoa bereziki larria da herri mailari dagokionez eta ez maila estandarizatuari dagokionez. Garai batean herri hizkuntzaren continuuma ezaugarri estrukturalen (sarritan diakronikoen) arabera zatitzen zen, adibidez, garapen fonologiko jakin baten muga geografikoak. Edo hizkuntzalariak garrantzitsutzat hartzen zuen isoglosa bat aukeratzen zen (adibidez *k/x* goi eta behe alemanieraren arteko marra), edo lodiera nahikoa zuten isoglosa sorta erabiltzen zuten marra banatzaile bezala. Kasu bietan, lortutako zatiketak ez ziren, jakina, guztiak maila berekoak; handiak, txikiak edo ertainak ziren, sortaren lodiera edo giltza isoglosaren garrantzia erlatiboaren arabera. Nabaria da metodologia baikor honetatik ezin dela «dialekto»aren kontzeptu argirik sortu, gizarte bat «talde»tan era agortzaile batean eta salbuespen bezala zatitu ezin den modu berean.

Era honetako sailkapen-prozedurak gaur egun ia desfasaturik daude. Dialektologoak orokorrean irizpide extra-estrukturetara pasatu dira herri-hizkuntzaren continuuma zatitzeko. Hizkuntz eremuaren kontzeptuak (*Sprachlandschaft*) «dialekto»rena (*Mundart*) ia ordeztu du lan geografiko gehienetako interes nagusia bezala<sup>18</sup>, eta ondorio miresgarriak lortzen ari dira mugak, erdi inguruak eta hizkuntz eremuetako dinamika orokorrak zentzu zabalago bateko «kultur eremu»ekin koerluzionatzean. Alemaniako Renaniako ripuariar eta Mosela-Frankoniar «dialekto»en ar-

<sup>16</sup> Paralelo interesgarriak gara litezke «estandarizatu»-«herriko» oposizio soziolinguistikoa eta konplexutasun kultura (industrializatuak) eta herri gizarte edo gizarte mailen arteko oposizio gizarte antropologoaren artean; ikus, adibidez, George M. FOSTER: «What Is Folk Culture?», *American Anthropologist*, 55.159-73 (1953).

<sup>17</sup> Jende askok ez luke oztoporik izango hizkuntza estandarizatu modernoak «Dialekto Indo-Europarrak» deitzeko, edo «dialekto literario»ei buruz hitz egiteko. Testu honetan proposatutako zentzuan, dialektologiak ez du zertan mugatu herri mailara, baina erabilera hori beste arrazoi bat da «dialekto» terminoa bertan behera uzteko.

<sup>18</sup> Hau bereziki argia da metodologia aldetik alemaniar suitzeraren lanik aurreratuean; ikus Rudolf Hotsenköcherlek argitaratutako *Beiträge zur schweizerdeutschen Mundartforschung* argitalpen sailetan.

teko muga bezala adibidez *helpe / helfe* eta *Luncht / Luft* isoglosei buruz hitz egin beharrean, hizkuntz geografoek orain Kolonia eta Trier eremuen arteko Eifel hesiari buruz hitz egiten dute. Eifel mendikate hau ez da barrik halabeharrez aukeratutako bi isoglosa horietako leku bat, baizik eta, beste batzuen artean, *kennd* eta *kenk* «ume», *haus* eta *hus* «etxe», *gruper* eta *erpel* «patata», *heis* eta *gram* «erlats» bikoteen arteko marra bereizlea ere bada; eta baita ere aho luzeko eta aho laburreko sega, ogi gris obalatu eta ogi beltz laukizuzena, Urte Berriko bira eta Urte Berriko gailetak, Quirin Deuna abereen patroia eta berbera zaldien patroia, marigorringoei dedikatutako bi kanta mota, eta abar bezalako bikoteen artekoa<sup>19</sup>. Marra hori esanguratsua da iraunkorrakoak diren faktore klimatiko, orologiko, hidrografiko eta beste faktore geografiko batzuek azal dezaketen Erdi Aroko muga baten islada bezala<sup>20</sup>.

Herri-hizkuntzaren continuuma zatitzeko bideen bilaketa hori estatistika koerlazioko metodoetaraino ere heldu da<sup>21</sup>. Aukeratutako ezaugarri estrukturalen muga marrak ezarri baino, eta hau ezinezkoa izango litzateke iragapen amorfoen eremuetan, ondoko prozedura hau erabiltzen da: frogarako ezaugarrien zerrenda oso bat egotearekin edo ez egotearekin zerikusia duten zenbait punturi buruzko ikerketak egiten ditugu; gero, erreferentzia puntu batzuetako eta beste puntu guztietako emaitzen arteko koerlazioaren kontu hartzen da, eta mapetan ordezkatzan da, koerlazio koefiziente antzekoa duten puntuak batzuetan «isopleto»ak eta beste batzuetan «isogrado»ak deitu izan diren marrez inguratuta. Teorian prozedura honi lotuta daude dialektoen arteko uler-garritasunari buruzko testak<sup>22</sup>. Prozedura hauek guztiak aukerako konstante kritiko baten (edo batzuen) araberakoak izan behar dute marra bereiztaile bat (edo batzuk, garrantzia maila desberdinetakoak) marrazteko; alabaina, prozedurak etengabe aldatzen ari den hizkuntz eremu baten konposizioa ikusteko posibilitatea eskuratu egiten digu; izan ere, hizkuntz eremu hori beste metodo batzuen bidez lortutako emaitzen osagarria da, ordezkoa ez bada.

<sup>19</sup> Datu linguistikoak: Adolf BACH: *Deutsche Mundartforschung*, Heidelberg, 3 1950, 123. or eta hur.; datu etnografikoak; Adolf BACH: *Deutsche Volkskunde*, Leipzig, 1937, 228. or.

<sup>20</sup> Estatu Batuetan, Hans KURATHEK (*A Word Geography of the Eastern United States*, Ann Arbor, 1949) oso ondo konbinatu zituen irizpide linguistiko hutsak «kanpoko»ekin Amerikako herri-hizkuntzaren eremu modu batean bereiztu gabea azaltzean.


<sup>21</sup> Ikus David W. REED eta John L. SPICER: «Correlation Methods of Comparing Idiolects in a Transition Area», *Language* 28.348-60 (1952).

<sup>22</sup> Ikus adibidez C.F. VOEGELIN eta Zelling S. HARRIS: «Methods for Determining Intelligibility Among Dialects of Natural Languages», *Proceedings of the American Philosophical Society*, 95.322-9 (1951).


Soziologia dialektalaren arloan, non iragapenak agian geografia dialektalean baino jarraiagoak eta jariotsuagoak baitira, koerlazio extra-linguistikoak eta adibide estatistikoek teknikak erabiltzeak ikerketarako etorkizun oneko posibilitateak eskaintzen ditu ia ukitu barik dagoen eremu batean<sup>23</sup>.

«Kanpoko dialektologia»ren gizarte-zientzia tresnen erabilpenak asko egin dezake dialektologia estrukturalarentzat gainetik azaldutako prozedurak osatzeko. Estrukturala eta «kanpoko» konbinatuta dituen hizkuntzalaritza baten ikerketaren arazo bat da zehaztea hizkuntzaren zein ezaugarri estruktural eta ez-estruturalek lagundu duen herri-hizkuntza kontinuuma «dialekto», «patois» eta abar unitate ez-teknikoetan zatitzen. Ikerketa konbinatu hau diasistemen arazoaren erdira helduko litzateke errealtate enpiriko bezala sormen hutsa bezala baino gehiago. Emaitzetako bat izango litzateke «dialekto»aren kontzeptu tekniko bat formulatzea zenbait ezaugarri bereizgarri dituen aldaki edo diasistema bezala.

7. Azkenik zerbait esan behar dugu ikuspuntu estrukturala eta «kanpoko» ikuspuntuek elkarren artean duten erlazioari buruz, bereziki dialektologikoa den arazo bati aplikaturik. Isoglosa bat adierazten duen mapa bat hartuta, «kanpoko» dialektologoaren jakinmina ziurraski isoglosa horren lekuan finkatuko da. Zergatik dago hor? Zerk zehazten dio bidea? Beste zeintzuk isoglosa daude horrekin lotuta? Zer komunikazio oztopo islatzen du?




3 Mapa: *shtulen* esanahia Ekialdeko Europako Yiddishean (eskematizatua).



4 Mapa: jarlekuen izenak Ekialdeko Europako Yiddishean (eskematizatua).

<sup>23</sup> Ikus Stanley M. Saponen testu interesgarri hau: «A Methodology for the Study of Socio-Economic Differentials in Linguistic Phenomena», *Studies in Linguistics*, 11.57-68 (1963). «Estilo»en terminologia ez-betegarria ordeztzeko hizkuntza baten aldakiak (eliazako, poetiko, zientifiko eta abar) funtzioaren arabera sailkatzeko eskema Yury SERECH: «Toward a Historical Dialectology», *Orbis*, 3.43-56 (1954), batez ere 47. or eta hur.

Dialektologo estrukturalak beste galdera batzuk ditu, eta hauek anzekotasun partzialen esparruaren barruan dauden desberdintasun partzialei buruzko interesean dute jatorria. 3 mapako adibide semasiologikoa hartzen badugu (eskematizatua egon arren benetako datuetan oinarriturik dagoena), *shtulek* A aldean «aulkia» eta B aldean «besaulkia» adierazten badu, orduan nola deitzen zaio «aulkia»ri B aldean eta «besaulkia»ri A aldean? Mapa semasiologiko guztiek, zeinu linguistikoek duten bi alderditako izaera dela eta, dituzten aldean kopuruaren adina galdera onomasiologiko sorrarazten dituzte, eta kontrara. A aldean «besaulkia» *fotél'* dela eta B aldean, berriz, «aulkia» *benkl* delako informazioa eman behar izango bagenu, beste galdera sorta bat sortuko litzaiguke: orduan zer esan nahiko du *fotél'*ek Bn eta *benklek* An?<sup>24</sup> Bata bestearen ondorioz sortutako galdera hauek guztiak harago joan litezke. Hemendik ateratako erantzunek, mapa batean sartutakoan, bi sistema lexikal bereizten dituen isoglosa baten irudia emango lukete, bi puntu isolatu eman beharrean (ikus 4 mapa). Hau dialekto mapa tradizional batentzat «zuzenketa estrukturala» izango litzateke.



5 Mapa

Bokale luzeera ez kongruenteen isoglosak Y hizkuntzan

Erraza da pentsatzea dialektologiaren arloko arazoekin zeintzuk oharpen «kanpoko» eta estruktural konbinatu behar diren modurik es-


<sup>24</sup> Erantzuna da *fotél'* ez dela B aldean ematen eta *benklek* «banku txikia» adierazten duela A aldean.



tuenean argitzeko. Horrelako arazoak sortuko dira bereziki baldin eta sistemak mapetan adierazteak gutxigatik bat ez datozen isoglosa sorta ekartzen bada. Demagun isoglosa bat marrazten dela /u/ laburra eta /u:/ luzea bereizten dituen hizkuntz baten aldaki baten eta horrelako bereizketarik egiten ez duen beste aldaki baten artean. Estrukturalistaren jakinmina beste bokaletako luzeeraren bereizketari buruzkoa izango litzateke. Orain demagun /u/ren luzeera bereizten duen aldakiak gauza bera egiten duela /i/rekin, baina isoglosak, bakoitza bere aldetik ezarria, ez direla zehazki kongruenteak (5 mapa). Bat ez datorren aldearen bokale ereduaren dinamikei buruzko galdera interesgarri batzuk sortu dira orain. Era honetako arazo batekin ezerk ezin du zerikusi handirik izan, azterketa estrukturala alde horretako «kanpoko» komunikazio baldintzen azterketarekin modu itxi batean konbinatzen dituen bat-bateko eremu lana ez bada.

8. Artikulu honen izenburuan egindako galderari erantzuna emateko, onartu egiten da dialektologia estrukturala egingarria dela. Emaitza emankorragoa izan daiteke «kanpoko» dialektologiarekin konbinatuta badago, betiere bere esparru kontzeptuala alde batera utzi barik.







# Gandiagaren poetika *Elorri*-n

Joan Otaegi

Autore baten obra aurrean dugunean, sarri askotan, ukitu txiki bazuk baizik ez dizkiogu egiten haren azalpena eman nahian. Obra aztertzen benetako aurrera pausoak eman nahi baldin baditugu, ez zaigu beste biderik geratzen beharbada: apurretik hasi. Egia da, ordea, ikuskera orokorragoaren egarri gara guztiok. Bidezkoa da, beraz, horretan saiatzea.

Aurretik begirada pare bat emana diogu Gandiagaren *Elorri* poema liburuari, sinbolismoak erakarririk eginak izan dira urrats horiek. Ez gai hori agortua geratu delako, baina, agian, begirada zabalago bat egoki etor daitekeelako abiatu gara poetika ikuskera zabalagoaren azalpen labur hau egitera. Halaz ere, Gandiagaren poetika, oraingoz, *Elorri* poema liburua aurrean dugula eta hari begira darabilgu.

## 1. Asmo literarioa

Gandiagak badu bere asmo literarioa *Elorri* poema liburua gauzaterakoan. Poema liburu hori aurkezterakoan, sintesia moduko poematxo bat jarri zion hasieran. Eta beronetan aurkeztu zituen poema liburu osoaren argibide diren asmo literarioak: nolako olertia gauzatu nahi izan duen, nolako hitza landu eta zein bizipen eskaini nahi izan dituen. Merezi du sarrera poematxo honek aipamen osoa egitea, garbi erakusten baititu poetaren norabideak:

*«ELORRI: Poematxuak.  
Elorri eder-tankeraz  
eder-naiezko poematxuak.  
Abots,  
abots apal, abots bakun.  
Arantzazuk nigan sortu dituan  
dar-dar eta barru-ikaraen ots» [0,1-7].*

1.1. *Nolako olertia*

«*Poematxuak*». Berehala ageri du Gandiagak txikitasunaren asmoa. Poemak eurak dira txikiak. Asko eta asko benetan poema txikiak dira, epigrama antzera eginak esango genuke: ukitu bat, begirada soila, ernealdia, argi ditzira eta izar iheskorren antzera gauzatuak. Poetaren zentzuek eta hauen eraginez izpirituak somatu dituen eran, irakurleari iradokizun izan dakizkion emanak. Banaka batzuek baldin badiu ere, gehienak ez dira poesia handiak, luzeak. Lirikan tradizio luzea dakarren eta etengabe berri den poema molde txiki, bizi, koloretsuak<sup>1</sup>. Gandiaga jenero horren barruan tradizioari ez ezik lirika jeneroaren izate moldeari ondotoxo dagokionez ari da. Aipatu dugun honen adibide argia da hemen eman dugun aurkezpeneko poematxoa. Baina hona beste bat:

«UDALENAK elorria.  
 Udalenak elorria.  
 Et'elorrriak Udalenari  
 lora-mortxaka zuria.

*Udalenak elorria.  
 Samin zaarraren lorea.  
 Udalena ta elorri latza.  
 Bien ats garbi, aidea.» [7,1-8].*

Alabaina, poemak berak askotan txikiak izateaz gainera, sarri mundu xumea adierazten dute, jarri berri dugun poematxo honetan ikusten den bezala; gertakizun apala da poetak begien aurrean duena. Baina harixi begira kontenplazio gozotan dago olerkaria. Esapide soilez, tradizioan oinarritutako errepikazio moldez, zentzuen somamen anitzez baliatu da Gandiaga lirikazko sentsazioa eraikitzeko. Eguneroko gauzak dira poesia gai, poetaren bizitzaren giroan etengabe haren zentzuen eragin diren gauzak eta gauzen prozesuak. Badirudi izaki txiki eta prozesu isilek deiadar egiten diotela olerkariari. Hau ere, bestalde, lirikan etengabe ibilia izan den bidea da. Gure bizitzako automatismoan galdu egiten ditugun errealitateak esanahitsu agertzen zaizkio olerkariari. Lan polita litzateke miniatura gisako diren poematxoetan zehar ibili kritikoa egitea. Zenbat ustegabeko perla!

Bada oraindik beste iturri bat aipatu beharrekoa: Gandiagak bizi izan duen izpiritu frantziskotarra nabaria da bere poesian. Izadia ikus-

<sup>1</sup> SPANG, Kurt (1990): *Géneros literarios*, Madrid, Editorial Síntesis, 57-62 orr.

teko modua, begirada anaikorra, errealitatea ikusteko modu sotil eta egiatia, faltsukeriarik gabea. Hona adibide bat:

«EURIA txara-txara.  
 -xa-xar-ots motel bat-  
 Zeruan jaiotako  
 arrebatxua, aratz,  
 zugaitz-ostroen eta  
 bedarren ganerantz.  
 Euria, txara-txara,  
 arratsalde erdirantz.  
 Zer arnasa basoak,  
 zer poza begiak!  
 -Urrun, ordu-kanpaiak,  
 urran, bei geldiak-  
 Bidean aurkitu nau  
 arreba garbiak.  
 Kolkoraiño sartu jat.  
 Maite nau euriak!» [43,1-16].

Izan genuen gerrate aurrean izadiaren kantari bat, Lizardi; badugu gerrate ondoan ere gure lur honen eta izadiaren kantaria. Haren kolore, ernealdi eta bizitza bete dotore kantatu dituen, bai eta, aldi berean, haren latzeria, heriotzara bidea eta ubeldura deskribatu dituen, Gandiaga. Beti ere bere bizi gunetik somatzen dituenaren arabera: behin klaustrotik, gero izadi beretik, hurrengoan barne esperientziatik.

Gandiagak eskaintzen duen olertian errealitatearen ikuskera poetikoa dator, asmo literarioaren arabera gorpuztu duen poesia, irudiz hornitua, sinbolismoz jantzia. «*Elorri eder-tankeraz / edernaiezko poematuak*» [O,2-3]. Bigarren eta hirugarren bertso lerro hauetan adierazia digu estetika horniduraz jantzitako poemak eman nahi dizkigula; nahiz eta mundu estetiko horren izanaz eta nolakoaz atergabe eztabaidatu den giza pentsamendua gauzatu denetik gerora<sup>2</sup>. Gandiagak bizikizuna du bere poemategiaren abiapuntu, eta horri begira, berehala esaten digu zer-nolako edertasuna eskaini nahi ligukeen, hain zuzen, *Elorri* liburuaren ardatz bihurtua duen sinbolismoaz baliatuz esan ere: «*Elorri eder-tankeraz*». Hau da, elorriaren tankerara, haren moldera eder liratekeen poemak. Elorria, bestalde, gizakiaren sinbolo da, gure sinbolo. Elorria apala da, bere inguruari eratua; baina eder da, erabat ematen da, zuhaitzen zabaltze infinitoaren eran eman ere bere txikian, bereaz

<sup>2</sup> GANDIAGA, Bitoriano: «Nere obraz», in *Hegats*, 4 (1991) 207-217 orr.

ahazturik, loratzean. Elorria gu geu izanik, arantza eta lore da, gure bizitza arantza eta lore den bezala. Poema liburu honek beraz, giza-bia bera adierazi nahi digu bere apal eta ederrean.

Oraindik ere gogora dezagun autorearen esana:

«*Gainera Elorri-ko ni-a, ni-neua baino zabalagoa da: gizateria izaterainokoa, baina ez abstraktuki hartua, neugan erro-tua eta pertsonatua baino. Eta, beraz, denbora guzti haren ni-a.*»<sup>3</sup>.

Eta, aldi berean, «*eder-naiezko poematxuak*» dira Gandiagak eskaintzen dizkigunak, asmo estetikoak eraginak. Sarri askotan zio batek edo bestek eraginik, hizkuntzaren erabilera funtzionala egin nahi izaten dugu, honetarako edo bestetarako baliagarri duguna, Gandiagak asmo literarioa, mundu estetikoa eraikitzea du bere helburu *Elorri* poema liburu gaizatzerakoan.

## 1.2. *Nolako hitza*

Gandiagaren poemagintzan asmo estetiko bat dagoelarik, eta horrek mundu apala erakutsiaz gain —franziskotar izpirituaren giroko mundu apala—, gizaki oren tamainako errealtate xumea erakutsi nahi izan digu, bere izan eta ez-izan horretan —orain bai eta gero ez—, goiko eta beheko aldi berean, iraunkor eta iragankor.

Guzti hori gaizatzerakoan, poetak argi du zer-nolako hitza erabili nahi duen. Poetak eder nahi lituzkeen poema horiek nolako edertasunaz eman nahi dizkigu? Sarrerako poematxo horretan berean lau eta bostgarren bertso lerroetan adierazten zaigu lehen erantzun orokorra: ahots apal eta bakunez eman nahi luke Gandiagak bere bizikizunen mundua. Hona bere aitorra:

«*NEURE itzaren billa*  
(.....)  
*neure itzaren billa*  
*nabil (...) amesetan*» [2,1.4-5].

Bigarren poema hau Gandiagak gauzatu nahi duen estetika moldearen aitortza ageria da. Ez dabil «*jakintzan*», baizik eta «*amesetan*» hitz horren bila. Nolako hitza nahiko lukeen, ordea, poema beraren isurrian hainbat modutara esaten digu:

<sup>3</sup> *Ibid.*



*«Ez-bai hutsa dan arnas bat,  
zerak doi aitatzekoa,  
berba mugarik bako» [2,6-8].*

Gauzak ukitu eta ernamintzen jarri nahi ditu poetak, irakurlea imanez bezala poetaren hitzetara etor dadin, eta honek iradokiari leku eman diezaion. Ez gorputz beteko esana, irakurleari konplizitaterako lekurik emango ez liokeena; ez murrizta, sugerentzia munduari hesiak ipiniko lizkiokena, hegalaria baizik, «*arnas bat*».

*«zerbait xamurra  
ozta lioken  
kili arin aura» [2,14-16].*

Irudi berriz dator, baina oinarrian gauza bera adierazten digute arreko «*zerak doi aitatzekoa*» eta oraingo «*ozta lioken / kili arin aura*». Ukitu arina da olerkariak azpimarratu nahi duena.

Zein ondo ageri zaigun hemen Gandiagak semantika hari bati ekiera ematen dionean, horren luzerako katebegiak dizdizeraz baina modu eta sugerentzia ezberdinez jazten dituela. Lehen esan digu bizikizunak nolako mintzoz eman nahi lituzkeen, «*zerak doi aitatzekoa*» nahi lukeela hitza; orain, aldiz, «*xamurra*» nahi luke hitz hori, eta antologietan sartzeko modukoa den esapide metaforikoz adierazten digun moldekoa: «*ozta lioken / kili arin aura*». Kilima irudia bera egokia izanik adierazi nahi duen iradokizunerako, hautatu duen «*kili*» formak eufoniarako bideak zabalduko dizkio; ondoren erantsi dizkion adjektibo eta mugatzaileak oihartzun egiten diote sintagma guneari. Eufonia isuria, bestalde, semantika edukiz hornitua dator kilimaren xumeaz eta mugatzailearen urruntasun zantzuaz: «*kili arin aura*».

Ikus dezagun oraindik beste ahapaldi bat, hain zuzen, poema honen azkena:

*«Lotu bako berba nai dot:  
soiñu galdu bat lakoa;  
usain askatutakoa;  
edo kolore pintatu bako  
dan ez dan-ezkoa» [2,22-26].*

Azken ahapaldi hau hiru zentzuren arloak jasoz dator, Gandiagaren poesian etengabe somatzen den errealtatea da hau: kantatzen duen mundua zentzuen bidez atxikitako mundua da. Poetaren zentzuentzako errebelazio gisako izan dena. Zentzuen bidez atxikitako mundua baino ere gehiago da olerkariaren zentzuak atxiki duen mundu konten-

platua. Dena den, hemen nahi lukeen hitza soinu galdu baten antzekoa da, loturarik gabekoa, urrunean somatzen den oihartzunaren gisakoa. Hona entzumenaren izaria. Edota eguratsean hedatzen den urrinen tankerakoa, bidazia ustegabeen inguratzen duenaren tankerakoa, hitz askatua. Hona usnamenaren izaria. Edota pintatu gabeko, baina pintaturiko «kolore»zkoa, kolore ezaindua, baina suma ahal den kolorezkoa. Hona ikusmenaren izaria. Entzumena, usnamena eta ikusmena. Hiru zentzu-arlotan ezaugarri bat bera azpimarratzen du: somagaien xumea. Ahapaldiaren lehen lerroan adierazi duen askatasunaren ideia sintetikoa, «Lotu bako berba nai dot», hurrengo lerrotan dimentsio ezberdinetara eramana izan da. Guzti honetan argi erakutsi digu iradokiortasuna duela helburu, hitz sujerentea da olerkariak nahi duena, ez hitz kategorikoa, gorputz handikoa. Ez du olerkariak guztia esanik utzi nahi, irakurlearen irudimenari eragin nahi dio, honek poemaren barne izariak suma ditzan; areago, poetaren barne sentimenduak suma ditzan, eta honen erara irakurlea bera ere sortzaile izan dadin gozamenean eta sufrimenean.

Hemen bidera datorkigu Bitoriano Gandiagak Donostian bere obraz eman zuen hitzaldia<sup>4</sup>. Izan ere Euskal Idazleen Elkarteak 1990eko azaroaren 12tik 16ra antolatu zituen «xx. mendeko euskal literatura»ri buruzko hitzaldi eta mahainguruak. Hitzaldien artean bata Bitoriano Gandiagak bere obraren gainean emana izan zen. Hortxe esaten du *Elorri*-ri buruz ari dela, eta asmo poetikoa garbiri aitortuz:

*«Kantatzen duen errealtatea fedearen argiak edo ilunak matizatu dago, baina ez da erlijioaren apologia, hizkera ederraren mamitzeaio bat baino.»<sup>5</sup>.*

Bestalde, ez da Bitoriano Gandiagaren gogoia gauzatu duen olerti mundua hornidura betez eskaintzea. Honetan ere, jadanik esan dugunaren sendobide da, noski, berak dioena:

*«Bakoitzean aukeratzen dudan gaitxoa ahalik eta hitz zehatz eta juxtunez, inongo erretorika eta erretorika gabe adierazten ahalegindu nahiz beti. Hitza errealtateari egokitze-lana izan dut eginkizunik eta behinena. Plastizitatea izan dut helburu. Egia da, inoiz edo behin, beste zenbait idazleren oparotasuna imitatzeari amore eman diodana hizkuntzazko ariketa bezala, baina ni hitz gutxiren eta nahitaez beharrezko diren haien zale naiz izatez.»<sup>6</sup>.*

<sup>4</sup> *Ibid.* 207-217 orr.

<sup>5</sup> *Ibid.* 209 or.

<sup>6</sup> *Ibid.* 209 or.

Bestalde, Gandiagak berak esaten zigun bezala, gauzen errealtasuna albora utzi gabe ebokazio munduari begira dago poesia, magiari begira, alegia. Errealitatearen izari magikoa gauzatzen du poesiak, konnotazio mundua<sup>7</sup>. Edota autoreak berak zioenez, poesia transzendentziari begira dago, hau da, gauzak berak baino harago doan munduari begira.

Gandiagari axola zaio, etengabe axola, esankizunari esateko modua bilatzea. Estiloaren kezka dabil bere poesian. Esateko moduak ematen baitio esanari grazia, esan nahi den mundua horizontean sumatzeko haineko argia, brilua. Bilaketa honetan berebiziko zerbitzua eskaintzen dio entzumenak poetari. Aho-belarrien lotura dantzatzen du Gandiagak poemak gauzatzerakoan, eta belarriak irestontziaren jokia egiten dio. Belarriaren sare xehetik ez doana zakar, desegoki da. Nahiz eta esanahiez zehatza izan, eta esankizunaren bihotzera bete-betean etorri, esanahia eta hitzaren soinua bera, hotsa, bat ez badatoz, nabarmentzen dira, eta orduan beste baten bila doa poeta. Belarrian iresia dakar, beraz, Gandiagak. Hiztegiek emango diote adiera zehatzeko den hitzik ugari; olerkian gauzatzeko, ordea, esanean malgua eta entzunean taiuko behar du poetak. Juan Mari Lekuonak, Pierre Lafittek Gandiagaren *Elorri*-ko olerkien hizkuntzari buruz esana dakar bere hitzetara:

«Gandiagaren sormen poetikoa aipatzen zaigu: gauzak begietan, hitzak belarrian, kontenplalaritzan arituz mamitua» dela<sup>8</sup>.

Nahi bada, poesia bidean beti ageri zaigun bidea izango da hori; baina ez hartaraino olerkari guztiengan. Gandiagak, berriz, badirudi benazko lehentasuna eman diola joko horri<sup>9</sup>. Gogora dezagun poemategiko azkeneko perla hura; beste asko bezala poematxo txikia. Hasierako poema eskain-poema da, asmo poetikoaren berri ematen duen olerkia. Amaierako hau, berriz, ikusmen zentzuaren perspektibatik poemategi osoari egiten zaion irudimenez jantzitako begirada. Eta hori sinbolo xume baten bidez argi-argi adierazia: «*Iruntz-tanto bat zan / okaran baltzean.*»

«*BEGIAN jaiο zan.  
Nire eskuak ez eutsan  
ikutu sekulan.  
Iruntz-tanto bat zan  
okaran baltzean.  
Begian jaiο zan.*» [191, 1-6].

<sup>7</sup> 1994ko urtarrilean autorearekin izandako hizketaldietan adierazia.

<sup>8</sup> LEKUONA, Juan Mari (1989): «“Elorri”, argitaraldi berrian», in Bitoriano Gandiaga: *Elorri*, Oñati, «Arantzazu» Frantziskojar Argitaletxea, 8 or.

<sup>9</sup> Aipatu hizketaldietatik jasoa.

Oraindik ere zilegi izan bekigu une honetan beste adibide bat ekar-  
tzea. 79garren poeman hirutan datorren ahapaldi hauxe lekuko egokia  
da bere soilean:

«ZEURE oiñotan gura dot, Ama,  
zeure oiñotan, oiñotan,  
zeure oiñotan oiñotan eta  
elorri onen geizpetan» [79,1-4].

Ez ideia askorik; baina ematen den soil hori ahapaldi osoa betetzen duena. Ideia xume horretatik gorakoak, ahapaldiaren gorputza hornitzen duten osagaiak, erritmo eta musikalitatez jantziak datoz. Ahapaldiak muinean daraman ideia halako poz, kanta eta gorputz mugikeraz lagundua doala dirudi; bertso musikatuaren erritmoaren dantza bailekar. Poetak bere barne poza gorputz sentsazioz bat eginik eskaintzen digu, beraz. Ez da bitxikeria, bestalde, poesiaren sorrera dantza erritmoarekin eta gizakiaren barne higidurarekin, bai eta jolasarekin<sup>10</sup> lotze hori. Hemen, Gandiagak, herri poesiaren baliabidez hornitua dakar es-trofa hau, errepikazio molde ezberdinez jantzia.

Hitzaren bilaketa hau behin eta berriz ageri zaigu; baina modu berezi batean, eskuartean darabilgun *Elorri* liburuan eta *Uda batez Madrilen*, hirugarren poema liburuan. Behintzat beste poema liburuetan ez bezala aitortua da hauetan. Gainera, olerkariaren planteiamendu poetiko ezberdinen une garrantzitsu ere bai baitira horiek. *Uda batez Madrilen* eskaintzen dituen prosa testuetan behin baino gehiagotan dator puntu honetara. Poemategiaren aurkezpen-eskaintza gisa datorren «Hau da pandero berria» poemaren ondoren, berehala, hain zuzen:

«...Badakizu inondik ere hitzetik hortzerako kazetaritzaz ari ez natzaizuna. Beste zerbaitez, beste idazjenero hartaz dihardutsut. Ez noski gaia hitzaren bidez eraiki ohi duen literatur-mota hartaz, hitza gaiaren bidez eraiki nahi lukeen hartaz baino. Gaia ongarri bezala ongi datorkit. Eta biziki daragit Madrilekoak. Baina nik nahi dudana badakizu: Hitza egin ikuskari, gertakari eta sentikarien nagusi, hitza-ren pean jarri gaia, gaiak hitzari zerbi diezaiola egin.»<sup>11</sup>

<sup>10</sup> NUÑEZ RAMOS, Rafael (1991): *La poesía*, Madrid, Editorial Síntesis, 11-12; 30-44; 47-53 orr. Ikus halaber: ALONSO, Amado (1977): *Materia y forma en la poesía*, Madrid, Editorial Gredos.

<sup>11</sup> GANDIAGA, Bitoriano (1977): *Uda batez Madrilen*, Oñati, Editorial Franciscana Aránzazu, 5 or.

Nahiz eta oinarrian hitzaren bilaketa dagoen *Uda batez Madrilen* obran, halaz ere, Gandiagaren *Elorri*-n, lehen olerki liburuan datorkigun bilaketaz bestelakoa dugu jokoan. Lehen liburuan hitza ukitu, iradokizun legez datorkigu; sugerentzia mundu batera zabaltzen eta zuzentzen gaitu *Elorri*-n. Sentimenduen zerbitzutan erabilia da *Elorri*-n eta deskribapen hutsaren zerbitzutan, aldiz, *Uda batez Madrilen* poemategian, Gandiagak berak aitortuko digunez:

*«Liburua [Uda batez Madrilen] espreski konstruitua da. Elementu asko dago, sentimendua utzi eta deskribapen hutsaren bidez eraikia. Sentimendua ez dira ezkututzen, baina Elorri-n deskribapen diren natur fenomenoak sentimenduen zerbitzutan dauden bitartean, Madrileko deskribapenak ez daude ezere zerbitzuan.»*<sup>12</sup>.

Gandiagak *Elorri* poema liburuan barne somamenen itzala baizik ez du hitza, poetak maite dituen hainbat sinboloz adierazten du bere poetikan hitzak duen erliebea, hala, ardiak sasia edo hesian galdu duen ile sortaren irudiz adierazten du inoiz. Dena den, barne eguzkiaren sua adierazi nahi lukeen laino artetik datorren baden ez deneko argi printzaren tankerakoa da hitza beretzat. *Elorri* poema liburuko azken prosa poetikoan, zenbait irudiren bitartez ondo erakusten digu, berriro ere, bere poetikaren nolakoa. Elorriaren susmo bidezkoa du solas gai prosa poetiko horretan:

*«Susmoak edo begiak baiño ezagutu al ezin zaitualako... Nire itzak, neu izandako, zeure azpiko eta zeure usain gabeko orbelak legez, / neure usain gabeko orbelak diralako, / sasietan katiatutako ardien ule-maluten antzekoak diralako. / Susmoak edo begiak baiño ezagutu al ezin zaitualako; / itza barruan su izandako txingar baten ke apur bat baiño ez dalako, txingarren usainik eta berorik gabeko ke apur bat baiño ez dalako, / aldiko neu bakoitzaren arnas apur baiño ez dalako, / gauzarik emon ezin leikelako, / larri zaar baten asperen-zizpuru aizezko bat baiño ez dalako.»* [190\*, 1-10].

Zenbait sinboloren bidez ageri digu bere hitz poetikoa nolakoa den. Hasierako bigarren poeman bezala, azken prosa poetikoan ere irudi anitzez baliatu da; guztietan ere ideia nagusi bat nabarmentzen da: poetak bere hitza esankizunaren antz eta irudiko duela *«asperen-zizpuru aizezko»* baten tankerara. Beraz, poema liburuaren bigarren poeman adierazia, azken hitz lauzko testu honetan indar berriz azpimarratzen

<sup>12</sup> GANDIAGA, Bitoriano: «Neure obraz», aip. ald. 215 or.

digu, guztiaren laburbiltze bailitzan. Ez dira hasierako irudiak berak; baina poetika bera azpimarratzen dute. Ez dira, halaz ere, poema liburuan lehenengoz ageriak, han eta hemen, poemetan gauzatuak baizik. Elorriaren orbelen irudia dakar lehenengo, poetak bere hitzak orbel usain gabekoaren antzeko somatzen ditu. Edota «*ule-maluten*» itxura-koak; sasetan ardiek galdu dituzten ile xortak adieraziz. Edota txingarrari doakion ke apurra. Edota poetaren arnas izpia. Edota larrialdiko «*asperen-zizpuru aizezko*»a. Beti ere galdutako aztarnaren antzeko izpiren baten irudi iradokiorra dakarkigu Gandiagak bere poesia hitzaren ezaugarri.

Guzti honez gainera, kontuan hartzekoa da, Gandiagaren poetika bere hezketa poetikoaren ondorio ere badela. Berak izan zituen literatura irakasle eta autore-maisuen irakurketen ondorio: gaztelaniazko poesia klasikoaren eta 1927ko belaunaldiko ezagutzaren ondorio. Era berean, gerrate ondoko agortaldi hartan eskuratu ahal izan zituen gerrate aurreko eta ondoko zenbait euskal idazle hoberenen lanekin izandako harremanen ondorio<sup>13</sup>.

### 1.3. *Zein bizipen*

Hasierako poematxoa hartu dugu abiapuntu bezala, bertan ageri baita Gandiagak *Elorri*-n gauzatu duen poetikaren programa edo, nahi bada, laburpena. Berriro ere bertora goaz azken zati honi buruzko argibidea han aurkitu baitugu:

«*Arantzazuk nigan sortu dituan  
dar-dar eta barru-ikaraen ots.*» [0,6-7].

Gandiagaren poesia mundua —orain *Elorri*-ri begira ari gara baina gauza bera esan liteke beste poesia liburuei begira ere, jakina, bakoitza bere inguru giroaren arabera— poetaren barne munduaren errainu izango da; bizi dituen mundu ikuskera eta sentimenduen adierazpide. Inguruneak eragin handia izango du berarengan. Beste edonon zitekeelarik ere izango zukeen, seguru; baina Arantzazu inguruko bizipenak poetaren erraietaraino egin du jauzi eta han bergauzatu ditu poz eta neke zaharrak. Poeta beti gizaki sentibera eta ernea ageri ohi da, eguneroko gure ibilia hartaraino ohar gabe egiten dugunon esnagarri. Ez da gutxiago Gandiaga.

---

<sup>13</sup> GANDIAGA, Bitoriano: *ibid.* 208-209 orr.

Elorria bere mundu ikuskera guztiaren sinboloa da; baina, era berean, poetak kosmosari buruz eta izadiari buruz duen ikuskeraren leiho. Egunaren ernealdia nahiz ilunabarra, eguzkiaren sortzea nahiz sartzea, argia nahiz iluna, izadiaren barruko bizitzaren erretze nahiz heriotze prozesu guzti bere joan-etorrian ikusiko du. Bizitzaren gurpila, edozein motatakoa dela ere, elorriaren perspektiba bikoitz horretatik ikusten du Gandiagak: joan-etorrian edo etorri-joanean nahi bada. Joana ikusiko du lehenengo, esaterako, hamaikagarren poeman. Bizitzaren gain-behera, heriotza bidea, argitik ilunerako pasabidea bezala deskribatu du, «baltz...mamu...» :

*«BA-ZOAZ ta ba-zatoz,  
urteroko urtez,  
elorri zaar ori,  
ikuspen bat legez.*

*Ba-zoaz, baltz... mamu...,  
arkaitz eta basoz,  
neguko ekaitz-bide  
odeitsuez..., urrun  
illun galdu arte.» [11, 1-9].*

Ondorenean, berriz, errebelazio gisako etorri diztiratsua deskribatzen du Gandiagak. Beti ere izadiaren zehar bizitzaren ibili isil baina unibertsa balitz bezala ageri zaigu etortze hori, joana ere agertu zai-gun modu berera:

*Ba-zoaz..., ta ba-zatoz,  
ikuspen bat legez,  
elorri zaar ori,  
urteroko urtez.*

*Bizi ta loretsu,  
arkaitz eta basoz,  
sortaldeko eguzki  
Udalengoakin,  
ba-zatoz, pozgarri.» [11,10-18].*

Izadiaren ikuskera horrela delarik, gizakiarena ere molde berera ikusia ageri zaigu bere poemategian. Elorria, arantza eta lore, giza bizitzaren sinboloa baita. Bestalde, izadiaren ikuskera hori gizakiaren sinbolo bada, giza izatearen esperientzia eta ikuskera poetak bere bizipenaren bidez gauzatzen du. Guzti hori adierazteko ongi baliatu da elorriaren sinbologiaz. Bi planotara ageri baita poemategia: izadia / gi-

zateria. Honen eredu interesgarria da, esaterako aipatu dugun hamai-kagarren poema bera. Izan ere, azken ahapaldian egiten baitu jauzi poetaren bizi esperientziaren mundura, sinbolizatua adierazten duela-rik horrela:

«Ba-zatoz..., ta ba-zoaz,  
ikuspen bat legez,  
nire min eta pozak  
sarriago dagien  
aldabera bidez.» [11,19-23]

Poemaren zatirik nagusia izadiaren prozesuaren deskizio poeti-koa izan bada ere, guzti hori azken ahapaldian poetaren beraren mun-dua deskribatzera dator, eta honen bidez giza bizitza beraren deskriba-tzera. Eta hemen —poetaren eta giza bizitzaren esperientzian esan nahi dut— nabarmen ageri da giza bizipenaren bikoiztasun hori: mindura eta gozamina, bizitza eta heriotza.

Gizakiaren betiko bikoiztasuna, minaren eta pozaren esperientzia bidez gorputz hartu duen gizaki bidaztiaren bizipena eskaintzen digu etengabe Gandiagak. Esperientzia bikoitz hori giza dimentsio guztietan ageri da. Poetak ez dio ihesik egiten garraztasunari, ilunari, ez mindu-rari berari. Era berean, pozez gozatuko ditu olerkariak bizitza, izadia, barne dohainak, ingurugiro izpirituzkoa. Esperientzia bikoitz horretan sufritzen eta pozten eta, azken batean, heltzen sumatuko du Gandi-agak, zehar bidez, gizakia bera mundu honetako ibilian. Guzti hori, so-matzeko bidea, ispilua, hobeto, Arantzazun bizi, ikusi, usnatu eta so-matzen duena da. Har dezagun oraindik ere adibidea bere poematxo bat hona aldatuz:

«*NEGUAN* besarkatu  
zindudanean -ai!-,  
elorri ikaratu,  
etziñan zu besterik,  
neure biotzeko  
miñaren luzapen  
ta adaburu baizik.

*Eta Udabarrian,  
arnas zuri bat legez  
zeu baino be gorago  
loratu zaranean,  
neure biotza zara  
pozak argitutako  
bion arkaitzean.» [12,1-14]*



Gandiagak Arantzazun bizi izan ditu bere gazte denborako urte beteak; han gauzatu ditu bere erabaki nagusiak; han aurrera eraman bere «gazi» eta «grazi» aroak. Zalantzarik gabe indartsu ageri dira garai eta une horietako sentipen, nahi, antsia, poz, betetasun eta beste izpiritu egoerak poema liburuaren ibili luzean.

Arantzazun ikusi ditu erromesak, horiengan sumatu ditu mendeetan zehar itxaropenez igotako erromes taldeen oihartzunak. Arantzazun eskaini du bere bizitza, han sentitu ditu bere eskuak olio zantzaturik loratzen, han argi eta ospakizunen estetikak harantzagoko mundu estetiko baterantza zabaldu ditu bere izpirituaren begiak. Guzti horren argi printzek *Elorri* poemategian dizdiz egiten dute.


Alabaina, poetaren sentimendu horiek halako giza neurri batean somatuak dira. Poetaren pozaren giza neurria eta saminaren giza neurria agertzen zaizkigu behin eta berriz: neurriaren xumea, bizitzaren apala. Nahiz eta askotan deiadar bizi diren. Arantzazuk sortu dizkion «*dar-dar eta barru-ikara*» horiek giza dimentsiotan aurkeztuak dira, egiaztasun poetikoan eskainiak. «*Ots*» apaletan emanak esango genuke, autorearen hitza jasoz. Ikuskera honen adierazpide esanahitsu iruditu izan zait beti hurrengo poema hau:

*«Lur busti au pozik,  
poz bustiez.  
Lur gaixo au pozik,  
poz gaixoez.  
Lur makal au pozik,  
poz makalez.*

*Poztu da nire lur au  
poz gaixo makalezko  
bustitako pozez.» [120,1-9].*

Lurraren pozaren sinbolizazioan erakutsi digu autoreak bere giza pozaren xumea, gizakiaren pozaren apala. Berea ez da poz hantua, ez harroa; poz isila, neurritsua baizik, apala. Lehen irudia urez hanpatua den lurraren poz betearena da: «*Lur busti au*»; bigarrena, errukia eragin duen baina maitagarria den lurraren poza: «*Lur gaixo au*»; hirugarrena, ibili geldia duen baina afektuz ikusia den lurraren poza: «*Lur makal au*». Alabaina lurra kalifikatzeko darabiltzan adjektiboak berak erabiltzen ditu jarraian poza kalifikatzeko. Orduan, poz hori poz bustia, gaixoa, makala da; poz xumea, alegia, poz apala. Eta horren ondorioz poeta beraren poza da poz gaixo, makal, bustia; esan nahi baita, giza-kiaren poza dela, poza baina poz xumea, apala. Bere giza izatearen neurriko poza.







## Gandiagaren poetika printzak *Uda Batez Madrilen* poemategian

Aritz Urien

*Uda batez Madrilen* Bitoriano Gandiagaren hirugarren poema liburura hurbilduko gara oraingoan. Aztergaia atal konkretu batean bildutako poemek osatuko dute; asmoa berriz, Gandiagak lan honetan mamitutako poetikaren giltzen bilaketa saio bat baino ez da eta, beharbada, lehenengo egin beharra, liburu hau Gandiagaren ibilbide poetikoan kokatzea da.

Hirugarren liburua duenez gero 1977an argitaratutako hau, aurretik beste bi izan behar: *Elorri* eta *Hiru gizon bakarka*. Gutxi bartzuren ustez Gandiagaren poetikan hankasartze bat suposatu zuen lan honek, haustura gertatzen baitzen ordura arteko sinbolismo eta abarrekiko, hala ere, haustura hori salto kualitatibotzat hartu izan dute kritiko gehienek. Ez dezagun ahaztu ondoren *Denbora galdu alde* eta *Gabon dut anuntzio* ere argitaratu dituela; baina Gandiaga berak aitortzen duenez, horien literaturtasuna beste era batekoa da.

Bestalde, aztergaitzat hartutako atala liburu honetako laugarrena da, «JENDEA» lemapean datorrena. Aipagarria da atal hau prosazko hamar orrialderen ondoren datorrela; atal honi hasiera emateko berriz, Gandiagak ez du prosarik erabili, nahiz eta atal gehienetan hala egin duen.

Poema gehienen hasierako hitza hizki haundiz eman zaigula kontuan izanik, hogeita hiru unitate ezberdinetan bana ditzakegula iruditu zait. Horietatik hiru baino ez dira prosa testuak, hortaz atal honetan protagonismoa poemek hartzen dutela nabaria dirudi eta beraiengan jarriko dut arreta.

Poema horien zer nolakoaz jabetzeko lan honetan, interesgarria iruditu zait gai edo puntu hauen ingurutik hurbiltzea: espazialitatea, hitzaren eta esaundaren prismadurak, hitzaren musikalitatea, poemaren musikalitatea, zentzuen somamena eta erabilitako tematika.

Has gaitezen hortaz Bitoriano Gandiagak *Uda batez Madrilen* agerzen digun atal honetako poetika eta idazmoldeen nondik norakoaren berri ematen; horretarako abiapuntua espazialitatea izango dugu.

J.M. Lekuonak liburuaren hitzaurrean dioen bezala, Bitoriano «*grafiaren eta moldizkeraren geometriaz baliatu*» da hitzari espresaera ahalik eta beteena emateko asmoz.

Alde batetik hor dago plano horizontala eta bertikalaren erabilpena, bigarren honetan gizakiak hirian jasaten duen zapalkuntza grafikoki plasmatu nahia ager daitekeelarik.

«KARTEL» poeman, 90. orrialdekoan, beharbada horixe espresatu nahi du autoreak. Goian kartelak ageri dira, beherago aldizkariak, egunkariak eta azkenik, «*Metroan gizonak*». Gainera ba dirudi gizonaren ezereztasun inpresio hori areagotzeko «*Eskaparateei ere begiratzen dio jendeak*» botatzen duela azkenean, jendeak egiten duena garrantzi gabekoa balitz bezala.

Ez dugu ahaztu behar «JENDEA» titulupean datorrela atal hau, eta bertan dudarik gabe beteago ikusten ditugula orrialdeen barrenak.

Dena den, beste poema batzutan ez da horren argi ikusten bertikalizazio horrek gizakiaren zapalkuntza adierazten duenik, eta beti ere interpretazioaren araberakoa izan daiteke.

Bestalde, 100-101 orrialdeetan dagerkigun «DZU» poemaren espazialitateari so eginez, badirudi edo interpreta liteke, herri kanta orrialde barren bietan ikusita, gaur-eguneko auto eta aurrerakuntzek azpian hartu dutela herri tradizioa. Ez dakigu Gandiagak hori ere espresatu nahi izan duen poema horren bitartez, argi baitago poema honen ardatz garrantzitsuenak beste ildo batetik doazela (hurrengo atal baten ikusi ahal izango dugun bezala).

Interpretazioak interpretazio, argi dakusaguna Gandiagak deskripzio hutsa egiteko, moldatzeko, gauzatzeko, hitz eta esaundez gain moldizkerak ematen dizkion aukerak aprobetxatzen dituela da. Espazialitateaz bereziki baliatuz moldatutako poemak lirarteke hurrengo hauek:

—Ikusi berri dugun 90. orrialdeko poeman:

Goian kartelak, beherago kaleko jendea, eta beherago metroa.

—«METROKO andena...»n, 81. orrialdekoan:

Metroko andenean dagoela suposatuz, azkenean ageri diren leerro luze biek jendez lepo dagoen andena bera sugeritzen dutela dirudi, beraz andenaren fisonomia imitatzeko eginak lirarteke aipatu lerrook.

—«BAZKAL aurreko» poeman, 88. orrialdean, hitzak orrialdearen ezker aldetik zuzenean edo tartekatuz eskuin aldera eta alderan-

tziz pasatzeko jokuak oinez doanaren alde banatatik pasatzen den jendeak sortutako mugimendu eta nahasmen sentimentua adierazi nahi duela suposa genezake. Aldi berean irakurleari ere nahasmen sentimendua gailentzen zaiolarik.

- «JENDETARTEZ» poeman, 89garren orrialdekoan, eta 104tik 105erako «EZ NUEN bilatu» poeman hiri bateko etxe blokeen itxura ageri dute estrofeak. Bai beren formagatik zein beren koka-penagatik ere.
- «KALEZ kaleko ibilaldia»n, 110etik 112rakoan, badirudi, hiru orrialdeetan azpikaldeko eremua baino erabiltzen ez duelako, kalean zehar pasiatzen doanaren irudia eman nahi izan dezakeela, hirian kale batetan barrena doan inpresioa hartu nahirik edo.
- «JENDEAREN ondoren» poeman ere, 91. Orrialdekoan, egon liteke joku espazial berezi bat. Orrialde burutik poema hasterainoko hutsarte zabal horrek ez al du adierazi nahiko «Hitzen jantzi nahi» eta ezin izate hori?

Ikusten dugunez azken joku espazial hau ez litzateke aurrekoak bezala errealitate fisiko baten imitazioaz baliaturik eginikoa, poeta beraren ezintasuna adierazteko forma bat baizik.

Hortaz, nabarmena egiten da Gandiagak egiten dituen joku espazialek bide ugari zabaltzen dizkiotela, espresatu beharrekoa hitz edo esaldi soilez espresatuz baino komunikazio aberatsagoa lortzen duelarik horrela. Gainera sarritan esan hoi da hitzek baino gehiago dioela batzutan imajina batek, eta azken finean Gandiagak, bere imaginazioa dela medio, ikusi eta sentitutakoaren irudiak ematen dizkigu espazialitatearen eremu iradokiorra erabiliz.

Baina ez ditzagun ahaztu geroago aipatuko ditugun errepikapen eta hitzaren prismadurek ere eragina izango dutela formaren konstruieran. Are gehiago paralelismoek eta esaundaren prismadurek.

Espazialitatearen inguruko fenomeno berezienen berri eman dudalakoan, beste arlo batzutan arreta jartzeko garaia izan daiteke. Ez ditut ahaztuko J.M. Lekuonak hitzaurrean eman dizkigun oharrak, eta haiei so eginez hitzek eta esaundek duten garrantziaz jabe gaitezke. Horregatik ekingo diot hurrengo lerroetan arlo horri, hitzaren eta esaundaren prismadurei buruz arituko bainaiz.

Gandiagak, liburuaren hasierako prosa testuan, argi adierazten du berak egin nahi duena hauxe dela: «Hitza egin ikuskari, gertakari eta sentikarien nagusi, hitzaren pean jarri gaia, gaiak hitzari zerbi diezaiola egin».(5. orr.)

Ondorioz, hitza helburu izanik, izugarri aberatsak gertatuko dira liburu guztian zehar haren inguruan egingo dituen jokoak. Horrela hitz

beraren inguruan jostatuz, eta batzutan hiruzpalau hitzekin jostatuz errealitate beraren ñabardura ezberdinak erakutsiko dizkigu. Beraz hitza moldatu egingo du, forma ezberdinak emango dizkio harik eta hitz berberaren nahi adina aurpegi edo «prismadura», J.M. Lekuonak dioen bezala, agerian utzi arte.

Hitza bilakatuko da poemaren ardatz nagusi askotan. Beraren inguruan jira-biraka pilakatuko ditu Gandiagak beste hitz batzuk, baina beti ere hitz konkretu bat (aldi bakoitzean bat) izango da abiapuntu eta helburu, eta baita bitarteko bide ere. Eta hitz soila ez denean esaunda izango da, hau da, unitate sintaktiko osoa.

Gandiaga horrela ez da, *Elorri*-n egin bezala, sinbolo, metafora eta irudi literarioez baliatuko hiriak eskaitzen dizkion gauzen berri emateko. Hitzaren bila abiatuko da, hitzaren bidez adierazten baitu errealitatea eta beraren bidez gauzatu nahi izango du. Ondorioz testua soila irudituko zaigu: simplea, ulerterraza; baina hitz jokoak eta espazialitatea kontutan hartzerakoan, deskribapen soil bat baino gehiago bihurtuko zaigu. Testua sujerikor bihurtuko zaigu, eta errealitateen barne-esanahiak agerian jarriko dizkigu.

Has gaitezen bada hitz joko horiek —errepikapen, erresonantzia, eufonia...— aztertu beharreko atal honetan zer eskeintzen diguten ikustera.

Esan beharra daukat ia poema guztietan agertzen dela hitzaren prismadura deitu ditugun horien gauzatzea, baina kasu berezienen barri baino ez dut jasoko:

81. orrialdean:

«... /...  
*Hemen pilatzen da  
 behingo baten, pilan,  
 andena beteko  
 jende ta isiltasun andana herstu pilatu isil bat,  
 ... /...,  
 herstu eta isil»*

Argi dago «*pilatzen*» / «*pilatu*» hitzetan dagoela ardatza. Horrez gain *isil* eta *herstu* ere hor daude, errepikapenaren bidez, erresonantzia bezala agertzen zaizkigula. Hala ere «*pilatzen*» / «*pila*» / «*pilatu*» horretan dakusagu argi hitz berberaren molde ezberdinak erabiliz, deskribapen soila erabiliz, ez duela sentimendua agerian edo espreski agertu beharrik ere. Gainera intentsitate berezia lortzen du esaldi horretan denak batera, bata bestearen ondoan, baina sintaxia hautsi gabe, ipintzen dituenean.



## 86. orrialdean:

«... /...  
*Lurrezko zirudian buruak*  
*lurrezko zela ikusarazten zion*  
*argitxo bat barruan zuen*  
*lurrezko.*  
*Pisua sentitzen zuen*  
*argia herstatzen zion*  
*lurraren pisua*  
*ta argia*  
*lurraren pisupean*  
*pisuari ihes,*  
*argi,*  
 ... /...  
*lurraren barruz barru.*  
 ... /...  
*eta egon berriaren argiak argitzen zuen*  
 ... /...»

Lurra, argia eta pisua egiten ditu Gandiagak poema honetan protagonista. Batzutan errepikapen, (aldi berean paralelismo) soil bezala («Lurrezko», «lurrezko», «lurrezko» / «lurraren», «lurraren», «lurraren») eta orpo edo bisagra jokoak egin araziz eta bestetan hitz berberaren prismadura ezberdinak agerian jarriz: argitxo, «argia», «ta argia», «argi», «argiak», «argitzen».

Kasu honetan ez du ez lurra, ez pisua ezta argia ere deskribatu nahi, metaforikoki erabiliak baitira.

Baina 91. orrialdean, *hitza* du ardura poetak eta hor dakusagu («*hitzez*», «*hitza*», «*hitzik*», «*hitzik*») *hitza* bera protagonista egina.

Hala ere, 94, 95 eta 96 orrialdeetan dagerkigu Bitorianok bai hitzaren zein esaundaren prismadurak erabiliz, eta ia beraz soilik, itxuratutako poema berezi bat. Ikusiko dugunez hitz konkretu batzuen posibilitate ugariak tartekatuz eta beraien arteko joku, errepikapen eta joskeraz agertuko digu ezin-ikusirik egin ezin dion errealitate bat: «*kaleotan gizona dabil*».

Lehenengo lerroan bertan:

«*Kaleotan, kaletarteotan, kalebazterrok zehar,...*»

Geroago, lokarri edo orpo zeregina emanez —nahiz eta orpoa beharbada «*kaleotan gizona dabil*» esaunda osoa izan litekeen— birritan agertuko zaigu «*kaleotan*». Eta azkenik, bukaera aldean eta oraingoan bertikalki, berriz ere: *kaleotan*, *kaletarteotan*, *kalebazterrotan*.

Prismadurak edo hitzaren aurpegi ezberdinak erabiltzeaz gain inebibo kasua erabiliz lorturiko eufonia ere aipa dezakegu (92. orrialdeko «GOIZUETAN» poeman ere argi asko ikus dezakegu antzerako lorpena, nahiz eta kasu horretan hitzak aldatzen dituen).

Aldi berean, 6. lerroan «*bere barrutan*» aipatzen duenetik eta 10. lerroa bitartean 8 aldiz errepikatzen du *bere* hitza, baina ez errepikatze soil baten, baizik eta sintaxiak damaion eremua errespetatuz hitz kate berezi eta ulergarri bat sortuz.

10. lerro horretan *bizi* aipatzen du, eta oraingoan hitz hori izango da Bitorianoren hitz-jarioari jarraipide emango diona. Antzeman daitekeenez autoreak hitzaren beraren prismadurak damaizkion aukerak ez ezik, hitz horren ondorioz edo inguruan sorturiko hitzez ere baliatzen da poemak behar dituen barne loturak gauzatzeko. Horrekin, aldi berean kate bezalako bat lortzen du, lehenengo hitz baten inguruan gora eta behera ibili ondoren, beste hitz baten ingurumarietara salto egin eta hausdurarik agertu gabe errealitatearen bestelako ñabardura zein beste errealitate batzuetarako bidea erraztuko diona.

Horrela, *bizi* hitzaren inguruan «*bizi duela*», «*biziki bizi*» eta «*bizitzaren bizi-min bizitza betekoa*» agertuko ditu.

Nabarmentzekoa da poema horren lehenengo 14 lerroek osatzen duten paraestrofari Gandiagak, aipatu teknikaren bidez, emandako irromotasuna. Gainera, esaldi ulergarriak diruditen arren, hainbeste errepikazio, esaldiei buelta emate, erresonantzia, paralelismo eta hitzen kateatzearekin (poema guztian barrena gertatzen dira) nahasmen inpresioa ematea lortzen du. Aldi berean ulerkor eta ulergaitz egiten du Gandiagak bere poema, komunikatzen duena sakona izan arren agerikerikoa ere badela transmititu nahi izan baligu bezala.

Ondorengo paraestrofetan badirudi aurrekoan hain sendo eta nahasian emandakoa azaltzen edo atalkatzen ari dela, horrela lehen erabilitako hitzak ikusiko ditugu nonnahi («*bizi-mina*», «*biziki*», «*bizitza*», «*bizi-bide*», «*bizi-une*»), lehen tajutu bezala zein moldakera berriez. Gainera lehen erabilitako esaundak izango ditu oraingoan ere orpo edo bisagra, eta hitz berrien prismadura berriak ere landuko ditu: «*oztopoei*» / «*oztopotan behaztopatuz...*»

Esaundak erabiltzen dituela orpo bezala aipatu dugu eta egia esan etekin izugarria ateratzen dio errekurtsu horri Gandiagak.

Komentatzen ari naizen honetan bertan antzeman dezakegu esaunda ezberdinek ematen diotela unitatea poemari. Behin eta berriro agertuko zaizkigu hitz eta hitzen agerpen ezberdinekin batera esaundak eta esaunda horien prismadurak. Honako honetan ba dirudi esaunda garrantzitsuena «*Kaleotan gizona dabil*» dela. Lehenengo paraestrofari zein bigarrenari horretxek ematen dio hasiera, nahiz eta lehenengoan «*kaleo-*

*tan*» horrekin jostatu, errekreatu ondoren (prismaduren jokoa eginez) zangalatrau batez batu «*kaleotan eta gizona dabil*».

Lehenengo paraestrofaren erdi aldean berriz ikusiko dugu esaunda berberaren beste printza bat: «*kaleotan zehar gizona dabil*».

Era berean, eta lehen paraestrofan dakusagunez, Gandiagak koplazaharren teknika imitatzen du. Haietan irudia ematen zen lehenengo, eta ondoren, eten bat eginez, irudiaren azken hitzari eta bat gehituz «oldozkuna» edo gaia azaltzen zuten.

Gandiagak horrela egiten du:

«... /... Ingurutara zabalik  
... /...  
Ingurutara zabalik eta bere... /...» (94 or.)

Baina ez da horretan soilik gelditzen, hurrengo paraestrofan ere, esaldi hasierarik badago eta esaunda berbera erabiliz. Argi ta garbi errealtate berberetara behin eta berriro hurbiltzen da Gandiaga errealtate horren bestelako ñabardurak agerian jarri asmoz.

Berezia benetan eta harrigarria poema honetan Gandiagak hitzen eta esaunden prismadurei ateratzen dien etekina. Hitz gutxi batzuk, hauen printza, ertz, baliabideak aprobeixatu eta esaunda batzuren inguruan orrialdeak eskaintzen dion espazialitatean antolatuz, ia-ia aditzik erabili gabe —lehenengo paraestrofan «*dabil*» «*bizi du*» eta «*bizkar eman*»—, eta hara non eskeintzen digun poema guztiz iradokior eta indarrez betea.

Ezin dugu aipatu gabe utzi hitzekin jokatzeko duen bezala aditz formekin ere joka lezakeela Gandiagak, baina ez du arlo hori jorratzen poema honetan. Hitzak nahi ditu Gandiagak, eta izen izan daitezela gainera. Horrela bada nominalizazioa barra-barra agertzen dela nabarmentzen ari garen; hitzen prismadurak eman nahiak ere horretara darama.

Esaunden prismadurak deitu ditugun adibide bat ikusi dugun arren, ezin diogu besterik gabe arlo honi bizkarra eman, izan ere guztiz aberatsa gertatzen dira poematan landuriko esaunden moldizkera ezberdinak. Gainera berauek ditugu behin eta berriz poemaren ardatz, hitza bera ahaztu gabe.

Horrela, 82. orrialdean:

«*Edotariko aurpegi, janzkera  
tamaina ta adinekoen...*»

«*Askotariko aurpegi, janzkera  
tamaina ta adinekoen...*»

Esaunda horren (horien) inguruan dago eraikia poema, bost bat al-diz agertzen baita, beti ere aipatu orpo joku hori gauzatuz.

Poema berean «*pasatu*» / «*pasatzen*» aditzaren inguruko prismadurak agertzen dizkigu aditz laguntzailea aldatuz, baina ez dirudi aditz soilaren prismadurak direnik, «*nik ere pasatzen*», «*beti ere pasatzen*», agertzen bait zaizkigu bata bestearen ondoren zein poeman zehar, orain bai eta gerotxoago baita, tartekatuz.

Baliabide aparta Gandiagak erabilitakoa hiriko jendetzaren mugimendua espresatzeko. Deskripzio soil bat baino ez da azken finean, baina errepikatze konstanteek, paralelismoek, erresonantzia eta abarrek ideia edo gertakizun (kasu honetan aditza baitago jokoan) horren jabe egiten dute irakurlea.

Era berean, 104-105 orrialdeetan, estrofen hasiera ala bukaeran antzeman dezakegun bi lerrotako

*«Ez nuen bilatu,  
aurkitu egin nuen,»*

horrek dakar poemaren mezua eta ardatza. Gainera aditzak aldatuz eta esannahi bera mantenduz, hau da, nolabaiteko sinonimoak bilatuz eta esaldiaren sintaxi estruktura mantenduz prismadura berriak lortzen ditu:

*«Ez nuen galdetu,  
ikusi egin nuen.»*

Bestalde, 110. etik 112rako poeman ikus dezakegu esaunda baten kontrakoa edo antitesia bilatuz ere eragiten dizkiola printzak esaundari. Azken finean aditza baino ez baitio aldatzen. Horrela, paralelismoz jositako poema honen norabidea markatzen duten esaundak bi hauek dira:

*«Hersten dituzu begiak orduan  
eta... /... « (110.or.)  
«zabaltzen dituzu begiak orduan  
eta... /... « (112.or.)*

Pentsa dezakegu «JENDEA» tartetxo honetan hitzei eta esaundei daragien printzadura eta prismadura joko ugari eta joriak ikusirik zer nolako garrantzia hartzen duen hitzak *Uda Batez Madrilen* liburuan.

Beste gabe beste arlo batzuk jorratzeari ekingo diot, aztertu berri dugun honi adinako garrantzia ezin eman izango badiegu ere Gandiagaren eta obra honetako poetikan joko ugari emango baitute. Bereziki hitzaren eta poemen musikalitatea aztertzeraz egingo dut salto.

Aipamen berezia merezi du bai arlo honek liburu honen azterketa egiterakoan. J.M. Lekuonak berak ere «apainduriatzko poesia» ri egiten dio erreferentzia forma aipagarrienen artean.

Horrela bada, aliterazio, onomatopeia, erresonantzia eta abarrei egingo diegu so.

Forma hauetan benetan bereizgarri egiten zaigun poema 100-101. orrialdeetako «DZU! Dzu! Dzu!» da.

Hasiera bera soinu onomatopeikoz gauzatua da, eta poema osoa autoen ziztu bizian pasatze horrek utzitako oihartzunaren erresonantzia da. Erresonantzia hori aliterazioaren bitartez lortua da, soinu txistukariak eta *u* bokale itxia behin eta berriz, batez ere lerro bukaeratan, emanez.

Hala izanik, aliterazioaren eta semantikaren arteko lotura zuzena ematen da, testu osoa hasierako lerro horretan agertzen zaigun onomatopeiaren oihartzun bilakatzen baita.

Similikadentziarik edo anaforarik ere badakusagu «-eta» bukaeratan, baina hori hurrengo atalean ikusteko utziko dut.

Esan beharra dago lehenengo estrofa hori antologikotzat eman dai-tekeela, hain baita nabarmena transmititzea lortzen duen abiadura, arrisku sentsazioa. Gainera ez du metafora edo horrelakoen beharrik hori lortzeko, ez eta aditzik ere. Izan ere aditz bakarra darabil Gandiagak estrofa horretan, «*diotsu*», eta badirudi gehiago dala hizketa konnotatiboa lortzeko adierazi beharrekoa espresatzeko premiak eragindakoa baino. Ez dezagun ahaztu «*diotsu*» horren bidez soinu txistukariei eta *u* bokale itxiei beste bide bat zabaltzen diela: «*diotsu*», «*zu*», «*zaitu*».

Baina ez da hor bukatzen Gandiagaren hitzaren musikalitatearen bilaketa. Ikus ditzagun adibide hauek:

- «*trenaren astrapala-trapala*» (81.or.)
- «*trumilka, trunbilka*» (96.or.)
- «*turrustan, turrustak, jende-turrustak...*» (98.or.)

Nabaria da eufoniak bereganatzen duen garrantzia espresabide horietan. Soinu fisikoen adierazpena damaigute lehenengo eta azken adibideek, ez berriz bigarrenak. Hortan gizonaren noraeza, mozkortuaren alba-albarka bezalatsu edo adieraztea nahi duela dirudi.

Dena den hirugarren adibideak dirudi bereizgarriena, poema osoa betetzen baitu *turrusta* horrek. Konkretuki zazpi aldiz agertuko da hitz bera ingurumaria ezberdinetan, eta horrekin batera hitzaren eufoniaren oihartzuna aprobeztatuz, lerro bukaeratan *-ur* bukaerak pilatzen ditu: «*beldur*», «*basa-ur*»; soinu horien erresonantziez espresabide indartsuago bat lortuz.

Guzti hau kontuan izanik ere, ezin da ulertu Gandiagak poema hauetan lantzen duen musikaltasunaren garrantzia poema osoen musikaltasunari begiratu bat eman gabe.

«DZU!» poeman ezin hobeto ikusi ahal izan dugunez, soinuen erre-presentazioak, aliterazio zein onomatopeia bidez, pilatzen ditu Gandiagak poeman zehar errealitatea deskribatzeko joko bereziak eginez.

Baina poema berean antzeman dezakegu ez direla horiek egiten dituen pilaketa bakarrak. Lehen ere aipatu dugunez 101. orrialdeko 2. estrofan lerro bukaeratako «-eta» pilaketa horiei similikadentzia jokoak darie.

Horrez gain ezin ahaz dezakegu Gandiagak herri tradizioa eta literatura beti presente izaten dituela (ez dezagun ahaztu *Hiru Gizon Barkarka* bere bigarren lanak arlo horretan agertzen dituen konnotazioak), eta hemen bertso gintzan bezala errima hertsu bati lotzen ez bazaio ere, bista-bistakoa da lerro amaieren soinu antzerakotasun, errima, eta abarren bilaketa. Dударik gabe eragin handia izango du horrek poemaren musikaldadean.

Bestalde, arestian espazialitatean aipatu ditugun paralelismo, esaldi luze/labur eta abarren jokoek eurak ere dugarik gabe kondizionatuko dute poemaren musikaltatea. Eta zer esanik ez, aipatu berri ditugun hitzen eta esanduen prismaduren jokoek, ezinbestean, eragin izugarria dute poemaren musikaltatean.

Bainan ez dirudi zilegi denik adibide konkreturik eman gabe orokorrean hitzegiten jarraitzerik, beraz hona hemen esandakoak non aurki ditzakegun.

«METROKO andena»n, 81. orrialdean, lerroen luzera laburrak, similikadentziek eta puntuazio guneek erritmokera markatua damaiole poemari. Bat-batean, esaldi luze eta jarrai bik apurtuko dutena. Geltokian zain legokeen Bitorianori «*andena beteko jende ta isiltasun andanak*» bertan gailentzen den herstura eta itxarote luze-errenearen inpresioa sortzen diote. Egoerak poeta gogoeta sakonagoetara eramaten du, golpean errealitatera ekarria izan balitz bezala.

«TURISTAK»ean, 87. Orrialdean, nabarmenki bereizten dira «-istak» bukaeradun hitzak: «*Turistak*», «*artistak*», «*tomabistak*», «*exibizionistak*», «*bistak*». Denak ere lerro bukaeratan eta puntuazio marka baten aurretik, poemaren edo esanaren unitate ezberdinak markatuz, aldi berean nolabaiteko errima jokoak eginez.

«BAZKAL»ean, 88. orrialdean, orrialdearen alde batetik bestera saltoak egiteak esanaren mozturak eragiten ditu, esaldia bera tarteka emana dirudielarik. Horrela inpresio nahasi xamarra emanez gainera.

«GOIZUETAN» poemak, 92. Orrialdekoak, prosa testu bat dirudi lehen ikusian. Baina inesiboaren erabilerak damaion eufoniak berak musikaltasuna eta erritmo berezia ezartzen dio.

«DZU! Dzu! Dzu!» poeman, 100-101. orrialdeetan, lehen ere aipaturiko fenomenoez gain, zeharo nabarmena da interesatzen zaion soinu horren erresonantziak lerro bukaeretan ematen dituela.

Ez da ahaztu behar hor agertzen den herri-kanta herriak abesten duen kanta bat dela, beraz bere musika propioa du.

«KALEZ»ean, 110-111-112 orrialdeetako poeman, eta batez ere 111.orrialdean, «*eta*» lokailua izanik lerroetako lehen hitza, irakurketa azkartu egiten da alde batetik eta mugimendu/estres inpresioa areagotu bestetik.

Guzti horiek argi asko dioskue Gandiagak belarriak zoli izan dituela. Harrigarria da nolako sentsibilitatez jasotzen dituen hiriko zalaparta eta burrundarak. Ez dugu beraz, entzumenaren zentzuari dagokionaren inguruan buelta gehiago emango, orain artekoak kontutan hartuz gero, azpimarragarriak dira «Jendea» atal honetan entzumenaren zentzuari esker Gandiagak sorturikoak.

Aldi berean beste zentzu bati dagokion eremua izango da azpimarragarri: ikusmena.

«AURREZ» poeman, 82. Orrialdekoan, gutxienez hamar kolore ezberdin agertzen zaizkigu. Guztiak ere Gandiagaren begien aurretik pasatzen den jendearen erroparen koloreei dagozkienak, horrela: «*Kuadro marroidun*», «*horia*», «*nabarra*», «*krema*», «*argia*», «*grisaskak*», «*butano kolore*», «*beltza*» «*lila*»...

Espazialitatean aipatu ditugun formak ere, azken finean, ikusmenaren perzepzioari esker bereganatu ditu Gandiagak eta, era berean, perzepzio berbera erabiliz jaso litzake irakurleak.

Harrigarria dirudien arren Gandiagak ez du, gutxienez atal honetan, usaimenaren zentzua lantzen, *Elorri*-n bestela gertatzen bazen ere. Berdin gertatzen da ukimenarekin.

Zentzuen somaketa utzi eta tematikara salto eginez, Gandiagak berak hitza duela helburu dioen arren, atal honetan ezin du ezkutatu gizona eta hiriaren problematikak biziki eragiten diola.

Poema guztietan agertzen da *jendea* hitza edota bestela *gizona*. «DZU» poema salbuespen bat litzateke, hortan 2.pertsona singularra agertzen da, hizketa konnotatiboa lortuz eta irakurlearengan pertsonen jasaten duten arrisku sentsazioa areagotuz.

Gaia bera argi dago jendea edo gizakia Gandiagak hirian nola ikusten duen dela, baina honek damaizkion azpigaietara joz, bi gailenduko lirateke:

1.Jendea mugitzen den tokia: Metroa, kalea, kalebazterrak, Lagranbia, Alcalá, Goizueta, Plaza de Callao...

Ikus dezakegunez ez da metroa, kalea eta abarrekin generalizazio hutsean geratzen. Gandiagak deskribapenak ematen dizkigu, eta des-

kribapen zehatzak gainera. Deskribapen horiekin inguru horrek gizonarengan duen eragina markatzen du. Argi ikusten dugu hori *GOIZUETAN* poeman (92.or.), *Goizuetan* eta *Plaza de Callao*-ren arteko antitesia erabiliz (eta gainera literatura klasikoari aipamen eginez Kixoteren ahotan jartzen du salaketa).

Esan beharra dago prosako textuetan ezik, atal honetan behintzat oso gutxitan egiten duela salaketa espreski. Normalean deskripzio hutsa eman nahi izango du hitzaren bidez, eta deskripzio hauen bidez sorturiko irudiek eragingo dituzte irakurlearengan berari errealitateak sortu dizkion inpresioak; hori dela bere helburua dirudi behintzat.

2.Jende pilaketa eta nahaste-borraste inpresioa:

Izan ere detalerik galtzen ez duten Gandiagaren zentzuek Arantzazuko armoniatik Madrileko kaosera pasatzean zirrara berezia sortzen dioten errealitateak antzematen ditu.

Argi agertzen da 88. orrialdeko poeman nahaste-borraste hori plasmatu nahi duela. Aldi berean, 94. orrialdeko hitzen eta esaunden prismadurak erabiliz lortzen duen sintaxi irmoak helburu bera duela pentsa genezake. Poema honetan bertan, «*kaleotan gizona dabil*» orpoaren inguruan botatzen du Bitorianok «*ezin diot ezikusirik egin errealitate honi*». Aldi berean, «*Jose, Juan, Karmen, Rosa, Luis Mari*» agertzen zaizkigu, Gandiagak ez baitu anonimotasunean galduta utzi nahi bere mezua. Hiriko jendea, Goizuetakoa bezala, gizon izendunez osatua dago; aipatu berri dugun poema honetan behin eta berriz errepikatzen duen bezala: «*bakoitza*».

Bukatzeko, ondorioak atera beharko ditugu eta Bitoriano Gandiagaren lan hau aztertzerakoan atera dezakegun lehen ondorio behinena baliabide interesgarriak eskaintzen dituzten testu batzuren aurrean gaudela da.

Ez dago dudarik espazialitatearen eremuan gustora mugitzen dela Gandiaga, beharbada J.M. Lekuonak hitzaurrean agertzen digun Gandiagaren artezale izate horren ondorio baino ez da. Dena den argi dakusagu etekin ezin hobea atera diola eremu honi hitzaren eta esaundaren prismadurak deskripzioetan beste elementu batzurekin bateratzean.

Eta hitzaren eta esaundaren prismadurak aipatu ditugunez ezin dugu ahaztu hauetan datzala seguraski poema gehienen ardatza. Espazialitatearekin gertatzen zen bezala, Gandiaga ezin hobeto murgiltzen da hitz joku hauetan ere. Egia esan lexiko ezagutzaren aldetik emana zigan demostrazio aparta *Elorri* liburuan, baina kasu honetan hitza beraz gain hitzaren gainean poema eraikitzea lortu du. Nola? Eskultoreak zintzelarekin harriari printzak ateratzen dizkion bezala, Gandiagak hitzari eta esaundari atera dizkio printzak, horrela errealitate beraren in-



guruan hara eta hona mugitzeko aukera izan duelarik, errealtate berberaren aurpegi ezberdinak agerian jarritz.

Musikalitateari dagokionez, berak ohi duen bezala, tentu haundiz lorturiko emaitzak dakarzkigu oraingoan. Ezin dugu ahaztu «DZU! Dzu! Dzu!» poemak eragin dizkigunak. Ez dago hitzik Gandiagak espresatu nahi duena espresatzea lortzen duen indarrez espresatuko digunik. Dударik gabe maisua da Gandiaga joku hauetan.

Tematikaren arloak bigarren mailakoa dirudien arren, hitza duela helburu esan ondoren, Madrileko gizakiaren egoerak Gandiagarengan atentzia pizten duela nabaritu dugu. Gandiagak esan esan du gaia hitza lortzeko tresna bezala baino ez duela erabili nahi, baina poema hauek adierazten duten kritika sozial garrantzak bestelakoa sujeritzen digu: azken finean Gandiagari gizonaren problematika ardura zaio eta horrek bere hitzaren bilaketa baldintzatu du nolabait.

## Bibliografia


GANDIAGA, Bitoriano: «Nere obraz», *Hegats*, 4, 207-214 or.

GANDIAGA, Bitoriano (1977): *Uda Batez Madrilen*, Jakin, Oinati.

KORTAZAR, Josu (1989): *Laberintoaren oroimena. Gure garaiko olerkigintzaz*, Beroja, Donostia.

LANDA, Josu (1983): *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-aeak, Donostia.







# Bertso librearen inguruan

## Imanol Irigoienen zenbait poemaz baliatuz

Sonia González

### 1. Abiapuntua: zer da bertso librea? Arazo metodologikoak

Bertso librea, bertso askea, askatasunaren bila dabilen bertsoa, haxe dugu honen oinarri: askatasuna, egituran zein mamian. Hau dela eta, argi dago bertso hauek neurtzeko metodologia ezin dela mugatu silaba edo bertso-lerro kontaketa, ezta ere errimaren berezitasun formalak azaltzera; ez, bertso librean hau gutzia idazlearen esku gelditzen da. Sentimendu iturri azkar eta freskuak eratuko du bertso librea, bertso lerro bakoitzean eta osotasunean autorearen bultzada adierazkorren gogortasuna edo gelditasuna ikusi ahal izango dugularik.

Ez dago lege finkorik bertso librearen osagaiak azaltzeko. Olerki mota berri hau, ohiturazko bertso-lerro, errima eta estrofa arauetatik aldentzen den neurrian, obra osotasun poetiko moduan ulertzea baino ez zaigu gelditzen erritmoa bilatzeko (honek badauka zerikusia adierazten den pentsamenduari, geroago ikusiko dugunez). Hau dela eta, poema ezin dugu zenbait bertso-lerro perfektoren, errima landuren edo estrofa borobilen multzotzat hartu, baizik eta bere barruko indarretik, osotasuna eratzen duten elementuen indarretik, kohesio erritmikoaren araua, adierazpen sortzailearen antzera.

Eta, zer esanik ez, arau hauek beti izango dira ezberdinak, ez baitago, olerki mota honetaz aritzen garen heinean, bi poema berdinek (zenbaitetan antzekotasuna somatu arren, hau ez da nahita egina, bertso libreari ekiten dion poeta beti baitabil nolabait berezitasunaren bila); honela bada, ezinezkoa izango litzateke arau sendoak ezartzea, poemak, azkenean, beti alde egingo liokeelako. Berritasun zailena kritikariarentzat edo komentariarentzat, beraz, horixe izango da: ez dugula aldeaz aurretik araurik poema horri ekiteko; guk aztertu ahala, poemak oparituko dizkigu bere barne eta kanpo egituren berezitasunak.

Bertso librearen aztertze momentuan, sistematizaziorik ez dagoela eta zeharo subjektiboa dela ohartzen gara. Horregatik, metodologikoki

sistematizatorik ezara eta ikuspuntu objetiborik ezara garamatza. Poeta bakoitzak, eta honexegatik da hain zuzen bertso librea, bere sorketaren aurrean kokatzen denean, bide ezberdinetatik jotzen du momentu eta leku ezberdinetan. Are gehiago, ezin dezakegu ziurtatu, seguritate osoz, ezaugarri edo estilo batzu autore baten bereizgarriak direnik, bere obretan behin baino gehiagotan aurkitu arren. Eta hau ez bada posible, are gutxiago sail zehatzak sortzea, non baliabideak edo ezaugarriak sartuz joango garen. Bertso neurtua aztertzean, bide honetatik jotzen dugu: prozesu sortzailea argitzeko, aldez aurretik dauzkagun sailkapenetan sartzen ditugu poemaren edo obraren ezaugarriak.

Beraz, bertso libreari dagokionez, tradiziozko erretorikarena bezalako azterketa egiteari utzi egin behar diogu. Ezinbestekoa da bertso berriari metrika berria dagokiola onartzea. Honela egin behar dugu, bertso librea zertan datzan ulertuko badugu.

## 2. Arazo teorikoak. Erritmoan oinarritutako poesia

Bertso libreak poesia neurtuaren oinarritzko arau «mekanikoak» apurtzen dituzenez gero, baliteke prosa poetikoarekin parekatzeko arriskuan erortzea. Hala ere, bertso libreak berezko muga bereziak ezartzen ditu. Prosa poetikoarekin harreman estuak mantentzen ditu, baina, edonola ere, ez da identifikazio hutsa. Ezberdintasun nabarmenena erritmoan, hain zuzen, koka genezake.

Bertso librearen barru erritmoa ez da prosarena, beronetan euskarritzen da, baina. Prosaren erritmoa pentsamendu sintaktiko-arrazionalararen garapenean datza; eta bertso librearen erritmoa, ordea, sentimendua eratzen duten intuizioen garapenean.

Sentimendu eta intuizio mundu grinatsu eta aske honetan, bertso bakoitzak poetari darion inspirazio pertsonala errepresentatzen du. Bertso-lerroen saila —luzeak edo laburrak— ez da gurariz sortua. Barru mundua irudikatzeke nahiaren erantzuna da. Alegia, espirituaren egoera bat azaltzen saiatuko da bere esku dauden baliabide guztiak erabiliz, behar duena adierazteko:

*«una sucesión de versos libres corresponde a una sucesión de unidades intuitivas o bien a un especial encabalgamiento de intuiciones exigido por el movimiento de la efusión sentimental»<sup>1</sup>.*

---

<sup>1</sup> ALONSO, Amado: *Poesía y estilo de Pablo Neruda: interpretación de una poesía hermética*, Buenos Aires, De. Sudamericana, 1966. 88.orr.

Gainera, bertso libreaz aztertzen dugunean, askotan joskeratik deslotzen da. Zeren zeinua da hau? Adierazkortasuna muga sintaktikoen gainetik ezartzeko zeinua. Bertso-lerro bakoitza borondatezko unitate adierazkorra da, deliberatua: lerro bat baino gehiago da. Etena, luzea zein laburra, hitzen jarioan sartzen den unitate garrantzitsua da. Eten hau pentsamenduaren garapen logikoarekin bat etor daiteke ala ez; sintaktikoa edo antisintaktikoa izan daiteke, enkabalgamendua bezala.

Bertso librearen alderik interesgarriena zelako elementu erritmikok eratzen duten jakitea da. Hauxe baita prosatik alderatzen duena. Erritmo baliabide hauek ohartarazten digute, intuizioaren bidez, irakurtzen ari garena ez dela prosa, poesia baizik.

Izan ere, bertso libreaz ezinbestekotzat hartzen duen elementu tradizional bakarra erritmoa da. Beraz, esan genezake bertso libreaz ez dela erabat-erabat «librea».

Bestaldetik, hemen aurkitu dugun erritmoa ez da bertso neurtuarrena bezalakoa; harantzago doa hau:

*«En el verso libre, el factor que coordina artísticamente las palabras en sus grupos respectivos se funda en la sucesión de los apoyos psicosemánticos que el poeta, intuitiva o intencionalmente, dispone como efecto de la armonía interior que le guía en la creación de su obra»<sup>2</sup>.*

Baliabide erritmiko psikosemantiko hauen artean oinarrizko batzua aipatu behar dira: paralelismoa, korrelazioa, anafora, aliterazioa...

Erritmoa, definizio orokorra eman nahi badugu, denboran fenomeno baten errepikapena da. Hizkuntza bera badirudi, nolabait, erritmorako sortua dela, bere elementuen errepikapenak ezinbestekoak baitira, hitz katean milaka konbinaketa egin eta guztietan errepikapenak edukiko ditugu. Baina kontutan eduki behar dugu hizkuntzaren zeinuak adierazle eta adierazi direla. Hau honela bada, bi erritmo mota topatu ahal izango dugu: bata fonikoa eta bestea pentsamenduzkoa.

Hala eta guztiz ere, erritmoaren kontzeptu orokorretik sorkuntza poetikoan daukan eraginera alde handia dago.

Erritmo fenomeno nabarietak fonikoak dira. Baina erritmo poetikoa ezin da alde akustikora mugatu. Izan ere, erritmo poetikoa lau sailetan bana dezakegu:

1. soinu fonikoa
2. doinua (entonazioa)

---

<sup>2</sup> TOMÁS NAVARRO, T.: *Métrica española*, Madrid, Guadarrama, 1974. 454. orr.

3. mami psikikoa (sentimenduak, imaginak...)
4. azentua (erderaz erabili beharrekoa)

Komunikatu nahi denaren pean daude soinuak, doinua eta bertso-lerroa. Komunikazio hau elementu psikikoz osatuta dago: sentimenduak, pentsamenduak, grinak... Hau guztia elkartuta, poemaren erritmoa sortzen da (barne eta kanpo erritmoa).

Baliabide erritmikoen funtzioa hauxe da: adierazpen intentzionalitate handiagoa ematea. Bertso librea egoki dakioke, inkontzienteki, mamiaren erritmo psikikoari. Azken finean, hauxe da poeta guztien helburua: erabiltzen dituen baliabide guztiak pentsamenduen edo sentimenduen adierazpena izan daitezela. Baliabideok, bai fonikoak bai doinuzkoak bai bertso-lerroari dagozkionak..., zerbait adierazteko balio dezatela. Intuizio poetikoa bat bakarra da. Bertso librearen erabilerak erritmo poetikoaren adierazkortasuna errezten dute.

Esan bezala, erritmoa sortzeko eta, azken finean, poesia egiteko, olerkariak zenbait baliabide berezitan oinarritzen du bere artea. Baliabide hauek jakinarazten digute irakurtzen ari garena poesia dela, eta ez prosa. Baliabide hauen bidez ezberdin ditzakegu bertso librea eta prosa, baita prosazko poema eta prosa poetikoa ere. Baina, nolakoak ote dira hauek poemari beraren izaera eman ahal izateko, nahiz eta poema hau kanpo egitura konbentzionaletik at egon?

Poema eratzen duten errekurtso hauek ez dira, askotan pentsatu den legez, kanpotik ikusten ditugunak: neurria, errima edota bertso-lerro kopurua. Aitzitik, zeinu linguistikoaren barreneraino sartzen dira, sakoneko egitura izkutu batera ailegatuz. Poema bat osatzen dute; sentimendu eta grinaren aleak, bihotzetik jaiotako gizakiaren beraren espresioa dira.

Baina hau esatea ez da nahikoa guk baliabide hauek zeintzu eta nolakoak diren jakin ahal izateko. Era berean, zera jakin behar dugu: erritmo erreka zabal honetatik bi iturri sortzen dira, bata erritmo fonikoarena eta bestea erritmo pentsamenduzkoarena. Hala ere, biok gauza bakar baten bi aldeak baino ez dira: erritmo fonikoak beti garmatza erritmo pentsamenduzkora; zeren eta, prozesu foniko baten bidez zerbait erliebean ipiniz gero, beti izango baita pentsamenduzko zerbait adierazteko. Era berean, erritmo pentsamenduzkoa baliabide fonikoen bidez egin behar da —etenak barne—, hizkuntzan dagoen guztia eta poema batean dagoen guztia fonikoa delarik. Arrazoi honengatik ez ditut lan honetan zehar bi baliabide motak bereiztu. Nahiago dut denak batera eman eta bakoitzaren berezitasunak azaldu, bai euren alde fonikoan, bai euren alde pentsamenduzkoan.



### 3. Baliabideak

#### 3.1. *Errepikapena*

Bertso librean (eta bertso neurtuan ere bai) erritmoa gauzatzeko modurik baliogarrienetakoa errepikapena da. Alde batetik, ez dezagun ahaz errima errepika modu bat dela, baina hau erabiltzen ez denean (edo modu finko batez erabiltzen ez denean), beste errepika baliabi-deak ezinbestekoak dira. Ondoko hauek ditugu:

- Paralelismoa
- Anafora
- Aliterazioa

Paralelismoa hauxe da: egitura sintaktiko bera errepikatzea; hitz ez-berdinak konbina daitezke. Fenomeno hau askotan topatzen dugu Imanol Irigoienen poema sorta honetan. Baina adibide moduan ikus di-tzagan beharbada esanguratsuenak direnak:

«ARGI EHORTZIAK»<sup>3</sup>

*«Gauak gaua erantzi arren,  
argi iragarria ez dager.  
(...)  
Gauak gaua erantzi arren,  
soinuak ez dira inon ager»*

Poema honetan baliabide honek funtzio inportantea betetzen du. Lehenengo eta azkenengo ahapaldietan zera daukagu: bertso-lerro oso bat erabat errepikatuz, eta hurrengoan paralelismo joku batez, poeman zera gertatzen da: amaiera eta hasiera bat egiten dira, poema egitura nolabait enkuadratuta geratzen delarik. Hau da, poetak baliabide ho-nen bitartez, poema borobiltzen du.

«ARGI JAULKIA»<sup>4</sup>

*«Zuloaren igarle  
itzalaren ehule»*

Bi bertso-lerro hauetan egitura guztiz berdina da: SUST + NOREN + SUST (-LE atzizkiaz). Zergatik egiten du hau? Ziur aski, poema bat has-

<sup>3</sup> IRIGOIEN, Imanol (1989): Erein, Donostia, 13.orr.

<sup>4</sup> *Ibid.* 16.orr.

teko oso modu egokia delako. Gehienetan poemaren zatirik garrantzitsuenak hasiera eta amaiera dira, lengoaiaren erabilera bereziak momentu hauetan irakurlearengan bereziki eragiten baitu. Horregatik poetak hauek zaindu behar ditu batez ere; eta hasteko modu ona da paralelismoa.

«VERMEER»<sup>5</sup>

*«Gertaldien abstrakzio,  
irudi irrealen susmo,  
ludi itzal gabeko ametsek  
zezaguten  
sekulako urdin-txuri-horien  
harmonia.»*

Hemen paralelismo jokua erritmoari dagokio erabat: lehenengo hiru bertso-lerrotan zera daukagu:

- -EN + IZENA
- -EN + IZENA
- -KO + IZENA

Ahapaldi honetan paralelismoa neurri joku batekin konbinatzen da. Kontura gaitezen lehenengo hiru bertso-lerro hauek metro luzekoak dira (8, 9, 10); hurrengoa arretari eusteko, laburra da (4); eta jarraian beste bertso-lerro luze bat eta beste labur bat (11, 4). erritmo konplexua eratzen da, luze-labur jokuari esker.

«ORBELAREN EREIN HAZIAK»<sup>6</sup>

*«Udaberriko bide zidorrek  
eguratsaino daramate  
ihintzarekin zabalduko argia.  
  
Eguerdiko euri goibelaren  
logura hezea arnastuko du  
lurrak, lur bareak, astiro.»*

Kasu honetan paralelismoa lehenengo eta bigarren ahapaldi hauen 1go bertso-lerroan aurkitzen dugu (SUST. + -KO + SUST. + ADJ.). Paralelismoaren erabilerak bi ahapaldiak lotzeko balio du. Errepikapenaren

<sup>5</sup> *Ibid.* 27 or.

<sup>6</sup> *Ibid.* 37 or.

bidez, ahapaldiak ez dira solterik, isolaturik geratzen, baizik eta nola-bait kateatzen dira.

«HUNTZ GORAKARI»<sup>7</sup>

*«Sugar keinuak;  
palmondo luze, lerdenetik,  
oihartzun hedakorrak;*

*amodio laburrak.  
Ahotsen erritmoan  
hegazti eta ibai migrariak.  
Eztiaren dohain naharoa.  
Lorategiko prisma koloreztatuak,*

*huntz gorakariak  
leihoaren ihintzetik.  
Gorputz ahituak,  
bihotz goibelduak,  
begi betilunak  
betiren beti.»*

Poema osoan zehar bertso-lerroen egitura paralelistikoa agerian jarzen da. Gehienak bi hitzetako bertso-lerroak dira. Baliabide hau amaierara ailegatzen garen heinean areagotzen da. Honela, azken aha-paldiko bertso-lerroak, bi hitzetakoak izateaz gain, egitura bera betetzen dute: SUST. + ADJ. (pluralean eta nominatiboan). Honetaz guztiaz gain, kontura gaitezen, paralelismoari laguntzeko, bertso-lerro haue-tako neurriaz egiten duen jokua; adibidez:

*«Gorputz ahituak,  
bihotz goibelduak,  
begi betilunak  
betiren beti.»*

Egitura errepikatzen da, erritmo bat sortuz, azkenengo bertso-lerroarekin apurtzeko. Apurketa hau da, hain zuzen, poetak bilatzen duena (poesia apurketa da, aldentzea da). Azken bertso-lerroa aurrekoak baino laburrago egitean poema borobiltzen da; honi bereizketa tipografikoak laguntzen dio, hots, bertso-lerroa espazio batez bereiz-tuta emateak. Bestaldetik, kontura gaitezen poemaren lehenbiziko

---

<sup>7</sup> *Ibid.* 69 or.

bertso-lerroa ere besteak baino laburragoa dela (5 silabatakoa), azkenaren antzera.

«ILARGIA HEGAZTI»<sup>8</sup>

«*Paisaia hegazia da.  
Dena da paisaia  
hegaziaren hego saihetsean:  
ilargia hegazi;  
artaberdearen haize-igurtzia,  
hegazi;  
dena da paisaia  
habiaren  
errauts urratsetan.*»

Poema oso hau izugarri baliotsua da paralelismo eta errepikapenei dagokienez. Azter ditzagun, bada, punturik nagusienak.

Poema paralelismo batez hasten da:

«*Paisaia hegazia da* (SUJ. -Paisaia- + ATRIB. + IZAN AD.)  
«*Dena da paisaia*» (SUJ. + IZAN AD. + ATRIB. -Paisaia-)

Lehen ikusi dugunez, poema hasteko modu egokia da, irakurleak bere arretari euts diezaion. Gainera, lehenengo ahapaldia bertso-lerro bakarrekoa denez gero, bigarrenarekin lotzeko ere balio dio poetari. Bestaldetik, egitura apur bat aldatzen da lekuz, baina hau nahita eginda dago, «paisaia» hitza hasieran eta amaieran gera dadin, erliebean ipintzeko.

«Dena da paisaia» bertso-lerroa azken ahapaldian ere errepikatzen da erabat. Honekin zera lortzen dugu: gure arreta horretan jartzea, eta azken ahapaldi hori besteekin lotzea. Modu honetan poema gorpuzten da «osotasun ideia» bat eratuz.

Hirugarren bertso-lerroan berriro agertzen zaigu poemaren hitz giltza dena: «hegazi» (ohar gaitezen izenburuan berean ere agertzen dela hitz hori). Zergatik dakigu hitz honek funtzio berezia daukala poemaren barruan? Poeta, bost aldiz errepikatzeaz gain, erliebean jartzen saiatzen baita:

«Ilargia hegazi» eta «hegazi» bertso-lerroak besteetatik bereiztuta ematen dizkigu: bertso-lerroak osatzen dituzte, aurrekoen neurri laburragoz. Ezinezkoa da irakurlearentzat hitz horretan ez fijaszea. Poeta ahalgindu da bereziki gure arreta hitzean ezartzen. Hitz honen ingu-

<sup>8</sup> *Ibid.* 71 or

ruan dabil poema osoa. Hala nola, erabiltzen dituen beste hitz batzu: «hego», «haize-igurtzia», «habiaren», «errauts»... denak arlo semantiko berean koka ditzakegu.

Poema paralelistikoaren beste adibide baliotsu bat hauxe da:

«AMETS LUZE»<sup>9</sup>

*«Gau luze batez  
amestu nuena,  
egia bilakatu zela  
amestu nuen,  
egun luze batez.»*

Paralelismoek elkarri jarraitzen diote, esan genezake paralelismoz zeharo osotutako poema dela. Imaginak era honetan kateatzen dira, ideia baten inguruan: ametsa, bai gauzez, bai egunez, amets luzea da, egia bilakatzen dena. Paralelismoa poema filosofikoetarako (hau den bezala) oso erabilgarria da eta oso ederra gainera.

Azter ditzagun orain **anafora** kasurik esanguratsuenak. Anafora beste errepikapen mota bat da, baina kasu honetan errepikatzen dena bertso-lerroaren hasierako hitzak dira. Anaforak, nahiko errepikapen zehatza denez gero, baina bertso-lerro osoa betetzen ez duenez gero, musikalitate berezia ematen dio poemari. Anafora kasuak ez dira oso ugariak liburu honetan, beharbada poetak paralelismo konplexuagoko jokuak nahiago dituelako.

«IRUDIA ETA BATASUNA»<sup>10</sup>

*«Irudi bihur bait daiteke,  
Irudi bihurtzen da,  
maitasunak moldatutakoa,  
gorrotoak eratutakoa,  
bere helburuaz gose,  
bere helburuaz ase.»*

Poema honen azkenengo 6 bertso-lerroek liburu osoko jokurik ederenetako bat osatzen dute. Paralelismoa eta anafora nahasten dira hitzei majikotasun berezia emateko. Izan ere, errepikapen landu hauek sortzen duten erritmoak konjuro baten sentsazioa sortzen duela ematen du. Lehenengo bi bertso-lerroetako anaforak sententzia izaerara

<sup>9</sup> *Ibid.* 96 or.

<sup>10</sup> *Ibid.* 18 or.

hurbiltzen ditu; geroko paralelismoa, eta anaforarekin konbinatutako beste paralelismoa antitesiaz osatzen dira. Termino oposatuek (maitasunak/gorrotoak; gose/ase) josten dute pentsamendua edo ideia edertasunez («*figura de pensamiento*»), aipatutako beste baliabideek erritmoz josten duten bitartean.

Eta, zer esanik ez, neurri perfektua aukeratzen du: lehenengo bi bertso-lerrotan, sententzia izaera emateko, bigarrena apur bat laburrago egiten du (9-7); hurrengo biak 10 silabatakoak dira, euren atzean datozen biak baino luzeagotxoak (8, edo 7, sinalefa eginez gero). honek bere zergaitia dauka, zeren eta lehen aipatu dugunez, poeta honek oso gustoko baitu poemak ondo borobiltzea, azken bertso-lerroak laburragoak eginez.

«MONDRIAN»<sup>11</sup>

«*Laukiak, beirak*  
*-begiak-*  
*lauki-beira gardenak.*  
*Zuri-beltz,*  
*urdin-gorri-horiak,*  
*laukiak, betiko laukiak.*  
*(Arlekinen etengabeko sinfonia*  
*pentagramaren lerro-koloreetan).*  
*Lauki-beira, ispilu*  
*mila ispiluetan zatikatua.*  
 [...]»

Poema honetan anafora ez datorkigu jarraian bertso-lerro guztietan, baizik eta beste bertso-lerro batzu tartekatzen ditu «anaforadunen» artean. Errepikatzen dena zera da: «*Laukiak, beirak*», «*lauki-beira*», «*laukiak*», «*lauki-beira*». Beraz, elementu bera errepikatzen badu ere, aldi berean, hitz joku bat egiteko aprobetxatzen du, batzutan «*laukiak*» eta «*beirak*», eta bestetan «*lauki-beira*» elkartuta esateko.

Poema osoa kontutan hartzen badugu —hemen hasierako bi aha-paldiak eta hirugarrenaren lehenengo bi bertso-lerroak baino ez ditut ipini—, konturatuko gara berba hauek ez direla aurrerago errepikatzen, poetak bestetan egin ohi duen bezala poema borobiltzeko. Zergatik kasu honetan ez dira berriro agertzen? Ideia bat osotzeko eta argi uzteko erabiltzen baititu. Errepikapen honek erritmoa emateaz gain, beste funtzio bat betetzen du, adierazletik adierazira doana: poemaren barru egiturak edo azpiegiturak bereizteko balio digu. Hau da, lehe-

<sup>11</sup> *Ibid.* 44 or.

nengo ahapaldiak barru egituraren zati bat dira, zeinetan gai bat ukitzen duen: laukiak, beirak. Honetatik aurrera gaia aldatzen da, koloreak dira zentrua hirugarren ahapaldian (edo bigarrenean, parentesi arteko bikoa aurrekoari gehitzen badiogu); eta azkenengoan figurak izango dira.

«*DE CHIRICO*»<sup>12</sup> poeman beste anafora kasu bat daukagu. Zera errepikatzen da beronetan:

- 2. «*itzal-argi bortitz*»
- 5. «*itzal ilun beltzekkak*»
- 11. «*argi-itzal sukarritan*»
- 12. «*argi-itzal itsugarriak*»
- 13. «*itzal ilun beltzekkak*»
- 22. «*itzal-argi irrealak*»
- 28. «*itzal urdin ilun horretan*»

Nahiz eta tartean anaforadun bertso-lerrorik ez egon, eta errepikapen zehatz-zehatzak ez izan, poeta honetaz baliatzen da poema osoan zehar lokarri gisako elementu bat edukitzeko. Kasu honetan ez da lehen aipatutako kasuan bezala gertatzen. Oraingo honetan anafora ez da imagina bakar batentzat sortua, baizik eta —Irigoienek maiz egiten duen moduan— poema osoan zehar erritmoari eta erreferentzia puntuari eusteko balio digu.

**Aliterazioa** hurbil dauden soinuak errepikatzean datza. Inpronta foniko handia uzten du irakurlearengan baliabide honek, eta beharbada honexegatik izan da nahiko erabilia mendeetan zehar. Batzutan errepikatzen den soinuak zerikusia dauka adieraziarekin (adib. «*El silbo de los aires amorosos*», San Juan de la Cruz). Bestetan, aliterazioa irakurleak bere arreta jar dezan erabilia izaten da, elementuren bat agerian ipintzeko, edo (adib. «*Con el ala leve del abanico*», Rubén Darío). Nik ez dut liburu honetan lehenengo kasuko aliteraziorik aurkitu, baina bai bigarrenekorik.

«KONTRARGIA»<sup>13</sup>

«*Aldeanitz planutik jausirik*  
*Artizar anizdun begietatik egotzia,*  
*izarrek maitekiro imaneztatua*  
*(geroztik uhindua)*  
*eta zulo beltzetik-hilerritik-erauzitakoa*  
*egonezinean-agian ikarati-;*  
 [...]»

<sup>12</sup> *Ibid.* 52-53 orr.

<sup>13</sup> *Ibid.* 23 or.

Baliteke baliabide hau askotan inkontzienteki sortu izana. Batzutan poeta hasten da idazten eta, nola jakin gabe, intuizioz, eufonia berezi batek egiten du jauzi orrialdeetara.

«ITZAL LUZE»<sup>14</sup>

«*Gauzen esentziak  
-itzal luzeak bezala-  
ihes, ihesi doaz beti,  
bakartiak,  
Herioren itzal more  
luzeagoan  
ikutu arteraino.*»

Lehenbiziko hiru bertso-lerroetan askotan agertzen dira Z-S-TZ soinuak errepikatuta. Baliteke kasu honetan «itzal luze» sintagmaren gainean gure arreta ezarrerezteko, baliabide hau erabili izana; baina beharbada ez, suposamen gisa hartuko dugu.

Egia esan, askotan erabiltzen da aliterazioa sintagmaren elementuren bat erliebean ipintzeko. Errepetizioaren bidez, elementu horretan fijasen gara, eta, hain zuzen ere, elementu horixe da poetak bereziki adierazi nahi duena<sup>15</sup>.

### 3.2. Etenaldiak: hemistikio, brakistikio eta antibrakistikio

Dakigun legez, etenak edo zesurak bertso-lerroa bi zatitan banatzen duenean —normalean bi zati berdintsutan—, bi hemistikiodun bertso-lerroa daukagu. Baliabide hau kontutan hartzeko sistematikoa izan behar da, poeman zehar errepikatu behar da, alegia. Bertso librean hau ez da normalean gertatzen, poeta asistematizitatea bilatzen eta lortzen saiatzen baita.

Baina, bestaldetik, beste bi baliabide ditugu, bertso librean ere kontutan har ditzakegunak: **brakistikioa** eta **antibrakistikioa**. Zergatik hartu aintzakotzat hauek eta ez hemistikioa? Euren funtzioak ezberdianak direlako.

Brakistikioa bertso-lerroaren hasierako zati labur bat da, isolatuta geratzen dena, zeren eta aurreko bertso-lerroaren amaierako etenak bereizten baitu. Antibrakistikioaren kasuan, gauza bera gertatzen da, baina bertso-lerroaren amaieran.

<sup>14</sup> *Ibid.* 49 or.

<sup>15</sup> Batzutan, aliterazio hau bereziki esanguratsua suertatzen da.



Baliabide hauen helburua bera da: isolatuta geratzen diren hitzen garrantzia agerian jartzea. Bi etenen artean geratzen da hitza (bertso-lerro barrukoa eta bertso-lerrokoa), beste elementuetatik isolatuta. Eta eten hauexek dira brakistikioa erliebean jartzen dutenak. Zertarako bali ote du baliabide honek? zenbait hitz estilistikoki potentziazteko. Brakistikioa zati txikia denez gero, doinua ere bertso-lerroaren gainezko elementuetatik gailentzen da.

Ikus ditzagun adibide batzu:

«MONDRIAN»<sup>16</sup>

«*Lauki-beira, ispilu (antibrakistikioa)  
mila ispiluetan zatikatua,  
non gorriak gorriz,»  
[...]*

Baliabide honen bidez, enkabalgamenduarekin nahasten delarik, «ispilu» hitzak bereganatzen du gure arreta. Poema honen giltz-hitze-tako bat da, hain zuzen ere.

*Gela, arratsalde geldoan (brakistikioa)  
ito zen<sup>17</sup>.*

*areago: basamortu meategitik (brakistikioa)  
entzun ohi den  
apar deseginaren  
elurmina<sup>18</sup>.*

«*Bakarrik egon arren, lru diak (antibrakistikioa)  
beste mila irudi ditu  
bere baitan<sup>19</sup>.*

Hauxe da brakistikioaren eta antibrakistikioaren funtzioa, hitza erliebean jartzea, eta ez bakarrik eten bat egitea. Bi baliabide hauek garrantzi berezia hartzen dute sistematikoak izanez gero. Hala ere, bertso-lerro bakar baten gertatu arren, merezi du seinalatzea.

<sup>16</sup> *Ibid.* 44 or.

<sup>17</sup> *Ibid.* «Monotonia» 90 or.

<sup>18</sup> *Ibid.* «Ogi hartzigabearen dohaina» 93 or.

<sup>19</sup> *Ibid.* «Irudia eta batasuna» 18 or.

### 3.3. *Enkabalgamendua*

Ahapaldian bertso-lerroaren etena eten morfosintaktikoarekin bat ez datorrenean **enkabalgamendua** suertatzen da. Neurria eta joskeraren arteko egokitasunik eza da.

Bertso-lerroa etenean amaitzen bada, hau da, eten batek bertso-lerroa ixten badu, **estikomitia** fenomenoak gertatzen da. Baina hau oso zaila da, batez ere sintagma luzeetan. Kontrako fenomenoak enkabalgamendua da, hain zuzen. Bertso baten hurrengoarekin kontinuitatea gailentzen da, amaierako etenarekin oposaketan. Enkabalgamendu honek bertso baten amaierako hitzen eta hurrengo bertsoaren hitzen lotura sintaktikoa mantentzeko balio du.

Enkabalgamendua badirudi absurdoa dela bertso mota honetan; poetak askatasun osoz eratzen baititu bere estrofak, bertso-lerroan nahi duen silaba kopurua ipiniz. Bertso neurtuetan, osterak, batzutan zati sintaktiko hori lerro batetik besteraino ailegatu behar da, silaba kopuru zehatzean ez baita kabitzen. Baina bertso librean ere suertatzen da enkabalgamendua. Zergatik gertatzen da hau? Esan dugunez, bertso-lerro bakoitza poetaren bultzada pertsonala eta intuiziozkoa delako. Eta poetak efektu hori lortu nahian, enkabalgamenduaren baliabidea erabiltzea erabakitzen du.

Enkabalgamenduaren erabileraren ondorioa bertso-lerroen arteko lotura estuagotzean datza. Honela, bakoitzak bere identitatea eta independentzia fonikoa galtzen ditu eta entonazioaren arabera gauzatzen dira. Honela, prosaren jariotasunaren askatasunerako hurbilketa ematen da.

«SOLSTIZIOAN»<sup>20</sup>

*Gizonarekiko gizon,  
bakardadearen urratsetan,  
lohi-euritan ulu-zaunka galduak  
solstizioan,  
argi-izalen arteko —ausentziaren— simetrian,  
[...]*

Esan bezala, ez litzateke beharrezkoa izango «solstizioan» sintagma banatzea beste bertso-lerro batean, enkabalgamendua sortuz. Poetak aurrenekoaren amaieran ezar lezake, bertso-lerroari unitate sintaktiko-semanticoko osoa emanaz. Hala ere, banandu egiten du, eta gureta, gainera, «solstizioan» poemaren giltz-hitza delako.

<sup>20</sup> IRIGOIEN, Imanol, aip. lib. 46 or.

[...]  
«ez behintzat  
gizon antzuek hedaturiko  
lur elkorrak, // labak eta  
eremu berantiarrak  
ehortzi bitartean»  
 [...]<sup>21</sup>

Bertso-lerro batean bi enkabalgamendu elkartzen dira: lehenengoaren amaiera eta bigarrenaren hasiera. Bertso-lerro bakarrean poemaren hitz inportanteenak (izenburuan agertzen direnak, hain zuzen) batzen dira, enkabalgamenduak erabiliz. Ideien kokapen honek gure arreta ezarrarazten digu bertso-lerro zehatz horretan. Bertso librean oso ugarriak izaten dira enkabalgamenduak, eta esan behar da obra honetan ia poema guztietan hauetakoren bat topatzen dugula. Beraz, esanguratsu suerta daitezkeen bi adibide hauek baino ez ditut aterako.

### 3.4. *Isolamendua*

Aipatu ditugun zenbait baliabidetan isolamendu prozesu hau gertatzen da, hala nola enkabalgamenduan, brakistikioan... Bertso librean erreztan du hitzak isolatzea bertso-lerro bakar batean, poetak nahi duen moduan maneia dezakeelako bertso-lerroa. Izan ere, bertso-lerroa, berez, unitate berezia da olerki mota honetan, bultzada adierazkorra da, beste unitateekin —beste bertso-lerroekin— harreman estutan dagoena. Hortaz, hitz soil bat halako unitate boteretsu batean isolatzeak zeresan berezia eduki behar du derrigor: bultzada horren indar guztia hitz bakar horren gainean jausten da, inportantzia berezia emanez. Beraz, baliabide guztiak bezala, isolamendua ere hitz bat erliebean ipintzen saiatzen da. Zenbait adibide ikusiak ditugu jadanik, baina badaude beste asko obra honetan:

«ILE GARIARI SO»<sup>22</sup>  
 «Hilezkorra zinela jakin arren,  
 ziurtzat eman nahi izan nuenean,  
 zure ilearen gari boluten  
haizeari  
 egin nion so, instant batean.»

<sup>21</sup> *Ibid.* «Lur elkorrak, labak» 92 or.

<sup>22</sup> *Ibid.* 36 or.

«ITZAL LUZE»<sup>23</sup>

«Gauzen esentziak  
-itzal luzeak bezala-  
ihes, ihesi doaz beti,  
bakartiak  
Herioaren itzal more  
luzeagoan  
izkutu arteraino.»

Bi adibide hauetan hitzak bertso-lerro batean isolatzen dira.

«Laino zurizko uso;  
itzal zurietan zaldiak, argi.»

Hitza bertso-lerro batean isolatzen da, eten baten bidez. Ez da braktistioarekin nahastu behar, kasu honetan ez delako esaldia hurrengo bertso-lerroan jarraitzen.

Isolamendu honek hitz soilei ezezik, bertso-lerro osoei edota aha-paldiei ere eragiten die. Kasu honetan erliebean jartzen duguna ez da hitz bakar bat —normalean giltz hitza dena—, baizik eta egitura sintaktiko-semanticoko oso bat:

«*Ulu-zaunkak*» poema: Badirudi poema monoestrofikoa izango dela, hala ere, amaieran poetak bertso-lerro bat banatzen du, estrofatik isolatuz: «*Hoa azkar, haizeak haize*». Garrantzia ematen dio honela. Era berean, kontura gaitzeen bertso-lerro hau errepikatzen duela, ahapaldiaren erdian agertzen delarik: «*hoa, haizeak haize*» (6. bertso-lerroa).

#### 4. Bertso-lerroa eta neurriaren berezitasunak

Esan legez, bertso librean bertso lerroa ere guztiz libre da, bai neurrian, bai kokapenean ere.

Poetaren esku dauden efektu anitz, bertso-lerroaren luze-laburra handituz edo txikituz lortu ahal dira. Hala nola, bertso-lerroaren amaieran isolatuta geratzen den hitza erliebean jartzea. Era berean, bertso-lerroen neurria bera ere emozio edo sentipen ezberdinak adierazteko baliogarria izan daiteke. Bertso-lerro laburrek, normalean, mugimendua arintzen dute eta luzeak atsedenaldira bezalakoak izan ohi dira.

Irigoienek askotan bertso-lerro luze eta laburren konbinaketa erabiltzen du, «*pie quebrado*» direlako poema modukoak eratuz. Honek erritmo indartsu eta ederra sortzen du, monotonia eta sistematizazioa apurtzen duelarik. Izan ere, bertso-librea landu duten autore gehienek,

<sup>23</sup> *Ibid.* 49 or.

batez ere modernoagoek konbinaketa honi eusten diote nola edo hala. Zenbait kasutan, joko honen bidez bilatzen duena zera da: poemak bo-robiltzea, tankera berezi bat emanez. Erritmo luzea (bertso-lerro luzeak) apurtuz (bertso-lerro labur batez) poemari amaiera ematen dio:

Ikus dezagun adibide bat:

«MONOTONIA»<sup>24</sup>

*Aidea ihartu zen  
izartegiko espiral hostoetan.  
Gela, arratsalde geldoan  
ito zen.  
Atariko galtzadan  
ohizko ohiu gogaikarriak,  
beti lez.*

Esan bezala, «*Pie quebrado*» direlako bertsoen antza hartzen du poema honek, aipatutako jokua dela eta. Klausuletan bana genezake, era berean, silaben kokapenak adierazten duen legez; zazpia da oinarritzko kopurua: «*(izartegiko) espiral hostoetan*» «*(gela) arratsalde geldoan*» «*(ohizko) ohiu gogaikarrienak*». Ikusten dugunez, lehenengo hitza da kopuruz bertso-lerroa aldarazten duena, baina bertso-lerro bakoitzaren sintagma printzipalak eusten dio zazpiari.

Edozelan ere, bertso laburrei ematen dien inportantzia erritmoaren aspektutik harantzago doa —lehen esan bezala, baliabideak ez dira alde fonikoan geratzen, baizik eta mamira pasatzen dira—. Monotonia ondo isladatzen da, kadentzia modukoa geratzen da, mailu baten antzera edo ur tanta bat somatuko bagenu bezala.

Bestetan bertso-lerro luzeak eta bertso-lerro laburrak konbinatzen dira ez amaierarako, ez bada poemaren erdian. Nola edo hala, emaitza antzerakoa da:

«FOSILAK»<sup>25</sup>

*Lur oinpeko  
metalak, ezmetalak  
oroimenaren zeinu dira,  
naufragoaren behialako sekretu  
gordeak,  
espiral  
hutsean  
fosiltzen bait dira  
itsas-barraskiloak  
ur abisaletan.*

<sup>24</sup> *Ibid.* 90 or.

<sup>25</sup> *Ibid.* 89 or.

«*Gordeak*» bertso-lerroaren bidez apurtu egiten du erritmoa. Eta, era berean, nahiz eta hurrengo bertso-lerroekiko lotura puxkatu aha-paldiz aldatzearekin batera, bertso-lerro honen neurri apurtzailea hurrengo hiruren oinarri bilakatzen da: «*gordeak*»-3; «*espiral*»-3; «*hustean*»-3; «*fosiltzen / bait dira*»- 3+3.

Bestaldetik, bertso-lerroen neurria «*in crescendo*» doa, apurketarekin topo egiten duen arte, jakina.

Batzutan, bertso-lerroen kokapen hau tipografia berezi batez konbinatzen du, hitzezko «ur jauzi» moduko bat eratuz. Baliabide hau ere oso erabilia da poeten artean.

Tipografia berezia erabiltzea aldarrikatu dute bertso libre egile askok. Bertso libreak eskatzen duena askatasuna baldin bada, askatasun hau ez da neurriaren edo errimaren eremura murriztu nahi; izan ere, eskatzen duten lizentzia poetikoa puntuaziora ailegatzen da askotan (komak eta puntuak ez dituzte poeta anitzek zaintzen edo errespetatzen); edota bertso-lerroen orrialdeko kokapenean azken mugaraino ailegatu direnak abanguardistak izan dira: kaligramak —Apollinaire—, kubismoa...

Irigoien ez da gehiegizko tipografia honetara ailegatzen, baina ikus dezagun nola autore honek ere bertso-lerroaren kokapena maneiatzen duen:

«GOROLDIO»<sup>26</sup>

«Zuhaitza,  
Uraren sustrai,  
Goroldio  
Erreketan.»

«HARRI FILOSOFAL»<sup>27</sup>

«Hiru harri beltz  
zutik diraute,  
hiru harri beltz  
diraute zutik,  
mundua mundu  
denez geroztik, eternal harriduraz

Harri eta zur  
zur eta lur:  
Hiru  
Harri  
Filosofal.»

<sup>26</sup> *Ibid.* 62 or.

<sup>27</sup> *Ibid.* 101 or.

«PETER GABRIEL»<sup>28</sup>

«Gitarra elektrikoaren  
sabeletik,  
txoriaximetrikoak,  
banan banan...

Gorriak eta beltzak, gordinak,  
laranjak, berunak... urdinak...  
neonargi

limoi-hori  
eta berde  
eta kromo-nikelak  
banan banan...  
binan...»

Batzutan maiuskulak erabiltzen ditu, sintagmaren bat erliebean ipintzeko; edota gidoiak edo parentesiak:

«GALDE, MAITE»<sup>29</sup>

«Zein kolore —zazpietatik—  
maite dudan gehien?:  
-VINCENT VAN GOGH maite.»

«KONTRARGIA»<sup>30</sup>

«Aldeanitz planutik jausirik  
Artizar anizdun begietatik egotzia,  
izarrek maitekiro imaneztatua  
(geroztik uhindua)  
eta zulo beltzetik —hilerritik— erauzitakoa  
egonezinean —agian ikarati—;  
ugarri dago argia  
(ur-harrietako huntzak gidari,  
idoro bait du urepel garbia),  
[...]]»

<sup>28</sup> *Ibid.* 102 or.

<sup>29</sup> *Ibid.* 48 or.

<sup>30</sup> *Ibid.* 23 or.

Neurriari dagokionez, nahiz eta normalean oso irregularra izan, batzutan autorea saiatzen da silaba kopuru berdintsua egiten:

«EDIREN DUT HITZA»<sup>31</sup>

*«Bizia eman dinan  
izena,  
izana,  
ediren dinat aidean.»*

Metroaz gain, hoskidetasuna ere gordetzen du poema honetan (bigarren eta hirugarren bertso-lerroen hitz jokua ahaztu barik).

«GALSORO»<sup>32</sup>

*«Berde  
urdinean  
hori  
(soro,  
gari,  
itsaso).*

*Zeru morantz  
- egurats ubel -  
euriaren sabel.»*

Bi ahapalditan banatzen du poema hau, eskema honi jarraituz:

1. ahapaldia: sei bertso-lerro, bakoitza hitz batekoa.
2. ahapaldia: hiru bertso-lerro, baina bakoitza bi hitzetakoa, beraz, ahapaldi biok hitz kopuru bera daukate. (Honetaz gain, bigarren ahapaldi honetan silaba kopurua «*in crescendo*» doa: 4-5-6 silaba).

Beste hainbeste berezitasun daude kontatzeko bertso-lerroa eta neurriari buruz. Hala ere, bertso-librea guztiz irregularra denez gero, bertso bakoitza osotasun berezia eta besteengandik guztiz ezberdina da; ez dago konklusio orokorrik etenez edota gustokoen dituen bertso-lerro motaz.

Etengabeko bilakaeran dabil poeta eta poemaz poema, olerkiz olerki joan beharko ginateke guztiak ondo aztertzeko. Beraz, aurrera egin dezagun.

<sup>31</sup> *Ibid.* 30 or.

<sup>32</sup> *Ibid.* 38 or.



## 5. Errima eta eufonia

Bertso librean errima ez da ezinbestekoa. Badira zenbait poeta guztiz ezabatzen jo dutenak. Hala ere, nahiz eta errima finkorik ez erabili, normalean, baita bertso librean ere, errimaren errekurtso hau ageri da nondik edo handik. Edo behintzat eufonia moduko baliabideak ageri dira.

Adibide batzu ikus ditzagun, bai errima nahiz eufoniarenak:

«EZGRABITATEA»<sup>33</sup>

«[...]

Zilarrezko ezpatak

orobat burdinezkoak

beleekin batera

urrundu dira

Sodoma eta Gomorratik.»

Polirrimoak dira, azken bertso-lerroa libre geratzen delarik.

Lehen ikusitako «Harri Filosofal» poeman paralelismoek eta errima edo eufonia jokuek bat egiten dute ondorengo zentzuan:

Zazpi bertso-lerrotako olerkia da hau, zeinean binaka elkartzen diren hasieratik, paralelismoen bidez, azkena libre geratzen delarik. Era berean, errima laguntzera dator, azken bertso-lerro hau errimaz libre geratuz. Beharbada, ez diogu errima esan nahi, zeren eta errima baino eufonia kontua da: «beltz» eta «diraute» hitzen azkenengo bokala berdina da, eta errepikapenaz batera, soinu berezia lortzen du poetak, gure barnean durundi geratzen den soinua.

Beste poema batean argiago ikus daiteke:

«ITZAL-ITZALIA»<sup>34</sup>

«Ur bare, isilak,

ur, ia-ia, zuriak

gelditu du argia

hala nola Josuek eguzkia:

itzal-itzalia letorke

goroldio-harriak busti,

libelularen arnasak lurrun,

lurrundu eta busti ez balute

itzal-itzalia zetzan argi jaurtia.»

<sup>33</sup> *Ibid.* 56 or.

<sup>34</sup> *Ibid.* 63 or.

Bertso-lerroetako azken hitz gehienek *-ia* jokua darabilte, 5,6,7,8 bertso-lerroek izan ezik. Azken hauetan erritmoa aldatzen da, zorrotzago eginez, eta nolabait erritmoa mozten dute. Koinzidentzia izan liteke bertso-lerroen amaieran *-ia-* fonemak egotea, baina ez dut uste horrela denik. Hauetaz aparte, badaude beste hitz batzu zeintzuetan *-ia-* mulzoa errepikatzen den: «*ia-ia*», «*itzal-itzalia*» (bi aldiz), «*harriak*».

Nire ustez, baliabide hau, eufonia hau, poemaren garrantzitsuena agerian jartzeko erabiltzen du; izan ere, izenburua bera hauxe da: «*itzal-itzalia*».

Konklusio hauek ez dira gauza ziurra, nik atzeman ahal izan dudana baizik. Eufonia jokua, errima ez bada, niretzat ia-ia beharrezkoa da edozein poema motatan. Atsegina errepikapenean badago, ez dut uste errepika politagorik dagoenik errima baino. Baliabiderik erabiliena izan da denboran eta herrialdeetan zehar, eta honela bada, arrazoiren bat egon behar da derrigor. Bertso-lerroen arteko harremanetan beti itxaroten dugu gure atsegina areagotuko eta harreman hauen lotura estuagoko duen lotura bat egotea, eta normalean amaieran itxaroten dugu: «*in cauda venenum*».

## 6. Ondorioak

Adibide hauetan ikusi dugunez, ez dago ezer ziur bertso libreari dagokionez. Poetak gureta edo inkontzienteki bereziki era ditzake bere poemak, eta kritikariaren lana erantzunak ematea bada ere, batzutan ezin ditugu topatu; hain konplexua da idazlearen errealitatea! Ezin dezakegu jakin poetak errima modukoa eratu nahi zuen edo nahi gabe, idazten ari zen heinean, horrela eraiki duen bere olerkia. Bakoitzak bere konklusioak atera ditzala. Hala ere, arteak eta edertasunak hor iraugo dute, euren misterioa argitu nahi gabe.

Prosaren hurbilago, baina, hala ere, bere bertso izaerari eusten diola, bertso librearen oinarria erritmoan datza. Bertso-lerro bakoitzak erritmoa darama, baina erritmo hau, emoziozko bultzada batez adierazten dena, lehenagoko beste bertso-lerro batetik datorkio, eta, era berean, hurrengo beste bati doakio, kate batean bezala. Hala ere, bertso tradizionalaren erritmoa elementuen kokapen berezian datza, batez ere, muga batzuren barruan; bertso librean, bertso-lerroa katemaila baino ez da, puntutik puntura adierazkorra dena baina beti bere osotasunean hartuta.

Honekin zera adierazi nahi nuke: bertso librean erritmoa eta armonia sortzeko —errepikapenez aparte: paralelismoak, aliterazioak, eufonia...— badago beste baliabide bat oso inportantea dena: imaginaren eta metaforen pilakuntza eta mihiztadura. Honen bidez, adierazi nahi

denaren inguruan mugimendu zirkularra suertatzen da; imaginak balio-kideak dira sentipenari dagokionez. Hauxe izango litzateke pentsamenduzko bertso librearen oinarria, behintzat autore gehienetan, eta aztertutako obran zer esanik ez.

Beraz, badaukagu bertso librean armonia eta erritmoa —behin baino gehiagotan esan legez—. Poeta baitako bultzada armonikoak, bere bertsoa sortzera bultzatzen duena, alegia, gidatzen du sorketa, bai intuizioz, bai berariaz. Ametrikoa da, bai, eta errima bakoa; baina honek ez du esan nahi aritmikoa denik. Eguneko poesia modu berriak bilatzen saiatzen da, erritmo silabikoa baino harantzago ailegatu nahiez. Beharbada poeta batzuk ohiko prozedimenduak gaitzesten dituzte, baina guztiek desio dutena erritmo berria da, sentimenduari eta sentimenduaren espontaneitateari hobeto egokituko zaion erritmoa. Gizakiaren izaera konplexua adieraziko duten baliabide eta forma berrien bidean kokatzen da bertso libre, lotura estuegitik libre, bere ize-nak adierazten duen eran.

Hala ere, norbaitek pentsa lezake bertso libre prosaren anaitzakoa dela, hots, elkarren antza handiegia dutela. Horrelakorik gertatzen ez dela frogatzeko, aipatu beharreko lehenengo gauza zera da: prosak, nahiz eta poetikoa izan, prosa izateari eusten dio; eta bertsoak, nahiz eta libre izan, bertsoa izaten irauten du. Intuizioak edo sentimenduak eratzeko modua ez da bera. Prosan pentsamenduak logikoki eta arrazionalki hartzen du bere forma, horregatik ezberdintasun nabariak daude euren artean.

Bertso-lerroa idatzitako lerro bat baino askozaz gehiago da, unitate musikala, adierazkorra eta borondatezkoa da. Etenak unitatea markatzen du eta eten hau sintaktikoa edo antisintaktikoa izan daiteke, enkabalgamenduan gertatzen den legez, edo Irigoienen ahapaldiak banatzeko modua legez —eten sintaktiko-semantikorik ez dagoen lekutik, alegia—. Hainbesteraingo apurtzen du joskera bertso libreak, ezen askotan olerkariak puntuazioari muzin egiten diote eta puntuazio ezara jotzen dute. Bestetan puntuazioa logikoki txarto erabilita dago, baina ondo erabilita afektibitatezko eta irudipenezko balioak agerian ezartzeko. Honela adierazten dute olerkariak euren unitateak ezberdinak direla, berriak, egunerokotasunetik eta monotoniatik aldentzen saiatzen direlarik.


Hasiera baten, hitzak lan tresna hartuta, artea egiteko modu bakarra bertsoa zen. Honekin egoera normaletan erabiltzen zen lengoaiatik aldentzea lortzen zen —aldentze prozesua, bertsoz hitz egiterakoan beti presente eduki behar dugun kontzeptua da—. Geroago, halaz ere, disimilazio honetatik «asimilaziora» jo zen, beharbada gizakiaren konplexutasunera heldu nahiez, lehen esan bezala. Momentu honetan ko-

katzen zaigu bertso librea, adierazten duen errelitate zail horren hurbil dagoenez gero.

Idea berriei adierazteko modu berriak dagozkie. Ohiko metrikan ere olerkari bakoitzak bere gustoko neurkera edo errima edo baliabi-deak ditu; beraz, erritmoan, perspektiban, metaforan... etengabeko bilakuntza eta berregituratzea ezinbestekoa da. Esateko modu berriak ailegatu behar dira pentsatzeko modu berriei egokitzeko.

## Bibliografia

- IRIGOIEN, Imanol (1989): *Argiaren Barne-Distantziak*, Donostia, Erein.
- ALONSO, Amado (1966): *Poesía y estilo de Pablo Neruda: interpretación de una poesía hermética*, Buenos Aires, De. Sudamericana.
- DÍEZ DE REVENGA, Francisco Javier (1973): *La métrica de los poetas del 27*, Murcia, Departamento de Literatura Española, Universidad.
- DOMÍNGUEZ CAPARRÓS, José (1988): *Métrica y poética: bases para la fundamentación de la métrica en la teoría literaria moderna*, Madrid, UNED.
- GILI Y GAYA, Samuel (1993): *Estudios sobre el ritmo*, Madrid, Istmo.
- LÁZARO CARRETER, Fernando (1985): «Función poética y verso libre», en *Estudios de poética*, Madrid, Taurus.
- LÓPEZ ESTRADA, Francisco (1969): *Métrica española del siglo xx*, Madrid, Gredos.
- NAVARRO TOMÁS, Tomás (1974): *Métrica española*, Madrid, Guadarrama.
- PARAÍSO DEL LEAL, Isabel (1985): *El verso libre hispánico: orígenes y corrientes*, Madrid, Gredos.
- QUILIS, Antonio (1996): *Métrica española*, Barcelona, Ariel.
- SPANG, Kurt (1983): *Ritmo y versificación: teoría y práctica del análisis métrico y rítmico*, Murcia, Universidad.
- (1967): *Elementos formales en la lírica actual*, Universidad Internacional Menéndez Pelayo, Santander.





# ENSEIUKARREAN

Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutua

## ***Enseiukarreen* aldizkariko aurkibide orokorra**

(Lehen hamabi zenbaki eta monografikoetakoa)

Itziar Urrutiak paratua

### **Aurkibidea zenbakiz zenbaki**

#### **Enseiukarreen 1 (1986-1)**

«Editoriala» .....	2
UGARTEBURU, Iñaki: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulfo-ren kontag- gaia euskaraz)» .....	3-7
«Komikia: halabeharrik gabeko artea» .....	8-11
ROS KUBAS, Ander: «Hinault ihauterietan neurriko etimoen bila» .....	12-18
URIBEETXEBARRIA, Mireia: [Suari so erre nituen begiak] .....	19
AGIRRE, Nuria: [Neguaren izotz ilunaren artean] .....	20
SANTANO, Xabier: «Europa, printzesa eder hori, bahitu ziguten egunean. Andres Ortiz-Oses-ekin solasean» .....	21-26
GARATE, Gotzon: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz, Hitako artzape- zaren eta Bernard Etxepare-ren bizitza eta idazlanetan» .....	27-36
ROS KUBAS, Ander: «I.Toponimia Jardunaldiak. Mahasti batetan murgil- durik» .....	
SAUSSURE, Ferdinand de / URANGA, Mireia (itz.): «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa» .....	37-40
AIARZA, Patxi: «Maskaradakoekin hizketan» .....	41-44
GORRI: «Arloteak» .....	45

GORRI: [Astelehen euritsuen ikuslea] .....	46
GORRI: «Arrano urdina» .....	46
ATXA ELORDUI, M.G.: «“Undarain anderiaren kanta” edo “Maitia nun zira?” baladaren azterketa semiologikoa» .....	47-52
ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Migeltxo gauero ipuin ttipi bat...» .....	53-57
ROS KUBAS, Ander: «Artxietimo baterako 15 ohar - gusano - izain - ziraun - zizari - bizio» .....	58-62
URI, Mikel: «Mikel bizidun batek hainbat eraildutako Mikeli» .....	63

### Enseiukarrean 2 (1986-2)

«Editoriala» .....	1
ROS KUBAS, Ander: «Aditz Morfologia Historikorako Ohar Kritikoak. Alokuzioa» .....	5-54
URIZAR, Joseba A. (itz.): «E. Allan Poe-ren lan kritikoak» .....	57-59
GARIGORTA, Jose Ramon & GAMINDE, Iñaki: «XVIII. mendeko otoitz batzu» .....	61-65
MADARIAGA, Juanra: «Jose apirileko goiz batetaz» .....	67-68
LAESPADA, Fabian: «Larru gorria zuen tren» .....	71-72
SAUSSURE, Ferdinand de / URANGA Mireia (itz.): «Zeinu linguistikoaren hautazkotasuna» .....	75-77
ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Edward Spencer Dodgson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko (“Heuscarologus anglicanus” “Palamades”). 1857-1922. edota Edward Spencer Dodgson: Euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak» .....	79-101
SANTANO, Xabier: «Hitzaren iraganbidea: A. Ortiz-Oses-en azken libururaz» .....	107-115
URAGA, Bittor: «Barrutiaren <i>Acto para la Noche Buena</i> Latxagaren edizioari kritika» .....	117-119
ROS KUBAS, A.: « <i>Gramática histórica provenzal</i> » .....	121-123

### Enseiukarrean 3 (1987)

«Editoriala» .....	2
MANJON, Roberto: «Etxahun eta manikeismoa» .....	5-16
GAMINDE, Iñaki: «Aoristoaren inguruan» .....	17-27
GAMINDE, Iñaki: « <i>Sano</i> -ren erabilera» .....	29-33
ROS KUBAS, Ander: «Ekdotka kartografikoa. Bilbo eta Arrigorriagako toponimia eta mapagintza» .....	35-63
FERRERO, Elena & OLMO, Carlos de: «S.F. (Zientzi Fikzioa). Hurbilketa literarioa» .....	65-77
GUIJARRO, Amaia: «Omar Khayyam» .....	79-84
ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Marianne Moore (1887-1972). Ehun urte Missouriiko poetisaren hitzek» .....	85-91



MAIZ, Maddi: «Erlijiotik filosofiara» .....	93-103
AIARZA, Patxi: «Sorburuari hurbiltzen» .....	105-109
ROS KUBAS, Ander: « <i>Orotariko euskal hiztegia (I. tomoa A - Ama)</i> . Mitxelenaren lan postumoa» .....	111-199
ROS KUBAS, Ander: « <i>Euskal Hiztegi Historikoa</i> . Berandutik zetorren historia hiztegia» .....	121-131
MADARIAGA, Juanra: «Ez nuen ezagutzen» .....	133-137
SAIAGO, Jon Andoni (El Loco Pascual): «Infernurako bidaia» .....	139-149

### Enseiukarrean 4 (1988)

«Editoriala» .....	1
MAXIME, Annette: «Mintzodun Gizaki Zahar Agurgarri hori ez zaitez isil» .....	3-12
RIJK, Rudolf P.G. de: «Euskal hizkuntza eta bere tipologia» .....	13-32
MANJON, Roberto: «Edizioak zertan diren» .....	33-47
GAMINDE, Iñaki: « <i>Erabili, Esan eta Eritzi</i> mendebaldeko bizkaieraz» ..	49-80
PENADES, Josu: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barrizatua» .....	81-111
EGIDAZU, Jon: «Izenak eta adjetiboak automatikoki ateratzeko programa: bideak eta oztopoak» .....	113-122

### Enseiukarrean 5 (1990)

«Editoriala» .....	9-10
ATXAGA, Bernardo: « <i>Obabakoak</i> -en gainean» .....	11-30
BARRUTIA, Xabier: «Demokrazia eta manipulazioa» .....	33-42
ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberio haraneko galde-hitz, izenorde eta erakusleen deklinabideaz» .....	45-58
JUARISTI, Felipe: «Galiziako eta Kataluniako literatura» .....	61-71
LARTATEGI, Josu: «Lagunaren txerka» .....	73
MANJON, Roberto: «Zenbait gogoeta gaztelaniaz egindako nobelaren gainean (1936-1981)» .....	75-84
GARAI, Koldo Jule: «Esan baietz» .....	85-87
MORALES, Ana Isabel: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren <i>Bihotz Ahula</i> -n» .....	89-116
ITURRIMITI: «Oihartzun itogarriak» .....	117
OTAEGI, Joan: «Herri kontalaria» .....	119-127
ROS KUBAS, Ander: «Etimologia koitadu baten ustea egosten» .....	131-134
ROS KUBAS, Ander: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologia» .....	135-146
SANTXO, Joseba: «Sarrionaindiaren olerkia aztergai» .....	149-164
SANTXO, Joseba: «Pausalekua» .....	165-166

**Enseiukarrean 6 (1991)**

«Editoriala» .....	9-11
ARTZE, Joxean: «Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten die- tela zuek bidalitako lehen hiru galderei. Ongi dagoela deritzot, olerkariak olerkien bidez erantzutea» .....	15-22
EZKIAGA, Patxi: «Poeta bizitzaren esploradorea da» .....	25-43
IGERABIDE, Juan Kruz: «Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soi- nuak» .....	47-57
IRASTORTZA, Tere: «Enseiukarrean» .....	61-65
IRIGARAY, Jose Angel: «Olerkigintzak ez du zerikus zuzen edo mekani- korik eguneroko errealtatearekin, nahiz eta isladak ugariak izan eta harekiko mugan ibili» .....	69-77
JUARISTI, Felipe: «Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako» .....	81-100
JUARISTI, Felipe: «Poesiari buruzko ene gogoetak fragmentarioak» .....	101-103
PERURENA, Patziku: «Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea» .....	107-109
ALDEKOA, Iñaki: «Joseba Sarrionaindiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta» .....	113-118

**Enseiukarrean 7 (1992-1)**

«Editoriala» .....	11-13
FULLAONDO, Asier & IRIONDO, Mikel: «Eutrofizazioaren inguruan» .....	17-45
GARATE, Román: «Oroimena: herria, arkaikoa, historia» .....	49-78
HOYO, Enrique del & LARTATEGI, Josu & ZUBIZARRETA, Irene: « <i>Izuen gorde- lekuetan barrena</i> -ri hurbilketa semantikoa» .....	81-115
MARTÍNEZ RUEDA, Fernando: «Ohizko burdin manufakturaketa eta gizar- te harremanak» .....	119-136
PENADES, Josu: «Gizatasunezko bizitza-ibilbidean kide» .....	139-167
URAGA, Bittor: «Bilboko gauetan» .....	171-191
ZULOAGA, Nerea: «Kriseiluaren itzaltze hura» .....	195-200

**Enseiukarrean 8 (1992-2)**

«Editoriala» .....	9-10
PAGOLA, Rosa Miren: «Mahainguruaren aurkezpena» .....	15-17
LAKARRA, Joseba Andoni: «Euskara eta linguistika historikoa» .....	19-24
ORTIZ DE URBINA, Jon: «Euskara eta linguistika sortzailea» .....	25-28
ROTAETXE, Karmele: «Euskara eta linguistika estrukturalista» .....	29-40
SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. <sup>a</sup> (Txepetx): «Euskara eta soziolinguistika» .....	41-48
ABAITUA, Joseba: «Euskara eta linguistika konputazionala» .....	49-51
ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz & GEZURAGA, FORURIA Goizalde & KALTZAKORTA AZTORKIA, Nere & ARRONATEGI AZURMENDI, Aloña: «Armonia bokalikoa: Markina» .....	55-93

MADARIAGA, Juanra: «Olerkiak» .....	97-101
MORALES, Ana Isabel: « <i>Poemas &amp; Híbridos</i> -en zehar eginiko gogoeta eroak» .....	105-152
IBARROLA, Aitor: «Richard Wilbur: ahots klasikoa izpiritu modernoan»...	155-162
GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren <i>Maldan Beheraz</i> (I. partea)» .....	165-219
LARTATEGI, Josu: «Enseiukarrean aldizkariko aurkibide orokorra» .....	223-236

### Enseiukarrean 9 (1993)

«Editoriala» .....	11-13
COSERIU, Eugenio / GARAI, Koldo Jule & MORALES, Ana Isabel (itz.): «Hizkuntza erromanikoen tipologia» .....	17-47
GAMINDE, Iñaki: «Bokaleen asimilaziorako erregela fonologikoak bizkaiko euskarari» .....	51-61
LOBERA REVILLA, Angel: «Hiztegien eta laguntzako liburuen bibliografia» .....	65-78
GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren <i>Maldan Beheraz</i> (II. partea)» .....	81-127
ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberioko bertso-paperak» .....	131-143
RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Loramendi euskaldun mistikoa» .....	147-175
AGIRRE, Xabier: «Meteoro» .....	179-183
LARTATEGI, Josu: «William B. yeats euskaraz edo eireann zaharrera bidiaia» .....	187-194
ZUBIZARRETA, Irene: « <i>Denborak ez zuen nora</i> poema liburuari sarrera» .....	197-204

### Enseiukarrean 10 (1994)

«Editoriala» .....	11-13
PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina» .....	17-63
ALDAI GARAI, Gontzal: «Euskal aditz zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara» .....	67-82
GARAI, Koldo Jule: «Juan Jose Mogel-en Maiazko Lore bat» .....	85-126
ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Herri-euskeratik euskara batura» .....	129-133
IRIGOIEN Joan Mari & MINTEGI Laura & ASIER SERRANO (Lubaki) & URRETA-BIZKAIA Arantxa: «Idazte esperientziari buruzko mahai-ingurua» .....	137-150
FERNÁNDEZ DE LARRINO, Patxo: «Truman Capote-ren <i>Gosaria Tiffany's</i> -en. Semantika bidetan» .....	153-193
ELORRIAGA, Unai: «Ezpatatxanpontzat» .....	197-202
SEGURA, Ainhoa: «Malen» .....	205-210

### Enseiukarrean 11 (1995)

«Editoriala» .....	11-12
PAGOLA, Rosa Miren: «Berriaren dotrina» .....	15-69

TURREZ, Itziar & BEDIAGA, Ion: «Euskal fonetikaren inguruan» . . . . .	73-80
ISASI, Carmen / ELORRIAGA, Unai & FDEZ. DE LARRINOA, Patxo (Itz.): «Euskal lexikoaren historiarako oharra» . . . . .	83-89
ETXEBARRIA, José M. <sup>a</sup> : «Vienako euskal grabaketak Bizkaiera» . . . . .	93-114
ALDAI GARAI, Gontzal: « <i>Becussu</i> adizkia Barrutiaren <i>Acto para la Nochebuena</i> obran» . . . . .	117-122
GAMINDE, Iñaki: «Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa» . . . . .	125-149
MADARIAGA, Juanra: «Agian Unibertsoa» . . . . .	153-154
OTAEGI, Joan: «Sinbologia Gandiagaren <i>Elorri-n</i> » . . . . .	157-176
PENADES, Josu: «Lauaxeta: hizkuntzari eta literaturari buruzko bere adieren zenbait zertzelada» . . . . .	179-193
ELORRIAGA, Unai: «Bertsolaritza eta poesia» . . . . .	197-214
RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Leizarragaren «Regueri» gutuna. Azterketa erretorikoa» . . . . .	217-243

## Enseiukarrean 12 (1996)

«Editoriala» . . . . .	11-12
IRIGOIEN, Alfonso: «Bernat Etxepare-ren <i>Linguae vasconum primitiae</i> liburuaren 450 urte» . . . . .	17-20
ALTUNA, Patxi: «Etxepareren bertsogintzako legeak» . . . . .	21-28
KORTAZAR, Jon: «Bernard Detxepare: bidegurutzean» . . . . .	29-35
URRUTIA, Andrés: «Olerkaria lege autuetan: Etxepareren <i>Linguae vasconum primitiae</i> ikusmira juridikopean» . . . . .	36-51
GOITIA, Xabier: «Luteroren Biblia-itzulpena eta aleman hizkuntzaren batasuna» . . . . .	55-66
ALDAI GARAI, Gontzal: « <i>Refranes y Sentencias de 1596</i> : aditz sistema-ren inbentarioa» . . . . .	69-89
OTAEGI, Joan: «Zenbait sinbolo Gandiagaren <i>Elorri-n</i> » . . . . .	93-113
KALZAKORTA, Xabier: « <i>Acto para la Nochebuena</i> antzerkiaren zenbait pasartez» . . . . .	117-127
LOBERA REVILLA, Anjel: « <i>Tiempo de silencio</i> eleberriaz» . . . . .	131-167
ELORRIAGA, Unai: «Zenbait poema» . . . . .	171-174
ETXEBARRIA, José M. <sup>a</sup> : «Vienako euskal grabaketak. Zuberera» . . . . .	177-199
GARAI, Koldo Jule: «Maiatzko 25 Lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema» . . . . .	203-257
GONZÁLEZ ZAMANILLO, Guillermo: «Erronkarierako deklinabidea» . . . . .	261-285

## Gehigarriak

1. ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Edward Spencer Dodgson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko («Heuscarologus anglicanus» «Palamades»). 1857-1922. edota Edward Spencer Dodgson: Euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak», 1987.

2. ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel, ZOELLNER, Renate, MARTÍNEZ, M.<sup>a</sup>. Angeles: «William Wordsworth politikari eta poeta», edizio trilinguea, 1988.

## Egileen aurkibidea

- «Editoriala», 1, 1986, 2 or.  
 «Editoriala», 2, 1986, 1 or.  
 «Editoriala», 3, 1987, 2 or.  
 «Editoriala», 4, 1988, 1 or.  
 «Editoriala», 5, 1990, 9-10 or.  
 «Editoriala», 6, 1991, 9-11 or.  
 «Editoriala», 7, 1992, 11-13 or.  
 «Editoriala», 8, 1992, 9-10 or.  
 «Editoriala», 9, 1993, 11-13 or.  
 «Editoriala», 10, 1994, 11-13 or.  
 «Editoriala», 11, 1995, 11-12 or.  
 «Editoriala», 12, 1996, 11-12 or.  
 «Komikia: halabeharrik gabeko artea», 1, 1986, 8-11 or.  
 ABAITUA, Joseba: «Euskara eta linguistika konputazionala», 8, 1992, 49-51 or.  
 AGIRRE, Nuria: [Neguaren izotz ilunaren artean], 1, 1986, 20 or.  
 AGIRRE, Xabier: «Meteoro», 9, 1993, 179-183 or.  
 AIARZA, Patxi: «Maskaradakoekin hizketan», 1, 1986, 41-44 or.  
 AIARZA, Patxi: «Sorburuari hurbiltzen», 3, 1987, 105-109 or.  
 ALDAI GARAI, Gontzal: «Euskal aditz zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara», 10, 1994, 67-82 or.  
 ALDAI GARAI, Gontzal: «*Becussu* adizkia Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* obran», 11, 1995, 117-122 or.  
 ALDAI GARAI, Gontzal: «*Refranes y Sentencias de 1596*: aditz sistemaren inbentarioa», 12, 1996, 69-89 or.  
 ALDEKOA, Iñaki: «Joseba Sarrionaindiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta», 6, 1991, 113-118 or.  
 ALTUNA, Patxi: «Etxepareren bertsogintzako legeak», 12, 1996, 21-28 or.  
 ARRONATEGI AZURMENDI, Aloña: ikus ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz.  
 ARTZE, Joxean: «Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten dietela zuek bidalitako lehen hiru galderei. Ongi dagoela deritzot, olerkariak olerkien bidez erantzutea», 6, 1991, 15-22 or.  
 ASIER (Lubaki): ikus IRIGOIEN Joan Mari.  
 ATXA ELORDUI, M.G.: «“Undarain anderiaren kanta” edo “Maitia nun zira?” baladaren azterketa semiologikoa», 1, 1986, 47-52 or.  
 ATXAGA, Bernardo: «*Obabakoak*-en gainean», 5, 1990, 11-30 or.  
 BARRUTIA, Xabier: «Demokrazia eta manipulazioa», 5, 1990, 33-42 or.  
 BEDIAGA, Ion: ikus TURREZ, Itziar.  
 COSERIU, Eugenio / GARAI, Koldo Jule & MORALES, Ana Isabel (itz.): «Hizkuntza erromanikoen tipologia», 9, 1993, 17-47or.

- EGIDAZU, Jon: «Izenak eta adjetiboak automatikoki ateratzeko programa: bideak eta oztupoak», 4, 1988, 113-122 or.
- ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Migeltxo gauero ipuin ttipi bat...», 1, 1986, 53-57 or.
- ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Edward Spencer Dodgson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko ("Heuscarologus anglicanus" "Palamades"). 1857-1922. edota Edward Spencer Dodgson: Euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak», 2, 1986, 79-101 or.
- ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Marianne Moore (1887-1972). Ehun urte Misouriko poetisaren hitzek», 3, 1987, 85-91 or.
- ELKOROBerezibar, Miguel Angel, ZOELLNER, Renate, MARTÍNEZ, M.<sup>a</sup> Angeles: «William Wordsworth politikari eta poeta», edizio trilinguea, 1988.
- ELORRIAGA, Unai: «Ezpata txanpontzat», 10, 1994, 197-202 or.
- ELORRIAGA, Unai: «Bertsolaritza eta poesia», 11, 1995, 197-214 or.
- ELORRIAGA, Unai: «Zenbait poema», 12, 1996, 171-174 or.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberio haraneko galde-hitz izenorde eta erakusleen deklinabideaz», 5, 1990, 45-58 or.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberioko bertso-paperak», 9, 1993, 131-143 or.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Herri-euskeratik euskara batura», 10, 1994, 129-133 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Bizkaiera», 11, 1995, 93-114 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Zuberera», 12, 1996, 177-199 or.
- EZKIAGA, Patxi: «Poeta bizitzaren esploradorea da», 6, 1991, 25-43 or.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Patxo: «Truman Capote-ren *Gosaria Tiffany's*-en. Semantika bidetan», 10, 1994, 153-193 or.
- FERRERO, Elena & Olmo, Carlos de: «S.F. (Zientzi Fikzioa). Hurbilketa literarioa», 3, 1987, 65-77 or.
- FULLAONDO, Asier & IRIONDO, Mikel: «Eutrofizazioaren inguruan», 7, 1992, 17-45 or.
- GAMINDE, Iñaki: ikus GARIGORTA, Jose Ramon.
- GAMINDE, Iñaki: «Aoristoaren inguruan», 3, 1987, 17-27 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Sano-ren erabilera», 3, 1987, 29-33 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Erabili, Esan eta Eritzi mendebaldeko bizkaieraz», 4, 1988, 49-80 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Bokaleen asimilaziorako erregela fonologikoak bizkaiko euskeran», 9, 1993, 51-61 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa», 11, 1995, 125-149 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Esan baietz», 5, 1990, 85-87 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (I. parte)», 8, 1992, 165-219 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (II. parte)», 9, 1993, 81-127 or.

- GARAI, Koldo Jule: «Juan Jose Mogel-en Maiazko Lore bat», 10, 1994, 85-126 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Maiazko 25 Lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema», 12, 1996, 203-257 or.
- GARATE, Gotzon: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz Hitako artzapezaren eta Bernard Etxepare-ren bizitza eta idazlanetan», 1, 1986, 27-36 or.
- GARATE, Román: «Oroimena: herria, arkaikoa, historia», 7, 1992, 49-78 or.
- GARIGORTA, Jose Ramon & GAMINDE, Iñaki: «XVIII. mendeko otoitz batzu», 2, 1986, 61-65 or.
- GEZURAGA FORURIA, Goizalde: ikus ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz.
- Goitia, Xabier: «Luteroren Biblia-itzulpena eta aleman hizkuntzaren batasuna», 12, 1996, 55-66 or.
- GONZÁLEZ ZAMANILLO, Guillermo: «Erronkarierako deklinabidea», 12, 1996, 261-285 or.
- GORRI: «Arloteak», 1, 1986, 45 or.
- GORRI: «Arrano urdina», 1, 1986, 46 or.
- GORRI: [Astelehen euritsuen ikuslea], 1, 1986, 46 or.
- GUIJARRO, Amaia: «Omar Khayyam», 3, 1987, 79-84 or.
- HOYO, Enrique del & LARTATEGI, Josu & ZUBIZARRETA, Irene: «*Izuen gordelekuetan barrena*-ri hurbilketa semantikoa», 7, 1992, 81-115 or.
- IBARROLA, Aitor: «Richard Wilbur: ahots klasikoa izpiritu modernoan», 8, 1992, 155-162 or.
- IGERABIDE, Juan Kruz: «Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuak», 6, 1991, 47-57 or.
- IRASTORTZA, Tere: «Enseiucarrean», 6, 1991, 61-65 or.
- IRIGARAY, Jose Angel: «Olerkigintzak ez du zerikus zuzen edo mekanikorik eguneroko errealitatearekin, nahiz eta isladak ugariak izan eta harekiko mugan ibili», 6, 1991, 69-77 or.
- IRIGOIEN, Joan Mari & MINTEGI, Laura & SERRANO, Asier (Lubaki) & URRETABIZKAIA, Arantxa: «Idazte esperientziari buruzko mahai-ingurua», 10, 1994, 137-150 or.
- IRIGOIEN, Alfonso: «Bernat Etxepare-ren *Linguae vasconum primitiae* liburuaren 450 urte», 12, 1996, 17-20 or.
- IRIONDO, Mikel: ikus FULLAONDO, Asier.
- ISASI, Carmen / ELORRIAGA, Unai & FDEZ. DE LARRINOA, Patxo (Itz.): «Euskal lexikoaren historiarako oharra», 11, 1995, 83-89 or.
- ITURRIMITI: «Oihartzun itogarriak», 5, 1990, 117 or.
- JUARISTI, Felipe: «Galiziako eta Kataluniako literatura», 5, 1990, 61-71 or.
- JUARISTI, Felipe: «Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako», 6, 1991, 81-100 or.
- JUARISTI, Felipe: «Poesiari buruzko ene gogoetak fragmentarioak», 6, 1991, 101-103 or.
- KALTZAKORTA AZTORKIA, Nere: ikus ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz.
- KALZAKORTA, Xabier: «*Acto para la Nochebuena* antzerkiaren zenbait pasartez», 12, 1996, 117-127 or.
- KORTAZAR, Jon: «Bernard Detxepare: bidegurutzean», 12, 1996, 29-35 or.

- LAESPADA, Fabian: «Larru gorria zuen tren», 2, 1986, 71-72 or.
- LAKARRA, Joseba Andoni: «Euskara eta linguistika historikoa», 8, 1992, 19-24 or.
- LARTATEGI, Josu: ikus HOYO, Enrique del.
- LARTATEGI, Josu: «Lagunaren txerka», 5, 1990, 73 or.
- LARTATEGI, Josu: «Enseiukarrean aldizkariko aurkibide orokorra», 8, 1992, 223-236 or.
- LARTATEGI, Josu: «William B. yeats euskaraz edo eireann zaharrera bidaia», 9, 1993, 187-194 or.
- LOBERA REVILLA, Angel: «Hiztegien eta laguntzako liburuen bibliografia», 9, 1993, 65-78 or.
- LOBERA REVILLA, Anjel: «*Tiempo de silencio* eleberriaz», 12, 1996, 131-167 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Jose apirileko goiz batetaz», 2, 1986, 67-68 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Ez nuen ezagutzen», 3, 1987, 133-137 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Olerkiak», 8, 1992, 97-101 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Agian Unibertsoa», 11, 1995, 153-154 or.
- MAIZ, Maddi: «Erljiotik filosofiara», 3, 1987, 93-103 or.
- MANJON, Roberto: «Etxahun eta manikeismoa», 3, 1987, 5-16 or.
- MANJON, Roberto: «Edizioak zertan diren», 4, 1988, 33-47 or.
- MANJON, Roberto: «Zenbait gogoeta gaztelaniaz egindako nobelaren gainean (1936-1981)», 5, 1990, 75-84 or.
- MARTÍNEZ, M.<sup>a</sup> Angeles: ikus ELKOROBerezibar, Miguel Angel.
- MARTÍNEZ RUEDA, Fernando: «Ohizko burdin manufakturaketa eta gizarte harremanak», 7, 1992, 119-136 or.
- MAXIME, Annette: «Mintzodun Gizaki Zahar Agurgarri hori ez zaitez isil», 4, 1988, 3-12 or.
- MINTEGI, Laura: ikus IRIGOIEN, Joan Mari.
- MORALES, Ana Isabel: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren *Bihotz Ahula-n*», 5, 1990, 89-116 or.
- MORALES, Ana Isabel: «*Poemas & Híbridos*-en zehar eginiko gogoeta eroak», 8, 1992, 105-152 or.
- OLMO, Carlos de: ikus FERRERO, Elena.
- ORTIZ DE URBINA, Jon: «Euskara eta linguistika sortzailea», 8, 1992, 25-28 or.
- OTAEGI, Joan: «Herri kontalaria», 5, 1990, 119-127 or.
- OTAEGI, Joan: «Sinbologia Gandiagaren *Elorri-n*», 11, 1995, 157-176 or.
- OTAEGI, Joan: «Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri-n*», 12, 1996, 93-113 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Mahainguruaren aurkezpena», 8, 1992, 15-17 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.
- PENADES, Josu: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barrizatua», 4, 1988, 81-111 or.
- PENADES, Josu: «Gizatasunezko bizitza-ibilbidean kide», 7, 1992, 139-167 or.
- PENADES, Josu: «Lauaxeta: hizkuntzari eta literaturari buruzko bere adieren zenbait zertzelada», 11, 1995, 179-193 or.
- PERURENA, Patziku: «Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea», 6, 1991, 107-109 or.



- RIJK, Rudolf P.G. de: «Euskal hizkuntza eta bere tipologia», 4, 1988, 13-32 or.
- RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Leizarragaren «Regueri» gutuna. Azterketa erretorikoa», 11, 1995, 217-243 or.
- RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Loramendi euskaldun mistikoa», 9, 1993, 147-175 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Hinault ihauterietan neurriko etimoen bila», 1, 1986, 12-18 or.
- ROS KUBAS, Ander: «I.Toponimia Jardunaldiak. Mahasti batetan murgildurik», 1, 1986.
- ROS KUBAS, Ander: «Artxietimo baterako 15 ohar: gusano - izain - ziraun - zizari - bizio», 1, 1986, 58-62 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Aditz Morfologia Historikorako Ohar Kritikoak. Alokuzioa», 2, 1986, 5-54 or.
- ROS KUBAS, Ander: «*Gramática histórica provenzal*», 2, 1986, 121-123 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Ekdotika kartografikoa. Bilbo eta Arrigorriagako toponimia eta mapagintzaz», 3, 1987, 35-63 or.
- ROS KUBAS, Ander: «*Orotariko euskal hiztegia* (I. tomoa A - Ama). Mitxelenaren lan postumoa», 3, 1987, 111-199 or.
- ROS KUBAS, Ander: «*Euskal Hiztegi Historikoa*. Berandutik zetorren historia hiztegia», 3, 1987, 121-131 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Etimologia koitadu baten ustea egosten», 5, 1990, 131-134 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologia», 5, 1990, 135-146 or.
- ROTAETXE, Karmele: «Euskara eta linguistika estrukturalista», 8, 1992, 29-40 or.
- SAIAGO, Jon Andoni (El Loco Pascual): «Infernurako bidaia», 3, 1987, 139-149 or.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.<sup>a</sup> (Txepetx): «Euskara eta soziolinguistika», 8, 1992, 41-48 or.
- SANTANO, Xabier: «Europa, printzesa eder hori, bahitu ziguten egunean. Andres Ortiz-Oses-ekin solasean», 1, 1986, 21-26 or.
- SANTANO, Xabier: «Hitzaren iraganbidea: A. Ortiz-Oses-en azken liburuaz», 2, 1986, 107-115 or.
- SANTXO, Joseba: «Sarrionaindiaren olerkia aztergai», 5, 1990, 149-164 or.
- SANTXO, Joseba: «Pausalekua», 5, 1990, 165-166 or.
- SAUSSURE, Ferdinand de / URANGA, Mireia (itz.): «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa», 1, 1986, 37-40 or.
- Saussure, Ferdinand de / URANGA Mireia (itz.): «Zeinu linguistikoaren hautazko-tasuna», 2, 1986, 75-77 or.
- SEGURA, Ainhoa: «Malen», 10, 1994, 205-210 or.
- TURREZ, Itziar & BEDIAGA, Ion: «Euskal fonetikaren inguruan», 11, 1995, 73-80 or.
- UGARTEBURU, Iñaki: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulfo-ren kontagaia euskaraz)», 1, 1986, 3-7 or.
- URAGA, Bittor: «Barrutiaren *Acto para la Noche Buena* Latxagaren edizioari kritika», 2, 1986, 117-119 or.

- URAGA, Bittor: «Bilboko gauetan», 7, 1992, 171-191 or.
- URI, Mikel: «Mikel bizidun batek hainbat eraildutako Mikeli», 1, 1986, 63 or.
- URIBEETXEBARRIA, Mireia: [Suari so erre nituen begiak], 1, 1986, 19 or.
- URIZAR, Joseba A.(itz.): «E. Allan Poe-ren lan kritikoak», 2, 1986,57-59 or.
- URRETABIZKAI,A Arantxa: ikus IRIGOIEN Joan Mari.
- URRUTIA, Andrés: «Olerkaria lege autuetan: Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean», 12, 1996, 36-51 or.
- ZOELLNER, Renate: ikus ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel.
- ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz & GEZURAGA FORURIA, Goizalde & KALTZAKORTA AZTORKIA, Nere & ARRONATEGI AZURMENDI, Aloña: «Armonia bokalikoa: Markina», 8, 1992, 55-93 or.
- ZUBIZARRETA, Irene: ikus HOYO, Enrique del.
- ZUBIZARRETA, Irene: «*Denborak ez zuen nora* poema liburuari sarrera», 9, 1993, 197-204 or.
- ZULOAGA, Nerea: «Kriseiluaren itzaltze hura», 7, 1992, 195-200 or.

## Aurkibidea arloka

### Literatura

#### *Abestiak*

- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Bizkaiera», 11, 1995, 93-114 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Zuberera», 12, 1996, 177-199 or.

#### *Antzerkia*

- KALZAKORTA, Xabier: «*Acto para la Nochebuena* antzerkiaren zenbait pasartez», 12, 1996, 117-127 or.

#### *Bertsoak*

- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberioako bertso-paperak», 9, 1993, 131-143 or.

#### *Bertsolaritza*

- ELORRIAGA, Unai: «Bertsolaritza eta poesia», 11, 1995,197- 214 or.

#### *Dotrina*

- PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.

*Ipuinak*

- AGIRRE, Xabier: «Metereo», 9, 1993, 179-183 or.
- SAIAGO, Jon Andoni (El Loco Pascual): «Infernurako bidaia», 3, 1987, 139-149 or.
- ELKOROBerezibar, Miguel Angel: «Migeltxo gauero ipuin ttipi bat...», 1, 1986, 53-57 or.
- ELORRIAGA, Unai: «Ezpata txanpontzat», 10, 1994, 197-202 or.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Herri-euskeratik euskara batura», 10, 1994, 129-133 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Bizkaiera», 11, 1995, 93-114 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Zuberera», 12, 1996, 177-199 or.
- LAESPADA, Fabian: «Larru gorria zuen tren», 2, 1986, 71-72 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Ez nuen ezagutzen», 3, 1987, 133-137 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Jose apirileko goiz batetaz», 2, 1986, 67-68 or.
- SEGURA, Ainhoa: «Malen», 10, 1994, 205-210 or.
- ZULOAGA, Nerea: «Kriseiluaren itzaltze hur», 7, 1992, 195-200 or.

*Literatur kritika*

- ALDEKOA, Iñaki: «Joseba Sarrionaindiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta», 6, 1991, 113-118 or.
- ALTUNA, Patxi: «Etxepareren bertsogintzako legeak», 12, 1996, 21-28 or.
- ATXA ELORDUI, M.G.: «“Undarain anderiaren kanta” edo “Maitia nun zira?” baladaren azterketa semiologikoa», 1, 1986, 47-52 or.
- ATXAGA, Bernardo: «*Obabakoak*-en gainean», 5, 1990, 11-30 or.
- ELKOROBerezibar, Miguel Angel, ZOELLNER, Renate, MARTÍNEZ, M<sup>a</sup> Angeles: «William Wordsworth politikari eta poeta», edizio trilinguea, 1988.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Patxo: «Truman Capote-ren *Gosaria Tiffany's*-en. Semantika bidetan», 10, 1994, 153-193 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (I. parte)», 8, 1992, 165-219 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (II. parte)», 9, 1993, 81-127 or.
- GARATE, Gotzon: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz Hitako artzapezaren eta Bernard Etxepare-ren bizitza eta idazlanetan», 1, 1986, 27-36 or.
- GOITIA, Xabier: «Luteroren Biblia-itzulpena eta aleman hizkuntzaren batasuna», 12, 1996, 55-66 or.
- HOYO, Enrique del & LARTATEGI, Josu & ZUBIZARRETA, Irene: «*Izuen gordelekuetan barrena*-ri hurbilketa semantikoa», 7, 1992, 81-115 or.
- IBARROLA, Aitor: «Richard Wilbur: ahots klasikoa izpiritu modernoan», 8, 1992, 155-162 or.
- KALZAKORTA, Xabier: «*Acto para la Nochebuena* antzerkiaren zenbait pasartez», 12, 1996, 117-127 or.
- KORTAZAR, Jon: «Bernard Detxepare: bidegurutzean», 12, 1996, 29-35 or.

- LOBERA REVILLA, Anjel: «*Tiempo de silencio* eleberriaz», 12, 1996, 131-167 or.
- MANJON, Roberto: «Etxahun eta manikeismoa», 3, 1987, 5-16 or.
- MORALES, Ana Isabel: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren *Bihotz Ahula*-n», 5, 1990, 89-116 or.
- MORALES, Ana Isabel: «*Poemas & Híbridos*-en zehar eginiko gogoeta eroak», 8, 1992, 105-152 or.
- OTAEGI, Joan: «Herri kontalaria», 5, 1990, 119-127 or.
- OTAEGI, Joan: «Sinbologia Gandiagaren *Elorri*-n», 11, 1995, 157-176 or.
- OTAEGI, Joan: «Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri*-n», 12, 1996, 93-113 or.
- RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Loramendi euskaldun mistikoa», 9, 1993, 147-175 or.
- RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Leizarragaren «Regueri» gutuna. Azterketa erretorikoa», 11, 1995, 217-243 or.
- SANTXO, Joseba: «Sarrionaindiaren olerkia aztergai», 5, 1990, 149-164 or.
- URRUTIA, Andrés: «Olerkaria lege autuetan. Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean», 12, 1996, 36-51 or.
- ZUBIZARRETA, Irene: «*Denborak ez zuen nora* poema liburuari sarrera», 9, 1993, 197-204 or.

### Olerkia

- AGIRRE, Nuria: [Neguaren izotz ilunaren artean], 1, 1986, 20 or.
- ALDEKOA, Iñaki: «Joseba Sarrionaindiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta», 6, 1991, 113-118 or.
- ALTUNA, Patxi: «Etxepareren bertsogintzako legeak», 12, 1996, 21-28 or.
- ARTZE, Joxean: «Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten dietela zuek bidalitako lehen hiru galdereri. Ongi dagoela deritzot, olerkariak olerkien bidez erantzutea», 6, 1991, 15-22 or.
- ELORRIAGA, Unai: «Bertsolaritza eta poesia», 11, 1995, 197-214 or.
- ELORRIAGA, Unai: «Zenbait poema», 12, 1996, 171-174 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Esan baietz», 5, 1990, 85-87 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (I. partea)», 8, 1992, 165-219 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (II. partea)», 9, 1993, 81-127 or.
- GARATE, Gotzon: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz Hitako artzapezaren eta Bernard Etxepare-ren bizitza eta idazlanetan», 1, 1986, 27-36 or.
- GORRI: «Arloteak», 1, 1986, 45 or.
- GORRI: «Arrano urdina», 1, 1986, 46 or.
- GORRI: [Astelehen euritsuen ikuslea], 1, 1986, 46 or.
- HOYO, Enrique del & LARTATEGI, Josu & ZUBIZARRETA, Irene: «*Izuen gordelekuetan barrena*-ri hurbilketa semantikoa», 7, 1992, 81-115 or.
- ITURRIMITI: «Oihartzun itogarriak», 5, 1990, 117 or.
- KORTAZAR, Jon: «Bernard Dextepare: bidegurutzean», 12, 1996, 29-35 or.
- LARTATEGI, Josu: «Lagunaren txerka», 5, 1990, 73 or.
- MADARIAGA, Juanra: «Agian Unibertsoa», 11, 1995, 153-154 or.

- MADARIAGA, Juanra: «Olerkiak», 8, 1992, 97-101 or.
- MORALES, Ana Isabel: «*Poemas & Híbridos*-en zehar eginiko gogoeta eroak», 8, 1992, 105-152 or.
- OTAEGI, Joan: «Herri kontalaria», 5, 1990, 119-127 or.
- OTAEGI, Joan: «Sinbologia Gandiagaren *Elorri*-n», 11, 1995, 157-176 or.
- OTAEGI, Joan: «Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri*-n», 12, 1996, 93-113 or.
- RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Loramendi euskaldun mistikoa», 9, 1993, 147-175 or.
- SANTXO, Joseba: «Pausalekua», 5, 1990, 165-166 or.
- SANTXO, Joseba: «Sarrionaindiaren olerkia aztergai», 5, 1990, 149-164 or.
- URAGA, Bittor: «Bilboko gauetan», 7, 1992, 171-191 or.
- URI, Mikel: «Mikel bizidun batek hainbat eraildutako Mikeli», 1, 1986, 63 or.
- URIBETXEBARRIA, Mireia: [Suari so erre nituen begiak], 1, 1986, 19 or.
- ZUBIZARRETA, Irene: «*Denborak ez zuen nora* poema liburuari sarrera», 9, 1993, 197-204 or.

### *Otoitzak*

- GARIGORTA, Jose Ramon & GAMINDE, Iñaki: «XVIII. mendeko otoitz batzu», 2, 1986, 61-65 or.

### *Pastoralak*

- MANJON, Roberto: «Etxahun eta manikeismoa», 3, 1987, 5-16 or.

### *Saiakera*

- EZKIAGA, Patxi: «Poeta bizitzaren esploradorea da», 6, 1991, 25-43 or.
- IGERABIDE, Juan Kruz: «Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuk», 6, 1991, 47-57 or.
- IRASTORTZA, Tere: «Enseiucarrean», 6, 1991, 61-65 or.
- IRIGARAY, Jose Angel: «Olerkigintzak ez du zerikus zuzen edo mekanikorik eguneroko errealitatearekin, nahiz eta isladak ugariak izan eta harekiko mugan ibili», 6, 1991, 69-77 or.
- IRIGOIEN, Joan Mari & MINTEGI, Laura & Asier (Lubaki) & URRETABIZKAIA, Arantxa: «Idazte esperientziari buruzko mahai-ingurua», 10, 1994, 137-150 or.
- JUARISTI, Felipe: «Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako», 6, 1991, 81-100 or.
- JUARISTI, Felipe: «Poesiari buruzko ene gogoetak fragmentarioak», 6, 1991, 101-103 or.
- LARTATEGI, Josu: «William B. yeats euskaraz edo eireann zaharrera bidaia», 9, 1993, 187-194 or.
- PENADES, Josu: «Lauaxeta: hizkuntzari eta literaturari buruzko bere adieren zenbait zertzelada», 11, 1995, 179-193 or.
- PERURENA, Patziku: «Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea», 6, 1991, 107-109 or.

*Testukritika*

GARAI, Koldo Jule: «Juan Jose Mogel-en *Maiazko Lore* bat», 10, 1994, 85-126 or.

GARAI, Koldo Jule: «Maiazko 25 Lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema», 12, 1996, 203-257 or.

*Itzulpena eta itzulpengintza*

ELORRIAGA, Unai & FDEZ. DE LARRINOA, Patxo (Itz.) / ISASI, Carmen: «Euskal lexi-koaren historiarako oharra», 11, 1995, 83-89 or.

GOITIA, Xabier: «Luteroren Biblia-itzulpena eta aleman hizkuntzaren batasuna», 12, 1996, 55-66 or.

UGARTEBURU, Iñaki: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulfo-ren kontagaia euskaraz)», 1, 1986, 3-7 or.

URANGA, Mireia (itz.) / SAUSSURE, Ferdinand de: «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa», 1, 1986, 37-40 or.

URANGA, Mireia (itz.) / SAUSSURE, Ferdinand de: «Zeinu linguistikoaren hautazko-tasuna», 2, 1986, 75-77 or.

URIZAR, Joseba A. (itz.): «E. Allan Poe-ren lan kritikoak», 2, 1986, 57-59 or.

**Hizkuntzalaritza***Fonetika-fonologia*

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Herri-euskeratik euskara batura», 10, 1994, 129-133 or.

ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Bizkaiera», 11, 1995, 93-114 or.

ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Zuberera», 12, 1996, 177-199 or.

GAMINDE, Iñaki: «Bokaleen asimilaziorako erregela fonologikoak bizkaiko euskararen», 9, 1993, 51-61 or.

GAMINDE, Iñaki: «Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa», 11, 1995, 125-149 or.

PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.

ROS KUBAS, Ander: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologia», 5, 1990, 135-146 or.

TURREZ, Itziar & BEDIAGA, Ion: «Euskal fonetikaren inguruan», 11, 1995, 73-80 or.

ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz & GEZURAGA, FORURIA Goizalde & KALTZAKORTA AZTORKIA, Nere & ARRONATEGI AZURMENDI, Aloña: «Armonia bokalikoa: Markina», 8, 1992, 55-93 or.

*Dialektologia*

ALDAI GARAI, Gontzal: «Becussu adizkia Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* obran», 11, 1995, 117-122 or.

- ALDAI GARAI, Gontzal: «Euskal aditz zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara», 10, 1994, 67-82 or.
- ALDAI GARAI, Gontzal: «*Refranes y Sentencias de 1596*: aditz sistemaren inbentarioa», 12, 1996, 69-89 or.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberio haraneko galde-hitz izenorde eta erakusleen deklinabideaz», 5, 1990, 45-58 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Bizkaiera», 11, 1995, 93-114 or.
- ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Zuberera», 12, 1996, 177-199 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Erabili, Esan eta Eritzi mendebaldeko bizkaieraz», 4, 1988, 49-80 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Aoristoaren inguruan», 3, 1987, 17-27 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Bokaleen asimilaziorako erregela fonologikoak bizkaiko euskaran», 9, 1993, 51-61 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa», 11, 1995, 125-149 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Sano-ren erabilera», 3, 1987, 29-33 or.
- GARAI, Koldo Jule: «Maiazko 25 Lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema», 12, 1996, 203-257 or.
- GONZÁLEZ ZAMANILLO, Guillermo: «Erronkarierako deklinabidea», 12, 1996, 261-285 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Aditz Morfologia Historikorako Ohar Kritikoak. Alokuzioa», 2, 1986, 5-54 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologia», 5, 1990, 135-146 or.
- TURREZ, Itziar & BEDIAGA, Ion: «Euskal fonetikaren inguruan», 11, 1995, 73-80 or.
- ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz & GEZURAGA, FORURIA Goizalde & KALTZAKORTA AZTORKIA, Nere & ARRONATEGI AZURMENDI, Aloña: «Armonia bokalikoa: Markina», 8, 1992, 55-93 or.

### *Morfologia*

- ALDAI GARAI, Gontzal: «*Becussu* adizkia Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* obran», 11, 1995, 117-122 or.
- ALDAI GARAI, Gontzal: «Euskal aditz zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara», 10, 1994, 67-82 or.
- ALDAI GARAI, Gontzal: «*Refranes y Sentencias de 1596*: aditz sistemaren inbentarioa», 12, 1996, 69-89 or.
- ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberio haraneko galde-hitz izenorde eta erakusleen deklinabideaz», 5, 1990, 45-58 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Aoristoaren inguruan», 3, 1987, 17-27 or.
- GAMINDE, Iñaki: «Sano-ren erabilera», 3, 1987, 29-33 or.
- GAMINDE, Iñaki: «*Erabili, Esan eta Eritzi* mendebaldeko bizkaieraz», 4, 1988, 49-80 or.

- GARAI, Koldo Jule: «Maiazko 25 Lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema», 12, 1996, 203-257 or.
- GONZÁLEZ ZAMANILLO, Guillermo: «Erronkarierako deklinabidea», 12, 1996, 261-285 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Aditz Morfologia Historikorako Ohar Kritikoak. Alokuzioa», 2, 1986, 5-54 or.

### *Hiztegi gintza*

- ISASI, Carmen / ELORRIAGA, Unai & FDEZ. DE LARRINOA, Patxo (Itz.): «Euskal lexikoa-ren historiarako oharra», 11, 1995, 83-89 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Etimologia koitadu baten ustea egosten», 5, 1990, 131-134 or.
- URRUTIA, Andrés: «Olerkaria lege autuetan: Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean», 12, 1996, 36-51 or.

### *Euskararen historia*

- PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.

### *Sintaxia*

- PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.

### *Etimologia*

- ROS KUBAS, Ander: «Hinault ihauterietan neurriko etimoen bila», 1, 1986, 12-18 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Artxietimo baterako 15 ohar: gusano - izain - ziraun - zizari - bizio», 1, 1986, 58-62 or.
- ROS KUBAS, Ander: «Etimologia koitadu baten ustea egosten», 5, 1990, 131-134 or.

### *Toponimia*

- ROS KUBAS, Ander: «I. Toponimia Jardunaldiak. Mahasti batetan murgildurik», 1, 1986.
- ROS KUBAS, Ander: «Ekdotika kartografikoa. Bilbo eta Arrigorriagako toponimia eta mapagintza», 3, 1987, 35-63 or.

### *Hizkuntzalaritza orokorra*

- ABAITUA, Joseba: «Euskara eta linguistika konputazionala», 8, 1992, 49-51 or.
- COSERIU, Eugenio / GARAI, Koldo Jule & MORALES, Ana Isabel (itz.): «Hizkuntza erromanikoen tipologia», 9, 1993, 17-47 or.



- EGIDAZU, Jon: «Izenak eta adjetiboak automatikoki ateratzeko programa: bideak eta oztopoak», 4, 1988, 113-122 or.
- LAKARRA, Joseba Andoni: «Euskara eta linguistika historikoa», 8, 1992, 19-24 or.
- MAXIME, Annette: «Mintzodun Gizaki Zahar Agurgarri hori ez zaitez isil», 4, 1988, 3-12 or.
- ORTIZ DE URBINA, Jon: «Euskara eta linguistika sortzailea», 8, 1992, 25-28 or.
- RIJK, Rudolf P.G. de: «Euskal hizkuntza eta bere tipologia», 4, 1988, 13-32 or.
- ROTAETXE, Karmele: «Euskara eta linguistika estrukturalista», 8, 1992, 29-40 or.
- SAUSSURE, Ferdinand de / URANGA, Mireia (itz.): «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa», 1, 1986, 37-40 or.
- SAUSSURE, Ferdinand de / URANGA Mireia (itz.): «Zeinu linguistikoaren hautazkotasuna», 2, 1986, 75-77 or.

### *Soziolinguistika*

- SANCHEZ CARRIÓN, J.M.<sup>a</sup> (Txepetx): «Euskara eta soziolinguistika», 8, 1992, 41-48 or.

### *Erreseina*

- ROS KUBAS, Ander: «*Gramática histórica provenzal*», 2, 1986, 121-123 or.
- ROS KUBAS, Ander: «*Orotariko euskal hiztegia* (I. tomoa A - Ama). Mitxelena-  
lan postumoa», 3, 1987, 111-199 or.
- ROS KUBAS, Ander: «*Euskal Hiztegi Historikoa*. Berandutik zetorren historia hiztegia», 3, 1987, 121-131 or.

## **Bestelakoak**

### *Aurkezpena*

- IRIGOIEN, Alfonso: «Bernat Echebare-ren *Linguae vasconum primitiae* liburuaren 450 urte», 12, 1996, 17-20 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Mahainguruaren aurkezpena», 8, 1992, 15-17 or.

### *Aurkibidea*

- LARTATEGI, Josu: «Enseiukarrean aldizkariko aurkibide orokorra», 8, 1992, 223-236 or.

### *Bibliografia*

- LOBERA REVILLA, Angel: «Hiztegien eta laguntzako liburuen bibliografia», 9, 1993, 65-78 or.
- PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.

*Biografia*

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel: «Edward Spencer Dodgson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko («Heuscarologus anglicanus» «Palamades»). 1857-1922. edota Edward Spencer Dodgson: Euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak», 2, 1986, 79-101 or.

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel: «Edward Spencer Dodgson-en identitateari buMiguel Angel, ZOELLNER, Renate, MARTÍNEZ, M.<sup>a</sup> Angeles: «William Wordsworth politikari eta poeta», edizio trilinguea, 1988.

PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.

PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.

PENADES, Josu: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barrizatua», 4, 1988, 81-111 or.

*Biologia*

FULLAONDO, Asier & IRIONDO, Mikel: «Eutrofizazioaren inguruan», 7, 1992, 17-45 or.

*Editoriala*

«Editoriala», 1, 1986, 2 or.

«Editoriala», 2, 1986, 1 or.

«Editoriala», 3, 1987, 2 or.

«Editoriala», 4, 1988, 1 or.

«Editoriala», 5, 1990, 9-10 or.

«Editoriala», 6, 1991, 9-11 or.

«Editoriala», 7, 1992, 11-13 or.

«Editoriala», 8, 1992, 9-10 or.

«Editoriala», 9, 1993, 11-13 or.

«Editoriala», 10, 1994, 11-13 or.

«Editoriala», 11, 1995, 11-12 or.

«Editoriala», 12, 1996, 11-12 or.

*Ekonomia*

BARRUTIA, Xabier: «Demokrazia eta manipulazioa», 5, 1990, 33-42 or.

*Elkarrizketa*

AIARZA, Patxi: «Maskaradakoekin hizketan», 1, 1986, 41-44 or.

*Komikia*

«Komikia: halabeharrik gabeko artea», 1, 1986, 8 or.

*Filosofia*

MAIZ, Maddi: «Erlijiotik filosofiara», 3, 1987, 93- 103 or.

GARATE, Román: «Oroimena: herria, arkaikoa, historia», 7, 1992, 49-78 or.

*Historia*

PENADES, Josu: «Joannes Leizarraga eta XVI gizaldiko euskal protestantismo barrizatua», 4, 1988, 81-111 or.

MARTINEZ RUEDA, Fernando: «Ohizko burdin manufakturaketa eta gizarte harremanak», 7, 1992, 119-136 or.

*Teologia*

PENADES, Josu: «Gizatasunezko bitziza-ibilbidean kide»7, 1992, 139-167 or.

**Idazle, idazlan eta lekuen aurkibidea****Gabriel Aresti****- *Maldan Behera***

GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (I. parte)», 8, 1992, 165-219 or.

GARAI, Koldo Jule: «Johannes Jesus Salbagile Gabriel Arestiren *Maldan Beheraz* (II. parte)», 9, 1993, 81-127 or.

**Arrigorriaga**

ROS KUBAS, Ander: «Ekdotika kartografikoa. Bilbo eta Arrigorriagako toponimia eta mapagintzaz», 3, 1987, 35-63 or.

**Barrutia****- *Acto para la Nochebuena***

ALDAI GARAI, Gontzal: «Becussu adizkia Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* obran», 11, 1995, 117-122 or.

URAGA, Bittor: «Barrutiaren *Acto para la Noche Buena* Latxagaren edizioari kritika», 2, 1986, 117-119 or.

KALZAKORTA, Xabier: «*Acto para la Nochebuena* antzerkiaren zenbait pasartez», 12, 1996, 117-127 or.

**Juan de Beriain**

PAGOLA, Rosa Miren: «Beriainen Dotrina», 11, 1995, 15-69 or.

**Bilbo**

ROS KUBAS, Ander: «Ekdotika kartografikoa. Bilbo eta Arrigorriagako toponimia eta mapagintzaz», 3, 1987, 35-63 or.

### **Louis Lucien Bonaparte**

ROS KUBAS, Ander: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologia», 5, 1990, 135-146 or.

### **Hagège Claude**

MAXIME, Annette: «Mintzodun Gizaki Zahar Agurgarri hori ez zaitez isil», 4, 1988, 3-12 or.

### **Edward Spencer Dogson**

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel: «Edward Spencer Dogson-en identitateari buMiguel Angel: «Edward Spencer Dogson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko («Heuscarologus anglicanus» «Palamades»). 1857-1922. edota Edward Spencer Dogson: Euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak», 2, 1986, 79-101 or.

### **Pierre Topet-Echahun**

MANJON, Roberto: «Etxahun eta manikeismoa», 3, 1987, 5-16 or.

### **Francisco Elizalde**

PAGOLA, Rosa Miren: «Elizalderen Dotrina», 10, 1994, 17-63 or.

### **Bernad Etxepare**

ALTUNA, Patxi: «Etxepareren bertsozintzako legeak», 12, 1996, 21-28 or.

GARATE, Gotzon: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz Hitako artzapezaren eta Bernard Etxepare-ren bizitza eta idazlanetan», 1, 1986, 27-36 or.

IRIGOIEN, Alfonso: «Bernat Etxepare-ren *Linguae vasconum primitiae* liburua 450 urte», 12, 1996, 17-20 or.

KORTAZAR, Jon: «Bernard Etxepare: bidegurutzean», 12, 1996, 29-35 or.

URRUTIA, Andrés: «Olerkaria lege autuetan: Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean», 12, 1996, 36-51 or.

### **Euskal Hiztegi Historikoa**

ROS KUBAS, Ander: «Euskal Hiztegi Historikoa. Berandutik zetorren historia hiztegia», 3, 1987, 121-131 or.

## **Bitoriano Gandiaga**

### **- Elorri**

OTAEGI, Joan: «Sinbologia Gandiagaren *Elorri*-n», 11, 1995, 157-176 or.

OTAEGI, Joan: «Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri*-n», 12, 1996, 93-113 or.

## **Gatika**

GAMINDE, Iñaki: «Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa», 11, 1995, 125-149 or.

## **Juan Mari Irigoien**

### **- Denborak ez zuen nora**

ZUBIZARRETA, Irene: «*Denborak ez zuen nora* poema liburuari sarrera», 9, 1993, 197-204 or.

## **Lauaxeta**

PENADES, Josu: «Lauaxeta: hizkuntzari eta literaturari buruzko bere adieren zenbait zertzelada», 11, 1995, 179-193 or.

## **Joannes Leizarraga**

PENADES, Josu: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barriztatua», 4, 1988, 81-111 or.

RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Leizarragaren «Regueri» gutuna. Azterketa erretorikoa», 11, 1995, 217-243 or.

## **Loramendi**

RODRÍGUEZ MIÑAMBRES, Paloma: «Loramendi euskaldun mistikoa», 9, 1993, 147-175 or.

## **Markina**

ZUBIAUR ETXEBERRI, Estibaliz & GEZURAGA FORURIA, Goizalde & KALTZAKORTA AZTORKIA, Nere & ARRONATEGI AZURMENDI, Aloña: «Armonia bokalikoa: Markina», 8, 1992, 55-93 or.

## **Juan Jose Moguel**

### **- *Mayatz-illeraco berba-aldijac***

GARAI, Koldo Jule: «Juan Jose Mogel-en *Maiazko Lore* bat», 10, 1994, 85-126 or.

GARAI, Koldo Jule: «Maiazko 25 Lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema», 12, 1996, 203-257 or

## **Obabakoak**

ATXAGA, Bernardo: «*Obabakoak*-en gainean», 5, 1990, 11-30 or.

## **Orixe**

### **- *Euskaldunak***

OTAEGI, Joan: «Herri kontalaria», 5, 1990, 119-127 or.

## **Orotariko Euskal Hiztegia**

ROS KUBAS, Ander: «*Orotariko euskal hiztegia* (I. tomoa A - Ama). Mitxelenaren lan postumo», 3, 1987, 111-199 or.

## **Poemas & Híbridos**

MORALES, Ana Isabel: «*Poemas & Híbridos*-en zehar eginiko gogoeta eroak», 8, 1992, 105-152 or.

## **Refranes y Sentencias**

ALDAI GARAI, Gontzal: «*Refranes y Sentencias de 1596*: aditz sistemaren inbentarioa», 12, 1996, 69-89 or.

## **Trebitsch Rudolph**

ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Bizkaiera», 11, 1995, 93-114 or.

ETXEBARRIA, José M.<sup>a</sup>: «Vienako euskal grabaketak. Zuberera», 12, 1996, 177-199 or

## Juan Rulfo

UGARTEBURU, Iñaki: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulfo-ren kontagaia euskaraz)», 1, 1986, 3-7 or.

## Joseba Sarrionandia

SANTXO, Joseba: «Sarrionaindiaren olerkia aztergai», 5, 1990, 149-164 or.

ALDEKOA, Iñaki: «Joseba Sarrionaindiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta», 6, 1991, 113-118 or.

HOYO, Enrique del & LARTATEGI, Josu & ZUBIZARRETA, Irene: «*Izuen gordelekuetan barrena*-ri hurbilketa semantikoa», 7, 1992, 81-115 or.

## «Undurain anderiaren kanta» edo «Maitia nun zira?»

ATXA ELORDUI, M.G.: «“Undurain anderiaren kanta” edo “Maitia nun zira?” baladaren azterketa semiologikoa», 1, 1986, 47-52 or.

## Urduliz

GAMINDE, Iñaki: «Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa», 11, 1995, 125-149 or.

## William Wordsworth

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel, ZOELLNER, Renate, MARTÍNEZ, M.<sup>a</sup> Angeles: «William Wordsworth politikari eta poeta», edizio trilinguea, 1988.

## Zeberio

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: «Zeberio haraneko galde-hitz izenorde eta erakusleen deklinabidez», 5, 1990, 45-58 or.

— Izenbururik gabeko olerkiak «[ ]» bidez eman ditugu, olerkiaren lehenengo bertso-lerroa izenburutzat hartuz.

— ELORRIAGA, Unai: «Zenbait poema», 12, 1996, 171-174 or. Honen azpian izenbururik gabeko olerki bilduma jasotzen da.

# Enseiukarrean



Deustuko  
Unibertsitatea

• • • • • • • •